



KARDABERAZ

*Erreka zuloan eta...*

*Albisu ta Ayerdi-tar Anastasio*

76 15,000  
97

# KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º KARDABERAZ AITARI OMENALDIA  
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onaindia eta abar).
- 2.º NEURRIZTIA  
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
- 3.º SUGE GORRI  
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
- 4.º ESPALAK  
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
- 5.º AITONAREN IPUIAK  
(Ramon Murua).
- 6.º ERREKA-ZULOAN eta...  
(Anastasio Albisu Ayerdi).
- 7.º 1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE  
(Larrakoetxea, Bedita).
- 8.º LANDARE-JAKINTZA  
(Larrañaga, Gillermo).
- 9.º GARTZI-XIMENO eta...  
(A. Albisu Ayerdi).
- 10.º EUSKALERRIA ETA ERIOTZA  
(Anastasio Arrinda Albisu).
- 11.º 2 - KOMEDIAK
- 12.º 3 - DRAMAK
- 13.º 4 - DRAMAK
- 14.º 5 - TRAJEDIAK
- 15.º 6 - TRAJEDIAK

} SHAKESPEARE

# KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º KARDABERAZ
- 2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
- 3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK  
(A. Arrinda).
- 4.º KARDABERAZ - 2.



KARDABERAZ BILDUMA - 6  
ERREKA ZULOAN  
ETA..

**KIRIKIÑO**  
EUSKAL LIBURUAK  
Colón de Larreategui, 11  
(Galerias Bilbao)  
Urrut. 424 11 74 Teléf.  
BILBAO - 48001

KARDABERAZ BILDUMA - 6



**Erreka zuloan  
eta...**

*ALBISU TA AYERDI-TAR ANASTASIO*

*L* ziztaizkidan nere aita ta amari  
eta bizi zaizkidan nere anai  
ta arrebari.

|                                 |     |
|---------------------------------|-----|
| I — ERREKA ZULOAN...! ... ..    | 9   |
| II — MOSKORRA PARREGARRI ...    | 77  |
| III — JERUSALEN-ERA ERROMES ... | 131 |
| IV — NEKALDIA ... ..            | 197 |
| V — IPUIAK ... ..               | 219 |
| VI — IPUI-ANTZERKITXOAK ... ..  | 239 |
| VII — OROIGARRI ... ..          | 325 |

**I.**  
**ERREKA-ZULOAN...!**

Ardiak bildu-ta, etxeruntz zetorren Azalgorta-ko Miel. Ez zan artean berandu. Illuntzerako etxean izan oi zan beti Miel... Eskuan zekarren makillakin sasi batzuek baztatu, ta erreka-zulo aldera artu zuan arratsalde artan. Gutxitan ba-zan, ere, iñoiz ibilli oi zan bide artatik ere. Zoritxarrez, ordea, egun artan...!

Ez zuan ark erreka-zuloan alako gauzarik arkitu bear zuanik uste Gorri zeuden erreka-zuloko potzuak. Odol gorritz gorrituak. Eta erreka-ertzean, illotzik, neskatxa gazte baten gorputza...! Ez zitzaion luzaro begira egon. Iñork bide artan ikusiko ote zuan bildurrez, laisterkari eman zion Miel-ek.

Txuri-txuri sartu zan etxera. An zeuden, sukaldean, Erramona, bere emaztea. ta Ana ta Manuela bere alabak. Esnea jeisten ari zan ikulluan Joxe, morroia. "Gabon onak" ozta-ozta eman, eta sukalde-baztarreko aulki batean jarri zan Miel. Esku-arteaz zeukan burua.

Aita onela ikusi-ta, ez zuten itzik emazte-alabak. Ango ixiltasuna...! Zer ote zuan, egun artan, gizon ark...?

—Zer dezu, Miel, galdetu zion, beingo-batez, emazteak. Ez al-zeude ondo...? Okerren bat izan al-dezu...?

Alperrik...! Illuntze artan ez zuan Miel-ek erantzunik...

\* \* \*

Joxe-k bere lanak amaitu zituanerako, gertu zan afaria. Aita ez zan bere aulkitik jeiki. Burua esku-arteaz, egon zan aiek afaldu artean. Afari ituna ura. Azalgorta-n, egun artaraño, izan ez zan bezelakoa. Iñok ez zuan itzik esan.

Errosario santua errezatu, ta oera bialdu zituan, Erramona-k, alabak eta morroia.

\* \* \*

Aurrera zijoan gaua. Bere senarraren ondoan jarri zan Erramona. Ez ote zion itz-eragingo...?

—Zer dezu, Miel..., galdetu zion.

—Ezer ez...! erantzun zion.

—Eta zer dala-ta zaude onela...?

—Zer dala-ta...? Ez dakizute zer-zoritxar datorkizuten zuen gaiñera. Izan ere, zergatik artu ote det nik, gaur, bide ori...? Ai, Erramona...! Ez da gaurtik zorionik izango Azalgorta-n...!

—Zer gertatzen da, ba...?

—Ixilik gordeko didazulakoan esaten dizut. Neskatxa baten gorputza dago illotzik erreka-zuloan. Norbaitek il du neskatxa gazte ura..., ta gu izango gera eriotz-egilleak...!

—Gu...? Zergatik gu...?

—Gure sallean dagolako, ta beste iñor ibilli ez dalako inguru aietan.

—Bañan zer diozu Miel...?

—Bai, Erramona. Gauza auek onela izan oi dira. Orren berri jakiten dan bezain laister, nere billa etorriko dira.

—Zure billa...? Ez dezu orrelakorik esan bear Miel...!

—Bai, Erramona, bai... Eta ni izango naiz eriotz-egillea, besterik agertzen ez dan artean, beintzat... Eriotz-egille baten emaztea izango zera zu, eriotz-egille baten alabak, Ana ta Manuela.

—Ez, Miel!

—Bai, Erramona. Onelakoa izan oi da gizonen zuzentasuna. Nere harua urkamendian ez ote dedan ikusi bear, bildur naiz. Ai, Erramona...! Zuek izan ez ba-ziñate, ez zuten, gaurtik, nere berririk errian izango. Iges egingo nuan.

—Nora, ordea...?

—Nik zer dakit, ba, nora...! Emen geldituta ere, ondamentia besterik ez degu izango. Ai, Erramona, auek egunak etorri zaizkigu.

—Eta zure billa etorriko ote dira, ba...?

—Bai, Erramona. Ez zazu orren dudarik izan. Nik billatu det gorputza,

nere sallean dago, ez da errudun izan leikenik, beste iñor agiri... Noren billa etorriko dira, ba, nere billa etortzen ez ba-dira...?  
—Eta zergatik ez dezu oraintxe, iges egiten, Miel...?

\* \* \*

Eta onelakoxe jardunean igaro zuten Azalgorta-ko senar-emazteak gau tamalgarri ura. Ez zuten lo geiago egin Ana-k eta Manuela-k. Joxe marroiak, bai. Ura ez izaki Azalgorta-ko Miel-en semea...!

Gau artan, zoritxarrez, ez zan Azalgorta-ko sukaldean argirik itzali...



## II

Azalgorta...! Beste asko izan oi diran bezelako basarria dezu, irakurle. Ez aberats-aberatsa, ez txiro-txiroa ere. Baztar onak ditu. Ba-du baso-koxkor bat ere. Esne-bei batzuen jabe, ere, ba-da. Ez da, Euskal-erria-n, ollategirik ez duan basarririk, ta Azalgorta-k ere ba-du bere ollategia. Ta ollategiaz gañera ba-du Azalgorta-k mendi gaiñean, beste txabola bat ere. Txabola ontara bildu oi du Azalgorta-ko nagusiak berea duan artaldetxoa. Orixe dezu ba, irakurle, Azalgorta-ko aberastasuna...!

\* \* \*

Ezagunak dituzu bertako biztanleak: Miel dezu etxeko nagusia. Gizon gordiña oraindik. Berrogei-ta-amar urteko giza-semea. Gizon ona. Gutxitan ikusiko dezu Miel etxetik kanpora. Ez da beste asko izan oi diran bezain taberna-zalea. Ez-eta peri-zalea ere. Lagun-arterik ez du. Ta orixe dezu, pekatua baldin ba-da beintzat, Miel-en pekatu bakarra: bakarti-xamarra izatea, alegia. Iñoren etsai ez ba-zan ere, ez zuan iñorekin ere kontu asko izango, Ta bere izate orrek galdu bear zuan Miel.

\* \* \*

Senarra ez-bezelakoa zan Erramona, Miel-en emaztea. Esnea saltzea zala-ta, egunero jetxi oi zan Erramona errira. Ondo ezaguna zuten urrategitarrak. Ba-zuan gañera, gazte-gaztetandik maite zuan lagun bat: "Oion" basarriko etxekoandrea. Gaztetan lagun ziran eta ezkontzak ez zituan sakanatu. "Oion" bait-zan Azalgorta-rentzat auzorik gertuena.

Goizero ikusten zuten alkar Erramona-k eta "Oion"-go Mari-k. Alkarrekin egiten zuten egunero baserritik kalerako bidea. Beti izan oi zuten zer esana.

Ala ere, ez uste izan, irakurle, Azalgorta-ko Erramona ta Oion-go Mari berritsu bi ziranik. Ez ziran berritsuak; lagunak ziran eta lagun bezela ez zioten alkarri ezer gordetzen.

Senarra bezain ona ta ura bezain gordiña dezu Erramona ere

\* \* \*

Ana dezu Miel eta Erramona-ren alabarik zaarrena. Ogeita-bat urte besterik ez ditu. Neskaxa liraña da. Pol-pol aldean artzai ibilli oi da geienetan. Beltz-antzekoak ditu arpegi, beso ta zankoak. Eguzkiak beztuak, noski.

\* \* \*

Ez da Ana bezain beltza Manuela, Miel eta Erramona-ren bigarren alaba. Emertzortzi urte ditu ta emertzortzi-urteko neska artean ez da neskaxa zatarririk izaten. Eta basarrietako neskaxa-arte gaxiago. Etxeko lan geienak Manuela-k egin oi ditu. Ez du, ba, Ana-k aña eguzki artzen. Eta orregatik du, izan ere, Ana-k baño azal zuriagoa.

\* \* \*

Bertako morroia dezu Joxe, irakurle. Azalgorta ta Pol-pol arteko basarri bateko semea. Gaztetxoa oraindik. Amasei-urte besterik ez ditu. Senide asko dira Joxe-ren senideak, eta askoren-arte baten-batzuek morroi irten bear, nai ta nai-ez...

\* \* \*

Orrela Azalgorta-n zoriontsu bizi bear...!

Egia esan, semerik-ezak naibabetzen zuan zerbait Miel-en eta Erramona-ren zoriona. Ain bearrezkoa da, izan ere, basarri batean giza-seme bat...! Ain maite du, izan ere, euskaldunak bere abizena...! Ta abizenari eutsiko ba-zaio, giza-seme bat bear etxean. Eta azalgortatarrei ez zien eman nai izan Jaungoikoa-k giza-seme ori...

Ona, ba, emen, irakurle, Miel-en eta Erramona-ren zorientasuna pixka-  
ren-bat illuntzen zuan naigabearen sustraia.

\* \* \*

Urrategi-n dezu Azalgorta, irakurle. Ta Urrategi Euskal-erri-ko erri bat  
dezu. Mugaz-aruzko Euskal-erri-tik bertan dagoan erri bat. Erri azia.  
Zortziren-bat milla biztanle dituan erria. Erri polita, Euskal-erri-ko erri-  
rik geienak diran bezelakoa.

\* \* \*

Eta besterik-gabe, eldu dezaiozun berriro berri aukeratuak eten degun  
ariari...

### III

Goizean-goiz jeiki ziran, egun artan, Ana ta Manuela. Ez zuten  
deitu-bearrik izan. Biak batera etorri ziran sukaldera, ta biak batera eman  
zizkieten "egun onak" oraindik sualdean zeuden gurasoeri.

\* \* \*

Aiek sukalderatu ziranean, jeiki ziran beren aulkietatik Miel eta Erramo-  
na. Sukaldetik irten, eta bere gelara joan zan Miel. Sukaldean gelditu  
zan Erramona. Ala ere, ez zuten Ana-k eta Manuela-k amari ezer galde-  
tzeko, ausardirik izan. Ain naigabetua zegoan, egon ere, Erramona...

—Jeiki al-da, Joxe...?, galdetu zuan alako batean Erramona-k.

—Bai, ama... erantzun zion Ana-k. Astoa, ere, gertu dago kalerako. Ta  
zuk joan nai ez ba-dezu, joango naiz ni gaur, ama.

—Ez...! Gelditu zuek emen..., eta pake-pakean laga aitari.

—Zer du, ba, aitak...? galdetu zuan, orduan, Manuela-k.

—Ezer ez...! erantzun zion amak.

Eta esne-ontziak asto-gaiñera ipiñi-ta, kalerako irten zan Erramona.

\* \* \*

Ez zuan goiz artan Erramona-k berriketarako gogorik. Ba-zuan zertan  
pensatu...!

Oion-basarri-aurrera eldu zanean, ez zan besteetan bezela Mari-ren zai  
gelditu. Bakar-bakarrik egin nai zuan egun artan kalerako joan-etorria.  
Ez alperrik...!

Oion-go atarian, an zegoan jolasean Mari-ren mutil-koxkorra. Ikusi zuan  
Erramona... Ba-zekian ama sukaldean Erramona-ren zai zegoala. Ta oi  
zuan bezela, amaren zai Erramona gelditu ez zala ikusi zuanean, sukalde-  
ra joan eta...

—Ama, esan zion, Erramona joan da-ta ez da besteetan bezela emen gelditu.

—Erramona joan dala...?

—Bai, ama. Oraintxe joan da. Neronek ikusi det, erantzun zion mutil-koxkorrak.

\* \* \*

Arriturik gelditu zan Mari.

Igaro ote zan inoiz Erramona Mari-ren etxe-aurretik Mari-ri agurrik egin gabe...? Ez al ziran, ba, biak alkarrekin kalera joaten beti...? Zer ote zuan Erramona-k egun artan...?

Eta egia esan, Erramona-kin egoteko besteetan ez-bezelako gogo bat zeukan Mari-k egun artan. Oion-dik ondo ikusten bait-zuan Azalgorta. Ta Azalgorta-ko sukaldean ez zala gau artan argirik itzali, ondo bait-zekian Mari-k.

Okerren bat izan ote zuten, ba, Azalgorta-n...?

\* \* \*

Kalera baño leen, alkartu ziran bi lagunak.

—Egun on, Erramona..., esan zion Mari-k. Ederra egin didazu gaur. Etxe-aurretik igaro, ta deitu ez...!

—Barkatu, Mari..., erantzun zion Erramona-k. Presa nuan, eta orregatik ez dizut deitu.

—Zure zai nengoan, ba, ni... Okerren bat izan ote zenduten, bildur nintzan.

—Okerren bat guk...? Zergatik diozu ori, Mari...?

—Zergatik...? Zuen etxera joan ala ez egon gera gau guztian senara ta biok. Ez dezute gau osoan sukaldeko argirik itzali...!

—Aaztu egingo zitzaigun.

—Aaztu...? Bateren-bat ba-zebillela esango genduan, ba, guk. Ez al-zifian zu sukaldean...? Lo-askorik egin ez dezula arpegian igartzen zaitzu, Erramona. Ez dezu zuk gaur beste egunetako arpegirik. Zer gertatu zaizute...?

—Ez zaidazu galdetu, Mari... Ez naiz oeratu, egia esan. Gau osoan egon gera sukaldean Miel eta biok. Ez zaigu ezer gertatzen, bañan... Bar-

katu, Mari. Pozik esango nizuke dana..., arindu baten bearrean daukat biotza, bañan ez diodala inoiz ezer esango, agindu diot nere senarrari, ta eman diodan itza bete egin bearke det, Mari. Dana-dala, laister izango dezu zuk ere gertaera negargarri onen berri. Ta errukarriak orduan gu, azalgortatarrok...! Ai, Mari...

Eta negarrari eman zion Erramona-k.

\* \* \*

Ixilik zijoazen bi lagunak.

Zer pensatu ez zekian Mari-k. Ain semiñak ziran, izan ere, Erramona-k ixurtzen zituan malkoak...!

Eta bere lagunaren samintasun auarindu naiean edo, asi zan galdezka berriro Mari.

—Entzun, Erramona. Senarrari eman diozun itz ori betetzea ondo dago. Bañan laister jakingo dan gauza dala ez al-dezu, ba, zuk-zeorrek esaten...? Zergatik ez didazu, ba, gaur neri esan bear...? Ixilik gordezko gauza baldin ba-da, ixilik gordeko dizut nik, Erramona. Ta la-saitasun galanta artuko zenduke zuk...

—Ori, bai, Mari, ori, bai...! Ta inoiz esatekotan zuri esango nizuke lenngo. Gure alabak ez dakite oraindik ezertxo ere, Gajoak...!

—Esan zaidazu, Erramona. Zure aotik jaki nai det. Ez diot inoiz ezertxo esango, zuk ala nai ba-dezu, beintzat.

—Bai, Mari, ala nai det...!

—Ondo da.

—Ai, Mari. Gure erreka-zuloan neskatxa gazte baten gorputza dago illotzik.

—E...?

—Bai, Mari. Ardiak bildu-ta, bart etxeruntz zetorrela, Miel-ek erreka-zuloko bidea artu zuan, eta an arkitu zuan odol-potzu batean neskatxa illa. Gure sallean dago zoritxarrez. Ez da eriotz-egillerik agertuko, ta gu izango gera eriotz-egilleak.

—Jesus...!, erantzun zuan Mari-k.

Eta andik kalera ez zuten beste itzik esan lagun biak.

\* \* \*

Bildurgarria izan zan, berri onek Mari-ri sortu zion biotz-ikara. Kalera iritxi-ta, bi lagunak sakabanatu ziranean, Erramona berak baño arpegi zatarragoa zeukan Mari-k. Odol-ustu ba-litz ere, ez zan ain zuri geldituko. Ta esne-ontzia artu, ta esnea saltzen asi zan etxerik-etxe. Etxe guztietan oartu ziran Mari-ren zurbiltasun arekin, bañan ez zioten bear ez-bezelako galderarik egin...

\* \* \*

Ba-zan, ordea, Urrategi-n sorgin-antzeko emakume bat. Erri guztiko berriak biltzen zituan emakumea. Gauzak atera-erazteko munduan berdiñik ez zuana.

Eta onen etxera ere joan bearra izan zuan Mari-k egun artan, zoritxarrez. Eta atea iriki orduko, onela asi zitzaion sorgin-antzeko emakume ura.

- Ai, Mari... Ez dakarzu gaur, itxuraz, berri onik...?
- Zer, ba...?, erantzun zion Mari-k.
- Zuri begiratzea besterik ez dago, Mari. Ori arpegia dakarzuna.
- Ez da ezer.
- Ala diozu zuk...! Bañan zure itxura orrek ez du gezurrik esaten. Ez dezu esan nai bañan... Ba-dakit nik berri onik ez dezutela mendi aldean.
- Nork esan dizu zuri ori...?
- Nik jakiten ez dedan gauzarik ez da izaten, Mari...
- Ba-dakizu, beraz...
- Bai, Mari... Gauza guztiak jakiten dira kalean.
- Arrigarria da, ba... Azalgorta-ko Erramona-k esan ez didan artean, ez nekian nik ezertxo ere. Ez dakizu nolako negarrak egiten zituan ga-jokak! Eta ez da gutxiagorako, izan ere... Neskaxa gazte baten gorputza beaien sallean illotzik arkitzea ez da txantxetako gauza...
- Eta nork arkitu du, ba...?
- Nork arkituko zuan, ba...? Azalgorta-ko Miel-ek. Ardiak bildu-ta etxerauntz zetorrela, arkitu zuan erreka-zuioan.
- Jesus, milla bider...! Ori ere ba al-degu...?
- Ez al-zenekian, ba...?
- Zer jakin bear nuan, emakumea, erantzun zion astiro sorgin-antzekoak.

\* \* \*

Ondoez-egiteko zorian gelditu zan Mari gajoa...! Erramona ikusiko ote zuan bildurrez, irten zan etxe artatik. Pekatari ikusten bait-zuan bere burua, naiz-eta pekatu ura berak nai-ez-ta, egin. Ixilik gordeko zuala, agindu zion sorgin-antzeko emakume ark, bañan ondo zekian Mari-k sorgin aren itza nolaoa zan.

Urrategitar askok zekiten, eguardirako, Azalgorta-ko erreka-zuloan neskatxa gazte baten gorputza zegoala, odol-arteon, illotzik...!

\* \* \*

Errosariorako orduaren-zai zeuden illunabar artan eleiz-atarian Urrategi-ko Erretore, Sendagille ta Epaille jauna.

Egunero alkartu oi ziran irurok. Izparringietako berriak izan oi ziran geienetan aien jardun-gaiak.

Irukote au eleiz-atarian ikusten oituak zeuden egunero errosariora etorri oi ziran Urrategi-ko gizon eta emakumeak. Orregatik, txapelaren muturra pixkaren-bat jaso-ta, igaro oi ziran, besterik gabe, aien albotik gizonezko geienak. "Gabon Jaungoikoa-k" izan oi zan emamezko geienak irukotearentzat izaten zuten agurra. Ez zan inor irukote arekin izketan gelditzen.

\* \* \*

Egun artan, ordea, ez zan ala izango.

Buruko zapia ille-arteon katiatu naiean zetorren emakume batek izango zuan, izan, illunabar artan irukote arekin itz-egiteko ausardia.

- Gabon Jaungoikoa-k, izan zan emakume aren agurra ere.
- Baita zuri ere, erantzun zioten irurak.
- Aundia gertatu zaigu, gero, errian...? Nor ote da bera...?

Zer erantzun ez zekitela gelditu ziran irurak. Eta iru aien arritu-arpegia ikusi zuanean, onela jarraitu zuan emakumeak:

- Bañan ez al-dakite beok ezer...? Erri guztian ez da gaur beste konturik ibilli. Ez al-dute ezer entzun...? Ori bai dala arrigarria...! Inork jakitekotan, beok jakin bear zuten, ba, lenengo. Ez ote da, ba, egia...?

—Nik ez dakit, beintzat, zer esan nai diguzun... erantzun zion Erretorea-k.

—Ez dakilla...? Azalgorta-ko erreka-zuloan neskatxa baten gorputza illotzik billatu dutela ez al-daki...?

—Ez det ezer entzun!

—Egia izan bear du, ba, jauna. Ta esaten dutenez, norbaitek il du neskatxa ura, berak bere burua il ez ba-du beintzat. Odol-poztu baten erdian omen dago illotzik.

—Ez da egia izango, erantzun zion Epaillea-k.

—Egia izango da, ba, jarraitu zuan emakumeak. Azalgorta-ko Miel berak arkitu omen du gorputza. Bart-arrataean, ardiak bildu-ta etxetakoan, erreka-zuloko bidea artu omen zuan, eta antxe arkitu omen zuan gorputz ori bere sallean.

—Eta nola ez dik, ba, neri gauza orren berri ekarri...? Baten-baten gorputza illotzik agertzen danean, epailleak jaso-bear izaten duala ondo daki Azalgorta-ko Miel-ek. Alkateak ere ez du ezer jaingo noski. Gaztigatu bear zidan bestela.

Dana-dala, alkatearengana noa ni orain, eta Udal-etxean egongo gera biok. Errosario santu ondoren ea biok Udal-etxera etortzen diran mesedez. Erabakiren-bat artu bearko degu, noski-ta.

Eta Epaille jauna alkatearengana joan zanean, errosariorako ordua zuten Erretore ta Sendagille jaunak.

\* \* \*

Udal-etxean alkartu ziran errosario-santu ondoren Alkate, Epaille, Erretore ta Sendagille jauna.

Auxe izan zan bertan artu zuten erabakia: Azalgorta-runtz irtengo ziran biaramon goizean. An jekingo zuten danaren berri. Erriak ziona, egia gertatu zekiala-ta, "Guardia civil" bi, argazki-egille bat, eta, gorputza jasozeko, lau gazte eramango zituztela eurekin.

Ori izan zan, bada, lau gizon aiek Udal-etxean artu zuten erabakia...!

## IV

Bigarren gau ura ez zan Azalgorta-ko Miel-entzat lenengoa baño ohea izan. Miel gizajoa...! Bere gelako leio-zirritutik Urrategi-ko bideari begira igaro zuan, begiak irten bearrean, gau osoa.

Gero ta illunagoak ziran arek bere buruan zerabilzkin gogamenak. "Gaurdia civil" biren erdian ikusten zuen bere burua. Eskuak katez lotuta, eriotz-egille bat ba-litz bezela eramango zuten "Guardia civil" aiek Urrategi-ko kaleetan barrena. Ez zuan inork arentzat itz gozorik izango. Madarikatua izango zan aren izena. Ta madarikatuak izango ziran, ura zala-ta, aren emazte ta alabaen izenak ere. Eta zer egin bear zuten emakume gaixo aiek, ura espexerutzen zutenean...?

\* \* \*

Bere senarra oeratu-aziko ote zuan alegin guztiak egin zituan Erramona-k, bañan ez alperrik...! Nork kenda-erazi ura bere gelako leio-ertzetik...? Ez zan eguna Erramona gajoak nai bezain laister zabaldu...!

\* \* \*

Ana ta Manuela jeiki ordurako, sukaldean zegoan Erramona. Kalerako goiz zan artean. Sua piztu ta su-ertzeko aulkian esari zan. Orrela arkitu zuten Ana ta Manuela-k.

—Zer du aitak...? Lorik egin al-du...? galdetu zion gazteenak.

—Pake-pakean laga bear diozute aitari, erantzun zion amak.

—Zergatik ez diozu sendagilleari etortzeko esaten...? esan zion orduan Ana-k.

—Ez du aitak sendagille-bearrik...! erantzun zion bat-batean amak

Eta aulkitik jeiki ta kalerako gertatzen ari zanean...

—eta Joxe...? galdetu zuan

Ez zuan erantzunaren zai egon-bearrik izan. Joxe bera agertu bait-zan sukaldean.

—Zerbait gertatu da emen-inguruan, etxeoandre, asi zan Joxe. Gizon-talde aundia dator onuntz. "Guardia civil'-ak ere bai. Ta gaizki ikusi ez ba-det, beintzat, Erretore jauna ta erriko agintariak datoz gizon oien artean.

—Zer diozu, Joxe...? galdetu zion larri Erramona-k. Noruntz datoz...?

—Onuntz, etxeoandre.

—Ai, Jesus...! Orain bai, galduak gerala...!

Eta ezertarako kemenik gabe leengo aulkian eseri zan Erramona.

Zer pensatu ez zekitela gelditu ziran Ana ta Manuela.

\* \* \*

—Egun on Jaungoikoa-k, esanaz, sartu zan sukaldean erriko Erretore jauna.

Erramona-k ez zuan bururik ere jaso. Negar batean ari zan gajoa.

—Zer du amak...? galdetu zuan Erretore jaunak.

—Guk ez dakigu, erantzun zioten neskatxa biak. Kalerako asmoetan zan oraintxe, ta beok onera zetozela jakin duanean, ezertarako kemenik gabe gelditu da.

—Pensatzen nuan bai..., ekin zion Erretore jaunak. Bildur nintzan Orregatik nai izan det, bakarrik etorri...

Eta Erramona-rengana urbildu, ta onela itz egin zion Erretore jaunak.

—Ez zaite bildurtu, Erramona. Gertaera orrekin zer-ikusirik ez dezutela ondo dakit nik. Ez gera, ba, asmo txarrez etorri. Alperriko pausorik ez ematearren etorri gera onera. Gorputz ori nun dagoan, iñork baño obekiago zuek esango diguzutela-ta.

—Gorputz ori...? esan zuten bat-batean, arriturik, neska biak.

—Ez al-dakizute ezer...? galdetu zion Erretore jaunak.

—Oiek ez dakite ezer, esan zuan orduan Erramona-k. Miel-ek eta biok

degu bakarrik orren berri etxe ontan. Eta Jaungoikoa-k bakarrik daki zer pasatzen ari geran biok.

—Ez, ba, bildurtu,Erramona. Ez zaizute ezer-txarrik gertatuko-ta. Nun da Miel...?

—Or-goian, bere gelan, jauna. ez jan eta ez lo, dago eranegun ezkeretz-tik, gizajoa...!

—Goazen, ba, biok, Erramona.

Eta aulkitik jeikitzen lagundu ondoren, Miel-en gelaruntz asi ziran Erramona ta Erretore jauna.

Sukaldean gelditu ziran, morroiakin batera, Ana ta Manuela.

Mutuak ematen zuten irurak...!

\* \* \*

Miel-en gelan ez zan iñor ageri. Nun ote zebillan, ba, bera...?

—Ementze utzi det nik, zion Erramona-k. Leioan igaro du gau osoa. Bere billa etorriko ote ziran bildur zan. Berak arkitu zuala gorputza, bere sallean zegoala ta bera egingo zutela errudun, esaten zuan gizajoa

Gorputza arkitu zuanean, gu ez izatera, iges egingo zuala esan zidan lenengo gauean. Iges egin ote duan, bildur naiz, ba, jauna.

—Ez al-zuan orrelakorik egingo...! erantzun zion Erretore jaunak.

—Emen agiri ez danean, orrelakoren-bat egingo zuan, ba, jauna.

—Urrutira joan ote da, ba...?

—Ez al-zan joango, jauna.

—Ez dedilla emendik aldendu, bein etxeratzen danean. Ez zaiola ezer gertatuko. Ez estutu, Erramona. Etorriko da Miel. Gu onuntz gentozela ikusi duanean, egingo zuan iges. Emen-inguruan izango da. Ez, bildurtu... Ta nun dago, ba, gorputz ori, Erramona...?

—Nik ez det ikusi. Bañan Miel-ek zionez, beintzat, or erreka-zuloan daukagun sallean dago.

—Ondo dago, Erramona. Besteak nere zai egongo dira-ta, ba-noa. Egun auetako batean etorriko naiz berrero.

—Etorri, bai, jauna.

Eta sukaldean sartzeke, irten zan Azalgorta-tik Erretore jauna.

\* \* \*

Miel-ek iges egin zuala zertarako esan, irakurle. Urruti-batera ikusi zuan Miel-ek Azalgorta-aldera zetorren gizonezko-taldea. Bein-ere baño begi argiagoa zeukan, eta laister ezagutu zituan gizonezko talde artean zetozen "Guardia civil" biak. Bere billa zetozenik, ezin ukatu ba. Zer egingo ote zuan, ba...? Artu zuan erabakia artzen, ez zuan Miel-ek denbora askorik igaro. Iñortxori ezer esan gabe, ta soñean zeuzkenakin, atzeko ate batetik mendi-aldera joan zan Miel igeska. Ez zegoan ura Azalgorta-n gelditzeko ordu artan.

\* \* \*

Erretore jauna buru, erreka-zulo aldera artu zuan Urrategi-tik etorri zan gizonezko-taldeak.

An zegoan, Miel-en sallean, neskatxa gazte aren gorputza. Auspez agiri zan. An ikusten zan oraindik, lurrak edan ezin-da, lur-gaiñean gogortu zan odola. Gorputz-ondoan agiri zan iltzalleak eriotz ura egiteko erabilli zuan aiztoa ere.

Ezertan asi aurretik, "Aita gure" bat errezatu zuan, neskatxa aren alde, Urrategi-ko Erretore jaunak.

Ez zuan lan-aundirik izan Sendagille jaunak. Neskatxaren bizkar-aldean nabarmen ikusten zan eriotz-egilleak egin zion zauria. Zer esanik ez zegoan...! Zauri ura, gorputzaren inguruan agertu zan aizto arekin egin-dako zauria zan. Epaille jaunari eman zion Sendagille jaunak aizto ura.

Iñork ezagutzen ote zuan jakin nairik, arpegiz-gora ipiñi zuten neskatxaren gorputza gazte bik. Gaztea zan neskatxa. Ogeita-bat urte-inguruko neskatxa. Ille gorrikoa.

Ez zuan ñork ezagutzen. Ez zan an-inguruetakoa. Ala zioten, beintzat, an zeuden gate aiek. Eta aiek ezagutzen ez zutenean...

Argazki-egilleak argazki batzuek egin zizkionean, eman zuan Epailleak gorputza jasotzeo agindua. Ballarta batera jaso, ta izara batekin estali zuten neskatxaren gorputza.

\* \* \*

Eguardia zan, Urrategi-ra jetxi ziranerako. Kale betean zetozen langilleak beren lantegietatik. Ballarta ikusten zuten bezain laister, txapela kendu ta bide-ertzeetan gelditzen ziran danak. Gorputza igaro ez-arte, ez zuan ñork itzik, ere, esaten.

Ura ixiltasun bildurgarria...!

Eta ixiltasun ura lagun zutela, iritxi ziran illerrira, neskatxaren gorputzari lagun-egiten zioten guztiak.

\* \* \*

Ez zioten bereala lurra eman. Gorputz-azterketa egin bear zala olakoetan agintzen bait-zuan legeak, eta gorputz-azterketa ori egiteko, illerrian ortarako zegoan toki batean utzi zuten neskatxaren gorputza.

\* \* \*

Arratsaldeko seirak izango ziran, neskatxari gorputz-azterketa egin ziotenean. Iru izan ziran azterketa ori egiteko bildu ziran sendagilleak. Iritzi batekoak izan ziran irurak: neskatxa arek ez zuala bere burua il: neskatxa ura zauritu egin zutela eta aizto batekin zauritu ere, ta zauri artatik odol-ustu egin zala neskatxa. Onela zion, beintzat, Sendagille jaunak Epaille jaunari bialti zioten idazkiak.

\* \* \*

Soñekorik gabe lurperatu zuten neskatxa. Epaille jaun berak gorde nai izan zituan neskatxaren soñekoak. Soñeko oiek eta neskatxari atera zizkioten argazkiak izango ziran, bear ba-da, neskatxa ura nor zan ezagutzeko bide bakarra.

Eta soñeko ta argazkiekin batera gorde zuan Epaille jaunak gorputz-ondoan arkitu zuten aiztoa ere...

V

Ba-zan zer-esana Urrategi-n biaramon artan. Neskatxa-illa zala-ta. Azalgorta-ko Miel-en igesia zala-ta..., ba-zan, bai, zer-esana Urrategi-n...

Eta zer-esan ontan, ez ziran emakumeak bakarrik jardunlari. Gizonezkoen artean ere, ba-zan ze-esan ugari...

Miel gizajoa...! Ordurarte "gizon on" izenaren jabe izan ba-zan ere, ez zegoan, orduan beintzat, oso-gora aren izena.

\* \* \*

Entzun, irakurle, zer-nolakoak ziran egun artan Urrategi-ko jardunak. Emakume bi ditugu izlari.

—Jakín al-dituzu Azalgorta-ko berriak...?

—Jakín ez...! Ba-dira oiek berri onak...!

—Ogei-ta-bat urteko neskatxa omen zan.

—Eta ez omen zuan inork ezagutzen.

—Nungoa ote zan, ba, bera...?

—Bizkar-aldeetik zauritu omen zuten.

—Eta an omen zegoan, gorputz-inguruan, eriotz-egilleak erabilli zuan aiztoa ere.

—Aberatsa izango zan...

—Ala izango zan, noski...!

—Eta egia al-da, Azalgorta-ko Miel-ek igen egin duala...?

—Bai, emakumea. Egia da. Ta ez zan ba, gure usteetan, gizon gaiztoa Azalgorta-ko Miel...! Zer dala-ta, iges egin du, ba...? Gaizki pentsatzeko ere ba-da, ba, ori...

—Ori esan...! Dana-dala, ez nuke, nik beintzat, aren narru-barruan egon nai. Diruak itxutu egiten omen du gizona, ta...

—Bai! Ta gizona izan Miel ere.

—Ori diot nik ere. Ta Jaungoikoa-k libra gaitzala orrelako eriotz batetik.

—Libra gaitzala, bai...

\* \* \*

Eta ez ziran, ez, gozoagoak gizonezkoen-arteko jardunak.

Errudun ez ba-zan, zergatik iges egin bear uan Miel-ek...?

Miel-en izen ona galtzeko, orixe naikoa izan zan. Eriotz arekin zer-ikusirik ez ba-zuan, ez eukan iges egin earrrik. Ala zioten, beintzat, Urrategi-ko gizonezoak.

Entzun, irakurle, lagun bi auen jarduna.

—Zergatik iges egin bear zian, ba...?

—Bildurrez ere, bai...!

—Bildurrez...? Ez diagu, ba, ik eta nik bildurrik...! Ark ere ez zian izango, noski, eriotzarekin zer-ikusirik izan ez ba-lu...

—Egia det ori ere. Bañan ain gizon ona izan det beti Azalgorta-ko Miel.

—Ez diat nik ori ukatuko. Bañan zer dala-ta, iges egin bear zian, ba...?

—Bai...! Ori, ere, ala dek...!

—Bai, gizona. Diru-usaiarekin galduko zian, bear ba-da, burua, ta kitto...! Ondo damutua egongo det gaur, bañan alperrik...! Egiña ziok ori...!

\* \* \*

Eta bi oien antzekoak izan ziran Urrategi-ko egun artako jardunak.

Eta ez da alperriko jardunik, irakurle... Jardun guztiak laga oi dute beti zerbait. Eta orregatik, goizean-goiz Miel-en errugabetasuna aitortzen zuten aiek berak ere, errudun egiten zuten Miel illunabarrean.

Bat-bakarra izan zan Urrategi-n Miel-en alde beti irten izan zan gizona: Urrategi-ko Erretore jauna.

\* \* \*

Arratsaldeko irurak-edo izango ziran, eta an zegoan, Erretore jaunaren etxean, Urrategi-ko Epaille jauna ere. Ba-zuten auek ere zer-esanik...!



- Ez det bart lorik egin, zion Epaille jaunak. Nork kendu burutik nes-atxa aren irudia...?
- Nik ere ez det, ba, lo askorik egin, erantzun zion Erretore jaunak. Bañan ez neskatxa aren irudiak loa-galerazi didalako, ez...! Beste batek galdue-razi dit neri loa: Azalgorta-ko Miel-ek. Zer egin ote du...?
- Azalgorta-ko Miel-ek...? Erriak zer dion, ba al-daki...? Errudun izango dala Miel. Berak il ez ba-du, ere, neskatxa orren eriotzarekin zer-ikusia aundia izango duala... Ez zeukala bestela, zertan iges egin...!
- Ori al-dio erriak...?
- Bai, jauna. Ori dio erriak.
- Ez du, ordea, beorrek ori sinistuko...?
- Ez nuan sinisten. Bañan sinistu-erazi didate ia-ia. Bada-ezbada ere, preso ekarri dezaten, "Guardia civil" bi bialdu ditut Azalgorta-ra.
- E...?
- Zer, ba...!
- Azalgorta-ko Miel preso...? Ori ez, Epaille jauna. Ez dute Azalgorta-ko Miel preso ekarriko, errudun dala jakin ez bitartean beintzat. Inork baño obeto ezaguntzen det nik Miel. Miel ez da iltzalle. Nere-gain artzen det gizon ori. Egunen batean errudun agertzen ba-da, nik-neronek ipiñiko del beorren eskuetan. Bañan errudun agertzen ez dan bitartean, ez du inork Miel preso ipiñiko...!
- Berandutxo izango da onezkero, jauna.
- Berandutxo...? Zergatik, ba...?
- Onerako bidean izango diralako onezkero.
- Egingo al-dik mesede bat, Epaille jauna...?
- Nik egitekoa baldin ba-da, bai...!
- ..."Guardia civil" oientzako agiri bat egin bear dit. Ni egin naizeia Azalgorta-ko Miel-en jabe, ta aske utzi dezatela.
- Ondo dago. Egingo diot, ba, agiri ori...!

Eta Epaille jaunak egin zion agiri arekin, Azalgorta-rako bidea artu zuan Urrategi-ko Erretore jaunak.

\* \* \*

Bidean arkitu zituan "Guardia civil" biak. Bakarrik zetozen. Miel ez zan, artean, etxean azaldu, "Guardia civil" biak esan ziotenez.

Aiekin jardun-alditxo bat egin ondoren, bide-erdian zala-ta, Azalgorta-raño joatea erabaki zuan Erretore jaunak.

\* \* \*

Negargarria azaldu zitzaion Azalgorta. Nola ez...? Aitaren berririk ez zutela, irugarren eguna zan ura. Ta aita agertzen ba-zan ere, zer...? Ez al-zuten bereala preso eramango...? Negar zegiten, ba, ama-alabak. Negar samiña...!

\* \* \*

Aien samintasun ura zerbait gozatu naiean, alegiñak egin zituan, egin ere, Urrategi-ko Erretore jaunak.

Eskerrak eman zizkion Erramona-k. Eskertzekoak izan ziran, izan ere, Erretore jaunaren itzak. Ba-zan errian, Miel-en zintzotasunean sinisten zuan gizon bat beinik-bein.

"Laister arte" gozo batekin agurtu zituan Urrategi-ko Erretore jaunak Azalgorta-ko ama-alabak.

\* \* \*

Neskatxa gazte aren eriotza izango zala Azalgorta-ko ondamendia, esan zuan Miel-ek, eta ez zuan gezurrik esan. Laister ziran morroirik gabe. Esaten ziranak esan eta nola eukiko zuten, ba, etxe artan semea morroi, Joxeren gurasoak...? Eta etxe artarako beste morroi bat billatzea ez zan erreza izango. Ez zan, beintzat, inor bertako morroi izan nai zuala-ta, Azalgorta-n azaldu. Eta morroirik gabe, zer egin bear zuten Azalgorta-ko emakumeak...?

\* \* \*

Barne-muinetaño sartu zitzairen iru emakume aieri lotsa...! Eriotz-egille baten emazte ta alabak ziran, errian esaten zuten, beintzat. Eta lotsa ori barreanean, nola agertu bear zuten aiek kalean...?

\* \* \*

Igande ta jai-egunetan lenengo meza entzun eta, meza amaitzen zan bezain laister, Azalgorta-ra itzultzen iran irurak berriro.

Ez zuten geiago esnerik saldu.

Larrak artuta agertzen ziran leen lantzen zituzten baztar asko.

Gauza bati eutsi zioten, ala ere: Miel-ek ain maite zuan artaldetxoari. Ta Ana egin zitzaïen artzai.

Ardiak larrean ari ziran bitartean, beti izaten zuan esku-lanen bat.

Amaika malko-ixil ixuri zituan bitartean. Nola ez...! Ardi aiek, nai ta nai-ez, ekarri bear bait-zioten aitaren oroimena...!

\* \* \*

Amaren ondoan bizi zan Manuela. Neskaxa ona! Elizkoia! Aitaren aldeko otoitzean aspertzen ez zan neskatxa...!

—Otoitz egingo al-degu, ama...?

Eta otoitzean igaro oi zituzten, arratsalde osoak, ama-alabak.

\* \* \*

Orrela zijoan Azalgorta-ko bizitza. Bizitz illuna! lagunik gabeko bizitza!

Leen lagunik aundienak zituzten aiek ere, ez ziran orain Azalgorta-n azaltzen. Lagun aundia izan zuan Erramona-k Oion-go Mari: lagunetan lagunena. Eta ala ere, gertatu ziranak gertatu ziran ezkeroztik, ez zuan Azalgorta-ko Erramona-k Oion-go Mari-rik ikusi. Tamalgarria benetan Oion-go Mari-ren jokabidea, ta ala guztiz ere, ez zuan inoiz Erramona-k bere samintasunik azaldu...!

\* \* \*

Astean-bein azaldu oi zan Azalgorta-n Urrategi-ko Erretore jauna. Au izan zuten poz-ekarle bakarra. Itxaropen-itzak izan oi zituan beti Azalgortakoentzat.

—Etorriko da Miel. Etorriko da, bai...! Ez dira alperrikoak izango zuen eta nere otoitzak. Miel ez da errudun. Ez du ark eriotzarik egin. Gizon ona izan da beti. Jaungoikoa-k gordeko digu, bai, bere zintzotasuna ozalduko dan artean. Agur, ba, ta laister etorriko naiz, berriro ere.

Eta etxeratzekoan, beti izaten zuan eskupeko ixil bat Erramona-rentzat.

\* \* \*

Bañan Azalgorta laga bearrean gera, irakurle. Ez betirako. Laister itzuliko gera, bear ba-da, berriro.

Mugaz-aruntz gertatzen ari diran gertaera batzuek esan bear ditugu orain.

\* \* \*

Erri polita degu Loitzun ere. Itxas-ertzean eserita dagoan erria.

Euskaldunak dituzu loitzundarrak ere. Gure anaiak, naiz-eta mugaz-bestealdekoak izan.

Ba-da Loitzun-en leaime-etxe bat, eta lekaime-etxe onen inguruan jarraituko degu, Azalgorta-n asi degun edesti au.

Goazen, ba Loitzun-era, irakurle...

## VI

Bederatzi urte luze igaro dira, Azalgorta-ko erreka-zuloan neska-txa gazte aren gorputza azaldu zan egunetik. Ba-dira, ba, urte batuek.

Loitzun-en gera orain, irakurle: Loitzun-go lekai-me-etxe inguruan.

\* \* \*

Arratsaldeko bostak bide-ziran.

Lekai-me-etxe aurrean gizon bi ari ziran jardunean. Aberats-antzekoa ta goitik-beeraño beltzez jantzitakoa, bata. Sudurpeko aundia zuan, eta urrezko kate eder bat ikusten zitzaion txaleko-gaiñean. Kapelak estaltzen zion, zuritzen asia zuan burua. Irurogeiren-bat urte izango zituan gizon onek. Pierres uan izena, ta loitzundarra zan jatorriz eta jaiotzez.

Ez zuan besteak aberats-antzarik. Pierres baño zimelagoa ta Pierres-en adiñekoa, or-nunbait.

—Bai, jauna, zion onek. Lekai-me-etxe ontako morroia nauzu. Goizean-goiz jeikitzen naiz. Nik-neronek irikitzen det elizako atea ta sakristautza, ere, ni-neronek egiten det. Egun-buruan beti izan oi da emen zer-egiña. Lekai-me auentzat aztuna da atxurra, ta ni lantzen dizkiet kanpo ta barruko lurrak. Ez naiz arotza, bañan aroztegian ere jardun bearra izaten det, noizean-bein.

—Etxe-barruan ere ibiltzen zera, beraz...?

—Bai, jauna. Sarritan joan bear izaten det barrura ere.

—Ezagutuko dituzu, beraz, bertako lekai-meak...? Zenbat lekai-me bizi dira or-barruan...?

—Ogei-ta-bost, jauna.

—Eta lekai-me oien artean ba al-da iñor loitzundarrrik...?

—Ez, jauna. Arrigarria da, bañan lekai-me auen artean ez dago bat-ere Loitzun-go alaba danik.

—Ala esan oi didate lekai-meak. Gezurra esaten ote zidaten bildur nintzan, bañan egia da, zuk esaten didazunez beintzat. Aspaldiko urte auetan, emen ikusi nauzu egunero, ta ez zenduke pensatuko zertara etortzen naizen onera.

—Ez da erreza, jauna. Bañan lekai-me auen artean, senideren-bat izango zenduala pensatu izan oi det beti.

—Ez det, ba, seniderik lekai-me auen artean, ez! Ondo dakit nik, nere eguneroko ikustaldi au, ez zaiela atsegingarria izango lekai-me aueri, bañan ezin egon izan naiz etortzeke. Ta etortzen naien bakoitzean, galdera au egiten diet beti: ia iñor berririk sartu dan ala ez...!

—Besterik ez...?

—Besterik ez...!

—Ori besterik ez ba-da, nik-neronek esango nizuke ori.

—Bai...?

—Bai, jauna. Emen bertan bizi naiz eta ez da erreza emen iñor sartzerik, nik jakin gabetanik. Ez dira orregatik lekai-meak asarratuko. Bere lanak ba-dituzte auek ere, ta mesedegarri izango zaie gañera. Nere kontu, ba, jauna. Izango det nik emendik-aurrera orren ardura.

—Eskerrikasko, gizon. Emen izango naiz ni egunero.

—Emen ikusiko nauzu egunero. Ez det emendik alde-egiten. Ez det orain-di Loitzun-go erririk ezagutzen.

—Arrigarria da, ba, ori ere.

—Ala da, jauna. Bañan ez dizut gezurrik esaten.

—Ondo dago. Biar arte, ba...!

—Bai, jauna. Biar arte, Jaungoikoa-k nai baldin ba-du, beintzat.

\* \* \*

Arratsalde-osoan egon ziran Loitzun-go lekai-meak, Pierres jauna noiz etorriko, zai. Ain zuzen etorri oi zan, izan ere... Arratsalde artakoa izango zuan, urteetan egin zuan uts bakarra...!

Ez zekiten zer-pensatu lekai-meak. Gaixo ote zan...? Etsi egin ote zuan...? Egun artan ez agertzeko, zer izan ote zuan Pierres jaunak...?

\* \* \*

Illunabar-arteraño ez zuten ezer jakin lekaike gajoak. Illunabarrean, bai. Orduan adierazi bait-zien marroi zintzoak Pierres jaunarekin arratsalde artan izandako jarduna. Ez ziran, ez, asarratu lekimeak. Ontzat eman zioten Pieres jaunarekin egin zuan tratua. Mesedegarria bait-zan Lekaike-entzat. Andik-aurrera ez zeukaten, ba, Pierres jaunaren zai zergatik egon.

\* \* \*

Lekaike-etxeke apaizarekin bizi zan bertan morroia ere. Ez zuan asko irabazten. Mantenu-trukean bizi zan, batez-ere. Ondo gordeak zeuzkan, ala ere, irabazitako txanpontxoak. Norentzat gordetzen ote zituan...? Ez al-zan, ba, munduan bakarrik bizi zan gizon bat...?

Oe-alboan, eta belaunikaturik, egin oi zituan gaueko otoitzak.

Ez zan lo errezekoa, berez ere, ta neketsuagoa izan zuan gau artako loa. Pierres jaunarekin izan zuan arratsaldeko jardun ura, aski izan zuan loa galerazteko. Zer ote zuan gizon arek...? Lekaike berririk sartzen zan ala ez zer dala-ta jakin nai ote zuan Pierres jaunak...? Ez al-zan arri-garria jaun aren jain-nai ura...?

Goizaldean artu zuan loa gure morroi zintzoak. Begi-ertzetan zeuzkan artean, gauero, ixurtzen zituan malko saminiak. Biotz-bera izaki gure morroi ona.

\* \* \*

Morroiak lo-dagin artean, goazen gu, berrero, Azalgorta-aldera, irakurle.

Bederatzi urte dira, andik irten giñala, ta bederatzi urte auetan, guk jakin-bearreko gora-bera batzuek izan dira Azalgorta-n, da.

Ez du orain Azalgorta-k, leen artu zuan itxurarik. Galdu ziran, berrero, soro-artean azi ziran larrak. Txukun daude Azalgorta-ko baztarrak. Arri-garria da, bañan goraka dijoa, gaur Azalgorta...!

Zer gertatu ote da, ba, Azalgorta-n bederatzi urte auen buruan...?

\* \* \*

Bost urte dira Azalgorta-n lenengo pozaldia izan zutela.

Berrogei-ta amalauren-bat urte zituan Erramona-k. Ogei-ta-bost Anak, eta ogei-ta-iru Manuela-k. Zein baño zein ederragoak agertzen ziran neska-txa gazte biak.

\* \* \*

Oi zuanez, Pol-pol aldera irten zan egun artan ere Ana bere artaldetxoarekin. Aitz-mokor batean eseri, ta bere esku-lanari ekin zion ardura'su. Aitaren oroimena zerabillan buruan. Ez zan beste oroimenik an Ana-ren-tzat. Eta oroimen artan zegoan artean...

—Arratsalde on, Ana, esan zion bere alboan agertu zan gazte batek.

—Arratsalde on, erantzun zion Ana-k ere. Zu al-ziñan, Patxi...?

—Ni nintzan, bai...! Zertan ari zera...?

—Ikusten dezu, Patxi. Gizonezkorik ez dagoala gure etxean, ondo dakizu zuk. Eta gizonezkorik ez dagoanean, norbaitek egin bear artzai.

—Ez da lanbide txarra...!

—Ez da txarra, ez! Bañan ez da emakumeentzat lanbide egoki-egokia ere. Bakarrik egon bear izaten da, ta bildur asko ere igaro bear izaten da. Nor agertuko ote zaidan bildurrez bizi naiz ni beintzat.

—Ain gaiztoak ote gera, ba, gizonezkoak...?

—Zu, ez! Zuri ez dizut bildurrik, Patxi.

—Eskerrikasko, Ana.

—Ez orregatik! Eta zu zer zabiltz emen...?

—Zurekin egotera etorri naiz.

—Nerekin egotera...?

—Zergatik ez, ba...? Aspalditik neukan zurekin itz-egiteko gogoia, bañan ez zera erromeri batera ere agerten... Etxean sartuta bizi zera, Ana...

—Ez diozu gezurrik, Patxi. Azalgorta-n ez dago erromerietarako gogorik. Begien-aurrean dago gure etxeke ondamedia. Aita falta zaigu, ta etxean bizi geran iru emakumeak ez gera ondamedia ori galerazteko gauza.

—Egia diozu, Ana. Ta ori dala-ta, irten egin bear zenduteke, irtetzen ze-

raten baño geiago. Senargai on bat billatu bear zenduke, ta ark galera-ziko luke Azalgorta-ko ondamendia.

—Senargai on bat...?

—Zergatik ez, Ana...?

—Eriotz-egille baten alaba naizenik, ez al-dakizu, Patxi...?

—Zure aita ez da iltzallea...! Aita on askoa izan dezu zuk, Ana...!

—Benetan al-diozu ori, Patxi...?

—Bene-benetan, Ana.

—Auxe poza ematenen didazuna, Patxi. Ez da Urrategi-n ori aitortzen duan beste gizonik. Eskerrikasko, Patxi.

—Ez didazu eskerrik eman bear. Gaur-arte esan ez ba-dizut ere, zure etxeko zorigaitzak minberatua zeukan nere biotza. Zerbait egin nai nuan zuen alde, ta zer-egin ez nekian. Gaur bai...! Gaur ba-dakit zer egin bear nukean. Zuk nai izango baldin ba-zenduke, ez legoke nere aldetik eragozpenik.

—Eta zer egingo zenduke, ba, Patxi...?

—Zurekin ezkondu, Ana...!

—E...?

—Bai, Ana...!

Zer-esan ez zekiala, gelditu zan Ana.

—Ezin leiken gauza da ori, Patxi...!

—Ezin leikela...? Ta zergaitik ez, Ana...?

—Malmai-ko leen-semea zera zu, Patxi, ta ni ezin nindeke Azalgorta-tik irten...!

—Zu ez, bañan ni bai. Ez naiz ni etxean mutil bakarra, Ana. Ba-ditut nik beste iru anai ere, ta anai auetako batek artu lezake Malmai-ko nagusitza.

—Eta naiko ote dute zuen gurasoak...?

—Nere gurasoen kezkarik ez izan, Ana. Zuk nai izatea da naiko...!

—Nere aldeti ez daukat nik oragozpenik, Patxi.

—Eskerrikasko, ba, Ana...!

Eta ardiak biltzeko sasoiean, Patxi izan zan Azalgorta-ko artaldearen artzai egun artan.

\* \* \*

Poztu zituan zerbait Ana-ren berri onek Azalgorta-ko ama-alabak. Mutil ezaguna zuten Patxi. Mutil ona zan. Lanerako aitzakirik izaten ez zuan mutilla. Basarri oneko semea. Gezurrrik esango ez zuan mutilla.

Jaungoikoa-ri eskerrak emanaz errezatu zan gau artan Azalgorta-ko sukaldean errosario santua.

\* \* \*

Aspaldi-ez-bezelako pozaldiakin oeratu ziran irurak.

Ez zan asarre Manuela. Ana-ri etorri zitzaon bezela, berari etorri ba-zitzaion Patxi, "ezezkoa" emango zion berak. Eta ez Patxi-rik nai ez zualako...! Aukeran ere, Patxi ekarriko zukean Manuela-k Azalgorta-rako. Bañan ba-zuan Manuela-k oraindik agertu nai ez zuan zerbait bere biotzean. Eta "zerbait" ortan zegoan, Manuela-k Patxi-ri emango zion "ezezkoaren" sustraia. Orregatik zegoan ain pozik Manuela, Patxi-k egin zuan aukerarekin.

\* \* \*

Urte-buruan ezkondu ziran Patxi ta Ana. Ta ezkontza ura izan zan, Azalgorta berriro jaso-erazi zuan indar berria.

Laister izan ziran Azalgorta-n landara berriak ere. Miel eta Manuelatxo.

Urteterdiko mutil-koxkorra dezu Miel, irakurle, ta illabete batzuetako neska-loxorra Manuelatxo. Ta Manuela-ren besoetakoa dezu neska-koxkorra.

\* \* \*

Auek dituzu, irakurle, Azalgorta-ko azken-berriak. Barri onak bai, bañan, ala ere, ez zan negarrik gabeko egunik Azalgorta-n. Aundia izan aitak utzi zuan utsunea. Aur biak bete ezin bezainbatekoa...!

Ez zan, ba, Azalgorta-n negarrik gabeko egunik izaten...!

## VII

Atxurrean ari zan ordu artan Loitzun-go lekaime-etxeke morroia. Arratsaldeko bostak-edo ziran eta besteetan bezain zuzen agertu zan egun artan ere Pierres jauna lekaime-etxe inguruan.

Ez zeukaten, nor nor zan adierazi bearrik. Lagunak ziran biak aurreko egun-ezkeroztik.

Atxurra baratzean laga-ta, Pierres jauna agurtzera urreratu zan morroia.

—Arratsalde on, jauna.

—Baita zuri ere. Ez al-da iñor berririk sartu...?

—Ez, jauna. Atzo bizi ziranak bizi dira gaur ere etxe ontan.

—Ondo dago.

Eta an-bertako aulki batean eseri zan Pierres jauna.

—Nere jakin-min au xelebrea-xamarra irudituko zaizu, bear ba-da, bañan ez da ematen duan bezain xelebrea. Ba-du nere jakin-nai onek bere zerogatia. Jarri zaite emen nere alboan. Lagun zaitut eta lagun zatudan aldetik nere biotzaren berri emango dizut. Orrela jakingo dezu emen iñor sartzen dan ala ez zergatik jakin nai dedan nik. Ba al-dezu ortarako astirik...?

—Izango ez det, ba, jauna!

—Ez ote zera aspertuko...?

—Ez, jauna, ez; ez naiz aspertuko. Esan-nai ori zer izaten dan ondo bait-dakit nik. Pozik entzungo dizut.

—Eskerrikaso, lagun! Entzun, ba... Alarguna naiz. Bi alaba izan ditut nere alaba. Bi oietako bat ezkondua daukat. Bestea berriz...

Alargundu nintzanean, nere alaba ezkondua ekarri nuan etxera, ta arekin bizi naiz orain ere. Alargun izan arren, zoriotsu bizi nintzan

nere bi alaba, sui ta billobatxoekin. Ba-zuala berak ere bere senargaia, adierazi zidan bein-batean nere bigarren alabak. Nik oso-czaguna nuan mutilla zala-ta, gogokoa izango zitzaidala, noski. Ta ala zan, izan ere.

Maite nuan nik mutil ura. Etxe-oneko semea zan, eta etorkizun ona izango zuan mutilla. Poz egin nion alaba gazteak ekarri zidan berri oni. Noitz-nai ikusten nituan biak alkarrekin. Maite zuten alkar. bai.

Laister ezkonduko zirala-ta, zenbat amets gozo ez nituan egin nik egun aietan...! Aita nintzan, eta auxe izaten da, izan ere, aita baten ametsa: bere umeen zoriona. Zuk, bear ba-da, ez dezu onelako gauzarik jakingo, aita izan bear izaten da ortarako-ta... Jarrai dezagun ordea.

Ona zan alaba. Ezin nezake ukatu...! Elizkoia...! Elizkoiegia zoritxarez nere leengo usteetan beintzat. Elizkoitasun orrek galdu-erazi zidala nere alaba, esan izan nuan bein baño geiagotan. Gaur ez nuke orduan jardun nuan bezela jardungo. Beste era batera ikusten ditut gauza aukerak gaur. Alabarik ez ba-det, ez da alabaren errua, nerea baizik. Orduan, ordea, ez nituan gauza aukerak onela ikusten. Eta ain mingarria izan zitzaidan alabak artu zuan erabakia...!

Igande egun bat zan. Ez det bein-ere aaztu izan geroztik igande-egun artako illunabar ura. Alaba noiz etorriko, zai-zai nengoan. Azaldu zanean, irripar gozo bat loretu zitzaidan ezpañetan.

Zer dio Yon Andoni-k galdetu nion goxoki. Noiz ezkondu bear dezute...?

Ez nuan nik orduan alakorik uste. Negar batean asi zitzaidan alaba.

Beregana urreratu nintzan-da...

—Zer dezu, maite, galdetu nion xamurki. Asarratu egin al-gera Yon Andonik...?

—Ez, aita, ez naiz asarratu. Ez da ori, aita, erantzun zidan negarrez.

—Zer dezu, ba...? Zer dala-ta, negar egiten dezu, ba...?

—Nik ez det ezer, aita. Zuk izan bear derun naigabeak, negar eragiten dit.

—Nik izan bear dedan naigabeak...?

—Bai, aita. Zuk izan bear dezun naigabeak.

—Zer esan nai didazu orrekin...?

- Ara, aita, ta barkatu...! Nere ezkontzarekin ametsetan ari zera egu-  
nero, ta ni ez naiz ezkonduko...!  
—Ez zerala ezkonduko...?  
—Ez, aita. Ez naiz ezkonduko.  
—Zer dala-ta...?  
—Ez asarratu, aita. Yon Andoni-ri auxe bera esan diot gaur.  
—Ez al-dezu, ba, Yon Andoni-rik maite...?  
—Bai, aita. Iñor maite izan ba-det, Yon Andoni maite izan det. Bañan  
beste bide batetik nai nau Jaungoikoa-k.  
—Zer esan nai dezu orrekin...?, erantzun nion asarre. Lekaike izan nai  
dezula-edo...  
—Nik ez...! Jaungoikoa-k nai nau, lekaike.

Ordaun, bai asarratu nintzala. Bene-benetan asarratu ere.

- Alperrik, erantzun nion. Ez zera lekaike izango. Emezortzi urte bes-  
terik ez dituzu ta nere mendekoa zera oraindik. Ezin zindizke nere bai-  
menik gabe lekaike izan, eta ez dizut ortarako baimenik emango...!  
Alperrik zabiltz, ba, zu ta alperrik dabilz zure buruan ori sartu nai  
dizuten apaizak. Apaiz oiek, izan ere, txoratu egiten zaituzte. Ez al-dute  
beste egitekorik...? Zure eguneroko elizara-joateak onelako zerbait  
ekarri bear zuten bai. Bukatu ziran, ba, kontu oiek. Astean-bein joango  
zera elizara gaurtik-aurrera. Ta orduan ere, nerekin joan da nerekin  
etorriko zera. Ez nuan uste ain txoro irten bear zenduanik...!

Eta besterik gabe oeratu nintzan ni.

Oetik aitzen nituan alabaren negar-zotiñak. Ez dakit noiz oeratu zan.  
Ez nuan nik lo askorik egin. Ark ere ez, noski. Etengabeak izan ziran  
aren negarra. Bañan, alperrikoak ere bai...! Ez nengoan ni, orduan,  
negar aiek biguntzeko.

Bete zituan ark nere esanak. Ez zan etxetik irtetzen ere. Urte bi luze  
igaro zituan orrela. Ta urte bi oietan ez zan nere etxean lekaike-izenik  
aipatu ere. Bere asmoari laga izan ziola ere, uste izan nuan. Bañan,  
ez...!

Ogei-ta-bat urte bete izan zituanean, bere asmoan zintzo irauten zuala  
adierazi zidan berriro.

- Bere buruaren jabetasuna ematen zion orduan Legea-k, eta nik ezin  
nezakean eragozpenik ipiñi.

Asarerak itxutu ninduan berriro, ta zer egiten nuanik ez nenkiala,  
nere gelara joan, ari tokatzen zitzaion seni-partea artu ta, "tori, esan  
nion. Or dezu zure seni-partea ta zoaz bertatik nai dezun tokira. Ez de-  
zu gaurtik emen bizi-izaterik izango. Ez zaitut alabatzen ezaguten. Eta  
ziur egon, zu lekaike sartuko zeran etxe ura, nik kixkali-eraziko deda-  
la su ta gar. Eta ondo daizu ni nor naizen olakoetan.

Negar zegin bene-benetan gajoak. Ez zuan etxetik irten nai. Ta inda-  
rez atera bear izan nuan etxetik.

Eskillara-buruan gelditu zan negarrez. An igaro zituan ordu batzuek.  
Samintasunez beteak ikusten nituan etxeoak, bañan gogor nengoan  
ni nere asmo gaiztoan. Zorigaiztoko alaba...! Eman nizkion diru-gei-  
nak etxeke ate-ondoan laga-ta, joan zan noizbait, gajoa...!

Ez det geroztik aren berririk. Ondo zigorkatu nau Jaungoikoa-k. Ez  
det geroztik pozik. Mingarria da ordutik daramadan bizitza.

Onerako asmoetan zala jakin nuan geroago. Auxe zala beretzako au-  
eratua zeukan lakaike-etxea. Orretxegatik etortzen naiz egunero one-  
ra. Ez nuke nere alaba ori ikusi ta besarkatzeko itxaropenik galdu nai.  
Azalduko al-da, beintzat. Ez nuke aren barkapen-itza entzun gabe il  
nai. Ona zan gajoa...!

Eta negarrari eman zion Pierres jaunak.

\* \* \*

Zer esan ez zekian morroiak" Arindu nai zion Pierres jaunari bere nai-  
gabea, bañan alperrik...! Ez zitzaion ortarako itz egokirik sortzen. Ala  
ere, zerbait esan bear eta...

—Azalduko da oraindik zure alaba ori, jauna.

—Azalduko al-da...! Azalduko al-da, bai...! Nun dagoan, jakingo al-det  
beintzat. Aretxeri muxu bat eman eta nere alabatzen ezagutzen dedala  
esatearren, munduko baztarrik izkutuenera joango nintzake poz-  
pozik.

Orra, ba, esan nere jakin-naiaren sustraia. Ez zaizu, orain beintzat, ain xelebrea irudituko nere eguneroko galdera.

—Ez, jauna. Oso bidezkoa iruditzen zait orain.

—Inoiz ezer jakiten ba-dezu, adieraziko didazu.

—Bai, jauna. Adieraiko dizut. Poz-pozik adieraziko ere.

—Ondo dago, lagun...!

Eta malkoak legortu ondoren, "bigar arte" esan, eta agurtu zuan Pierres jaunak Loitzun-go lekai-me-etxe-ko morroia...

## VIII

Luze joan zitzaion gaua Loitzun-go lekai-me-etxe-ko morroiari. Luze gaua ta berandu argitu zitzaion eguna ere.

Ez zeukan egun artan, beste egunetan oi zuan bezelako lanerako gogorik. Gogoramenez beterik zeukan burua. Atsedetik ematen ez zioten gogoramenez betea. Atxurka batetik bestera. Jaungoioa-k daki zenbat denbora igarotzen zuan egun artan.

Ez ziran berak nai bezain laister etorri arratsaldeko bostak. Pierres jauna ikusi zuan bezain laister, atxurra soroan besteetan oi zuan bezela laga-ta, Pierres jaunarengana eldu zan gure morroia.

—Arratsalde on...!

—Baita zuri ere.

—Besteetan ere nekez izaten baldin ba-det loa, besteak ez bezelako gaua izan det bart-ko gaua. Ez det begirik lotu. Zuk atzo-arratsaldean esandakoak ezin kendu izan ditut burutik gau osoan. Eta Jaungoioa-k bakarrik daki, zer pensamentu etortzen zaizkion bati onelakoetan. Neri beintzat etorri zaizit galanki. Ez zera nik nai bezain azkar etorri.

—Ez al-naiz, ba, betiko orduan etorri...?

—Bai, ala etorri zera. Bañan zai dagoanari, luze joaten zaizkio orduak. Eta zure zai nengoan gaur...

—Zer, ba...! Lekai-me berriren bat...?

—Ez, jauna, ez... Ez da inor berririk egertu. Bañan goazen aulkiraño. Nik bart ibill ditudan gogamenak azaldu nai dizkizut-eta. Min emango ote dizudan, bildur naiz, bañan ez dira min-ematekoak nere asmoak. Eseri zaitte, ba, ta entzun zaidazu arren.

—Pozik entzungo dizkizut, entun ere. Ez bildurtu. Esan bear dituzunak argi ta garbi esan.



—Ara, ba, jauna, asi zan morroia. Orain urte batzuek, mugaz-aruntzko gizon bat agertu zan emen eskale. Itxura oneko gizona zan eta mai-kide artu zuan emen-bertako apaizak. Irurok bazkaldu genduan, ba, alkarrein.

Ez zan berritsua gure eskalea. Ixilik egon zan geienbat otordu-bitartean. Ala ere, ezin gorde izan zuan biotzean zeraman arantza. Arpegian igartzen bait-zitzaion barruko naigabea. Zirikatu zuan pixka-bat apaizak eta laister azaldu-erazi zion bere naigabe ura.

Mugaz-aruntzko gizon bat zala esan zigun. Ez zuala ordurarte eskean ibilli-bearrik izan. Basarri bateko nagusia zala. Bere emazte ta alaba birekin bizi izan zala ordurarte basarrian. Bañan iges egin bear izan zuala-ta, ordutik zebillela etxerik-etxe eskean.

Eta zergatik iges egin zuan, galdetu zionean apaizak, ona zer erantzun zigun eskale ark. Ardiak bldu-ta etxeratzekoan, bere sallekko erreka-zulo batean, neskatxa gazte baten gorputza arkitu zuala illotzik. Odoletan agiri zala, beintzat. Ez-ezaguna zala neskatxa. Berak ez zuala luzaro begira egoteko ausardirik izan, bañan ez zitzaiola, beintzat, an-inguru-etako neskatxa iruditu. Bera errudun egingo ote zuten bildur izan zala ta, ifiori ezer esan gabe, iges egin zuala erriko agintari ta "Guardia civil"-ak bere basarri-aldera zetozela ikusi zuan bezaïn laister...

—Gizon gizajoa...!

—Ez zenitun ala ere, aren malko garratzak ikusi...! Ez zuala orrelakorik egin bear, esan zion milla-bider-gutxienez apaiz jaunak, bañan alperrikoak izan ziran aren esanak...! An gelditu izan ba-litz, espetxeratu egingo zutela-ta, orregatik egin zuala iges. Bere pardela artuta, an joan zan. Nundik-nora ote dabillen gaur, Jaungoikoa-k baka-rrik daki.

—Ondo dago, lagun...! Eta zer esan nai didazu orrekin ..? Beste batzuek ere izaten dituztela nik añeko naigabeak...?

—Ez, jauna. Ez dizut orrelakorik esan nai. Ta esan nai dizudana esateak, orretxek ematen dit bildur. Leendik ere biotza ondo naigabetua baldin ba-daukazu, ez ote dizut nik, nere esan bear onekin, geiago naigabetuko...? Ixillik egoteari ere, ez diot bidezkoa irizten beste alde batetik. Ona ba, emen nere gaurko estuasunaren zergatia.

—Ez bildurdu, lagun. Naigabeari egiña dago nere biotza. Ez dezu dagoan baño geiago naigabetuko...!

—Ez al-dezu esan nai dizudanaren susmorik artu...?

—Ez det, ba, artu, ez...!

—Ez al-dira bederatzi urte zure alaba ori etxetik irten zala...?

—Bai, bederatzi urte dira nere alaba ori etxetik bota nuala...!

—Eta bederatzi urte dira, esan dizudan eskale ori ere emen agertu zala?...?

—Eta...?

—Ara ba, jauna. Ez al-da egia izango, bañan egia izango ote dan bildur naiz. Ez ote zan zure alaba, erreka-zuloan eskale ark, illotzik, arkitu zuan neskatxa ura...?

—Nere alaba...? Ezin zitekean ura nere alaba izan...! Zertarako joan bear zuan mugaz-aruntz...?

—Zertarako...? Ona-emen neri bururatu zaidana. Ez al-zenion zuk, zure alabari esan, emengo lekaime-etxe batean sartzen baldin ba-zan, su ta gar kixkaliko zenduala zuk lekaime-etxe ura...?

—Ala esan nion, bai...!

—Eta ez ote zuan, ba, zure alaba orrek, zuk esan zenion orren bildurrez, mugaz-aruntzko lekaime-etxe batean sartzeko asmorik artu...?

—Ez al-zuan orrelakorik egingo...!

—Egin zuan ala ez, ezin dezaket nik ori esan. Egin ote zuan bildur naiz, ordea. Ez-ezaguna omen zan neskatxa. Nor ian zitekean, ba...?

—Eta neskatxa arek, nere alaba bear al-zuan, nai ta nai-ez...?

—Ez, jauna. Beste edonor izan zitekean, bañan zure alaba izango zala esaten dit biotzak. Zure tokian ba-nengo, ez nintzake trankil egongo ori jakin gabe, beintzat. Joan-etorri bat egitea, zer kostatzen zaizu zuri...?

—Nora, ordea...?

—Eskale ark esan zigunez, Urrategi-n arkitu zuan ark neskatxa aren gorputza. Ta ez du emendik urruti egon bear Urrategi orrek...!

—Ez dago urruti, ez. Mugaz-aruntzko lenengo errietako bat dezu Urrategi. Aruntz joatea besterik ez ba-lego... Urrategi-ra joan eta aterako ote nuke ezeren aztarrenik...?

—Nik baietz uste. Biziko dira oraindik beintzat gorputz ura jaso zuten gizonak. Ez ote lizuteke ba, gizon aiek zerbaiten aztarrenik emango...?

Ta joaten ez ba-zera ere, ez al-dezu beti zurekin, neskatxa ura zure alaba ote zan ala ez, kezka izango...?

—Egia da ori, ere...

—Bai, jauna. Egia da...! Ezin zindezke, ba, joan-etorri ori egin gabe gelditu. Joan zaite, ba, leenbaitlen. Poz aundi bat emango didazu neri ere, joan-etorri orrekin.

—Ondo dago, lagun. Bigar azaltzen ez ba-naiz, Urrategi-ra joan naizen señailea izango dezu. Alkar ikusi arte, ba...!

—Nai dezun arte, jauna.

Eta besterik gabe erri-aldera joan zan Pierres jauna.

\* \* \*

Loitzun-go lekaimetxe morroiak besteetan ez-bezelako poz bat zeukan gau artan. Otoitz xamurrak izan ziran, gau artako aren otoitzak. Besteetan ez-bezelakoa aren loa ere. Amets gozo batean igaro zuan gau osoa...

## I X

Ez zuan Pierres jaunak gau artan lekaimetxe morroiak bezelako lo gozorik izan. Esnarik igaro zuan gau osoa. Lekaimetxe morroiak esandakoak, kezka sortu zioten biotzean. Bere alaba ote zan ba, Urrategi-n illotzik agertu zan neskatxa ura...?

Eta orrelako kezka batekin, nork egin dezake lo, lasai...?

Lo-ezin artan, erabaki sendo bat artu zuan Pierres jaunak. Urrategi-ra joango zan, bai. Ta Urrategi-ko Erretore jaunak emango zion, bear bada, zerbaiten aztarrena.

\* \* \*

Pierres jauna Urrategi-ra iritxi zanean, arratsalde-erdia-edo zan. Egun artako izparringia irakurtzen ari zan Erretore jauna.

—Aurrera...! ots egin zuan Erretore jaunak, aren atean kox-kox jo zuten bezain laister.

—Arratsalde on Jaungoikoa-k, agurtu zuan Pierres jaunak.

—Baita zuri ere. Ona emen eserleku bat. Eserita obeki jardungo degu. Ez al-diozu ala irizten...?

—Eskerrikasko, jauna.

—Ez zera, ba, urrategitarra izango...? Ez zaituk nik ezagutzen-da.

—Ez naiz urrategitarra, ez. Mugaz-aruntzekoa naiz. Loitzundarra. Ezagutzen al-dezu Loitzun-go erria...?

—Entzutez, bai. Bañan ez naiz bein-ere an izan. Eta zerk ekarri zaitu, ba, Urrategi-ra...?

—Ara ba, jauna. Gauza bat jakin-naiean etorri naiz. Ez dakit, jakin nai dedan ori jakitea erreza izango zidan ala ez. Bañan jakin-nai aundia daukat. Ez ote didazu zuk nere jakin-min au aseko...?

- Zer jakin nai zenduken esan bearko didazu ortarako, aurrena.
- Bai, jauna. Poz-pozik esango dizut, esan ere. Orain bederatzi urte neskatxa gazte bat arkitu zutela emen, illotzik, esan didate Loitzun-en.
- Ala da. Ta nor izan zitekenik, ez degu oraindik jakin. Emen-auetakoa ez zan beintzat neskatxa ura.
- Eta zenbat urte izango zituan gutxi gora-bera...?
- Ogei-ta-abt urte edo, Sendagille jaunak esan zuanez.
- Ille gorrixka al-zuan...?
- Bai, jauna. Ala omen zuan.
- Nere alaba ote zan, ba...? esan zuan larri-larri.
- Zure alaba...?
- Bai, jauna. Nere alaba!

Eta alabarekin zer gertatu zitzaion, argi ta garbi esan zion Pierres jaunak Urrategi-ko Erretoreari .Ta geroztik zeraman samintasuna ere, bai.

- Zer egingo dezu, ba, erantzun zion Erretore jaunak, Pierres jaunak bere itz-saioa bukatu zuanean. Edonork izan oi du itxumen-aldi bat, eta itxumen-aldi batean, edozer gauza egin oi da, naiz-eta gero, egiñakin ondo damutu.
- Egia da, jauna. Barkatuko al-zizkidaten Jaungoikoa-k eta nere alabak, nik orduan esan eta egin nituan gaiztakeri guztiak!
- Barkatuko zizkizuten, bai. Ez dezu orren kezkarik izan bear.
- Eta zer izan ote zuan, ba, gajoak...?
- Zer izan...? Ez al-dizute ezer esan...? Emen il-da agertu zan neskatxa, baten-batek il zuan...!
- Il egin zuten, beraz...?
- Bai. Bizkar-aldean zauritu omen zuten, eta odol-ustu egin omen zan, sendagille jaunak esan zigunez. Aizto bat ere agertu zan gorputz-ondoan. Epaille jaunak izango du oraindik aizto ura.

Zure jakin-nai ori asetzea, ez da ba gauza zailla izango. Neskatxaren argazki batzuek, ere, egin ziran, eta argazki oiek eta neskatxak egun artan zeraman soñekoa, Epaille jaunak dauzka oraindik. Argazki ta soñeko ortatik errez jaingo dezu, ba, emen illotzik agertu zan neskatxa ura zure alaba zan ala ez. Nik-neronek lagunduko dizut. Epaille jaunarengana. Atoz, ba, nerekin.

Eta Epaille jaunaren billa irten ziran Erretore jauna ta Pierres jauna.

\* \* \*

Udal-etxean arkitu zuten Epaille jauna.

Azaldu zion Erretore jaunak Pierres jaunaren jakin-miña ta laister zitu-an onek, bere eskuetan, neskatxa illari atera zizkioten argazkiak. Argazkiak ikusi orduko...

—Nere alaba da, bai, esan zuan negarrez Pierres jaunak.

Eta argazkieri begi-begira gelditu zan une batzuetan.

Eta beste ainbeste gertatu zitzaion, neskatxa illari kendu zioten soñekoa-rekin ere.

—Bai!, esan zuan Pierres jaunak soñekoa ikusi zuan bezain laister. Soñeko auxe zeraman, bai, nik etxetik kanpora bota nuanean. Alaba errukarria...! A zer eriotza izan duan! Barkatuko al zidan, beintzat.

—Auxe dezu, jauna, esan zion orduan Epaille jaunak, zure alabaren gorputzondoan jaso genduan aiztoa. Aizto onekin egindakoa zala, zure alabak bizkar-aldean zeukan zauria, esan zigun Sendagille jaunak. Ez dira auek zuretzat oroigarri ederrak izango, bañan eraman nai baldin ba-dituzu, zureak dituzu bertatik.

—Eskerrikasko, erantzun zion Pierres jaunak, eta Epaille jaunarekin gelditu zan.

Bere zeregiñetara joan zan Urrategi-ko Erretore jauna.

- Egingo nizuke nik ere galdera bat, esan zion orduan Epaille jaunak.
- Galdetu, jauna, erantzun zion Pierres jaunak.
- Zure alabaren gorputz ori, emen azaldu zala, bederatzi urte luze dira, jauna. Alegin guztiak egin ginduzen berri artan, zerbaiten aztarrena aterako. Bañan alperrikoak izan ziran gure alegin guztiak. Geroztik ez gera asko saiatu, egia esan.

Ori dala-ta, sortu zait neri orain jakin-nai au: nolatan jakin dezu zuk, mugaz-aruntz, eriotz onen berri...?

—Ara ba, Epaille jauna. Ba-det Loitzun-en lagun egin dedan morroi bat. Ark esan zidan zerbait eta aren esana egitearren etorri naiz onera.

—Morroi batek...? Eta nundik ote zekian morroi orrek eriotz onen berri...?

—Esango dizut, ba, jauna, Orain bederatzi urte eskale bat agertu omen zan Loitzun-en. Lekaimetxe batean morroi dagoan gizon bat det nere laguna, ta lekaimetxe ortan eman omen zioten ostatu eskale ari. Ta eskale ark esan-da, jakin zuan nere lagun orrek emengo berri.

—Eta eskale ura nor zanik ez al-zizun esan...?

—Bai. Ta urategitarra izan bear zuan eskale ark, izan ere. Bere sallean agertu zala nere alabaren gorputz ori ta, errudun egingo ote zuten bildurrez, iges egin zuala etxetik.

—Mugaz-aruntz dabil beraz...?

—Zer...? Ezagutzen al-dezu, ba...?

—Ezagutuko ez det, ba...? Danok ezagutzen degu emen Azalgorta-ko Miel. Gizon ontzat euki genduan beti, bañan ustela irten zan. Eskale ura dezu zure alabaren iltzallea. Ta iltzallea ez baldin ba-da, eriotz orrekin zer-ikusí aundia izango du, beintzat. Ez zuan, bestela, emaztea ta bi alaba utzi-ta zergatik iges egin.

Loitzun-aldean da, beraz...? Gizajoa...! Azalgorta-k lur-jo ez baldin badu, alaba zaarraren ezkontzari esker ez du lur-jo. Onen gizonak jaso baitdu Azalgorta berriro ta landara berri bi sortu-erazi bertan: semetxo bat eta alabatxo bat.

Ai, jauna. Uste!ak dira, bai, gizonaren itxurak...!

—Loitzun-en eskale agertu zan, Azalgorta-ko Miel da beraz nere alabaren eriotz-egillea...? Ez du orrelakorik uste izango nere marroi lagunak...!

Eta une ontan azaldu zan berriro Udal-etxean Urrategi-ko Erretore iau-na. Bat-batean ixildu zan Epaille jauna. Eztabaida asko izaten bait-zituzten bien-artean Azalgorta-ko Miel zala ta ez-zala. Ez bait-zuan Erretore jaunak Azalgorta-ko Miel-en errua Epaille jaunak ikusten zuan bezela ikusten. Ontzat zeukan oraindik Azalgorta-ko Miel Urrategi-ko Erretore jaunak.

—Zuri gauza bat esatera etorri naiz, esan zion Pierres jaunari. Ikusi naitko dezu, noski, zure alaba il zuten erreka-zuloa...?

—Bai, jauna. Naigabez arren, ikusi nai nuke, erantzun zion onek.

—Ba, bigar goizean lagunduko dizugu Epaille jaunak eta biok Azalgor-

ta-ko erreka-zulora. Ta andik etorritakoan, zure alabaren illobira joango gera irurok. Eta ostau-bearrean arkitzen ba-zera orain, nere etxean dezu zure ostatua.

—Milla eser, jauna. Moldatuko naiz ni-neroni...!

Eta Epaille jaunarekin utzi zuan berriro ere...

\* \* \*

Goizeko bederatziak izango ziran Azalgorta-alderako bidea artu zutenean. Laister egin zuten ango joan-etorria. Urrategi-ko illerri bidean ziran, ba, eguardi-eguardian.

Neskatxaren illobira iritxi ziran bezain laister, "Aita gure" bat erreza-tu zuan Erretore jaunak.

Belaunikatu zan gero Pierres jauna ta, zotinka batean, barkapen eskeko muxu bat eman zion, bere alaba estaltzen zuan, lurrari...!

\* \* \*

Illunabarrean irte zan Pierres jauna Urrategi-tik, Loitzun-aldera.

## X

Luzeak izan ziran lekaimeen morroiarentzat, Loitzun-dik kanpora Pierres jaunak igaro zituan egunak.

Zai zegoan...! Pierres jauna noiz agertuko, zai...!

\* \* \*

Lekai-me-etxe aurrean ikusi zuanean, ez zion besteetan oi zuan bezela "arratsalde on" esan...

—Eta...? izan zan egun artan, Pierres jaunari Loitzun-go morroi zintzoak egin zion galdera bakarra.

—Nere alaba zan bai, zoritxarrez, erantzun zion Pierres jaunak. Ez dira ustel irten zure usteak. Leen baño lasaiago biziko naiz orain, ala ere. Ba-dakit, orain beintzat, illa dala ta bere alde egingo ditudan otoitzetan, izango det emendik-aurrera nere atsegin bakarra. Azken-orduak, bederen, barkatuko al zidan, gajoak, nik egin nion kalte guztia...!

—Ez dezu orren kezkarik izan bear, erantzun zion morroi zintzoak. Lekai-me izan nai zuan neskatxa batek ezin zezakean bere aitarentzat gorrotorik gorde. Ez dezu, ba, orren kezkarik izan bear...!

—Ala uste al dezu zuk...?

—Ala uste det, bai...!

—Eskarrrikasko!

—Ez daukazu zergatik eskerririk eman. Eta erreza izan al zaizu, an il-da agertu zan neskatxa ura zure alaba zala jakitea...?

—Ezin errezagoa izan! Eta ezpairik ez izateko eran jakin ere, jakin det guztia. Neskatxa-illari egindako argazki batzuek zeuzkan Epaille jaunak eta, argazki aiek eskuan artu-orduko, garbi ikusi nuan, an illotzik agertu zan neskatxa ura nere alaba ber-bera zala. An zeukaten

nere alabak egun artan zeraman soñekoa ere. Ta bertan erakutsi zidaten nere alabak egun artan zeraman soñekoa ere. Ta bertan erakutsi zidaten nere alaba ori iltzeko, iltzalleak erabili zuan aiztoa ere. Nerekin ekarri ditut gauza guzti auk. Nere etxean dauzkat...!

—Benetakoa izan da, beraz, nere ustea, zoritxarrez...?

—Bai. Ta zer egingo da ba...!

—Eta eriotz-egillea nor izan zitekeanik ez al-dizute esan...?

—Bai. Esan zidaten ori ere. Ta an esan zidatenez, orain bederatzi urte emen eskean agertu zan gizon ura bera da nere alaba il zuan gizona. Azalgorta-ko Miel izan bear zuan eskale ark, eta Azalgorta-ko Miel jotzen dute an, Erretore jaunak ez beste guztiak, nere alabaren eriotz-egille bezela.

—Ara, jauna. Nik ez dakit emen azaldu zan eskalea eta zuk esaten dezun Azalgorta-ko Miel ori bat diran ala ez. Bañan eskale ark ez zuala eriotzarik egin ziur-ziur nago. Gizon on bat zan eskale ura, jauna.

—Gizon ona...? Ez didate neri olakorik esan. Emaztea ta alaba biak etxean utzi-ta iges egiten duan gizona ez dala gizon ona, esaten dute an. Ta orixe egin omen zuan Azalgorta-ko Miel orrek. Ez daki, ez, gizajoak, zer ondamendi ekarri zion etxeari. Eskerrak bertako alaba zaarrena, bertako mutil jator batekin ezkondu zanari. Lur jo zuan onuzkero bestela Azalgorta-k. Ta ondamendi ori dakarren gizonari ez nioke nik ere, gizon on izenik emango.

—Ba-zuan orrekin naiko samin gizajoak. Iges egin ba-zuan, bildurrak eragin-da iges egin zuan. Errudun egingo ote zuten bildurrak eragin-da. Ez zeukan ark zer-esanik ezer. Ez genion guk ezer galdetu. Errudun izan ba-litz, ez zigun ezer esango. Ark itz egin zuan bezela itz egiten duan gizona ez da bein ere errudun.

—Egia diozu. Ez dezu arrazoi-paltarik. An, ordea, zuk ez-bezela ikusten dituzte gauza auk.

—Nai dutena esango dute an, jauna. Bañan beste eriotz-egille bat bilatu bear degu guk emen.

—Beste eriotz-egille bat...?

—Bai, jauna. Errota-arri bat dirudi nere buruak, gauza guzti auk jakin nituan ezker. Ez det beste ezertan ere pensatzen. Eta ainbeste gauza etortzen zaizkik burura...! Urrategi-n illa agertu zan neskatxa ura zure alaba izan zitekeala pensatzeak, Jaungoikoa-k bakarrik daki zer burutapen sortu-erazi dizkidan neri buruan, igarotako egun auetan.

- Zure alabari zer gertatu zitzaion, nik neretzako ba-dakit, jauna.
- Eta zer da ba, zure usteetan, nere alabari gertatu zitzaion ori...?
- Gauza bat dakigu, beintzat, ziur. Mendiz iges egin zuala zure alaba orrek mugaz-aruntz.
- Egia.
- Eta ezagutzen al-zituan zure alaba orrek mendi-bide oiek...?
- Ez det nik uste.
- Ez zan beraz, lagunik gabe bide oietan asiko...? Zure alabak ba-zuan gañera diru mordoxka bat, zuk esan zenidanez...
- Bai.
- Eta, nor izan zitekean, zure alabaren lagun ori...?
- Nik zer dakit, ba...! Kontrabandistaren bat, bear ba-da...
- Ez diozu gaizki. Kontrabandistak izan oi dira laguntza auetan ibiltzen diran gizonak, aditzera dedanez beintzat. Ori da, ba, guk emen jakin bear degun gauza. Zure alabari lagundu izan zion kontrabandista ori, nor izan zan.
- Jaungoikoa-k daki ori...!
- Egia diozu. Kontrabandista ori nor izan zan jakitea, ez da guretzat gauza erreza. Bañan ez al-daude, ortarako jarriak dauden gizonak...? Zergatik ez degu, ba, polizi oietara jotzen...? Urrategi-tik ekarri dituzun argazki, soñeko ta aiztoa ez dira oientzat alperrikako gauzak izango. Sen aundiko gizonak dira, esaten dutenez, eta ari-mutur bat naikoa izaten omen dute, korapillorik gogorrena askatzeko. Ni ez naitela kontrabandista oiekin fio...! Diru pixka bat irabaztearren, noiz-nai ipintzen dute beren burua bizitza galtzeko arriskoan. Diru-zalekeriari emanak daude. Duruagatik edozer-gauza egiteko prest egoten dira beti. Utzi dezaigun, ba, pakean, bildurak eragin-da, igesi etorri zan eskalari ta jo dezagun beste bide batetik.
- Ezakituko dezu, bear ba-da, polizi oietako bat-edoren-bat...?
- Ezagutuko ez det, ba! Nere lagun kutun bat det, ain-zuzen, emengo polizi guztien buru.
- Ori ala dala, ez daukagu zertan jardun geiago. Artu itzatu Urrategi-tik ekarri dituzun gauza guzti oiek, eta joan zait leenbaitlen zure lagun orrengana. Ori egin-da, ez dezu ezertxo ere galduko. Ez dezagun eriotz orrekin zer-ikusirik ez duan bat eriotz-egille egin.
- Ondo dago. Beteko ditut, oraingo ontan ere, zure esanak. Bigar ber-

- tan izango naiz nere lagun orrekin. Agur, ba, lagun. Buru azkarra eman dizu Jaungoikoa-k. Ez dezu, dalako Azalgorta-ko Miel ori errudun egiten...?
- Ez. Ark ez dauka eriotz orrekin zer-ikusirik. Gogoan euki nere itz auek, jauna.
- Gogoan izango ditut.

\* \* \*

Pierres jaunak Loitzun-aldera artu zuan eta lekaime-etxe aldera morroi zintzoak.

Amets berdin-antzekoak izan zituzten gau artan lagun biak.

## X I

Ez zan itz askoko gizona Loitzun-go polizi guztien burua. Itz egitea baño entzutea naiago izaten zuan. Bere langintzak erakutsitako gauza izango zuan noski. Ta ba-zeramazkian urte batzuk langintza ortan.

\* \* \*

Goiz-erdia-edo zan, artean, Pierres jaunak ikustatu zuanean.

—Jakin det, azkenean, nere alabaren berri. Mugaz-aruntz agertu zan, orain bederatzi urte, odoletan illotzik. Lekaime-etxean morroi dagoan lagun batek esan zidan zerbait eta, arek esan bezela, Urrategi-ra joan nintzan leengo egun batean. Eta an jakin nuan danaren berri. Nere alaba illari atera zizkioten argazki batzuek zeuzkan gordeta bertako Epaille jaunak, eta laister ikusi nuan argazki aietan, nere alaba zala an il-da agertu zan neskatxa ura. Lotura onetan ditut argazki aiek, eta nere alabak egun artan zeraman soñekoa. Lotura ontan daukat nere alaba iltzeko eriotzegilleak erabilli zuan aiztoa ere.

—Ondo dago, Pierres jauna, erantzun zion poliziak. Eriotz-egillea nor izan zan jakiteko, ondo etorriko zaizkigu iru gauza oiek. Gauza bat laga dezu azaltzeke, ordea. Nundik-nora jakin zuan zure lagun orrek Urrategi-ko berri...?

—Eskale baten bidez. Nere alabakin zer gertatu zitzaidan azaldu nion bein, eta biaramonean esan zikin berak, eskale ari entzundako gauza guztiak. Urrategi-ko basarri bateko nagusia zan eskale ura. Gau-ostatu eman zioten lekaimiak eta afaldu-ondoren, berak eta bertako apai-zak zirikatu-ta, jakin zuten danaren berri. Bere sallean agertu zala il-zuten neskatxa aren gorputza ta, bera errudun egingo ote zuten bildurrez, mugaz-onuntz iges egin zuala etxean ezer esateke.

—Zure alaba il-zuan gizona ez ote zan eskale ori bera, gero...?

—Baietz diote Urrategi-n, bañan ezetz dio nere lagunak. Eriotz arrekin zer-ikusirik izan ba-lu, ez zuala eriotz ura aitaturko, dio berak. Nere alaba ere ez zala emendik bakarrik irtengo. Bidea erausteko lagun bat artuko zuala emen. Eta lagun ori kontrabandistaren bat izango zala, noski. Kontrabandistak ibilli oi dirala-ta orrelako gauzetan.

—Buru azkarra du zure lagun orrek.

—Ez da, ez tontoa.

—Eta ba al zuan dirurik zure alaba orrek...?

—Bai. Ez nik eman nion guztia, bañan mordoxka bat bai.

—Eta il-da agertu zanean, berekin al-zituan diru oiek...?

—Ez. Aren gauza guztiak ondo gordeta zeuzkaten Urrategi-n, eta dirurik izan ba-lu, emango zidaten, noski.

—Ondo dago, Pierres. Poliziak onelakoxeak gera ordea, ta azken-galdera bat egin bear dizut. Zer-nolakoa da zure morroi lagun ori...?

—Gizon ona, munduan onik baldin ba-da...!

—Ez dezu beraz, ori zure alabaren iltzalle bezela jotzen...?

—Ez, orixe...!

—Ondo da, Pierres. Utzi zazu emen lotura ori ta, zure lagun orrek dion bezela, kontrabandistaren bat baldin ba-da zure alaba il zuana, laister jakingo degu kontrabandista ori nor izan zan. Eta zure alaba orrekin zer gertatu zaizun, ez zaiozu, oraindik beintat, iñori esan.

\* \* \*

Pierres jauna irten zan bezain laister, ekin zion lanari polizi jaunak. An zituan, bere papar-artean, Loitzun-en izan ziran, eta orain ziran kontrabandista guzien izen, abizen, gaitz-izen eta abar.

Orduan kontrabando-lanean jarduten zuten gizonak zazpi ziran Loitzun-en. Illak ziran beste guztiak.

Bere mendeko bati dei egin-da, Loitzun-en bizi ziran zazpi kontrabandistak espetxeratzeko agindua eman zion.

Eta espetxean igaro zuten gau ura Loitzun-go zazpi kontrabandistak.

\* \* \*

Biaramon-goizean, bere lan-gelan artu zituan Polizi jaunak zazpi gizon aiek. Pierres jaunak ekarri zion aiztoa erakutsi, ta onela itz egin zien Polizi jaunak.

—Aizto au zuetakoren batena ote dan jakin nai nuke. Ta zuetakoren batena ez ba-litz, norena dan edo norena izan zan jakin nai nuke. Ziur nago zuen-artekoa dala aizto au. Ta onen jabea nor dan, edo nor izan zan, ondo dakizute zuek. Ez zerate, ba, espetxetik irtengo, onen jabearen izena eman arte, Ona emen aiztoa... Ta illunabarrean etorriko natzaizute erantzunaren billa.

\* \* \*

Eskuz-esku ibilli zan, zazpi gizon aien artean, Polizi jaunak emandako aiztoa. Zazpirak ezagutzen zuten aizto aren jabea. Nola ez...? Eurekin kontrabando-lanean ibiltzen zan lagun batena bait-zan. Ala ere, ez zuan iñork lagun aren izenik aitatzen...

\* \* \*

Aurrera zijoazten orduak. Laister azalduko zan berrero Polizi jauna, ta espetxean igaro bearko zuten bigarren gaua ere, izenik ematen ez bazioten beintzat.

Norbait asi bear eta, zazpiretan buru-egiten zuana, asi zan izketan.

—Ara, jaunak, esan zien onek. Saldukeria ez da gure arteko gauza. Ezin dezake kontrabandista batek bere lagunik saldu. Orregatik, gutako iñork aizto onekin zer ikusirik ba-lu, esan dezala garbi. Ez degu salduko. Ez eta bizitza osoa espetxean igaro bear ba-degu ere. Erantzun, ba guztiok.

Eta ezezkoa izan zan guztien erantzuna.

—Ondo dago, jarraitu zuan orduan. Aizto au norena izan zan, jakin guztiok dakigu. Orain lau-bat urte il-zan bera. Nik dakidanez, beintzat, ez zuan guk baño gaiztakeri aundiagorik egin. Eta gure aitor-

men ontatik ez zaio kalterik etorriko. Gauza, dan bezela esatea, iruditzen neri. Polizi jaunak zer jakin nai duan, ez dakit nik. Zuetako iñork ezer ba-leki...

—Guk ere ez dakigu ezer, erantzun zioten beste guztiak.

—Ondo dago. Dan bezela, esango degu beraz. Eta ez al-dute, beintzat, Peru Okotz eriotzetik esnatuko...

\* \* \*

Pierres jaunaren etxean egon zan arratsalde artan Polizi jauna. Pierres-en alabaren beste argazki bat nai zuan. Bizi zan artean ateratako argazki bat. alegia. Ta argazki au patrikan, etorri zan bere lan-tokira.

\* \* \*

Arratsaldeko zortzirak ziran artean.

Ekarri-erazi zituan zazpi gizonak, eta bakoitzari zorrotz begiratu ondo-ren...

—Norena da, ba, aizto au, galdetu zuan besterik gabe.

—Gurea ez...!, erantzun zion zazpiretan buru egiten zuanak.

—Zuena ez ba-da, norena da,ba...?

—Orain lau urte il zan orren jabea.

—Peru Okotz-ena zan, beraz...?

—Bai, jauna. Ura da, orain lau urte il zan gure laguna.

—Ondo dago. Bañan ba-det, oraindik, beste jakin-nai bat.

Eta Pierres jaunaren alabaren argazkia patrikatikan atera, ta onela jarraitu zuan Polizi jaunak.

—Ez dakit neskaxa au ezagutzen dezuten ala ez. Pieres jauna ezagutzen dezute, noski. Ba, aren bi alabaetako bat dezute, emen argazki ontan agertzen dan neskaxa au. Mugaz-aruntz lekaiame dago gaur neskaxa au. Orain bederatzi urte igaro zituan mugak. Ogei-ta-bat-urte besterik ez zituan artean, eta ez da ogei-ta-bat urteko neskaxarik, mendi-bide oiek ezagutzen dituanik. Ez zituan, beintzat, onek ezagutzen. Mugak igarotzeko lagunak bat artu zuan, noski. Ta lagun auek nortzuk izaten diran danok dakigu Zuetakoren bat izango zan, noski.



Nor izan zan jakin bear det, nai ta nai-ez. Zuen erantzunaren billa, bigar eguardian etorriko naiz berriro. Gabon igaro, ba...

Eta espetxera bialti zituan, berriro zazpi, gizon aiek.

\* \* \*

Ez ziran oso gozo gelditu zazpi gizonak, bigarren gaua ere espetxean igaro bear zutela-ta. Beste alde batetik, zazpi aietako batzuek ez zuten neskatxa ura bein-ere ikusi. Eta Polizi jaunak zer jakin nai ote zuan bigarren galdera onekin, ez zan erreza jakitea...

Neskatxa aren muga-igarotzeak ez ote zeukan zer-ikusirik goizeko aitzo arekin...? Lekaiame ote zegoan, gero, neskatxa ura mugaz-aruntz...? Zergatik ez zioten, ba, bere aitari galdetzen...? Ark esango zien, ifiork ez bezela, nor izan zuan lagun bere alabak, mugak igaro zituan egun artan...!

Oldozmen auetan egon ziran luzaro zazpi gizon aiek, eta guztien buru egiten zuana, asi zan berriz ere izketan.

—Nik ez dakit neskatxa orren berr', esan zien. Nik ez dakit, neskatxa ori lekaiame dagoan ala ez. Ifiork zerbait ba-leki, esan dezala ba, argi ta garbi.

—Ona, ba, emen nik dakidana. Bederatzi urte izango dira bai, ta Exkerren ardotegian geunden gu, Peru Okotz eta biok. Gau illuna zan. Gazte bat sartu zan ardotegian eta Peru Okotz-i dei-egin zion gazte ark. Ardotegitik kanpora irten ziran biak. Andik-laister etorri zan, berriro ere ardotegira, Peru Okotz. Mai-gaiñean zeukan ardo-basoa edan, eta laister gertatu zan etxerako moduan. Berak esan zidanez, goizeko lauretan irten bear omen zuan mugaz-aruntz, Pierres jaunaren alabarekin; mugaz-aruntzko lekaiame-etxe batera eraman bear zuala-ta. Ta gaizki ez ba-nago, Peru Okotz-en billa etorri zan gazte ura Pierres jaunaren alaba orren senargaia-edo zan garai batean beintzat. Exkarra-nean zan biaramon-illunabarrean Peru Okotza. Okerrik gabe egin zuala joan-etorria, ta lekaiame-etxe batean utzi zuala Pierres jaunaren alaba, esan zidan. Ora nik dakidan guztia.

—Lekaiame dago, beraz, neskatxa ori...? galdetu zuan guztien buruak.

—Lekaiame-etxe batean utzi zuala beintzat, esan zidan neri Peru Okotz-ek.

—Bera izan zan, beraz, neskatxa orri lagundu ziona...?

—Bai. Bera izan zan.

—Ondo dago. Nik ez dakizkit Polizi jaunaren asmoak zertzuk diran. Gauza guzti auetan, guk ez dakigun zerbait ote dagon bildur naiz ni. Peru Okotz bera bear genduke guk emen, izkutapen au zer ote dan jakiteko. Bañan ezin egongo gera Peru Okotz-en zai...!

Dana-dala, bere kontuak eman zizkion ark Jaungoikoa-ri ta esango degunagatik, ez zaio beintzat oker-berririk etorriko. Il ez ba-litz, izango ziran emen kontuak. Eskerrak illa dagoanik, bai...! Ez al-da beintzat, gure aitormen au dala ta ez dala, zerutik inpernura jetxiko...!

—Ez orren bildurrik izan, erantzun zuan batek. Gure aitormen onegatik, zeruan edo infernuan, nun dagoan, an jarraitu bearko du Peru Okotz gizajoak.

—Egia esatea izango degu, ortaz, egokiena.

—Bai! erantzun zioten guztiak.

—Ondo dago, ba... ta gabon igaro.

\* \* \*

Biaramon-eguardi-aldera berriro artu zituan zazpi gizon aiek Polizi jaunak...

—Eta...? galdetu zuan Polizi jaunak berriro.

—Bai! erantzun zion danen buruak. Peru Okotz izan zan neskatxa orre-ri lagundu ziona ere.

—Ondo dago. Bañan bildur bat det. Peru Okotz-ek ez dauka erantzuterik. Illa bait-dago. Ta ildako gizon bat errudun egitea ez da gauza zaila. Ez ote dezute zuek ere Peru Okotz errudun egin, zuen buruak onela garbitzearren...?

Zuek esaten dezuten au egia dala esan dezakean beste gizonik ez alda munduan...?

—Bai, jauna. Ba-da bat, beintzat: neskatxa orren senargaia izan zan gaztea.

—Yon Andoni...?

—Orrelako izenen bat du, bai...

—Ondo dago. Laister egongo naiz Yon Andoni-rekin. Bañan untzun ondo. Zigorkada bildurgarria izango dezute, ildako bat gezurretan eriotz-egille egin ba-dezute. Ta Peru Okotz eriotz-egille izan zan, zuen aitormena egiatzkoa baldin ba-da beintzat.

Arnasarik gabe gelditu ziran zazpi gizon aiek. Ez bait-zuten olakorik uste...

—Ona emen, jarraitu zuan Polizi jaunak, Pierres jaunaren alaba odoletan illotzik. Ona emen Pierres jaunaren alabak egun artan zeraman soñekoa ere. Odol-mantxak nabarmen agiri dira oraindik. Eta neskatxa illaren ondoan agertu zan Peru Okotz-ena zala esan dezuten aiztoa ere. Dana dala, aske izango zerate zuen esanak egiak irtetzen ba-dute beintzat. Bañan espetxean igaro bearko dezute bizitzarik geiena, zuen esan oiek gezur irtengo ba-lira. Zaudete ba, emen, pixka-batean.

\* \* \*

Eta urrutizkina artu-ta Yon Andoni-ri deitu zion.

—Yon Andoni...? zure bear naiz, eta atoz leenbaitlen.

—.....

—Bai. Emen, nere lantegian nago.

—.....

—Ondo da. Atoz, ba, leenbaitlen.

Eta Yon Andoni, an agertu zan artean, ez zuan inork itz-erdirik ere esan.

—Ara Yon Andoni, esan zion Polizi jaunak lantegian agertu zan bezain laister. Auek diotenez, Pierres jaunaren alabak mugaz-aruntz iges egiteko asmoa artu zuanean, zuk lagundu omen zenion kontrabandistarekin egin bear zuan tratua egitera. Egia al-da ori, Yon Andoni...?

—Bai, jauna. Egia da. Pierres jaunak, bere alabak lekaime izan nai zuala-ta, etxetik bota zuanean, neregana jo zuan laguntza billa, gajoak. Mugaz-aruntzko lekaime-etxe batean sartzea zala bere gogoa, ta..., mugak mendiz igarotzeko, kontrabandistaren baten bearra izango zuala-ta... ea nik kontrabandista orri itz egingo nion, eskatu zidan. Biok izan giñan, ba Ezkerra- ren ardoteagian.

Bi edo iru ontrabandista zeuden bertan. Aietako batekin itz egin nuan,

eta nik neronek utzi nuan neskatxa biaramoneko goizeko lauretan kontrabandista aren eskuetan. Gurean igaro bait-zuan Pierres jaunaren alabak gau ura...!

—Eta kontrabandista ura nor zan ba al-dakizu, Yon Andoni...?

—Bai, jauna. Bañan il zala, uste det. Peru Okotz zan kontrabandista ura.

—Ondo dago. Orixe jakin nai nuan, Yon Andoni. Zaude zu pixka-batean. Aske zerate zuek. Joan zindezteke, ba, zuen etxeetara.

Eta buru-makur eta arpegi-zurbil irten ziran zazpi gizon aiek, Polizi jaunaren lantegitik.

\* \* \*

—Zuk ez dezu, bear ba-da, ezer jakingo, esan zion orduan Polizi jaunak. Bañan Pierres-en alaba ez dago, gaur, lekaime.

—E...?

—Ez, Yon Andoni!

—Nun dago, ba...?

—Nun...? An-goiean, Yon Andoni...!

Eta zeruruntz jaso zituan bere begiak Polizi jaunak.

—Il egin al-da, ba...?

—Ez, Yon Andoni. Ez da il...! Okerragorik gertatu zitzaion gajoari. Urrategi-n il zuan Peru Okotz-ek. Ona emen, ikusi nai ba-dituzu, neskatxai-illari Urrategi-n egin zizkioten argazkiak, neskatxak egun artan zeraman soñekoa ta Peru Okotz-ek, eriotz ura egiteko erabilli zuan aiztoa ere.

Ixil-ixilik gelditu zan Yon Andoni, ta begietan malkoak agertu zitzaizkion.

## XII

Polizi jauna etorri zitzaionerako, ba-zuan Pierres jaunak danaren berri. Yon Andoni agertu zitzaion, negar batean, arratsalde artan. Eta zekizkin guztiak esan zizkion. Aren alabarekin zer artu-eman izan zituan. Peru Okotz-ekin egin uan tratua. Ta Polizi jaunaren etxean jakin zituan beste gauza guztiak.

Yon Andoni-ren naigabea ez zan esatekoa. Belaun biak lurrean, barkapeneske ari zitzaion Pierres jaunari. Errudun ikusten bait-zuan bere burua Yon Andoni onak. Eta onen samintasun au arintzea, ez zan lan erreza izan Pierres jaunarentzat.

Polizi jauna etorri zanean, irten egin zan Yon Andoni Pierres jaunaren etxetik.

\* \* \*

—Jakin degu, errez jakin ere, zure alabaren eriotz-egillea nor izan zan. Il zan bera ziritzarrez. Peru Okotz izan zan iltzalle ori...!

—Ba-nekian, bai. Yon Andoni-k eman dit oraintxe danaren berri. Pozgarria izan da neretzat Peru Okotz -en eriotz-berria ere. Ez nuke nere biotzean gorrotorik nai ta, gaur bizi izan ba-litz, arentzako gorroto bizi bat izango nuan, bear ba-da, nere biotzean. Ez, ez det gorrotorik nai.

Diru zaletasunak itxuturik egingo zuan ark bere gaiztakeria, nik nere, amorroak itxuturik egin nuan bezelaxe. Barkatuko al-dizkigu bioi goiko Jaun onak egin ditugun oben auek...!

Dana dala, eskerrak zor dizkizut zuri, lagun. Ez naiz aaztuko...!

—Ez didadazu ezeren zorrik. Nere eginbear bat betetzea besterik ez det egin nik. Eta gañera, lagun geran aldetik, zor diogu. alkarri ainbeste mesede. Emen ekarri dizkizut argazki ta abar. Itunak izan arren, alabaren oroigarriak dituzu beintzat eta...

Agur, ba, Pierres...

—Agur, lagun.

Eta etxe-atarian agurtu zuten alkar berriro bi lagun auek.

\* \* \*

Kalean zan laister Pierres jauna ere. Lekaime-etxe morroiarekin egon nai zuan leenbaitlen. Ura bait-zuan, aldi artan beintzat, bere lagunik kutunena. Arekin izaten bait-zituan jardunik gozoenak. Zer esateko asko zeuan, gañera, arratsalde artan.

\* \* \*

Pierres jauna lekaimetxe aurrean agertu zanean, bere eguneroko eginbearretan ari zan morroi zintzoa.

—Berri onak dakarzkizut gaur, asi zan Pierres jauna. Ez dira ustelak izan oraingo ontan ere zure usteak, Zuk esan bezela izan zan nere alabaren eriotza. Leendik ez ote zenekian zuk zerbait...?

—Nik...? Eta nundik jakin bear nuan, ba...?

—Zer dait, ba, nik...! Bañan ez al-da arritzekoa. Zuk esan bezelaxe izan dira gauza guztiak. Ba-dakit nere alabaren iltzallea nor izan zan.

—Bai...?

—Bai...! Kontrabandistaren bat izango zala ez al-zenduan, ba, zuk esaten? Kontrabandista bat zan ba...!

—Eta nor izan zan kontrabandista ori...?

—Ez dakit zuk ezagutu zenduan ala ez. Orain lau urte il zan. Loitzundarra zan. Eta Peru Okotz zuan izena.

—Ez zan izan, beraz, Urrategi-n esan zizuten Azalgorta-ko Miel ura...?

—Ez...!

—Eskerrak, jauna...! Au poza...!

—Bañan zer dezu zuk zer-ikusirik gizon orrekin...?

—Ba-det, bai, zer-iusirik. Zuk uste dezun baño zer-ikusi aindiagoa gañera... Barkatu, jauna. Ni neroni naiz Azalgorta-ko Miel...!

—Zu...?

—Bai, Pierres, ni...!

Eta malkoa zeriola onela jarraitu zuan Azalgorta-ko Miel-ek.

—Zure alabaren gorputz-illa lenengo ikusi zuan gizona, ni izan nintzan. Jauna. Ni naiz, eriotz aren errua nere-gain eroriko ote zan bildurrez, Azalgorta-tik iges egin zuan gizona. Ni naiz Liotzun-en azaldu zan eskalea...

Bederatzi urte luze auetan, ez nau loak inoiz ere malkorik gabe artu.

Ba-dakit ez nuala gizonki jokatu. Ez nituala zure alabarekin egin-bear nituanak egin. Bañan bildurrak zeratu-edo egin ninduan. Baratu, Pierres jauna.

Eta Pierres jaunaren aurrean belaunikatu zan Azalgorta-ko Miel.

—Jeiki, Miel, deadar egin zion Pierres jaunak. Ez dezu zer barkaturik. Eskerrak zor dizkizut nik eta. Zuk egun artan iges egin ez ba-zenu, ez nuan nik bein-ere nere alabaren berririk jakingo. Jaungoikoa-k eka-  
rri zindun Loitzun-a. Leen baño ere maiteago zaitut gaur.

Eta besarkada luze bat izan zuten lagun biak.

\* \* \*

Aien barruak pixkan-bat arindu ziranean, galdera au egin zion Azalgorta-ko Miel-ek.

—Zure alaba ez nuala nik il, sinistuko ote dute Urrategi-n...?

—Bai, Miel. Sinistu bearko dute. Urrategi-rako asmoak artzen dituzunean, ni izango natzaizu lagun.

—Eskerrikasko, Pierres jauna. Nere itza sinistu nai ez baldin ba-dute, sinistuko al-dute, beintzat, zurea. Ezagutzen zaitue gañera.

—Bai, Miel. Ez orren kezkarik izan. Noiz joan nai zenduke aruntz...?

—Alik eta laisterren...! Etzi baño bigar naiago. Ba-ditut, ortarako gordetako txanpon batzuek ere.

—Ondo dago, Miel. Neretzat ere atsegingarriak izango dira, bertan igaroko ditudan egunak. An bait-daukat nere alabaren illobia...! Ta Azalgorta-n izango al-da, beintzat, neretzako aiña leku...

—Landara berri asko sortu ez baldin ba-dira beintzat, izango al-da zuretzako aiña leku.

Eta lekaimeeri dianen berri emateko asmoetan, lekaime-etxera sartu ziran Pierres jauna ta Azalgorta-ko Miel.

\* \* \*

Naigabe aundia izan zuten Loitzun-go lekaimeak. Ain morroi zintzoa izan zan, izan ere, Azalgorta-ko Miel...! Bañan nor ez poztu Azalgorta-ko Miel-ek etxera biurtzeko zeukan poz arekin...?

### XIII

Urrategi-ko geltokira iristean, bildurrak artu zuan Azalgorta-ko Miel. Nolako arrera egingo ote zioten Urrategi-n...? Sinistuko ote zuten urrategitarrak aren errugabetasuna...? Ez ote zuten, ordu batzuetarako bederen, espetxean sartuko...?

Ondo zekian Azalgorta-ko Miel-ek, Pierres jaunaren aitormenak indar aundia izango zuala urrategitarrentzat. Eta ala ere, bildur zan giza-gaixoa.

\* \* \*

Laister izango zuan, ordea, Urrategi-n izango zuan lenengo poza. Beso biak zabalik zetorkion Urrategi-ko Erretore jauna.

—Miel...! Aspaldiko Miel...!

Eta besarkada estu bat eman zion kale-erdian.

Pierres jauna ere ezaguna zuan eta Pierres jauna agurtu zuan urrungo.

\* \* \*

Ala ere, ba-zuan bere kezkatxoa Erretore jaunak. Ez ote zuan izkuturen bat Pieres jauna ta Azalgorta-ko Miel alkarrekin etortze onek...? Erriko agintarien eskuetan ipiñi nai ote zuan, ba Pierres jaunak Azalgorta-ko Miel...?

Ez...! Ez zan olakorik...!

\* \* \*

Laister jakin zuan Urrategi-ko Erretore jaunak gertaera guztien berri. Ez zetozen etsai bezela. Lagun bezela zetozen.

Aalgorta-ko Miel-en errugabetasuna Urrategi-n aitortzea zetorren Pierres jauna. Ta nork egin obeki aitormen ori...? Ez al-zan bera, Urrategi-n illa azaldu zan neskatxaren aita...?

\* \* \*

Gogoz entzun zituan Urrategi-ko Erretore jaunak Pierres jaunak esan zizkion itz guztiak. Errugabea zan, beraz, Azalgorta-ko Miel...! Zer esango ote zuten orain Epaille jaunak eta beste guztiak...?

—Epaille jaunarengana joan nai genduke lenen, esan zion Pierres jaunak. Epaille jaunak ez zuan Miel-en errugabetasuna sinisten, eta nere aitormenak Miel-en aitormenak baño indar aundiagoa izango du, noski, arentzat. Arekin egon nai gendeki, bada, Azalgorta-ra igo aurretik.

—Ondo dago, Pierres jauna, erantzun zion Erretore jaunak. Azalgorta-ra igoko naiz ni bitartean, eta aitaren etorri-berria emango diet Azalgorta-koeri. An izango dan poza...! Miel... Ez dakit dakizun ala ez bafian landara berriak ba-dira Azalgorta-n. Gero arte, ba... Azalgorta-n bazkalduko degu irurok...

Eta Pierres jauna ta Azalgorta-ko Miel Udal-etxean sartu ziranean, Azalgorta-rako bidea artu zuan Erretorre jaunak.

\* \* \*

Aterik jo-bearrik ez zeukan ark Azalgorta-n, eta sukaldean agertu zan, bat-batean, Erretore jauna.

Bazkaria gertatzen ari zan une artan Ana, etxeakoandre gaztea. Erropa batzuek konpontzen ari zan Manuela. Billobatxoak zaintzen, ba-zuan nainko lan Erramona-k. Soroan ari zan berriz Patxi, Ana-ren senarra.

Egun onak eman-da, sutondora inguratu zan Erretore jauna.

—Zer bazkari dezu gaur, Ana...? galdetu zion Erretore jaunak.

—Zer bazkari izango degu, ba...? Betikoa...! Zopea ta baba-beltzak urdai zati banakin...!

—Ez da, ba, ain bazkari ederra, Ana...

—Izango degu beste zerbait berorrenzat, gurekin gelditzen ba-da, beintzat...!

- Asmo orrekin etorri naiz. Bañan ez nator bakarrik. Laister agertuko dira beste bi gizon. Bazkari on bat egin nai dutela-ta, Azalgorta-n egin-go degula esan diet nik. Ez nazazu, ba, gaizki laga, Ana...
- Ez da benetan ariko, erantzun zion Erramona-k.
- Bai, Erramona. Bene-benetan ari naiz. Eta gizon oietako bategatik ez litzaiket asko ajolako. Bada-beltzak urdai zati baketin jaten-oltua izango dala uste det... Bestea, ordea, oso aberatsa da ta kaletarra gañera. Eta ez dakit nola artuko lituzken baba-beltzak eta urdaia.
- Jesus...! Eta nola ez digu leenago esan...? erantzun zion Erramona-k jeiki-ta sutondora zetorren bitartean.
- Ez zaite estutu, Erramona. Ikusiko dezu zeñen-azkar gertatzen degun bazkari ori. Guk gaur bazkaltzerako, izango dira arratsaldeko irurak. Naiko asti ba-degu, beraz.
- Eta arratsaldeko irurak arte zer egin bear dute, ba...?
- Kontuak esan, Erramona. Eta ikusiko dezute kontu oiek entzuten zeñen pozik egongo zeraten zuek ere.
- Bañan ez dezagun deborarik galdu, Erramona. Nik esango dizutet nolakoa izan bear duan gaurko otordu onek. Zopa ederra egin bear dezu lenengo. Urdaiaspiko zati ederak ipiñiko dituzu, gero, tomatearekin. Eta ollasko erreaz azkenean. Eta ardi-esnerik baldin ba-dezu, gatzatuna azken-azkenean. Kaferik ez dedilla falta, ta patar-ederrik, ere ez...!
- Jesus, milla bider...! Ez nola-naiko bazkaria ere. Manuela, zoaz ollategira ta ekarri itzatzu ollaskorik ederrenak. Zuk, Ana, jetxi urdaiazpiko ori, ta ea zati eder batzuek ateratzen dizkiotzun...
- Neretzat ez al-dezu zer-egiñik, Erramona...? galdetu zion zirikatu naiean Erretore jaunak. Nola egiten dan esaten baldin ba-didazu, neronek egingo dizut gatzatuna.
- Ai, jauna. Berorren umore ori nai nuke nik orain.
- Nik baño ohea izango dezu laister.
- Bai...? Ill ollasko oiek, Manuela, ta lumatu ondoren, ea garbi-garbi ipintzen dizkidazun azkar-azkar. Goiko salan gertatu bearko degu maia...
- Ez, Erramona. Ementxe bertan. Bañan etxeko gauzarik onenak atera bear dituzu gaur. Azalgorta-n izan dan egunik aundiena izango da gaurko egun au Azalgorta-n-da...

- Zerbait esan leike bai, erantzun zion Erramona-k.
- Ondo al-daude, ama, galdetu zion Manuela-k.
- Bai. Laga itzatzu emen eta asi zaite maia gertatzen. Lagun bi oiek etortzen diranerako, egon dedilla dana gertu.

\* \* \*

Mai-zapia zabaltzen ari zan Manuela, Patxi etxeratu zanean. Erretore jauna ikusi zuanean, "Ai Maria purixima" esan, eta ango emakumeen egin-bearra ikusi-ta...

- Zer gertatzen da gaur emen...? galdetu zuan nagusi gazteak.
- Laister jakingo dezu zuk ere. Bazkaria moldatzeko eran al-gera, Erramona...? galdetu zion Erretore jaunak.
- Bai, jauna. Menperatu-xamarra daukagu, beintzat.
- Entzun, ba..., asi zan orduan Erretore jauna. Berri onak ditut, beintzat, gaurko berriak. Bizi zaigu Miel...!
- E...? egin zuten sukaldeko guztiak batera.
- Bai, ta laister ikusiko dezutela uste det...!
- Nun da, ba...? galdetu zuan Erramona-k.
- Urruti ez! erantzun zion Erretore jaunak. Izurik izango ez ba-zenduteteke, laister etorri-eraziko nioke. Miel-ekin egona naiz ni gaur.
- Miel-ekin...? Nun. ordea...? galdetu zuan berriro Erramona-k.
- Urrategi-n...! erantzun zion Erretore jaunak.
- Urrategi-n...? Espetxean ez da, ba, izango...?
- Ez, Erramona. Ez dago espetxean, eta expetxerik ez du ikusiko...! Muga-aruntz agertu da, emen illa agertu zan neskatxa aren iltzallea. Kontrabandista batek il zuan...!
- Kontrabandista batek...? Eta nundik daki ori bererrek...? galdetu zion Erramona-k.
- Il-da agertu zan neskatxa aren aita-berak esan didalako. Orain egun batzuek emen izan zan gizon ori. Loitzun-en lekaime-etxe batean morroi zegoan batek zerbait esan ziola-ta, etorri zan. Lekaime izan nai omen zuan neskatxa arek, eta, an-bertan izatea aitak galerazten ziolako, mugaz-onuntzko lekaime-etxe batean sartzeko asmoetan omen zotorren gajoa.

Eta Loitzun-go lekaime-etxe artako morroiari esker jakin omen dute,

neskatxa aren iltzallea nor izan zan. Eta auxe da arrigarriena, Erramona. Lekaime-etxe artako morroi ura, Miel bera zan.

Miel ba, ta emen illa agertu zan neskatxa aren aita izango dira gaur gure mai-lagunak.

Ez al-zuan berri onek ospatzerik merezi, Erramona...?

—Bai, jauna, bai... Au poza...!

—Ea, Manuela, esan zion orduan Erretore jaunak. Gertatu bi illobatxo oiek eta irten zaite bi illobatxoekin aitaren bidera. Laister izango da ta emen.

—Eta Oion-dik igarotzen zeranean, eman gero, Mari-ri danaren berri, esan zion amak.

—Emen itxoingo diegu guk...!

\* \* \*

Manuelatxo altzoan eta Mieltxo eskutik azaldu zan Azalgorta-ko Miel bere basarri-etxe aurrera. Etxean egin zioten ongi-etorria, nolakoa izan zan ez dago esaterik. Ez zan negar-malko gabeko begirik. Eta Pierres jaunak ixuri zituan malkori sendoenak.

\* \* \*

Noizbait asi zan egun artako bazkaria ere. Jan baño itz geiago egin zuan Pierres jaunak. Xe-xe esan zituan alabarekin gertatu zitzaizkion gauza guztiak. Nundik-nola egin zuan Miel lagun. Miel-i eskerrak jakin zuala alabaren azken negargarria. Ta Miel-i eskerrak jakin zuala bere alabaren eriotz-egillea nor izan za ere. Ta Miel-en errugabetasuna Urrategi-n argi ta garbi gelditu zedin, etorri zala Miel-ekin.

—Jauna, esan zion orduan Manuel-k. Nik ez dakit zergatik, bañan emen illa agertu zan neskatxa ura neskatxa on bat bide zala iruditu zitzaidan beti. Ez naiz geroztik erreka-zulo-inguruan igaro neskatxa aren alde otoitz egin gabe, ta nere aitaren etorrera berari eskatu gabe. Ez det dudarik egiten ba, gure gaurko zoriona berak eman digula. Gure aitaren errugabetasuna urrategitarrak sinistu dezaten, ekarri zaitu zu ere onera. Ba-zan nik ez nekian gauza bat ordea. Zure alaba orrek lekaiame izan nai zuala, alegia. Ara ba, jauna. Itz bat eman nion aspaldi Jaungoikoa-ri: nere aita au bizirik eta lotsakizunik gabe ekartzen ba-zidan,

lekaiame izango nintzala, alegia. Ta itz ori ez nuan nik nerez, eman. Zure alabak eraginda eman nuan nik itz ori. Ez det dudarik ere. Bere ordezko nai ninduan ni zure alabak.

Negar zegiten guztiak. Negar zegin bene-benetan Pierres jaunak. Biotz erdi-erdian ikutu bait-zion Manuela-ren jardun onek.

—Ondo dago, Manuela, esan zion Pierres jaunak. Nik neronek egingo dizkizut sarrerako bear-guztiak. Ez dezute, ba, zuek ezer ipiñi-bearrik izango: ez dirurik eta ez erroparik ere. Nere alabaren ordezko izango det nik au ta...

Eta nun izan nai zenduke lekaiame, Manuela...?

—Edozein lekutan, erantzun zion Manuela-k.

—Nere alabak Loitzun-go lekaiame-etxean sartu nai izan zuan. Lekaiame-etxe ortan igaro ditu marroi bederatzi urte auek zuen aita Miel-ek. An bertan bizi naiz ni ere. Ez al-zenduke aruntz jan nai...?

—Iñon izatekotan, antxe nai nuke nik ere, esan zuan orduan Miel-ek. Ain onak dira, izan ere... Ain ondo artu ninduten... Eta ain maite izan naute...

—Loitzun-en izango zera beraz, erabaki zuan orduan Erretore jaunak. Loitzun-en, bai, Pierres jaunaren alabak ere, an nai izan zuan-da.

\* \* \*

Manuela-k azaldu zuan asmo onek sortu zuan illuntasuna laister izkutu-tu zan. Loitzun-en amets egiten asi ziran danak. Ametsetan ba-da ere, Loitzun-en bukatu zan egun zoragarri ura.

\* \* \*

Zortzi egun igaro zituan Azalgosta-n Pierres jaunak. Egunero ikustatzen zuan bere alabaren illobia.

Zortzi egun aiek igaro ziranean, Manuel lagun, itzuli zan berriro Loitzun-era.

Azalgorta-n galdu zuan lekaiame izan nai zuan alaba, ta Azalgorta-n arkitu zuan lekaiame izango zitzaion alaba berria.

1.956 Nere aita zanaren jaiot-egunean.

**II.**  
**MOSKORRA PARREGARRI**



## TEATRO ZAARRA.

Izen onekin argitaratu zuan AUSPOA-k bee 48-garren alea. 1965.

Iru dira bertan ematen zaizkigun teatroak-edo: Barrutiaren-edo. ACTO PARA LA NOCHE BUENA. 1.759., Sor Luisa-ren GAVON SARIAC. 1.762., eta Munibe-n EL BORRACHO BURLADO. 1764.

Azkenengo bi auek irrika ninduten batik-bat: azkoitiarrak ziraleko biak, eta Peñaflorida-rena zalako bi auetako bat.

Eta ba-nuan auxe irakurtzeko gogoia.

Argitaratuzanetik berreungarren urtea zala-ta, oso aipatua izan bait-zan Peñaflorida-ren eres-antzerki au aurreko urtean.

Penatxo bat izan nuan, ordea, itz-aurrea irakurtzerakoan. Egillearen oar onek mindu mindun zerbait:

La primera (advertencia) se dirige a aquellos que notarán la mezcla que se hace del vascuence y castellano, pareciéndoles más regular el que todo fuese en uno de los dos idiomas.

Digo, pues, que mi primera idea fue de que esta ópera (EL BORRACHO BURLADO) fuese en vascuence; pero luego me faltó la dificultad del dialecto de que me había de servir en ella.

Si me valía del de Azcoytia, hubiera sido poco grato a todo el resto del País hasta la frontera con Francia, por la preocupación que tienen contra el vascuence o dialecto del Goi-erri; y, si quería usar del dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastián, etc., esponía a los actores a hacerse ridículos pues sería difícil que todos pudieran imitarlo bien.

Por esta razón, pues, me hube de contentar con reservar el vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuese en castellano.

Barkatuko al dit Peñaflorida jaunak, bañan auxe degu, izan ere, erderara jotzeko euskaldun-koxkor askok ibilli oi degun betiko aitzakia.

Ez zaite, ordea, bildurtu, irakurle. Ez dizut esango-ta, euskaldun koxkor bat izan zanik Pañafiorida jauna. Ez orixe...! Asko zor bait-dio Euskal-erria-k eta ez gutxi euskera berak ere. Ta bi izkuntzetan idatzia egonarren, auxe degu beintzat, euskal-literaturako lenengo eres-antzerkia. Ta ba-du onek bere meritua

Nik ordea, ta nere biotzetik arantza ori atera nai nualako-edo, euskaratu egin nai izan nituan aren erdel-itzak ta orrelaxe sortua dezu MOSKARRA PARREGARRI.

FRANCISCO XAVIER MARIA DE MUNIBE E IDIAQUEZ  
EL BORRACHO BURLADO

## Moskorra parregarri...

GIPUZKOA-KO ZALDUN BATEK IDATZITAKO  
ERES-ANTZERKIA

### ANTZEZLARIAK :

|                    |                                   |
|--------------------|-----------------------------------|
| TXANTON GARROTE... | moskorra.                         |
| MARI...            | Txanton'en emaztea.               |
| MARTIN...          | Txanton'en laguna zapata-egillea. |
| MATXALEN...        | Martin'en emaztea.                |
| LAU MUTIL...       | Martin'en langilleak.             |
| ON DIEGO...        | Zaldun-etxe bateko etxezaiña.     |
| PERU...            | Zaldun-etxe bateko morroia.       |
| ANTON...           | Zaldun-etxe bateko morroia.       |

Sagarrak altzen dituan Gizon bat. (1).

Martin zapata-egilleak, zaldun-etxe bateko azpian,  
daukan denda da iruditegia.

(1) Izendatzen ez ba'ditu ere, antzezlarrien-artean beste bi neska ta mutil-koxkor bat bear dira.

## I'GO AGERRALDIA.

Zapata-egille baten bendea, da antzokia.

Pitxarka-ardo eskuan, Txanton Garrote  
Kantari.

"Ai neri zer egin ote zat!  
Oñez ibiltzen aztu zat!  
Burua jaso ezin det.  
Lurra ediro ezin det.  
Triste dut biotza guztiz;  
Edan dezadan, ea, berriz" (1).

Pitxarka-ardoari maite egiñaz.

"Edari ezitsu gozoa,  
zerutik jatsitakoa,  
zenbat eta ondorago  
anbait aiz gozoago!  
Jainkoak bedinka azala  
nik bedinkatzen audan bezala"

Aurreko aapaldian bezela.

Jarro onetan i ekustean  
poz artzen det biotzean;  
emen begiraturik  
banaukak txoraturik,  
zer egingo ez dek barrunen?  
Sar akit bada, arren, len bait len".

Zurru bat egin ondoren, kantatzeke.

---

(1) Auek, eta kako-artean gerora ere agertuko diran guztiak, egile-beraren itzak dira.

Larrutu ote dik nere lagun Martin'ek bart-arratseko piztia...?

Martin...! Eup Martin...!

.....(1)

Ez zidak entzuten...! Ez dik erantzuten...! Zerrikume baten antzera, egongo dek lo gizajoa...!

Laister izango dek emen, dana-dala, ta egin dezadan lo, bitartean, emen, baztar ontan...

Baztar batean etzan, eta norbait datorrela oarrutik.

Nor da emen...?

Bere emaztea dala ikusiaz.

Adios...! Erori nauk...!

## II'GRREN AGERRALDIA.

Mari naigabetsu ta Txanton.

MARI

(Kantari)

"Ez da mundu onetan

pena andiagorik,

senar ordia,

alfer nagia,

izatea bezelakorik.

Ez da mundu onetan

pena andiagorik.

Ni baño inor geiago

probatu ez dago.

Ai Maritxo tristea!

Ire zorigabea...!

Zerk batu induan

alakoarekin?

Ez da mundu onetan

(1) ¡Ah el de como qué tienes! Zer esan nai ote du esakera onek?

pena andiagorik.

Beti, goiz ta gabea,

aura pitxer artean

tabernan sarturik,

ta ni aura billatzen,

nere burua urratzen,

ezin inoz etxera

bere aurren aldera

biribillaturik.

Ez da mundu onetan..."

(Kantatzeke)

Doakabea ni...!

Bana-banaka igaro ditut, nere senar moskorra nun billatuko, erriko taberna guztiak. Eta ez det inon arkitu...!

Eta emen nator bere lagun Martin'ekin ote dagoan...

Ez zerate gizonak, gu atzipatu naiean, gure atzetik ibiltzen zeratenean, ematen dezuten bezelakoak, ez...!

Anker eta gezurti alakoak...!

Gure azpiko izango zeratela, zin dagizute orduan, burua makur...

Nai zendutena iristen dezutenean, ordea, (bein gu zuen eskuetan) errez aazten zerate gukin, errez jaten dezute emandako itza...!

Kamixak aldatzen ditugun bezela, senarrak aldatzeko baimena emango ba'ligu gure Jaungoikoa'k, ez zenuteke ainbait-par gure bizkar egingo...!

Bere senara ikusiaz.

Baían, nor da ori...?

Bera da. Nere senarra...! Arkitu dedanean gaitzerdi...!

(Kantari)

"Emen engoan i,  
urde zikin ori,

ta ire, ondoren ni  
bart erri guziti...!

TXANTON (Kantari)  
"Maritxo laztana  
Zerk akar onera?"

MARI (Kantari)  
"Zerk...? I billatzera!  
Goazen etxera".

TXANTON (Kantari)  
"Utzi nazan emen  
poliki atsedeten".

MARI (Kantari)  
"Eztiat nai".

TXANTON (Kantari)  
"Bai, bai, bai, bai".

MARI (Kantari)  
"Ator laster".

TXANTON (Kantari)  
"Ez, ez, ez, ez".

MARI (Oso asarre kantari)  
"Ah. zikiña...!

TXANTON (Algaraz kantari)  
"Ah, ah, ah, ah".

MARI (Oso asarre kantari)  
"Ah. likitza".

TXANTON (algaraz kantari)  
"Ah. ah. ah. ah".

Biak batera. Bat asarre ta algaraz bestea.

"Farra egiten didak?  
gogoango didak...!

Ah. ah, ah, ah, ah, ah, ah, ah,  
ah, ah, ah, ah, ah, ah",

MARI (Asarre kantari)  
"Nik salatuko aut  
Alkate aurrera;  
Sartuko erazoko aut  
kartzela illunean".

TXANTON (Algaraz kantari)  
"Or konpon, Mari-Anton!  
Ajolarik etzat...!".

MARI (Kantari)  
"Ajolarik ez badek ik  
nik emango diak".

Biak batera. Bat asarre, ta algaraz bestea.

"Ajolarik ez badek ik  
nik emango diat.  
Or konpon Mari-Anton...!  
Ajolarik etzat...!".

Leenengo zatia berriro abestu ondoren, ir-  
ten egiten da Mari, ta bakarrik gelditzen da  
Txanton.

### III'GRREN AGERRALDIA.

Txanton bakarrik.

TXANTON (Kantatzeke ta jendeari)  
Deabru beta dira emakume auek...!  
Oraintxen nengoan lo-artuko, ez-artuko, ta emengo  
bulla ta ixkanbillak esnatu naute zearo...!  
Ze-arraioek ekarri du ori onera! Sekulan ez bait-diot  
itz bat ere esaten, eta ikusi ere, ez bait-det ikusten  
ia, ta orren abotsik entzuten ere ez...!  
Arrozoi zuan bai, au esan zuan bizkaitar ark:

"Auntzak itxi baleio. Akerrak itxi leio".  
Bañan emen datorkit berriro logalea poliki-poliki.  
Ea lotaratzen naizen, bildu nadin bildu...!

(Erdi-lotan, kantari)

"Ator, ator, Morfeo  
nere begietara,  
ta astundurik, lotara  
ezarri egiztak.  
Nere pena guziak  
amets alegreakin,  
emaztea aurrakin,  
aztu-erazo egiztak".

Leenengo zatia berriro abestu ondoren, lo  
gelditzen da Txanton.

#### IV'GRREN AGERRALDIA.

Anton eta Peru.

- ANTON Zer dala-ta, etorri gaituk ordu ontan onera...?
- PERU Bere joan-bearragaitk, goizean-goiz jeiki ta bebar-  
rura jetxi erazi gaitun ezker nagusiak, ez nik-ek,  
Martin, erren madarikatu onek, orain urte bete esan  
nizkiokan zapatak egin dituan ala ez jakin gabe,  
etxeratu nai berriro.  
Errita ta abar, gaur-goizerako egiñak eukiko zitua-  
la, esan zidaken atzo-arratsaldean.
- ANTON Eta ik, zoro orrek, sinistu egingo ioan...?
- PERU Zergaitik ez! Ez ote dik, ba, bere itza beteko...?
- ANTON Sastreak bezela, zapatariak ere ez zeudek bere itza  
betetzera beartuak.  
Eta alperrikoak ditut auein errita, bulla, garraxi,

irain eta abar. Ain bait-zeudek agindutakoa ez-be-  
tetzera oituak...!

Bai al'dakik zeñen antzekoak diran auek...?

PERU

Nik ez!

ANTON

Osti-kanpaia jotzen duten sakristauen antzekoak.

PERU

Sakristauen antzekoak...? Nundik-nora ordea?

ANTON

Entzun akiak ondo. Ta gezurra diodan ala ez, ik-  
erorrek esango diak.

(Kantari)

"Ostia sentitzean,  
oi dira torrera  
sakritaua gabean  
kanpaiak jotera.  
Kanpaiak asitzen dira  
din, dan, din, dan, din, dan;  
trumoiak aditzen dira  
trrum, trrum;  
guziak bildurturik  
baña aura ya oiturik,  
dago ardura bagerik.  
Alaxe dendariak  
eta zapatariak,  
ire erriertaakgatik,  
milla itz emanagatik,  
gogorik ez badute.  
Alper da Maria makilletu;  
berdin berez bear du".

PERU

(Kantatzeke)

Ez zegok, ez, gaizki berdintza ori.  
Bañan oraingo ontan ere, ni atzipatutzeko ustea  
baldin ba'dik, ez dala makala izango nik emango  
diodan jipioia, egon adi ziur...

ANTON

Ez dek beste biderik izango.  
Eta lan ortarako lagunik bear baldin ba'dek, ona  
emen ni.

PERU I lagun, kristorenak emango zizkioat...!

ANTON (Kantari)  
"Nai badek ik,  
lagunduko diat,  
Peru, pozik".

PERU (Kantari)  
"Antontxo, nik  
estimatzen diat  
txik gogotik".

BLAK BATERA (Kantari)  
"Artzen badegu  
bien artean,  
egingo degu  
aren soñean  
trokeo-dantza  
gure modura,  
joten degula  
zirt, zart, idizil batekin".

PERU (Kantatzeke)  
Eta auek ola dirala, nun gelditu zaiguk On Diego?

ANTON Or kanpoan.  
Emakume batekin izketan gelditu det orr, beba-  
rruan.  
Emen dek, ordea...!

### V'GRREN AGERRALDIA.

Peru, Anton eta On Diego.

ON DIEGO Agur, mutillak!

ANTON Izan zaiz ongi-etorria, On Diego.

PERU Joan zifalakoan geunden.

ON DIEGO Zuen ondoren nentorrela, aspaldiko ezagun bate-  
kin, Txanton Garrote moskor aundiaren emaztea-  
rekin, topo egin diat, orr.  
Eta bere neke-lanak, kontu-kontari, ezin-esan aña-  
ko errukia sartu zidak barne-barnean...  
Seme-alabak mantentzearren, egun-sentitik lanean  
ari dek bera; ta bere senarra, bitartean, tabernan  
joku ta zurrutean.  
Iru ta lau egun igarotzen omen zituk, astean, ta-  
bernatik irtetzeke, ta etxera agertu gabe.  
Bart-gaua azkena!  
Eta tabernatik-tabernara ibilli omen dek, gau osoan,  
alperrik.  
Martin, bere lagunak, zerbait jakingō ote duan, ero-  
rri omen dek azkenean onera, ta emen billatu omen  
dik, urde baten antzera etzanik ta ardo-zagi bat egi-  
ñik...

PERU Emen, denda ontan...?

ON DIEGO Ementxen, bai...!  
Txanton etzanik dagoan baztar-aldera begi-  
ratuaz.  
Gizon bat ikusten diat baztar artan, eta bera ote  
dan ikustera niñoak...

ANTON ETA PERU Eta gu ere, bai.  
Txanton dagoan baztarrera urbilduaz.

ON DIEGO Bera dek...! Eta ba'dek au gizon itxura.

ANTON Ori da ori loa...!

PERU (On Diego'ri)  
Emango al'diogu iruron artean astindu bat...?

ANTON Ezurrak aldi baterako bero gordeko leizkioken zi-  
gorkada bat, merezi dik orrek obe. Ea bein-betirako  
zuzentzen dan orrela.

ON DIEGO Ez orrelakorik, mutillak!  
 Ori baño egokiagoa izango dan beste zerbait etorri zaidak, orain-bertan, burura.  
 Gure nagusia etxetik-at dabillen ezkerro, gu gaituk une ontan, etxeko jaun bakarrak.  
 Iñork ez ziguk, ba, bertan festa bat egitea galera-ziko. Eta iñungo bildurrikan gabe egin zeikiagu gañera.  
 Jaso dezagun ba, esnatu ez dedin, ixil-ixilik, gizon au gure etxera.

PERU Zertarako, ordea...?

ANTON Zer asmo dezu...?

ON DIEGO Jaso dezagun orain poliki-poliki, ta ez dedilla esnatu...!  
 An esango dizutet, asmatuta dedan guztia. Jaialdi eder bat izango degula, agitzen dizutet  
 Ea, ba, mutillak lagundu zaidazute...!

ANTON Ona ni prestu...!

PERU Zaudete pixka batean.  
 Martin etorri, ta atzo agindutako zapatak eskatzen diodanean, gizon ori gora jasotzeko, prestu izango nazute ni ere...

ON DIEGO Eta ura eorri bitartean esnatzen ba'zaiguk, agur gure pesta...!

ANTON Lagundu akiguk orain, eta etorriko aiz gero, berriro, onera.

PERU Beno...!  
 Ekin dezaiozun, ba, lanari.

ON DIEGO Ea, mutillak! Eta ibilli arduraz...  
 (Kantari)  
 "Eldu bada irurok  
 ik burutik (Peru'ri)

ik gerritik (Anton'eri)  
 eta nik oñ-aldetik".

ANTON (Kantari)  
 "Eldu bada irurok,  
 zuk oñetik, (On Diego'ri)  
 Ik burutik, (Peru'ri)  
 eta nik gerri-aldetik".

PERU (Kantari)  
 "Eldu bada irurok  
 zuk oñetik (On Diego'ri)  
 ik gerritik (Anton'eri)  
 eta nik buru-aldetik".

ON DIEGO (Kantari)  
 "Baña kontu ez esnatu"

ANTON (Kantari)  
 "Juan geldirik"

PERU (Kantari)  
 "Ots bagerik"

IRUROK BATERA (Kantari)  
 "Txit, txit, txit, txit,  
 Goazen ixil-ixilik"

Abesti au bukatzean, Txanton artu, ta eram egingo dute.

#### VI'GRREN AGERRALDIA.

Iñunzi (eskoba) bat eskuetan, eta dendea garbitu bitartean, Matxalen kantari.

"Iñunzi onekin  
 denda au  
 gaur garbituko det;  
 Ispillu bat bezin



garbi, lau  
ta eder parako det,  
aurkitzean loirik,  
estropezu egiñik,  
nere senar kojoa,  
gixagajoa,  
amildu ta banatu ez dedin.

Aren bear gera,  
bada bizi gera  
bere bearrarekin".  
(Kantatzeke)

Leiarra bezein garbia gelditu da denda.  
Atera ditzadan orain zikin auk kalera.  
Laister dira emen Martin eta bere mutillak lanean,  
eta auentzako otordua garaiz gertatu dezadan, be-  
rrezkoa zait leenbaitlen etxeratzea.

Eta orkesta Aria'ren leloa jotzen ari dan ar-  
tean, zikiñiak artu, ta kalera irtengo da Matxa-  
len.

## VII'GRREN AGERRALDIA.

Martin kantari

"Nere erren guziarekin  
banabil trik, trak, trik, trak  
ogi puskatxo bat  
irabaztekotzat  
eta orrez  
txit nekez  
bizi gera etxean.  
Ainbeste beargairekin  
au ekusten badet nik,  
zer egingo du alperrik  
eztubenak langairik  
iñoz esku-artean?"

(Kantatzeke)

Arro etorri zitzaidan atzo goiko, aundi-usteko, mo-  
rroi ori.

Eta gaur zapatak egiten ez ba'dizkiot, estutasun bat  
emango ote didan, bildur naiz.

Egin diotzadan, ba.

Lau mutil ditut nerekin lanean, eta emen biltzen  
dan lanaren-lanakin, ez da erreza, ler-egin erren,  
danekikoa egiten.

(Kantari)

"Nola naizan zapatari  
fama andia dudana,  
billatzen nauten guziak  
serbitzan erraz ez da;  
Ta gure jente gaztea  
txit oe zalea da,  
ta ezin ingura leike  
goizean goiz bearrera.

Mutilleri dei egiñaz.

(Kantari)

"Ola, Juantxo!  
Ola, Antontxo!  
A, mutillak!"

## VIII'GRREN AGERRALDIA.

Martin eta bere lau mutillak.

MUTILLAK

(Kantari)

"Zer nai digu, maixu jauna?  
Mutillak emen dira".

MARTIN

(Kantari)

"Betoz laster aulkiak  
eta remienta"

MUTILLETAKO BIK (Irtetzekoan kantari)  
"Bagoaz, ta korrika  
biurtuko gera".

#### IX'GRREN AGERRALDIA.

Martin eta bi mutil

MARTIN (Kantari)  
"Ta zeren zai zaudete  
zubek orrela?".

MUT'L BIAK (Kantari)  
"Bagoaz, ta korrika  
biurtuko gera".

#### X'GRREN AGERRALDIA.

Peru ta Martin

PERU (Kantari)  
Nere zapatak, Martintxo  
ekabatu baziran...?".

MARTIN (Kantari)  
Zarela ifini ezker  
bertatikan prest dira".

PERU (Kantari)  
"Begira: arrapatzen baaut  
Martintxo, gezurretan,  
gogoango dek betiko  
mokor ezur orretan".

#### XI'GRREN AGERRALDIA.

Martin kantari

"Oi etxeakoak; Oi etxeakoak!  
Gizonaren panparroia  
dagoana diabruetan!  
Baña gure mutillak  
agiri eztira?".

#### XII'GRREN AGERRALDIA.

Martin eta aulkiekin datozen bi mutillak.

MUTILLAK (Kantari)  
"La, la, la, la, la, la,  
Ez aserretu, emen da  
bear degun guztia.

MARTIN (Kantari)  
"Ta beste diabru aiek  
nun gelditu dira?".

#### XIII'GRREN AGERRALDIA.

Martin eta bere lau mutillak.

Orain kantari sartuko diran bi mutillak,  
mai bat, eta mai-gañean lan-tresnak ekarriko  
dituzte.

"La, la, la, la, la, la,  
Ez aserretu, emen da  
bear degun guztia.

MARTIN (Kantari)  
"Goazen, bada, orain, mutillak,  
jar gaitezen bearrian;  
bestela ez zaituzte emango  
gosaririk gurean".

Eseri ta lanean ekiten diotenean beste  
abesti au abestuko dute danak batera.

"La lezna del zapatero  
desuella vivos y muertos;  
del zapatero la lezna  
vivos y muertos desuella.

Kanta au bukatzean, banaka jeikiko dira  
mutillak, eta bakoitza bere lana erautsiko dio  
Martin'i.

MUTIL BATEK

(Kantari)

"Au nola ote dijoan  
begira beza".

MARTIN

(Kantari)

Nere mutil gozoa  
orrela, onela".

BESTE MUTIL BATEK (Kantari)

"Au nola ote dijoan  
begira beza".

MARTIN

(Kantari)

"Nere mutil gozoa  
orrela, onela".

IRUGARREN MUTILLAK (Kantari)

"Au nola ote dijoan  
begira beza".

MARTIN

(Kantari)

"Nere mutil gozoa  
orrela, onela".

LAUGARREN MUTILLAK (Kantari)

"Au nola ote dijoan  
begira beza".

MARTIN

(Kantari)

"Nere mutil gozoa  
orrela, onela".

#### XIV'GRREN AGERRALDIA.

Martin, bere lau mutillak eta Matxalen.

MATXALEN

(Kantari)

"Atozte, egin dezute  
bearrikan asko;  
zuben gosari ori  
otzten oi dago;  
zuben gosari ori  
otzten oi dago".

Martin ete bere mutillak jeiki, ta danak ba-  
tera abesten dute beste au.

"Goazen lasterka  
bearrak  
eman digun  
gosea iltzara".

OARRA: Bi ekiñaldietan egin naiko ba'litz antzerki au, emen izango luke lenengo  
ekiñaldiak azkena.

#### XV'GRREN AGERRALDIA.

Zaldun-etxe bateko aratoa da orain antzokia.

Mari ta On Diego.

ON DIEGO

Esan dizudan ikasbidea, zure gizonari emateko, ger-  
tu dago guztia. Eta festari asiera emateko, Martin'  
en zai gaude, ta onen emazte, seme-alaba ta muti-  
lleen zai.

Etortzeko da baita ortarako ots egin diodan, beste  
"barrabas" bat ere.

MARI

Ondo dago ori guztia...! Ta ba'al'dezu ortik ezer-  
onik aterako dezun usterik?

ON DIEGO

Bai, Mari, bai! Bere burua ain parregarri ikusten duanean, ez da beste bein moskortuko...!

MARI

Errota-arria, ere, errez irintxiko zenduke zuk, On Diego jauna, ori bene-benetan sinistuko ba'zenuke...! Nere gizonaren griña ez da gaur goizekoa, Sustrai sendoak botata dauzka griña orrek nere gizonaren barne-barnean. Eta alegin guztiak egin-da ere, narrua galtzen ez duan artean, ez det uste griña ori kenduko diogunik.

Zer ez ote det nik egin ortarako...!

Negarra, intziria, arrena, dana!

Erriko apaizak ere, nik ala eskatuta, egin zituan bereak eta bost. Bañan ez alperrik...!

Gogorrean obe izango ote nuan, eta epailletara jo nuan azkenean. Eta auek esarri zizkioten zigortak ere, ez zuten tutik ere aldatu. Basamortuan oiaka ibiltzea izan zan dana, esan oi dan bezela.

Eta orain, zuk asmatutako jolas orrek gure orain-arteko alegin guztiak baño indar aundiagoa izango duala, nola nai dezu nik sinistea...?

ON DIEGO

Zergaitik ez...! Uskari bat naikoa izaten da askotan, indarka iritxi ezin dana, iristeko. Berekoitasunak gizonagan daukan indarra, aundia da. Ta indar onek erainda, egiten dituala gizonak bere egiteko geienak, esan dezakegu.

Indar ori erabiltzen jakin ezkerro, gauzarik zaalleanak ere, errez lortzen dira.

Arrokeria da, gizon-bizitzaren biotza: besteak baño geiago izan nai izatea.

Onartua izan bearrean, burla ta parre besterik ez zaiola egiten ikusteak, orretzek minberatzen du benetan gizonaren biotza.

Indar geiago du, ba, gizon batentzat bere burua parregarri ez ikusteak, zigor, bildur eta loixinkak baño.

MARI

Zertara dator, ordea, sermoi-luze au?

ON DIEGO

Entzun zaidazu, Mari... Zure senarra, zuk dakizunez, ez da argienetakoa. Ta egizat artuko ditu orrek, guk emen gezurretan egingo ditugunak.

Parre pizkat bere-bizkar egin ondoren, egin ditugun guztiak, berari burla egitearren egin ditugula, errez konturatu bear da bera ere.

Errian, ere, laister zabalduko da, aundi ta txikien pozgarri, emen gertatutakoen berri. Eta "ona emen parregarri ibilli duten moskar aundia" esango diote, muturrera begiratu ta par-egiñaz, kalean danak...

Eta lotsaren-lotsaz, bere zurruta-utzi ta beste gizon bat egiñik ikusiko dezula, ez det dudarik egiten...

MARI

(Kantari)

"Nik ongi naiko nuke

ori iritxitzea,

nere galai maitea;

baña ori siñistea

orren erraz ez da.

Ekusiko banuke

mirai orrelakorik,

ez, poz andiagorik

ifun izango ez da".

ON DIEGO

(Kantatzeke)

Egon zaitte, ba, seguru. Eta goazen orain barrura.

Ots...! Anton dator... Ea zer berri dakarren...!

## XVI'GRREN AGERRALDIA.

Leengoak eta Anton.

ANTON

(Algara batean, kantari)

"Ai ene! Ai ene...!

Farrak ito bear nau!

Sekula gizon bizirik

ez dauka noski ekusirik

ain gauza farragarririk”.

(Algaraz kantari)

Ah. ah. ah. ah, ah, ah, ah, ah,

Nola guk dakusgun gaur”

ON DIEGO

(Kantatzeke)

Zer dek...? Zoratu egin al'aiz...?

ANTON

Atozte, arren; Orrelako xelebrekeririk ez du gizonak oraindik ikusi ta...

ON DIEGO

Aldatu dezute, beraz...?

ANTON

Burutik oñetaraño, jauna... ta ez zaigu esnatu... Nai dezutenean, etorri leikezute, ba... Festari asiera emateko, dana gertu bait-dago...!

ON DIEGO

Eta bekoak...?

ANTON

Etorri ziran, Jauna, ta zure zai daude... Ni ba'noa, Zai bait-dauzkat danak.

### XVII'GRREN AGERRALDIA.

On Diego ta Mari.

ON DIEGO

Goazen, Mari. Ez dezagun denborarik galdu.

MARI

Ni ez noa...!

ON DIEGO

Zergaitik ez...?

MARI

Nere senarrak, ni an ikusiko ba'nindu, nik-neronek asmatutako zerbait dala guztia, pensatuko lukelako.

ON DIEGO

Ez, Mari. Ez gaitu ikusiko...! Aldameneko beste gela bateko zirrikitu batetik ikusiko degu guk-biok guztia.

MARI

Orrela izatera...

ON DIEGO

Goazen festara.

MARI

Goazen, bai. Ta gezurrezko-igarle izan nadilla ni.

### XVIII'GRREN AGERRALDIA.

Zaldun-etxe barruko gela bar, antzoki.

Idaz-tresnaz beterako mai bat bertan.

Eserleku batean, buruko, soñeko-eder, esku-zorro ta guzti, Txanton Garrote lo.

Anton eta Peru bere ondoan tente.

ANTON

Zirrikituan dek On Diego. Esnatu zeikiagu, ba.

PERU

Esnatu dezagun, ba...!

Eta astindu bat ematen diote.

TXANTON

(Arriturik)

Jainko maitea...!

ANTON

Esnatu dek...! Goazemak leenbaitien.

### XIX'GRREN AGERRALDIA.

Txanton arriturik eta kantari.

”Ai ene... Zer da au?

(bere eskuari begiratuaz)

Au da nere eskuba...?

Nor naiz ni?

Ni naiz Txanton Garrote?

Noiz ezkeru

ni onen apainduba?

Baña, dakustan, ea,

nere txapeltxo adobatuba.

(Buruko txapela artuaz)

Aren pasiuua!

Bazerurik ederrik!

Ametsetan ote nago?

Baña ez; begiak zabalik dauzkat.

Nok, bada, jantzi nau

gisa onetan...?”

Ezta posible

edo nago zoratuba  
edo bestela nago gatutuba".  
Sekula ez al da ekusi  
ifun  
onelako konturik?  
Eztakit, ez nor naizan,  
ez nola aurkitzen naizan  
egun  
ainbeste mudaturik,  
nere antzik ez dudala.  
Nerau onela ekustea  
da zoratzeko bidea.  
Sekula ez al da ekusi..."  
(Kantatzeke)

Zer da aldaketa au...! Zer gertatzen da emen...?  
Noiz jantzi naiz ni onela...? Parte onekoa ote da  
au...?

Antzokiari begiratuaz.

Eta nun nago ni...? Nungo gela da una...? Ta  
or mai-gañean dagon ori, zer ote da...? Ikusi de-  
zan bertatik.

Maira urbilduaz.

Tinta ontzi bat dirudi onek, eta zillarrezkoa ga-  
ñera.

Ederra dek...!

Txintzarri bat izango da au...!

Astindu ta txintzarria jotzen du.

Ederra dek, ba, au ere...!

## XX'GRREN AGERRALDIA.

Anton eta Peru, biak sartzen dira laisterka batean.

PERU                      Jauna!

ANTON

Agindu, Jauna...!

TXANTON

(Estu ta larri belauniko)

Jaunak... Nik ez dakit... Ni... Noiztik... Emen...

PERU

Zer dagi onela, Jauna...?

ANTON

Ametsetan ari al'da...? Ba'da ori nagusi baten  
itxura...!

Jeiki eraziaz.

TXANTON

(Zerbait lasaiago)

Nik, ez nun nagoan, eta ez zeintzugin ari naizen  
izketan, ez dakit, jaunak...!

ANTON

Berorri, Jauna...

PERU

Berorri...

TXANTON

Berorri, ni... Ni...? ze-arrario ari zerate...? Ez da,  
ba, guzti au burla bat izango...?

## XXI'GRREN AGERRALDIA.

Leengoak eta Martin'en mutil-koxkorra eskutitz bat eskuan.

MUTIL-KOKKORRA

Deo gratias...! Trapisonda'ko Markesa emen bizi  
dan ala ez, esango al'didazute mesedez...?

PERU

Emen bizi dek, bai... Eta berarekin zerbait nai bal-  
din ba'dek, orra orr nun daukaken.

MUTIL-KOKKORRA

Au da beraz Trapisonda'ko Markes Jauna...?

PERU

Auxe dek, bai!

TXANTON

(Jendeari)

Markes biurtu ote naiz, ba, ni, bat-batean...?

MUTIL-KOKKORRA

Ardokin Trapisonda'tik etorri dan mandazain ba-  
tek, eman dit eskutitz au berorrentzat.

## XXII'GRREN AGERRALDIA.

Txanton, Peru ta Anton.

Esgutitza eskuñ Txanton'ek berekiko.

TXANTON Zer demonio da au...? Ikusi ote da iñoiz nere-au bezelako naspillarik...?

PERU Zergaitik ez du, eskutitz ori leenbaitlen irakurtzen, Jauna? Garrantzi aundiko zerbait esango diote, bear ba'da, bertan eta...

TXANTON (eskutitza emanaz) Irakurri ezak ik-erorrek...!

PERU Nik...? Eta ixilikoren bat ba'lego bertan...? Ez legoke ori ondo.

TXANTON Berdin dek...! Nere burua ez zegoak gaur ortarako.

(Jendeari)

Ez bait-dakit irakurtzen...!

PERU Ala nai duan ezkeru, irakurri egingo diot, ba. Ene Jaun agurgarri:

Joan zan illaren 20'ean, berorrek egin zidan eskutitzan agintzen zidan bezela, eman diet berorren aginduaren berri, emengo alkate jaun guztieri. Ta auek, nola ez, leialki ta askar beteko dutela berorren agindua, agindu didate.

Trapisonda'ko Markesgo onen onerako gorde dezala Jaungoikoa'k berorren bizitza urte askoetan.

Uztaren leenengo egunean.

Berorren oñetan

Andres

berorren morroietan otzanena.

TXANTON (Berekiko)

Trapisondakoa... ta Markesa ni...? Nolatan eta noiztik-nora markesa ni...? Tituloak ematen asi...

ta bai eman ere... Zer da au. Jauna...?

(Morroieri)

Itz egin dezagun garbi, mutillak...! Burla bat beterik ez ba'litz au, egin didazute naiko burla...!

PERU Gure bizkar parre egin nai duana, berorri da emen, ikusten danez, Jauna...!

ANTON Utzi beza festa au! Ta zertara deitu gaitun, esan bezaigu mesedez, Jauna...!

TXANTON Ez dek, beraz, burla bat...? Eta nortzuk zerate orduan zuek.

PERU Ez al'gaitu ezagutzen, Jauna...?

ANTON Ez al'ditu berorren morroi zintzoak ezagutzen...?

TXANTON Eta nor nauk ni, ba...!

PERU (Parrez)

Naikoa degu jolasetik, Nagusi... Ez degu oraindik gosaldu ere, ta izan beza, arren, gure tripa zaar auen erruki...!

ANTON Gosalduko ba'lu berorrek ere, ez luke orrekin kalterik izango. Laister bait-degu bazkaltzeko ordua ere-ta.

TXANTON Eta zer artuko nitek nik...?

PERU Txokolate pixka bat, Jauna...?

TXANTON Txokolateak ez zidak onik egiten. Ezin eraman diat onez.

ANTON Nai al'du kapesne pixka bat...?

TXANTON Zer dek ori...? Jateko gauzaren bat...?

PERU Jateko, ez; erateko gauza bat!

TXANTON Ez ote nitek nik obe, urdai-azpiko zati eder bat. Edo txistor edo lukainka eder bat...?

PERU Berorrek nai duana, Jauna! Urdai-azpiko zati eder bat...?

TXANTON Bai, lagun.

PERU Bereala gera, emen, Jauna...!

### XXIII'GRREN AGERRALDIA.

Txanton bakarrik.

Premia ere ba'det, bañan oraingo ontan, kontuak kontu, nere tripa zaar au berdinduko dedala uste det.

Nola amaituko ote da, ordea, naasketa au...?

Nik ez dakit zer sinistu, egia esan.

Ametsa ez dala ba'dakit. Auek ez dira ametsetako gauzak eta.

Eta burla bat izateko ere, zergaitik eman bear zizkidaten soñeko ta jateko auek...?

Emen ez dago au besterik ikusten danez: Noiz eta nola jakin-gabe, markes biurtu zaigula Txanton Garrote...!

Zer esango ote du, au jakitean, nere emazte Mari'k...!

"Markesa" izena ematen diotenian, ez da bere soñekoan sartuko...!

Eta errian egingo dizkiaten pestak, ikustekoak izango dira...!

Zaldirik ederrena ekarri eraziko diet, eta zaldi orren gañean, agertuko naiz, pantxo-pantxo, nere erritarren aurrean, gosaldtu bezain laister.

Ori egingo det, bai.

(Kantari)

"Jaun anditan sartu banaiz, nere errira juaten banaiz, naiz andiak,

naiz txikiak,  
Jauna esango didate.  
An agertu nadiñean,  
jaun andi au ekustean,  
suak, festak  
ta zezenak  
naski egingo diztate.  
Lara, lara, larara...  
Toreadoreak emen dira  
lasterke niri brindatzera,  
Señor Marqués, Señor Marqués  
a la salud de su merced.  
Eta ni erreal bikoia bota,  
aiek berriz ura pozik artuta,  
esango diote alkarri:  
Auxen bai gizona, diabru-etxera!  
Ez dek, ez, onelako mutillik..."

### XXIV'GRREN AGERRALDIA.

Peru, Anton, eta Txanton.

Zillarrezko plater batean urdai-azpikoa ekarriko du Peru'k, eta mai-zapi bat beste batean Anton'ek.

PERU Ona emen urdai-azpikoa, Jauna...!

TXANTON Ekarrri akiak...! (Anton'eri) Eta aulki bat ik...! (Jendeari)  
Au dek au, tripa zaar au betetzeko gogoa.

ANTON (Aulkia ekarri ta mai-zapia ipiñi ondoren)  
Ona dana gertu. Eseri bedi, ba, Jauna...! (Peru'ri)  
Nagusi itxurarrik ba al'dik...?  
Leer-egin baño leen, ba'niak ni emendik.



Eta joan egingo da.

- TXANTON (Peru'ri)  
Urdai-azpiko ori...!
- PERU Zatitu bearra du, ta nagusi batek zatitzea, ez le-  
goke ondo.  
Nik egingo diot, ba, lan ori, Jauna...!
- TXANTON Ibilli adi, ba, askar...!

## XXV'GRREN AGERRALDIA.

Leengoak eta bide-dendari bi.

Otar bana buruan, bide-dendariz jantzita,  
Martin'en bi alabak sartuko dira, kantari, an-  
tzokian.

Urdai-azpikoa zatitzeari utziko dio Peru'k.

"Donostiatik gatoz  
ongi nekaturik,  
buruan karga eta  
estomagoa utsik;  
erosi nai duenak  
izango du emen  
erroanata Krea  
ona eta merke.  
Ona Krea ta Erroana  
ta gurbitxeta gai-ederra"

- DENDARI BATER "Egun on Jaungoikoa'k dietela orien mesedeoi".
- BESTE DENDARIAK "Urte askotan egon ditezela orien mesedeok".
- TXANTON Nork ekarri zitut neska auk onera...?
- PERU Berrorrek agindu zuan bart, eta etxezainak, Jau-  
na!
- TXANTON Nik agindu nuala...?

PERU Bai, Jauna, bai...! Etxean erroa zuria falta za-  
la etxezainak esan zionean, osatu-bearra zegoala,  
ta bide-dendari aueri dei egiteko, agindu zuan be-  
rorrek bart.

TXANTON (Jendeari) Deabruak eraman nadilla, ori agindu  
nuanik akordatzen ba'naiz...!  
(Peru'ri)

Erosi-bearrekoak, erosi itzak, ba, azkar,  
eta ekarri akiak leenbaitlen, goseak il-bearrean na-  
txiok eta, gosari ori.

PERU Laister erosiko ditugu, Jauna, bañan zer dakarten  
ikustea, bear-bearrezkoa zaigu ortarako.

DENDARI BATEK (Txanton'eri) "Jauna, ez digu ezer erosten? Ona  
nun duen, iñon ekusi badu-ta, lienzo preziatua.  
Begira".

Eta oialen bat erakusten dio.  
Oiala ikustera joango da Peru ere.

"Primeroko suertekoa da ala ere".

PERU "Ekusi dezagun, ea..."

BESTE DENDARIAK (Txanton'eri) "Nagusi jauna, berorrek estrenatu  
bear nau. Ona tabaco ederra piparako, nai badu, Ha-  
bana'ko hoia lejitimo-lejitimoa; ta ala probio Ho-  
landa'ko pikatua; ta autsa, berriz, naiz Habana-  
koa, ta naiz hoja Virginiakoa, a escoge..."

TXANTON "Brasillik ez dezu...?"

BESTE DENDARIAK "Emen ez, Jauna: baña or kalean adiskidetxo ba-  
ten etxean laja dut; berorren mesedeak nai ba-  
du, saltotxo baten ekarriko dut".

TXANTON "Ara nere emakumea; orain zer-egintxo bat dau-  
kat, ta gero biurtu zaitezke".

BESTE DENDARIAK "Jauna, berorren mesedeak agintzen duanean"

PERU "Emakumea, ez dago emen guk bear degunerako gauza dan lienzorik: fiñagoak bear ginduzke"

DENDARI BATEK "Jauna, fiña bear badu, ez du orren mesedeak Donostia-Baionetan aurkituko, nik dudan baño Holanda fiñ-fiñ preziatuagorik. Nai du ekarri dezaiodan...? Ortxe kalean utzi dut".

TXANTON Andretxoa, orain presa degu, beste ordu batean atozke".

DENDARI BATEK Jauna, agindu biezagu; zer ordutan naiko du...?".

TXANTON Atozke bazkal onduan".

## XXVI'GRREN AGERRALDIA.

Leengoak eta gizon bat.

Dendariak oialak biltzen ari diran bitartean, sagarrak saltzen dituan gizon bat agertuko da kantari.

"Arako aintxinako bioen kontuak, ixil egonagatik, ez dauzkat aztuak".

Antziñakoa ta oso ezaguna izan arren xelebrea dalako ipintzen da abesti au emen.

(Diadarka, kantatzeke)

"Errege-sagarrak...".

(Dendarieri)

"Jaungoikoa'k egun on digula, nere persona ondrabak".

DENDARIAK "Bai zuri ere, adiskide.

TXANTON (Oso asarre Peru'ri)

Nor dek au berriz...?"

PERU Bazkal-osterako berorrentzat sagarrak ekartzen dituana, Jauna.

TXANTON (Oso asarre)

Ez al'zegok beste iñor...?"

PERU Laister bialduko degu au, ere, Jauna.

TXANTON Jan-ondoren ortzak garbitzeko onak omen dituk, eta artu izkiok bi, bañan elduenak izan ditezela.

GIZONAK Ai auek, emakumetxoak".

(Dendari bateri)

"Aurra, Kristo'k bedeinka zaitzala".

DENDARI BATEK (Burlaz) "Begira, etxeok, gauza nun legokean! Urtikan, itxura gaizto ori".

GIZONAK (Beste dendariari) "Txikitxo, aurpegiera ohea egingo al didazu zure laguntxo orrek baño!".

BESTE DENDARIAK (Burlaz) "Urtikan, petral ori! Berealako praka naraxa zatozkigu".

Eta kantari irtengo dira dendari biak.

"Donostiatik gatoz...".

## XXVII'GRREN AGERRALDIA.

Gizona, Txanton eta Peru.

GIZONAK "Poliki baten kantatzen die, aren pasioa!

Txanton eta Peru ordurarte ikusi ez balitu bezela.

"Jaunak, barkatu ezate orien mesedeok; ez ditut ekusi orain artean. Ona nun dituen sagar goa-poak!".

Eta irurok tratao egiten ari diran bitartean, otarratik artu-ala, sagarrak jaten egonga da Txanton.

Oartzen da noizbait sagar-nagusia ta otarra aldentzen du.

Tratoa egin da gero, bi sagar artzen ditu Peru'k, eta otarra ta guzti sukaldera bialtzen du sagar-nagusia (1).

## XXVIII'GRREN AGERRALDIA.

Txanton eta Peru.

TXANTON           Noizbait bakarrik utzi gaituenean, gaitz-erdi!  
(Peruri)  
Ea! Ibilli adi azker, eta bota akiak zati bat, ba'da ere, plater ontara".

Urdai-azpioa zatitzen astendanean berriro Peru, erromes-jantzirik agertzen da Matxalen. Peru gelda ta Txanton asarre.

## XXIX'GRREN AGERRALDIA.

Leengoak eta Matxalen.

MATXALEN           (Kantari)  
"Vengo de peregrina  
en peregrinación,  
solo con la esclavina  
y con este bordon;  
denme limosna por amor de Dios".

TXANTON           (Asarre)  
Madarikatua Satan...! Zertara zetorrek orain zoro au...?

(1) Auek danak kiñuka egin bearrekoak dira noski.

PERU               Errukarri bat da, Jauna. (Matxalen'eri) Erromes ederra. Izan zaite ongi-etorria.

Peru ta Matxalen izketan ari diran bitartean, asarre-kiñu batzuek egingo diru Txanton ek.

MATXALEN       Emen zeudetenik, ez naiz oartu ere. Barkatu, ba, Jaunak...!

PERU               Nundik zatoz, maite...?

MATXALEN       Nigandik ezer nai baldin ba'du andaluza naiz, Jauna.

PERU               Eta zer-aizek ekarri zaitu onera...?

MATXALEN       Entzun zaidazu, jaun maite... Aurtengo udaran oso gaizki artu ninduan sukarrak... Nereak egin zuala, uste izan zuten danak... Nik, orduan, eta sendatzen ba'nintzan, Santixo'ra erromes joango nintzala, egin nuan promes... Eta promes ori betetzen ari naiz orain.  
Egidazu, ba Jaungoikoa'ren izenean, limosnatxo bat.

PERU               (Txanton'eri belarrira)  
Berorrek emango al'dio, ala nik ematea nai du, Jauna?

TXANTON       (Oso-asarre) Eman bear diokana, eman akiok leenbaitlen ainbeste berriketa gabe. Ta biali zak orain bertan emendik...

PERU               Eta zer emango diot, Jauna...?

TXANTON       Nai dekana...!

PERU               Zillarki bat...? (Matxalen'ri) Nere nagusiaren esku-zabalak zillarki bat ematen dizu. Izan zaite, ba, esker-onekoa, ta esan zaiguzu, atsegingarri izango zaigun zure erriko xebebrekeriren bat...

- MATXALEN Nik, Jauna, ez dakit xelebrequeririk. eta ez det, oiek esateko gatzik ere...! Kanturako det zaletasun pixka bat, eta atsegin ba'zaie "ixtori triste bat" edeste, duan abesti bat, abestuko diet.
- PERU Ez dago gaizki.
- TXANTON (Aulkitik jeiki ta oso asarre) Zer...? Ortarakoxe gauden orain...! Artu ezazu diru ori, ta zoatz, Jaungoikoa'rekin ez ba'da, deabruarekin. Bañan zoatz emendik...
- MATXALEN Ez bedi asarratu, Jauna...! Beste onen omenez zerbait kantatzea zan, nik egin nai nuan guztia, bañan...
- PERU (Txanton'eri besotik eldu, ta ixil-antzean) (Begiratu bezaio, Jauna. berorren izen onari, ta izan beza pazientzi pixka bat. Emakume au emendik asarre irtetzen ba'da, zer esan bear du jendeak.
- TXANTON Eman akiak urdai-azpiko ori, ta nai-aña kanta dezala gero.
- PERU Ez legoke ondo, Jauna. Ta kantu baten gora-bera-gatik.
- Eta eseri erazten du.
- TXANTON (Eseritzekoan)  
Kaka...!
- PERU (Matxalen'eri) Ea, ba, zure abesti ori.
- MATXALEN Zure nagusiak nai ez izatera, Jauna, emen nagon bezela! ez nukela zure nagusi ori nere kantuarekin naigabetu nai...!
- PERU Ez orren bildur izan...! Nere nagusi onek iller-aldiak izan oi ditu, ta oraintxen bertan, ere, ba'du orrelako zerbait... Ez zaio, ba, jolas-aldi bat gaizki etorriko.

Bitarte ontan, eta kantuak iraungo duan guztian, bere asarrea ondo azaduko du Txanton'ek.

MATXALEN

Ekin dezaiodan, ba, orrela ba-da...!

(Kantari)

"Sacome de mi casa

un hermano traidor,

y a muy pocas jornadas

solita me dejó.

Cuando le eché de menos

quise seguirle yo,

mas saber no fue dable

haciz donde se marchó.

Viéndome abandonada,

halléme en precisión

de proseguir solita

mi peregrinación.

Voyme, pues, publicando

por todo su traición,

divirtiéndome mis penas

con aquesta canción.

Mala haya, amén la mujer

que en los hombres fia,

y de sus falsedades

no se guarda y se desvía!

Fuego en ellos!

Fuego en ellos!

Si un hermano se vale de engaños,

qué no harán los que sean extraños...?

Viva, pues, mi vida sola,

ya que estoy acostumbrada;

para mal acompañada

solita me estoy mejor.

Con mi bordon y esclavina

y la calabaza al lado

tengo menos cuidado

y gasto mejor humor

y para que veáis  
que no os engaña  
la peregrina,  
si la escucháis  
cantará fina  
unas seguidillas  
nuevas y extrañas.  
Ei vivir solterita  
es lo que vale,  
pues dicen que el buey suelto  
muy bien se lame.

Je veux reuler  
touta ma vie  
pelerinant;  
J'irai contente  
et sans envie  
Caballerito,  
Y, qué os parece?  
No está bonito?  
Adiós, señores,  
perdonad la locura  
de aquesta pobre.  
Je veux reuler...  
Ya finaliza  
su tonadilla extraña  
la peregrina.  
Je veux rouller..."

PERU

Ederra abestia, ta ederragoa abeslaria!

Eta limosnea ematen dio Peru'k.

TXANTON

(Aulkitik jeiki ta oso asarre)  
Madarikatua i...! Madarikatua ori...! Ta mada-  
rikatua orrek kantatu duan kantu lelo ori ere...!  
(Matxalen'ri)  
Presaka naizela, ta emendik leenbaitlen joateko,  
esan dizut leen ere, emakumea...!

MATXALEN

Asarre dago, beraz, Jauna...? Jakin beza, ba, onela  
ta pobre ikusten ba'nau ere, ez didala oraindik  
iñork nere gonaertzerik zapaldu...!  
(Peru'ri)

Esker-ona besterik ez dizut zuri zor. Jaungoikoa'k  
ordaindu daizula, ba...!

### XXX'GRREN AGERRALDIA.

Txanton eta Peru.

TXANTON

(Matxalen'eri oso asarre)  
Urde alakoa...!

PERU

(Txanton'eri besotik eldu-ta)  
Izan beza, arren, pazientzi pixka bat.

TXANTON

(Beso askatuaz)  
Ago ixilik i...! Ta itxi ezak, bein-betirako gil-  
tzaz, ate ori...!

### XXXI'GRREN AGERRALDIA.

Leengoak, Martin eta onen bi mutil.

Peru'k atea ixterakoan, Martin eta onen bi  
mutil sartuko dira kantari.

"Vamos a dentro  
para que nos pague  
nuestro dinero,  
cuti-lue, cuti-go,  
luego sin más tardar,  
para que se nos pague  
nuestro dinero.  
Que acá y en Roma  
más que dos "te dares"  
importa un "toma"

TXANTON (Oso asarre)  
Zer karajo dek au...? Bota zak leiotik gizon au...!

MARTIN Ona ni beorren ofietan, Jauna.

TXANTON (Martin ezagutuaz)  
Martin dek eta...! Zez abil i, emen, etxe onetan...? Esaidak, mesedez, Martin...

MARTIN Berorrek egindu-ta, egin nizkion zapataren ordaña jaso nai nuke, Jauna.

TXANTON (Jendeari)  
Onek ondo ezagutzen nau, ba... ta ala ere, "Jauna" deitu dit...!  
(Martin'eri)  
Begiratu akiak ondo, Martin! Nor naizen, ez al'aiz konturatzen!

MARTIN Ez naiz, ba, konturatuko...! Nork ez du Trapison-da'ko gure markes-nagusia ezagutzen...?

TXANTON (Jendeari)  
Markesa naiz, bai...! Orain bai ez dedala dudarik...! Eta beste edozein makes añekoa...! Eta aldaketa au dala-ta, laguneekin aaztu egin naizela, iñork esan ez dezan, maikide artuko det gaur nere lagun au...  
Bañan... ondo ote dago, ordea, markes baten maiean zapatari bat maikide...? Zer esango ote du jendeak...?

MARTIN Estu artzen naun beste zer-egin bat, ere, ba'det, eta ordaindu bekik azkar, jauna, mesedez...

TXANTON Nerekin bazkaldu bear dak gaur, Martin...!

MARTIN Milla esker, Jauna...! Bañan ahore aundiegia da ori ni bezelako zapatari batentzat...

TXANTON Utzi itzak txepelkari oiek alde batera, ta gelditu adi mesedez...

MARTIN Milla ta milla esker, Jauna... bañan bazkaldu-berria naiz... Zerbait zor diodan bat dago, or-beian, nere zai gañera, ta oraintxen ordaintzen ez ba'diot, zer gartatuko zaidan ere ez dakit... Orrek ekarri nau berorregana, Jauna...

TXANTON Eta zenbatekoa dek, ba, nere zor ori...?

MARTIN Ogei ogerleko ta errel-bikoa, Jauna...!

TXANTON Ogei ogerlekoa...?  
(Peru'ri)  
Ba al'dek ik orrenbeste diru...?

PERU Nik, ez...! Etorri dedilla gero...

TXANTON Ez diat emen diru-txikirik, eta etorri adi biar.

MARTIN Ez bezaio diru-txikiari begiratu, Jauna. Errel-bikoa ez du ezer esan nai. Eman bizkit ogei ogerleko ta kito...!

TXANTON Biar emango dizkiat, Martin izan zak bitartean pazientzi pixkat.

MARTIN Biar-arte egoterik izan ba'nu, ez nintzan gaur dirueske etorriko...!

TXANTON Ori dek ori, presa, Martin... Bañan ez alperrik... Biar emango dizkiat, esan bezela. Ta oa orain emendik azkar, zer-egin asko diat nik, ere, ta...

MARTIN Dirurik-gabe joan ni...? Ez ala zankoa...!

TXANTON Ik ez dek lotsarik, eta oa leenbaitlen. Eta atetik irten naiz ez ba'dek, leio batetik irten bearko dek...!

MARTIN Nerea dedana eskatzen diodalako, artzen al'nau onela...?

TXANTON Alperrik albil, Martin...! Ez diat xentimorik, ere, emango.

MARTIN Berrorrek ematen ez ba'dit, nik jakingo det nundik artu...!

Mai gañean dauden zillarrezko platerak artuko ditu Martin'ek.  
Txanton eta Peru'k, gezurretan onek, plater oiek Martin'eri kentzeko alegiñak egingo dituzte. Ta bai Txanton'ek kendu ere.

TXANTON (Oso asarre)  
Lapur zikiña...!

PERU Laga itzak, emen, plater oiek...!

MARTIN Ez zituat lagako.

TXANTON Emen bertan bizia kentzerik nai ez ba'dek, utzi itzak plater oiek emen...!

### XXXII'GRREN AGERRALDIA.

Leengoa eta On Diego.

ON DIEGO (Bat-batean sartuaz)  
Zer bulla da au...!

MARTIN (Arriturik bezela)  
Nola leike au, Jauna...?

PERU (Arriturik bezela onek ere)  
Bañan zer da au...?  
Bikotu egin ote zait, ba, nere nagusia...! Bi lekutan ikusten ba'det emen bertan...

ON DIEGO Zer egiten det ik, emen, Martin...?  
(Txanton'egatik)  
Eta nor dek beste au...?

MARTIN Lapur aundiren bat noski...!

TXANTON (Zillarrezko plater biak eskuan)  
Ik esan beari ori...!

MARTIN Berorren billa etori naizenean, berorren jantzi orrekin jantzita, billatu det ori emen, berorren gela ontan. Eta berorri zalakoetan nengoan...!

PERU Beste ainbeste gertatu zait neri ere!

MARTIN Beorrek egin ziguk beraz iruzur...?

ON DIEGO (Txanton'eri)  
Eta nor aiz i...? Nundik atera dituk buruko ta soñeko ori...? Nindik zillarrezko bi plater oiek...?

TXANTON Nereak ditut plater auek...! Eta ni nor naizen jakin nai baldin ba'du, Trapisoda'ko markesa naizela, esango diot.

ON DIEGO Au dek au ausardia...! Zer? Eta nare izena arrapatu...!  
Ta nere aurean gañera...?  
(Txanton'eri)  
Nork egin au i, markes...?

TXANTON Nork egin naunik, ez dakit nik...! Markesa naizela, bai...!  
Ta Markes bezela begirunea zor zaidala ere bai...!

ON DIEGO Geitxo dek au...!  
(Peru ta Martin'eri)  
Artu, ta lotu ezazute ondo...!

Besoetatik elduko diote Peru ta Martin'ek.  
Eta lotu dezaten, bi musu-zapi emango dizkie On Diego'k.

TXANTON Ni lotu...! Zergaitik, ordea...?

MARTIN (Burlaz)  
Bai, zera...

TXANTON Trapisonda'ko nere markesgoa galduko ba'det ere, urkamendian ikusi bear zaituztet zuek danok... Ez dago ortarako eskubiderik eta...!

PERU Emen ez zegok Trapisonda'ko Markes bat besterik. Eta nere nagusia dek ori...!

ON DIEGO Alproja au nor dan laister jakingo diat nik.  
(Kantari)  
"Itxok, lapur  
madarikatu gaizto  
lotsarik gabea;  
Oraindik gaur  
damu bait dek izango  
alakoa izatea".  
(Kantatzeke)  
Orain ikusiko diagu markesa aizen ala ez...! Era-  
man ezazute gizon au auzitegira mutillak, eta lapu-  
rretan arkitu dezutela, esan zazute an...  
Eta ez ori bakarrik...!  
Nere gauzaz gañera, nere izenaz ere jabetu nai izan  
duala esan bear dezute.

PERU Berorrek agindu bezela, egingo degu, Jauna.

MARTIN Utzi gure kontura, Jauna.

ON DIEGO Giltzapean ikusi arte, Markes Jauna...

TXANTON Naasketa berri bat al'da au, Jauna...?  
(Peru ta Martin'eri)  
Ez al'naiz, ba, ni markesa...?

PERU Txorakeri oiek utzi, ta nor aizen, esan akiguk gar-  
bi...!

TXANTON Ez al'didazute orain arte zuek, markes izena  
eman...?

PERU Bai...! Gure nagusiaren jantzirekin jantzi, ta be-  
re gelan sartu, ta iruzur egin digukelako...! Ba-  
ñan, orain emen gure egiazko nagusia ikustean, ero-  
ri gaituk astotik...

MARTIN Ar zak nere aulkoa...! Eta pekutua egin dekan  
ezkero, egin zak pekatu orren aitormena ere...!

Nor aizen, eta zertara etorri aizen onera, ta gela  
ontan sartzeko, zertzaz baliatu aizen, esan akiguk  
umilki...!

TXANTON (Erabat naasturik)  
Nik zer esango diat, Martin...? Nik ez zekiat  
ezer...!

ON DIEGO Eraman ezazute auzitegira...!

Eraman nai dute, bañan ezezkoan dago  
Txanton. Orkesta asten danean...

TXANTON (Kantari)  
"Galdua naiz  
sekulako.  
Txanton gajoa!  
Gizagajoa!  
Norako aiz  
pena onetan...?"

On Diego'ren aurrean belaunikatirik.

"Zure oñetan  
emen nago;  
Negarretan  
urtzen dago  
Txanton tristea.  
A! Barkatzea  
nere utsegiña  
zer ondo egiña  
litzakean"

ON DIEGO (Benetan ariko ba'litz bezela)  
Berandu dek orain, lagun... Eta ire buruan beste  
batzuek ikasi dezaten, urkamendira eramago aut  
orain.

Eta jeiki erazten du.



XXXIII'GRREN AGERRALDIA.

Leengoak eta Mari.

Dana negar agertuko da Mari, ta, On Diego'ren aurrean belaunikatirik, onela kantatuko du Mari'k.

"Ez, arren, jauna.  
Ez, ez urkatu,  
arren barkatu  
egiozu.  
Erruki zitza  
bigundu zaitza  
nere negarrak...  
Zer diozu...?"

MARI TA TXANTON (Kantari)  
"Gizon triste bat  
ondatutzea  
ta lurpetzea  
errez dezu.  
Baña ala galtzen  
zer da irabazten...?  
Arren, barkatu  
obe dezu"

IRURAK BATERA (Kantari)  
"Gizon andiak  
barkatu oi dute  
ta aztu oi dute  
gaizki egiña.  
Besteak gero,  
barkatu ezkerro,  
ondutzen dira  
alegiñaz".

XXXIV'GRREN AGERRALDIA.

Txanton, Mari ta On Diego.

ON DIEGO Jaiki zaitetze...! Emen bukatzen bait-da gure komeri au.  
Zurruterako daukakan griña txar ori kentzearren, asmatu diat nik-neronek jolas au.

TXANTON (Jendeari)  
Zenbait aldaketa egun berean, Jaunak...! Nnndik eta nora jakin-gabe, markes-biurturik ikusi det, lenengo, nere burua... Eta nere markasgoan, arro-arro zengoanean, lapurtzat artu naute, ta urkamen-dira eramango nautela, esan.  
Eta ontatik onez ateratzen ba'naiz orain, zer...? Leengo Txanton Garrote izango naiz berriro...!  
Ikusi ote du beste iñork alakorik...?  
Au mandua ta auek munduko gezurak...!  
Ez dago, ez, mundu ontako aunditasunean sustrai sendorik botatzerik, ez!!

(Ixil-une bat egin, eta On Diego'ri).

Noiz eta nola ekarri naute etxe ontara, Jauna...?

ON DIEGO Or billatuko dituk barruan ire leengo erropak, eta aldatzen ari aizen bitartean esango diat dana.

TXANTON Zenbait ille-artze ez ote didate nere lagunak egin bear. Errukarria ni...!

ON DIEGO Ez adi ire lagunen bildur izan. Oiek izan bait-dituk, Martin buru, emen ikusi ditukan gizon eta emakumeak.

TXANTON Martin? Arlote alakoa! Ni nor naizen jakin, eta ezagutzen ez ninduala, esan...

ON DIEGO Emen ez dik iñork, nik beste, errurik, Txanton: ez Martin'ek, ez ire andreak, eta ez ire lagunetako bateg ere.

Komeri oso au sortu duana, ni bakarrik izan nauk.  
Eta Jaungoikoa bat dan bezela, galeratara bial-  
duko autela agintzen diat, beste bein moskortuta  
ikusten ba'aut!

TXANTON

Ez du arrazoi-faltarik, Jauna...  
Ezagutu bear nuan iñoiz nere pekatua, ta orain eza-  
gutu det. Gaur-geroztik ez nau iñork moskorkarian  
eta jokuan ikusiko. Beste gizon bat izango naiz gaur-  
geroztik.  
(Mari'ri)

MARI

Bai, Mari... Bene-benetan agintzen dizut au, ta  
merezi ez ba'det ere, maite nazazu, Mari...

Moskorkerian ibilli arren, beti maite izan zaitut,  
nola ez zaitut, ba, gaur-gero maitatuko...!

TXANTON

Emen dek, Martin...!  
Ba'diagu berriro droga ta eskandalua...!

#### AZKEN AGERRALDIA.

Martin bere lau mutillekin, eta besteak gero, txandan-txandan, sartuko  
dira antzokian kantari.

MARTIN ETA  
MUTILLAK

"Txanton Birigarro,  
ametsetan dago;  
txepetx bat izanikan  
egin da karrastaro.  
Lakirikon pararirareña,  
Lakirikon  
Parariraron".

PERU TA ANTON

"Jaun Markes andia  
bai ala egia  
ongi etorri dela  
berorren Señoria.  
Lakirikon...".

MATXALEN ETA  
DENDARIAK

"O Markes noblea  
orren umildea,  
nora bota dezu  
lengo andi-ustea  
Lakirikon...".

SAGAR-NAGUSIA

"A Txanton tristea  
engañatu abea  
nere sagarrakin  
Adam zaarra bezela.  
Lakirikon...".

MARI

"Diranak munduan  
orditzeko usuban,  
eskarmenta bitez  
Txantontxoren buruan.  
Lakirikon...".

ON DIEGO

Ezta, ez, ere andrerik  
edate eztubenik,  
naiz nafar, naiz klret  
ta naiz Endaiskotik.  
Lakirikon...".

TXANTON

(Jendeari)  
"Banaiz ere ordia  
badut kortesia,  
ta ala, arren, barkatu  
nere zorakeria.  
Lakirikon...".

1965'grren urteko Abendua'ren L'goan.

**III.**  
**JERUSALEN-ERA ERROMES**

OARRA: Emen agertzen diran ITUN BERRI'ko zatiak, Orixe-Kerexeta-Zugasti'ren ITUN BARRIA'tik artuak daude.

I

ITXASONTZI'KO IBILLERA.....

Jolas bat...!

Orixe izan zan gure ibillaldiaren asiera.

—Naiko al'zenduke itxas-ibillaldi bat egin...?

—Bai pozik...! Bañan nik ez det ortarako dirurik!

—Ez zaite orrekin kezkatu...! Nik ordainduko ditut-eta bion ordaindu-bearrak.

Eta orra nun nagoan, gaur, itxaso-erdian, inñundik-inñora lurrik ikusten ez dedala.

CABO SAN ROQUE degu gure itxasontzi ederra.

Bañan asi gaitean asiera-asieratik.

1968.

AGORA'K 1. IGANDEA.

Arratsadeko ordubi t'erdietako trenean irten nintzan AZKOITI'tik. Eta bat izan zan, denak egin zidaten galdera.

—Norarako asmoetan...?

—JERUSALEN oerako asmoetan.

AZKOITI'ko estazioan, eta UROLA'ko trenaren zai, ba'zan ura erantsuna.

Illuntzeko bederatzi t'erdietan irten giñan DONOSTI'tik.

Gau guzia igaro genduan trenean.

Eguna zabaldu zanean, ordu t'erdiko atzerapena genduala, esan ziguten.

Eta ez-zan au guztia izan.

BARCELONA'ra sartzean, gizon "gixaixo" batek bere burua, gure trenari bota ziola-ta, an egon giñan geldi, Jaungoikoa'k daki zenbait denboran.

Amabost ordu luze egin ginduzen DONOSTI'tik BARCELONA'ra.

BARCELONA'ko, estazio-bertako Cantina'n, bazkaldu genduan. Eta BARCELONA'ko itxas-kaiara joan giñan andik. Emen izan genduan atzerapena ez zan trenarena baño txikiagoa izan.

Seiretan itxasontzian sartu bear genduanok, illuntzeko amarretan sartu giñan.

Beste itxasontzi batek irten bear zuan leenengo, gurea kaiara etorriko ba'zan.

Egun neketsua izan zan ba, gure leenengo egun au.

Mantxa-aldeko franzizkotar bat eman zidaten gela-lagun.

Lagun onak egingo gera noski...!

Gaueko amaiketan egin genduan itxasontziko lenengo otordua: aparria alegia.

Kafea artu ondoren, itxasontziko areto eder batean giñan erromes guztiok.

600 giñan erromesak.

Eta 600 auen artean, kardenal bat, bi gotzai ta 132 apaiz.

Ez giñan konturatu, ere, egin, eta goizeko ordu batean itxaso erdi-erdian giñan.

Agorra'ren bigarren eguna zan. Astelena.

### AGORRAK 3. ASTEARTEA.

Zazpi t'erdietan jeiki nintzan. Eta jeiki bezin laister, itxasontzi-gaiñera igo nintzan.

Nunbaitean lur-ertzerik ikusten ote zan, jakin nai nuan.

Itxasoa besterik ez nuan ikusi, ta itxaso bare-barea. Gure itxasontziko muturrak zabaltzen zuan aparrak, orretzek bakarrik esaten zigun, aurrera ari giñala.

Bete-betean jotzen zuan eguzkiak itxasoa.

Itxasontziko bazter guztietan, apaizak meza ematen. Banaka, biñaka, irunaka... Irurogeien-bat izango ziran, amarretan batera meza eman zutenak.

Errezuak egiten ari nintzan gero itxasontzi-gaiñeko atze-aldean. Eta ba'du bere mamia, an gertatu zitzaidanak.

Askotan esan nuan, ez arrokeriz, esate-aldera baizik, JERUSALEN' erako joan-etorrian, ez nuala, noski, bertan zetozen gotzai-jaunekin itzik egingo.

Eta orra zer gertatu zitzaidan.

Errezuak egiten ari nintzala, ibillaldiko zuzendaria etorri zitzadan, eta au esan:

—Kardenak Jaunak zu nungoa zeran, jakin nai luke.

Atzerritartzat artu ninduan noski. Ta ni konturatu-ordurako, nere aurrean nuan kardenak jauna.

DONOSTI'ko eliz-barrutikoa nintzala jakin zuanean, nere otoitz-liburua artu zuan, eta euskeraz ari nintzala ikusi zuanean, berak, ere, zerbait irakurri nai izan zuan, bañan ez alperrik...

"Azak eman zizkin" kardenal jaunak.

Erromes asko izan ziran igari egin zutenak ere.

Arratsaldeo bostetan, txintxariak jo zutenean, gure gelatara joan, "salvavidak" jantzi ta itxasontzi-gañera agertu bear izan genduan onela jantzirik.

Onela jakingo genduan, ontziak arriskoren bat izatea, nora joan eta zein txalopatan sartu bear genduan bakoitzak.

Ikusgarria izan zan, benetan, au guztia.

Monjatxuak, eta monja-etziranak ere bai, txaleko gorri aiekin zer-bait-xelebre ematen zuten.

Ordu-laurdengo kontua izan zan guztia.

Arratsadeko bostak eta laurdenetan izan genduan Lur Santu'ri buruz lenengo itzaldia.

Ba'zan beste itzaldi bat ere, bañan ez nuan au entzuterik izan, irten-bearra izan nuan eta.

Ontzi-gañera igo nintzan seiretan, eta ain-zuzen, Bonifacio deritzan meargunetik ari giñan igarotzen orduantxe.

Corcega ikusten zan ontziaren ezker-aldetik, eta Cerdeña ontziaren eskubi-aldetik.

Apaldu-aurretik, ez nintzan artean ezerkin oartu, botagurez ikusi nuan jendarik geiena.

Mareatua...?

Jatekoren batek gaitz eginda...?

Jandako zerbaiteri ematen zioten geienak aitzaki.

Alkondara-zuriz jantzitako bat urreratu zitzaidan.

Benedictino bat zan. Zerain'go semea, ta Lazkau'n bere lenengo ikasteak egiña.

Apal-ondoan, eta bertako areto eder batean MARCELINO PAN Y VINO zinea eman ziguten, eta gure ordulariak ordu-bete aurreratzeke esan ere bai.

#### AGORRA'K 4. ASTEAZKENA.

Goizeko seiretan jeiki giñan, eta CIVITAVECCIA'ko kaian geunden geldi.

Aita Santua ikustatzera joan bear genduala CASTELGANDOLFO'ra ta, an zeuden gure zai, autobusak ugari.

Amabiak-laurden-gutxi agertu zitzaigun Aita Santua (Paulo VI) ta balkoitik egin zigun itz.

Gogoz txalotu genduan.

CASTELGANDOLFO'tik ERROMA'ra autobus bertan.

COLOSEO'n gelditu giñan, eta gaueko zortzirak-arteraño egon giñan ERROMA'n.

Nekaturik geundela-ta, zaldizko kotxe oietako bat artu genduan, ERROMA ikusi, ta atsedean pixat artzeke bitartean.

Orduterdikoa izan zan gure ibillaldia.

Zaldizko kotxe ortan ginuazela, argazki-egille oietako bat, argazki bat egin zigula-ta, gure zuzenbidearen-eske, etorri zitzaigun.

Eskerrak, zenbait ordaidu bear genduan, galdetu genion. 6.400 lira eskatu zizkigun lenengotik. 3.000 gero. 2.000 geroago. Ta 1.000 azkenik.

An gelditu bear izan zuan gure argazkiarekin... atera ba'zigun beintzat.

Arratsaldeko sei-t'erdietan euri-zaparrada aundi bat erori zan ERROMA'n tximista ta trumoi artean.

COLOSEO ondoan geunden gu, ta antxen egon giñan autobusa etorri arteraño.

Amarrak eta laurdenetan itzuli giñan itxasontzira.

Apaldu-ta, kafea artzerakoan, Euskal-erri txiki biurtzen zaigu itxasontziko kafeteria. Ta Naparro'ko apaiz batzueri esker. Auek bait-dira, gure ontzi au, euskal-abestiz betetzen digutenak...!

Gau ontako zinea, itxasontzi-gañean bota ziguten. LAS MINAS DEL REY SALOMON.

Otz-antza egiten zuan bertan.

AGORRA'K 5. OSTEGUNA.

Bakarrik nintzan meza-ematekoan, eta euskeraz eman nuan nere meza.

CIVITAVECCHIA'ko kaian igaro zuan gure ontziak gaurko egun au ere.

Ba'ziran beste ontzi batzuek ere.

Zenbait ezin esan. Ez bait-genduan guretik kai osoa ikusten.

Egualdi ederra.

Gutako asko ERROMA'ra joan ziran, berriro, egun-pasa autobusean.

Ez giñan asko gelditu ontzian.

Batzuek igarian ari ziran artean, eguzkia artzen ari nintzan ni itxasontzi-gañean.

Lau mariñel alkartu ziran nere inguru artan, eta euskeraz ari ziran laurak. Bizkaieraz.

Bazkal-aurretik beste bi napar-apaizekin juntatu nintzan. Euskaldunak ziran biak. Ta Euskal-erri'ko kontuak izan ziran gure-arte-ko mintzo-gaia. Gipuzkoakoak batez ere. "Ley de excepción" bai-genduan orduan Gipuzkoa'n. Eta gure Gotzai-Jaun Lorenzo Bereciartua'k orduantxe eman bai-zuan bere eskutitz sonatu ura.

Bakarrik bazkaldu nuan. Nere maikide Berta ERROMA'ra joana bait-zan.

Bazkaria bukatzerakoan, napar-apaiz orietako bat etorri zitzaidan maiera ta au esan zidan :

—Ba al'dakizu, emen dagoan karmeldar praille aundi ori, azkoitia-rra dezunik...?

Ezaguna egiten zitzaidan praille ori. Bi egunetan ikusi nuan meza-  
ematen ere. Bañan arren amerikar-dofiu ura entzunda, nork esan ura az-  
koitiar izan bear zuanik...?

Kafea artzerakoan alkartu giñan biok.

Azkoitiarra zan bai. Aita Modesto. Don Domingo zanaren illoba.

Ez genduan, nortzuk giñan, esan-bearrik izan.

Laister ezagutu genduan alkar.

Bazkalondo ederra egin genduan biok, napar-apaiza lagun.

CIVITAVECCHIA'n izan nintzan arratsaldean.

DIALOGOS DE CARMELITAS izan zan gau ontako zinea.

Gaueko amabietan irten bear genduala MALTA'rako, ta an egon  
giñan, ontzi-gaiñean, au kaitik nola ateratzen zuten, ikusten.

Eta bein itxasoan sartu giñanean, oera...

#### AGORRA'K 6. OSTIRALA.

Esnatzean, ez genduan, gure inguruan, ura besterik ikusten. Itxaso  
erdian geunden berriro. ERROMA ta MALTA bitarteko itxasoan.

Orain-artean, beintzat, ezin itxasoarekin kejatuko gera Zelai bat di-  
rudi. Ta albotara begiratzen ez degula, ez geduke jakingo geldi ala ibi-  
llian gabiltzan.

Itxaso-egun auek, bertako potzuan igari, igarotzen dituzte geienak :  
sasoikoak, eta sasoia-joana dutenak.

Eguzkia artzeko, ere leku oberi ez...!

Amaiketan, saldea ematen ligute. Eta ordubata-ta-laurdenetan baz-  
kaltzen degu.

Konziertoa izan oi degu, egunero, bazkal-ondoan.

Arratsaldeko seiretan, "tea".

Eta zortzirak eta laurdenatan aparria.

Otordu bakoitzaren-ondoren, kafeterietan biltzen gera danok. Eta  
ez degu kaferik ordaintzen. Patarra ta beste, bai.

Gurekin erromes zijoan karidadeko monja bat, azpeitiarra zala, esan  
zidaten. Eta arekintxe egoteko gogoia sortu zitzaidan.

Sor Milagros Agirre.

Gaztea.

Musikalari egokia.

Bera izan oi zan, an sortzen ziran abesbatzaen zuzendaria.

Eta noiz-nai agertzen zitzaigun auspo-soiñua joaz.

Izarraitz-itzalpekoak ba'dute ortarako adurra.

Arratsadeko seirak izango ziran.

Tea artzen ari ziran, kafeterietan, erromes geienak, eta orra nun  
agertzen zaizkigun ezker-eskubi, itxaso erdian mendiak.



SICILIA inguratzen dituzten ugarteak, omen ziran.

Bi itzaldi izan ginduzen.

MALTA'ko edestiari buruz bata, eta San Paulo'ri buruz bestea.

PALESTINA'tik ERROMA'rako bidean, ugarte ontan onduratu bait-zitzaion San Paulo'ri bere ontzia, ta emen gelditu bait-zan gero, denbora-aldi baterako.

Ostirala zala-ta, Gurutz-Bidea egin genduan, illunabarrean, ontzi-gaiñean.

LOS HERMANOS MARX EN LA OPERA izan zan illuntze ontan eman ziguten zinea.

Ba-zan, an, algara ugari.

AGORRA'K 7. LARUNBATA.

VALLETTE da MALTA'ko uri-burua. Ta bertako kai-erdian agertu giñan goizean.

Bakoitzak berrogeien-bat lagun artzen zituan motor-ontzietan, joan giñan gure ontzitik VALLETTE'raño.

Gure zai, ta guri ongi-etorria emateko, lau gizon zeuden kai-ertzean, kitarra ta auspo-soiñua joaz eta ber-bertako jantziak apainduak. Eta beste lauren-bat neskak, otartxoetan loreak, gutako-bakoitzari lore oietako bat paparrean ipintzeko.

Arrera oberik ezin iñori egin.

Autobus batean, iru orduko bidea egin genduan VALLETTE ta MEDINA'ko ikusgarrienak ikusten.

Ez da etxe luzerik ikusten bertan. Jauregi antzeko etxeak dira geienak. Ikusgarriak dira bertako elizak, ta ikusgarria da, oraindik-orain lurpetik atera duten, antziña-antziñako TARXIEN TEMPLOA. Azken onek ez du kristautasunarekin zer-ikusirik, kristautasuna bera baño aurreagokoa bait-da.

MALTA'ko lurra, ordea, gorri-goria da, ezetasun gabea.

Ordubietan eldu giñan, berriro, ontzira.

Arratsadean, eta ordulaurdenetik-ordulaurdenera, motorrezko txalupak izan genituan gure mende, berriro lurreratu nai zutenak, lurrerazitezen.

Ontzian gelditu nintzan ni.

Naikoa iruditu bait-zitzaidan, goizean egin genduan ibillaldia...!

Illuntzeko zortziretan irten bear genduan MALTA'tik HAIFA'ra Ta ordu onen zai nengoala, napar-apaizetako bat etorri zitzaidan. Mage-

tofon bat zekarren, eta ain-zuzen, Azkoiti'ko "Contrapuntoak" ari ziran URRATEGI'N ERROMERI ZAN kantari.

Zortzi-zortziretan ekin zion aurrera gure ontziak. Eta ez giñan, artean, kaitik irten, apaltzera joan-bear izan genduanean.

IVANHOE izan zan gau ontako zinea.

AGORRA'K 8. IGANDEA.

Itxasoan igaro genduan egun au.

Goizean, eta ontzi-gaiñean geundela, txori-txiki bat ikusi genduan gure ontzi-gaiñean egaka.

Nundik etorria ote zan txori ura...? Itxaso erdian geunden eta ez genduan, iñun, lurrik ikusten. Eta gure ontzia bezin-arin zebillan bera ere.

Uso antzeko bat, ere, ikusi genduan, bañan ez giñan arrekin ainbeste arritu...!

Batzar bat izan genduan, amaiketan, apaizak.

Kardenala ta bi gotzaiak ziran batzar-buru.

Gotzai auetako bat, SANTIAGO DE CHILE'ko gotzaia zan. Ni euskalduna nintzala, esan zion norbaitek, eta an joan bear izan nuan beregana.

Amerikanotzat artu omen ninduan berak.

Izketan ari giñala, bere bi abizenak esan zizkidan: MUNITA ta IZAGIRRE. Bere aurrekoak Markina'koak zirala ta orain 150 urte joan zirala CHILE'ra. LUR SANTU'tik itzultzean, EUSKAL-ERRIA'n sartu nai zuala, ta nere izen abizen eta zuzenbidea eskatu zizkidan.

Bi itzaldi izan genituan arratsaldeko bostetan. LUR SANTUA'ri buruz bata, ta BIBLIA NOLA IRAKURRI bestea.

ARRATE'KO AMA'REN EGUNA zan, bañan ontzian zijoazen donostiarrentzat KORU'KO AMA'REN EGUNA. Ta au zala-ta, Errosario Santua izan genduan illuntzeko zazpi-t'erdietan.

Zati bakoitzean, abesti bat abesten zuten, eta laugarren zatian, euskeraz izan zan abesti ori.

Eta organo ordez, Azpeiti'ko Sor Milagros bere ausposoiñuarekin.

PIMPINELA ESCARLATA izan zan gau ontako zinea.

AGORRA'K 9. ASTELENA.

ARANTZAZU'KO AMA'REN EGUNA.

Itxas-eguna au, ere.

Arantzazu'ko Ama'ren eguna zalako, napar-apaizak, Sor Milagros lagun, kanta-kantari ekin zioten goizeko seiretan. Eta aieri esker, esnatu giñan.

Meza izan genduan gipuzkoarrok, amarretan.

Amar izan ziran meza-emalleak. Bi arabar, amar auen artean. Napar-apaizak izan ziran meza-ableslari, ta nik egin nuan euskerazko itzal-ditxoak.

Arantzazu'ko oroimena itxaso-erdira ekartzearren, auek izan ziran nere itzak:

Arantzazu...!

Irudimena lagun, goazen, gu ere gaur, Arantzazu'ra; Arantzazu'ko gure mendi santura.

Millaka ta millaka izango dira, oraintxe bertan ere, Arantzazu'ra erromes dijoazen gipuzkoar zintzoak.

Milla ta millaka...!

Eldu dira Zapata'ra. Artu dute eskuan errosario-santua, ta errosariosantua errezatuaz, goraka ta goraka beti, Arantzazu'raño.

DILIN-DALAN Arantzazu'ko kanpaiak.

Laister izango dute Meza Nagusia.

Gotzai Jauna'ren zai, Arantzazu'ko prailleak illera bitan.

Ba'dijoaz, poliki-poliki, aldereraño.

Jantzi ditu Gotzai Jauna'k, meza-emateko jantziak. Ekin diote Arantzazu'ko prailleak kantari.

Irriparrez dago gure Ama txikia, ta adi-adi ari begira, gure erri osoa.

Erri osoa ez...!

An gelditu bear izan dute, etxean, ama askok, gaixo askok. Ala ere, auek, ere, irratiari esker, Arantzazu'n izango dira gaur: Arantzazu'ko meza nagusian.

Arantzazu'koa ez dala, ez da beste soñurik entzungo, gaur-goizean, gure sukalde bazterretan.

Itzaldia.

Orra-orain meza-erdiko txintzarria.

Eta "Ogi zerutik" abestuaz, jaunartzea.

Gotzai Jauna'ren onespina azken-azkenean.

Eta Arantzazu'n daudenak bezelaxe, "aitaren" egiñaz, artuko dute onespina ori gure etxeetako etxeoandreak eta gure errietako gaixoak.

Itxaso aundi bat degu bitartean, eta erri askoetako lurra.

Ezin dezakegu, ba, gaur, irudimenez-ezik, Arantzazu'n egon.

Goazen, ba, irudimena-lagun, Arantzazu'ra.

Jarri gaitezen, gure Ama'ren aurrean, belauniko, ta eskatu dezaigun gure erriaren alde: bene-benetako pake bat izan dezagun, gure lan-tegietan lana izan dezaten, alkar maite dezagun danok.

Itxaso-erditik bialtzen diogun otoitz, oni, ez dio entzungor egingo gure Arantzazu'ko Ama'k.

Eta Bera izan dezagula, gure ibillaldi ontan, gure zaindari.

Ala bedi.

Itzaldiak berriro arratsadean. Eta itzadi auen ondoren aitorketak orain-erara.

GRAN SALON deritzan aretoan bildu giñan danok. Abesti ta abar. batera egin genduan gure aitorketaren gertaera. Ta bakoitzak, gero, bere, aitorketa egin ondoren, areto bertan bildu giñan berriro, penitentzia bete, ta Jaungoikoa'ri, danok batera, eskerrak emateko.

Urrungo goizean, Jaungoikoa lagun, LUR SANTUA'n izango giñala-ta, an kontuan euki-bearreko oar batzuk eman zizkiguten gaueko amar t'erdietan.

Eta gauza onekin konturatu nintzan kafea artzerakoan: ez gerala euskaldunak, bakarrik, gure abestiak kantatu nai izaten ditugunok, beste eskualdekoak, ere, beste-ainbeste egin nai izaten dutela, naiz-eta ortarako euskaldunak añeko adurrik izan ez...!

Burgalesak izan ziran gau ontan abeslari.

CANTANDO BAJO LA LLUVIA izan zan zinea.

Urrungo goizean, goizeko seiretan jeiki bear zan ordea, ta goiz oera-  
tu ziran erromes asko.

## II

### LUR SANTU'KO IBILLERA....

AGORRA'K 10. ASTEARTEA.

HAIFA'ko kaian giñan esnatzean.

LUR SANTUA'n.

Jesus bizi izan zan garaian, TOLEMAIDA zuan HAIFA onek bere  
izena.

Uri aundia da. Ogei-ta-amarren bat milla biztanle izango ditu ta gu-  
re lurralde auetako edozein uri bezelakoxea da.

Ez du LUR SANTUA'n gaudenik ematen.

Emengo gizon-emakumeak gure antzera jazten dira, ta bertako  
etxeak, ere, gure etxe-antzekoak dira.

Auxe da Isrrael'ek gaur daukan kairik ederrena.

Amalau autobus zeuden gure zai, ta autobus auetako batean artu  
genduan NAZARET'erako bidea.

Berrogeiren-bat kilometro daude HAIFA'tik NAZARET'era.

Gaizeko zazpi t'erdiak ziran.

Jesus'en garaiean, erri koxkor bat besterik ez zan NAZARET au.

Ogei-ta-bosten-bat milla biztanleko uri aundia degu gaur.

Arabiarrak dira bertako biztanle geienak, eta arabiar bezela jantzi,  
ere, egiten dira.

Ez dago bertan, eliza ta lekaide-etxez-kanpora, etxe aundirik. Etxe  
txikiak dira danak. Gure niximentuetan ipiñi oi ditugun bezelako etxe-  
txoak.

Emen, bai; emen LUR SANTUA'n gaudela, esan dezakegu.

Mendi-egal batean dago NAZARET; eta menditxo onen erdi aldean, Maria'k "aingeruaren agurra" artu zuan etxe gainean jasotako, eliz ikusgarri ta aundi-aundia.

Iru lekaiame zeuden eliz onen sarreran. Eta iru aietako bat, euskalduna zan: ataundarra: gure apaiz-lagun baten arreba.

"Emen euskera entzute onek, poz aundia ematen dit" esan zidan berak.

Ez zan nereaa, poz txikiagoa izan.

Eun eta ogeita-amabost apaiz izan giñan, bertan, batera meza eman genduanok. Kardenala zan buru, ta bi gotzaiak zituan ezker-eskubi.

Aurre -aurre genduan Maria'k "aingeruaren-agurra" artu zuan bere etxeko gelatxo ura.

Santua zan, ba, oinpean genduan lurra...!

Maria'k eta Gabriel aingeruak santututako lurra...!

Ba'da eliza ontatik bosteunen-bat metrora, ta eliza bera baño gora-go, iturri bat. NAZARET'en beti izan dan iturri bakarra. AMA BIRGINA'ren iturria deitzen diote gaur.

Iturri ontara etorriko zan, egunero, ur-billa Maria, suilla buruan.

Eta iturri ontan aseko zuan, bein baño geiagotan, Jesus berak ere, bere egarria. Emen bizi izan bait-zan ogeitaamar urteetan.

Antxe egin genduan, guk ere, ur-trago txiki bat...!

Eta iturri ontatik, NAZARET'eko SINAGOGARA. Ez, ordea, kale estu-estu ta xelegre bat igaro gabe.

Alde bietako espoloi osoaren jabe, bertako dendariak ziran, eta errenkadan igaro bear izan genduan kalea. Danetatik saltzen zan an.

Bañan ango zikin-itxura arrek, ez zuan ezer erosteko gogorik ematen.

Eta bein SINAGOGA'n Jesus'eri an gertatua ekarri genduan gogora.

"Nazaret'a etorri zan, —an azi baitzuten—, eta oi zunez, larumbatean Sinagogara sartu zan, eta irakurtzera zutitu.

Isaias igarlearen liburua eskuetara zioten, eta bildua zabaldu zunean, tokigune au arkitu zun idatzirik:

Jaunaren arnasa neregana; Arek gantzatu nindun; beartsuei Berri-

Ona zabaltzera biali nindun; lotuei, askatuko zituten berri ematera; itsuak argitzera; zapalduak arintzera; Jeinkoaren grazi-urtea otsegitera.

Eta idaztic bildurik, eta mutillari emanez eseri zan.

Sinagogakoen begi guziak Arengana zorrotzurik zeuden.

Eta onela asi zitzaizen:

Gaur gertatu da esan au zuen belarrietan.

Eta guziak bai-keñu egiten zuten, eta arritzen ziran aren agoari zeriezkan itz oiekin, eta "ez al'da au Jose'ren semea...?", zioten.

Eta ARK au esan zien:

Ipui au aterako didazute, noski: sendagille, senda ezak ere burua. Kafarnaun'en gartatu dan guzia egin ezak emen ere, eure errian.

Egia, esan zien, Igarleari etzaio bere errian ongietorririk egiten. Baiñan adizute garbi: Israel'en Elias'en denboran alargun asko ziran, zerua iru urte ta iru illabetez itxi zanean, lurralde guziaren gosetarako; baiñan aietako batengana orde, Sidon'go Sarepta'ko alargun batengana bialdu zuten Elias. Eta lepradun asko ziran Israel'en Eliseo Igarlearen egunetan, baiñan aiek etzuten iñor garbitu, Siria'ko Naaman baizik.

Sinagogan gauza auek entzun zitutenek asarrez bete ziran; eta cltxata, erritik aizatu zuten eta erria eraikirik zegon mendi-tontor batetik amilduazi nai zuten; baiñan Bera, aien artetik, bere pausoan aurra joan zan (Lk. 4, 16-31).

SINAGOGA au utzi, ta Jose'k bere etxe ta aroztegia izan zuan tokira joan giñan.

Ori oroitzen digun eliza bat dago, gaur, bertan.

Maria'ren etxetik-gertu zegoan Jose'ren etxe au. Ta etxe onen aurretik joan bearko zuan Maria'k, iturrira joaten zan bakoitzean.

Jose berak ere, lanerako argia bear eta, etxe-atarian egingo zuan bere arotz-lana.

Egunero iusiko zuten, ba, alkar, eta ez da arritzeko biak maite-min-tzea.

Emen agertu zitzaion, bere kezka-aldian, aingeru bat Jose'ri, eta onela esan zion aingeruak:

"Dabid'en Seme Jose, ez bildurrik euki Mari emaztetzat artzeko: Beregan erne zaiona Ispiritu Santuaren egitez baitu.

Seme bat egingo du, ta izena Jesus emango diozu; Ark aterako baidu erria bere pekatuetatik" (Mat. 1, 20-22).

Etxe ontantxe bizi izan ziran, Egipto'tik itzulitakoan, Jose, Maria ta Jesus.

Eta ementxe egon zan Jesus, aien mendeko, alik-eta ogei-ta-amar urte bete ez zituan artean.

Maria'k "aingeruaren-agurra" artu zuan eliza artara biurtu giñan berriro. Ez ikusmiran, otoiitz egitera baizik.

Eta au gertatu zan gelatxo artan sarturik, San Lukas'ek esaten digun au, irakurri genduan ixiltasun eta jaiera audienean:

"Andik sei illabatera (Isabel aurdun gelditu zanetik sei illabetera alagia). Jainkoak Gabriel Aingerua bialdu zun Nazaret deritzan Galilea'ko erri batera, Dabid'en etxeko Jose zeritzan gizon batekin ezkon-itza emana zeukan neskata batengana, ta neskaxaren izena Mari.

Arengana sarturik, "Agur graziaz betea, esan zion, Jauna zurekin bedeinkatua zera emakumeen artean". Au entzuten Mari ikaratu egin zan, eta bere buruarekin ari zan diosal au zer ziteken.

Eta Aingeruak": ez bildurtu, Mari, esan zion, Jainkoaren aurrean grazidun gertatu baitzera. Begira, seme bat erneko zaizu sabelean, eta egingo dezu, ta izena Jesus emango diozu. Au aundia izango da, eta txit Goikoaren Seme deituko diote; ta Jainko Jaunak aita Dabid'en jaun-alkia emango dio; eta Jakob'en etxean errege izango da betiko, ta aren erregealdiak ez du bukaerarik izango".

Mari'k, berriz, aingeruari esan zion: "nola diteke ori, ez baitet eza gutzen gizonik?".

Eta aingeruak: "Gogo Donea zugana jetxiko da, esan zion, eta txit Goikoaren indarrak itzal egingo dizu. Ortaz, zugandik jaioko dan seme santua, Jainkoaren Seme deituko dute. Eta adizu: zure aide Isabel'i ere, semea erne zaio bere zartzaroan, eta agor omen zana, sei illabeteko aurdun dago. Jainkoarentzat ez baita ezifirik".

Ordun Mari'k esan zun: Ona emen Jaunarren mirabea, gerta bekit zuk diozuna" (Lk 1, 26-39).

Ementxe geunden, ba...! Aingeruak eta Maria'k alkarrizketa au izan zuten toki berean.

Eta lurrean belaunikaturik, altare-mai-azpian muin ematekoan, an, lurrean irakurri genduan, bertan idatzirik zegoan au! EMEN EGIN ZAN ITZA GIZON.

Emen egin zan gizon Jaungoikoa'ren Semea.

Eta egia esan, penatxoz utzi genduan leku ura...!

HAIFA'ra itzuli, ta itxasontzian bazkaldu ondoren, itxas-ertzeko lidea artu genduan oraingo-ontan.

KARMELO MENDIA'n izan genduan gure leenengo geldialdia: kalmeldarrak bertan duten elizan.

Bosteun eta berrogei metrora dago mendi onen gaina. Ez da tontor bat. Ogei-ta-lau kilometro luze ditu mendi onen bizkarrak.

Ementxe bizi izan zan Elias Igarlea. Ta ementxe egin zuan Baal en lereun-ta-berrogei-ta-amar sasi-igarleekin bere joko ura:

Artu ditzagun txekor bi, ta aukeratu ezazute zuek bat. Laurdendu ta etxondor-gaiñean ipiñi ezazute, txondorrari su-eman gabe ordea

Beste ainbeste egingo det nik, ere, beste txekorrarekin.

Ots egiezte zuek, gero, jainkoeri, ta Yaube'ri ots egingo diot nik.

Eta txondorrari su-emanaz erantzungo duan Jainkoa, ori da Jainko. (Erregeen 1 liburuan, 18).

Karmeldarrak oso maite dute mendi au, mendi ontan sortuak dirala bait-diote.

KARMELO MENDIA utzi, ta ITXAS-ERTZEKO ZESAREA'ra joan giñan.

Orma-tzar batzuek besterik ez daude gaur an; leen izan zan erriaren ondakiñak. Ondakin auek, ordea, ba'dute guretzat zer-esan asko.

Emen eman zitzairen jentileri (Judutar etziraneri, alegia) elizateko sarrera.

Emen bataiatu bait-zuan Pedro'k Kornelio, Italika zeritzan gudari-taldeko euntaria.

"Biramenean...

(Kornelio'ren mandatariak gaur JAJA deritzan, eta leen JOPE zeritzan errian artu zituan Pedro'k.

Eta mandatari auekin egon, eta biramenean...).

Biramonean ZESAREA'n sartu zan Pedro.

Kornelio, berriz, aren zai zegoen, bere senide ta adiskiderik aunditan dei eginda.

Eta Pedro sartu zanean, Kornelio bidera irten zitzaion, eta oiñetaraño auzpesturik, agur egin zion. Baña Pedro'k jaso egin zuan esanaz: Altxa zaitez, ni ere gizona naiz-ta.

Arekin izketan etxera sartu zan eta an lagun asko arkitu zituan bil-

duta, eta onela itz egin zien: ba'dakizute judutarrak galerazia daukatela atzerrikoekin biltzea ta alkartzea; baño Jainkoak erakutsi dit iñor ere loitzat eta zikintzat ez artzea. Orregatik, bada, dei egin didatenean, etorri egin naiz iñolako kezkarik gabe. Orain, bada, esaidazute, zertarako dei egin didazute...?

Eta Kornelio'k au erantzun zion: lau egun dira gaur, bederatzigarren orduan, nere etxean otoitz egiten ari nintzala; eta ontan zuriz janztizako gizonezko bat aurrez-aurre jarri zitzaidan, eta ala esan zidan:

Kornelio, zure otoitzak entun ditu Jainkoak, eta zure limosnak ontzat artu ere bai. Bidaldu zazu, bada, norbait Jope'ra, izen-ordez Pedro dan Simon'i dei egitera; au, etxea itxas-ondoan daukan Simon larrugiñarenean dago ostatuz. Orregatik bereala bidaldu ditut zure billa; eta zuk etortzeaz ondo egin dezu. Orain, bada, zure aurrean gaude emen guztiok, Jaunak agindu dizun guztia entzuteko (A. E. 10, 24-34).

Eta Pedro izketan ari zala, Espiritu Santua jetxi zan entzule guztien gainera.

"Orduan Pedro'k auxe esan zuan:

auk ere, guk bezela, Espiritu Santua artu duten ezker, nork galerazi dezayoteko batayoko ura...?

Eta Jesus-Kristo Jaunaren izenean batayoa eman zezayetela agindu zuan.

Eta gero, ayekin an egun batzuetan geldi zedilla, eskatu zioten (A. E. 10, 46-47).

Judea'n zeuden apostoluak-eta, ez zuten ontzat artu, Pedro'k ZESAREA'n egin zuan au; ta Jerusalem'era itzuli zanean, onela ekin zioten:

Zer dala-ta sartu zera erdain-gabeen etxean eta aiekin jan dezu...?

Eta Pedro'k, JOPE'n ikusia azaldu ondoren, onela erantzun zien:

beraz, Jesu-kristo Jauna sinistu degunoi emandako doaia bera, Jainkoak aieri, ere eman ba'zien, nor nitzan ni Jainkoari eragozpenak ipintzeko?

Itzok entzunda, ixildu egin ziran, eta Jainkoa guratu zuten esanaz:

"or, bada, atzerritarrai ere, eman die Jainkoak bizitzarako damu-garbaia".

ITXAS-ERTZEKO ZESAREA ontan iriki zitzaizkigun, ba, guri, elizarako atearak.

Eta ortik, ZESAREA onek guretzako duan garrantzia.

Paulo, ere, giltzapean sartu zutenean ZESAREA ontara ekarri zuten Jerusalem'dik; eta emen euki zuten bi urteetan.

"Festo'k judutarrak lisintxa nairik, Paulo'ri erantzun eta au esan zion: Jerusalem'era igo nai al'dezu, an, nere aurrean, auzia garbitzeko...?"

Eta Paulo'k ala erantzun zion:

Zesar'en auzitegian nago, ta ementxe erabaki bear da nere auzia; judutarrak ez diet nik ezertan gaitzik egin, zuk ondo dakizun bezela. Eta gaitzik, edo eriotza mereziduanik, ezer egin ba'det, ez diot uko egingo eriotzari; baño auk leporatzen dizkidatenetatik ezer ez ba'dago, ezin utzi nezake iñork beren eskuetan. Gora jotzen det, Zesar'engana!

Orduan Festo'k batzarrekoekin itz eginda, onela erantzun zion:

Zesar'engana jotzen al'dezu...? Zesar'engana joango zera, ba...! (A. E. 25, 9-13).

Eta ZESAREA ontatik irten zan Paulo, ere, ERROMA' ra-bidean. MALTA ugarte-inguruan ondoratu zitzaion, ordea, ontzia. ta MALTA'n egin zuan Paulo'k denboraldi bat.

Seirak aldean, an bat-batean eta oso goiz illuntzen bait- du, irten gihan ZESAREA'tik ontziruntz...

## AGORRA'K 11. ASTEAZKENA.

Itxasontzitik jeisterakoan, aunts-antzeko bizar zuria zeukan, txapel-dun frantzizikotar-praille bat ikusi nuan gure zai zeuden autobusen aurrean.

”Egun on” esan zion prille onek gizonezko bateri.

Au entzutean, beregana urreratu, ta nungoa zan, galdetu n'ion.

Dimatarra zala, erantzun zidan.

Ezkerreko esku-muturra falta zitzaion. Eta nolatan izan zuan ezbear ura galdetu nioanean, Bizkai'ko gerratean, Otxandiano gudari-taldeko kappellau zala galdu zuala eskua, erantzun zidan.

Jerusalen'go lekaidetxe batean bizi da, gaur, praille au.

JERUSALEN'eraño genduan gure, goiz arteko, ibillaldia. Eun eta irurogoien-bat kilometro izango dira HAIFA'tik JERUSALEN'era.

GALILEA'tik irten, SAMARIA igaro, eta JUDEA'ra eldu bear genduan.

DOTAIN'go lurak igaro bear izan genitun.

Eta lur oiek igarotzean, ITUN ZAAR'eko Jose'ri, antxe gertatua, gogora-erazi zigun gure adierazleak.

“Alako batean, anaiak aitaren artaldeak larratzera Sikem-aldera joanak ziran, eta Jakob'ek Jose'ri onela esan zion:

Zoaz Sikem-aldera, ea nola dabilzan zure anai oiek beren artaldeenkin, eta etorri, neri esatera.

Joan zan, bada, Jose, ta DOTAIN'en arkitu zituan.

Ez al'zuten urrutira ikusi, onela asi ziran alkarri: Ara, an zetorrek gure ameslaria. Il dezagun, eta bota auetako potzu batera; eta esan piztitarren batek il duala. Orduan ikusiko diagu, zertarako dituan bere ametsak.

Anaietan batek, ordea, (Ruben'ek) etzuan nai olakorik, eta onela esan zien:

Odolik ez dezagun ixuri; potzura bota, bai, bañan eskurik ez erantsi. Ola bizirik atera nai zuan.

Mutilla bere anaietara iritxi zanean, eldu ta bere soñeko apaña kendu, eta potzu agor batera bota zuten. Eta bazkaltzen asi ziran.

Baztarrera begira zeudela, ixmaeldar-sail bat ikusi zuten urrutira.

Ganbelu gañean zetozen.

Orduan Juda onela mintzatu zitzaion: bere anaiai: Zer irabazten diagu, anaia il, eta odola ezkutatuaz...? Saldu dezaiegun ixmaeldar auei. Anaia diagu, eta ezur-ta-mami gaituk alkarrekin.

Eta orrebestez ixmaeldarrai saldu zieten; eta ixmaeldarrak ogei diru ordaindu, eta Egipto'ra eraman zuten. (Biblia, guztioi esana. 21-22)

Eta ementxe ikusi genitun, guk ere, lenengo ganbeluak.

Autobusetikan jetxi-gabe, leen SAMARIA-erria, egon zan leku artara begira egon giñan alditxo batean.

Ixtori aundiko erria izan zan au, bai ITUN ZAAR'ean eta bai BARRIA'n, ere.

Ona zer dion erri oni buruz Erregeen I luburuak:

“Yuda'ko errege Asa'ren ogei ta amaikagarren urtean Amri'k Ixrael'en gañean erregetza artu ta amabi urtez euki zun.

Tersa'n sei urtez Errege egondakoan, Samari'ko mendia bi talanta zillarrez Somer'i erosi zion; ta iri bat mendi-gañean eraikirik, Samari ize-na ezarri zion, mendiaren yabe zanaren izenez. (I Erre. 16, 23-24).

Eta Erregeen bigarren liburuak beste au esaten digu:

“Eta Asur'ko (Asiria'ko) errege, baztarraldeak oro arakatuz, Samari'ra igo zan, ta iru urtez ertsia izan zun.

Ose'ren bederatzigarren urtean Asur'ko erregek Samari beretu. ta Ixrael Asur'a atxillo eraman zun (II Erre.. 17, 5-6).

Eta emendik etorri zitzaizkien samaritarreri ezbear guztiak.

Asiriakoekin izan zituzten artu-eman auetan, samariatarren judutar-fedea ta judutar-oiturak kutsatu egin ziran zerbait, noski, asiriakoekin fede ta oituraekin; eta judutarrak ez zituzten geroztik begi-onez ikusi. Itun Berri'ko gertaeratan garbi-asko ikusten dan gauza da au.

Eta Jerusalem'go Jauretxea berriro eraikiko ote zuten, ibilli ziranean judutarrak, prest zeuden samariatarrak aiekin-bat, lan ortan, egiteko; baña samariatatur auen laguntasunik ez zuten judutarrak artu nai izan. Eta orduan da, samariatarrak GARIZIN-mendia beren otoitz-mendi aukera-



tu zutenean. Eta mendi ontantxe jaso nai izan zuten samariatarrak beren Jauretxea.

Guzti auek gogoan, obekiago ulertzen dira, gero aitatuko ditugun Itun Berri'ko zenbait gertaera.

Felipe izan zan SAMARIA'ko erri ontara jetxi, ta bertakoeri Kris-to'ren berri eman ziena

Ikus dezagun orain, Apostoluen Egintzak esaten diguten au.

"Jerusalen'en zeuden Apostoluak, Samaria'k Jainkoa'ren itza artu zuala entzun zutenean, Pedro ta Jon bidaldu zizkieten ara. Eta auek iritxi ziranean, ayen (Samariarren) alde otoitz egin zuten Espiritu Santua artu zezaten. Oraindik ayetako iñorengana ez bait-zan etorri; Jesus Jaunaren izenan batayoa artzea besterik etzuten egin.

Orduan eskuak gainean ipiñi zizkieten, eta Espiritu Santua artu zuten.

Simon'ek, Apostoluen esku-ipintzeaz Espiritu Santua ematen zala ikusirik, dirua eskeñi zien esanaz Neri ere almen ori emaidazute, eskuak gainean nik ipintzen dizkiotan ere Espiritu Santua ar dezan. Baño Pedro'k ala esan zion:

Galdu zaitez zure diruarekin; Jainkoaren doaya diruz irixten dala uste izan dezuta. Ez dezu zuk ez eskubiderik ez egitekorik arazo ontan; zure biotza ez bait-da zuena Jainkoaren aurrean. Damutu aitez bada, zure gaiztakeri orretzaz; eta egiozu otoitz Jainkoari, zure biotzeko asmo txar ori barka dezaizun; beazun mikatzez beterik eta gaiztakeri-katez lotua ikusten zaitut-eta.

Orduan, Simon'ek erantzun eta esan zuan:

Otoitz egiozute zuek Jainkoari nere alde, esan dezutenetik ezer gerta ez dakidan.

Ondoren, Jauna aitortu ta Aren itza zabaldua, Jerusalem'era biurtu ziran, Berri Ona basarri askotan zabalduaz (A. E. 8, 14-26).

Erri aundi ta gaur-eguneko-erria degu NAPLUSA.

Larogeien-bat nilla biztanle izango ditu.

Eta NAPLUSA'tik bertan dago SIKEM.

Bere anaiak ixmaeldarrei saldutako Jose arren illobia ikusi genduan lenengo SIKEM'en.

Bertako ormak, eta illobia bera ere, oial-ederrez estaliak daude. Jose'ri egiten dizkieten oparik dira auek. Sarrera bertan, jadarat bat zogoan kandelatxoak saltzen iñork Jose'ri kandelatxo aietako bat piztu nai baldin ba-zion.

Burua estalita sartu bear izan genduan, illobira, gizonezkoak.

Illobitik gora, bañan illobitik bertan, dago Jakob'en potzua ere.

Eskilla-mail batzuek jetxi bear dira bertaratzeko.

Gretar-ortodoxoak bertan duten elizatxo txiki-txiki baten erdian dago potzu au, ta ogei-ta amasei metro ditu sakon. Ur garbi ta ederra ateratzen da bertatik, eta ur ontatik edan-gabe ez da iñor elizatxo ortatik ateratzen.

Aspaldi asi ziran ortodoxoak beste eliz eder eta aundi bat, leengo elizatxo gainean eraikiten.

Jaso ere egin zuten zerbait, bañan an dago, erdi-egiñik, nork bukatuko zai.

Gretar-ortodoxo auek ez dute Aita Santua beren buru bezela ezagutzen. Onetzaz-kanpora, guk sinisten deguna bera, sinisten dute auek ere

Ikus dezagun orain, Jesus'ek eta samariatarrak emakume arek, potzu ontantxe izan zuten alkarrizketa eder ura. Alkarrizketa ontan ikusten bait-dira garbi, leen samariatarreri buruz esan ditugun gauza guztiak.

"Iritxi zan, bada, (Jesus) Sikar deritzan Samari'ko erri batera, antziña Jakob'ek seme Jose'ri eman zion soro-ondora.

(Soro ontan dago leen esan degun Jose'ren illobia) An arkitzen da Jakob'en potzua.

Jesus, bideak nekatua, potzu-ondoan takatx eseri zan Eguerdia aldean.

Samari'ko andre bat etorri zan urketara, ta Jesus'ek "ekatzu ura" esan zion.

Ikasleak errira joanak ziran janari-billa.

Andre samariatarrak onela dio: "nola Zuk, judu izanik edateko ura eskatzen didazu, samariar oni?"

(Izan ere, juduak eta samariatarrak ez baitute alkarrekin artu-emanik).

Jesus'ek erantzunaz dio: "Jainkoaren doaa ezagutuko ba'zenu, ta ura zeñek eskatzen dizun, zerorrek eskatuko zenion eta ur bizia emango zizun".

Jauna, esan zion emaztekiak, zerekin atera ez dezu, ta potzua barren dago. Nund'ik ekarri Zuk ur bizia? Aita Jakob bañon areago al zera Zu...? Ark eman zigun potzu au, ta ontatik edaten zuten, berak, semeak eta ganaduak.

Ur au edaten duna, erantzun zion Jesus'ek, berriro egarriko da; baña Nik ematen diotan uretik edaten duna, ez da geiago, egarrituko; Nik emango diotan ura iturri biurtuko zaio barruan, betiko bizirako.

Jauna, esan zion andreak, ekatzu ur ortatik, berriro egarritu ez nadin, eta atzera onera etorri-bearrik ez dezadan.

Zoaz, esan zion Jesus'ek, otsegiozu sanarrari, ta atoz.

Ez det senarrik, erantzun zion emaztekiak.

Arrazoi dezu, esan zion Jesus'ek, senarrik ez dezula; bost izan dituzu, bada, ta orain daukazuna ez dezu senar.

Jauna, Igarle zera Zu; ikusten det. Gurasoak mendi au (GARIZIN) zuten adora-leku, ta zuek Jerusalem dala diozute gurtu-lekua.

Sinista zazu, andrea, esan zion Jesus'ek; ba-dator garaia, ez mendi ontan eta ez Jerusalem'en Jainkoa adoratzekoa. Zuek ez dakizutena gurtzen dezute; guk, dakiguna; osasuna juduengandik baitator. Baiña garaia dator, eta au da, egizko adoratzailleak Aita gogoz eta egiz jauretsiko baitute. Olako gurtzailleak nai ditu Aitak. Aita gogo da, ta Ua adoratzten dutenak, gogoz eta egiz jauretsi bear dute.

Ba-dakit, esan zion andreak, Mesias, Kristo deritzana, etortzekoa dala. Etortzen danean, Ark esango digu guzia.

Ni naiz, esan zion Jesus'ek; zurekin ari naizana. Orduan, ikasleak etorri ziran, eta arrituta zeuden andre batekin izketan ari zalako. Ala ere inork etzion galdetu zer dezu edo zer ari zera orrekin (Joan. 4, 1-28).

Gogoz egongo nintzan, ordu-erditxo bat eta bakar-bakarrik, porzu aren ondoan.

Ikusi egiten bait-ziran an, alkarrekin izketan, Jesus eta samariar-andrea. Potzu-ertzean esaririk Jesus, eta potzu-ertzean zutik, suilla galtrar-pean, samariar-andrea.

Penatxoakin utzi genduan leku au. Xamurra bait-da, bien arteko, arkarrizketa; ta ederra zan lekua ere.

JERUSALEN'era iritxi baño amabost kilometro leenago ba'da errixka bat. Ez nuan errixka onen izenaik gogoan artu.

Gure adierazleak esan zigunez, errixka ontan konturatu omen ziran Jose ta Maria, Jesus, amabi urteko mutil-koxkorra, Jerusalem'en gelditu zitzaiea.

Dana-dala, ez genion berri oni orrelako garrantzirik eman, uste bat besterik ez bai-zan guzti ori-ta.

Arratsaldeko ordu-bata izango zan JERUSALEN'ERA IRITXI GIÑANEAN.

Arresetitik-kanpora dagoan Y. M. C. A. Hotela eman ziguten ostatu, ta ementxe egongo giñan ostatuz, JERUSALEN en igaroko ginduzan egun guztietan.

Ederra, ezin ederragoa zan gure ostatu au, baiñan arabiarrek ziran bertako nagusiak, eta arabiarren-jatekoak ez zitzaizkigun guretzako onak iruditu.

Beste ibillaldi bat egitera irten giñan bazkal-ondoan.

Arresi-artean dagoan JERUSALEN ZAARRA alde batera utzi ta Jetsemani ta Betania igaro ondoren, JERIKO'n izan zan gure lenengo geldialdia.

JERIKO'ra iritxi aurretik, ordea, Judea'ko basamortua igaro bear izan genduan.

Ez da ondartzta baten antzekoa basamortu au. Menditsua da. Baiñan ez da bertan, ez arbolarik, ez belarrik ikusten Erreautsez egiña dirudi. Eta JERUSALEN'dik irten dan batentzat, beeraka dioja an, beti, bidea.

Ementxe kokatu nai izan zuan Jesus'ek, Judea'ko basamortu ontan-txe, bere "Samariar-onaren" alegia. Ta bertan esaten digun guztia, egia da: "Gizon bat JERUSALEN'dik JERIKO'ra *jeixtean*, lapurren eskuetan erori zan".

Eta lapur-lekua da, izan ere, leku au...!

Matxinada bat sortzen zanean ere, ta matxinada ori zala-ta, iges egin bear izaten zutenak, basamortu ontara egiten omen zuten iges. Eta ez zuten arrazoi faltarik!

Gaur erdi-eroririk dagoan borda-antzeko bat besterik, ez genduan bide osoan ikusi. Ta borda-antzeko oni deitzen diote "Samariar-onarean ostatua".

Izan ere, ta Jesus'en ipuiak dionez, lapurrak erdi-illik utzi zuten gizon ura ikusita, kupitu egin zan samariarra, ta "makurturik zauriak lotu zizkion, zaurietan olio ta ardoa ixuriz; igo zun asto-gañera, eraman zun ostatura, ta an zaitu zun" (Lk. 10, 34).

Galdua da, gaur, Jesus'en garaiko JERIKO'k ura. Nun izan zan, ikustera joan giñan, eta antxe irakurri genduan, antxe gertatua zalako. Lukas'ek bere ebangelioan esaten digun au:

"Jeriko'ra sartu zan, eta an zebillen.

Ba-zan an gizon bat Zakeo zeritzana diru-biltzaille nagusia, aberatsa; Jesus ezagutzeko ikusi-naiekoa, baiñan etzezaken jendearen gañetik, fiñoa zan-da.

Aurrera-artuz, piku-zoro batera igo zan ikustera, andik pesatxekoa baitzan.

Jesus bertara zanean, begiak altxata au esan zion: Zakeo, jetxi aguro, gaur zuenean gelditzea komeni zait-etc.

Jetxi ta bereala pozik artu zun etxean.

Ori ikustean, guziak marmariz asi ziran: pekatari baten etxean gelditzen da! Zakeo'k, ordea, zutik, au esan zion Jaunari:

Jauna, nere ondasunen erdia beartsuei emango diet, eta nobaiti zer-bait ostu ba'diot, lau alako biurtzen diot.

Eta Jesus'ek au esan zion:

etxe ontan gaur sartu da osasuna, au ere Abraham- seme baita. Gizonaren Semea, galdu zana billatzera ta salbatzera etorri zan (Lk. 19, 1-11).

Izan zan beste JERIKO bat ere ITUN ZAAR'ean. Gedeon'ek turuta jo-ta, lurreratu zuan Jeriko ura.

Bi Jeriko auen erdian, dago, gaur-eguneko JERIKO berri ta ederra. Ta JERIKO ontatik gertu dago, Jesus'ek bere barau-aldia egin zuan mendia.

Bosteunen-bat metro ditu mendi onek. Eta an ikusten da mendigaiñean gretar-ortodoxoak bertan duten lakaidetxea.

Ez giñan goi-goiaño igo.

Muñotxo batean gelditu giñan, eta andik egon giñan, Jordan-alde-  
ra, begira.

Lur-gorri besterik etzan leku artatik, Jordan-inguruko ezetasunak atsegiñez betetzen zituan begiak.

"Guzi ori emango dizut, belauniko agurtzen ba'nauzu" esan zion deabruak. Eta Jordan-inguruko edertasun ori izango zan noski, deabruak Jesus'eri eskeintzen ziona.

Ebangelioak dionez, Galilea'tik Jordan'era etorri zan Jesus, Joan'en ondora, onek bataiatu zezan.

Eta bataiatua izan zan ondoren...

"Ispiritu Santuak mendira eraman zun, deabruak tenta zezan.

Eta berrogei egun eta berrogei gau barautan egonda, gosetu egin zan.

Tentatzaillea ondora zitzaion, eta: "Jainkoaren Semea ba'zera, esan zion, esazu arriok ogi biurtu ditezela".

Idatzirik zegok, erantzun zion Jesus'ek, gizona ez da ogi utsaz bizi; bai, ordea, Jainkoaren agotik atera dan itz guziz.

Ordun deabruak iri santura eraman zun berekin, eta Elizetxearen erpiñean, jarriazirik, au esan zion: Jainkoaren Semea ba'zera, egizu salto ortik bera idatzirik baitago: aingeruei goraintziko die, ta eskuetan eraman-go zaitue, zure oñak arrian oztopo egin ez dezan.

Idatzirik zegok, esan zion Jesus'ek, ez dek zirikatuko ire Jaun eta Jainkoa.

Berriro deabruak mendi garai batera eraman zun, eta mundu guziko erriak eta aien edertasuna erakutsirik, au esan zion:

Guzi ori emango dizut, belauniko agurtzen ba'nauzu Alde emendik, Satanas, esaten dio Jesus'ek; idatzirik zegok: Jainko Jauna jauretsi ezak ta Ari bakarrari akio morroi.

Ordun deabruak utzi egin zun, eta Aingeruak asi zitzaizkion serbitzen (Mt. 4, 1-12).

ITXASO ILLA esan bearko diogu MAR MUERTO'ri euskeraz. 74 kilometro ditu luze, ta 16 zabal.

MEDITERRANEO itxasoa baño 394 metro beerago dago itxaso au. Ta ementxe du bere azkena Jordan ibaiak.

Ez dago emen arrairik, ete ez bizia-duanetik ezer ere. Eta itxaso ontako urak omen dira munduko ur gazienak ere.

Igari joan ziranak, auxe esaten ziguten gero: igari jakin ezarren, errez egoten zala bat, an, ur-gaiñean.

Ain lodiak dira, izan ere, bertako urak...!

Eta kontu pixkat artzen ez ba'du batek, ango gatzaren-gatzez erre egiten zaizkio begiak.

Egarriz, ere, ondo asetuak irten ziran gure igarilariak.

Ementxe omen daude ondoratuak, suak kixkali zituan Itun Zaar'ko SODOMA ta GOMORRA ere.

"Ordun, Yaube'ren erabakiz ta Berak erauntsita sulbur ta su-yasa ortzitik Sodoma ta Gomorra'ren gañean erori zan, iri ayek ta ordoki osoa. ango gizakume ta lurreko landare guziekin illaunduz (As. 19, 24-25).

Eta auxe esan zigun, etxeratzekoan, gure judutar-txoferrak: gu egon giñan lekutik irun-bat kilometrora, alkarrekin tiroko ari zirale, egun artan, judutarrak eta arabiarrek.

Gu ez giñen ezerkin konturatu.

## AGORRA'K 12. OSTEGUNA.

Orain artean LUR SANTUA'n ikusi ditugunak, ikusi-ta, Joan'en ikasleeri Jesus'ek emandako erantzuna datorkigu burura.

"eta Joan'ek bi ikasleri dei eginda au galdetzera bialdu zitun:

Zu al zera etortzekoa, ala besteren baten zai egon bear degu...?

Ordu artantxe, asko sendatu zitun beren gaitzetatik, aulak eta dea-brudunak, eta itsu askori eman zien argia.

Zoazte, esan zien (Jesus'ek) eta esaiozute Joan'i ikusi dezutena: itsuak ikusten dute, errenak ba-dabilta, lepradunak garbi gelditzen dira, gorrak entzuten dute, illak pizten dira, ta BEARTSUAI BERRI ONA OTSEGITEN ZAIE (Lk. 7, 18-23).

Beartsueri Berri Ona ots-egiten zitzaiella, bene-benetn esan zeza-kean, bai, Jesus'ek. Ordu-arte ikusi genituan LUR SANTU'ko bazterrak, orixe adierazten bait-ziguten.

Lur-gorri, ezetasun-gabeak geienak: eskean umeak, eta lanerako gogo-gabeak bertako gizonak.

Emengo beroa ez da, lanerako, lagun ona izango noski, bañan ala ere...

Guri, beintzat, inpresio ori egin ziguten, ango lurrak eta ango jendeak: pobre-inpresioa.

Ba'dira, gaur-egunean an, uri berri ta ederrak, bañan uri oiek orain-goak dira, ez Jesus'en garaikoak.

Ostatutik irten, eskubira artu, ta laister giñan sakon batea, "Gehenna" izena du sakon onek: inpernua.

Izan ziran, Israel'en ere, errege sasi-jainko-zale batzuek: Akaz eta Manases auen artean. Eta leku au egin zuten Molok eta Baal sasi-jainkoeri opariak eskeintzeko lekua. Ta umeak izan oi ziran bertako opari-gaiak.

Isaias Igarleak zakar-toki biurtu zuan, gero, leku au, ta bertara botatzen ziran gerostik Jerusalem'go zakar ta zikinkeriak, eta iltzen ziran abereak ere bai. Errez ugaritzen ziran, an, mota-guztietako arrak. Etzan ederra ango usaia, ta izurrik izan ez zedin, sua egiten zuten bertan bati, bai egunez eta bai gauaz.

Bein baño geiagotan ikusiko zuan Jesus'ek au guztia, ta leku one-tek eman zion Jesus'i, inpernua zer izango zan, adierazteko, biderik egokiena.

Inpernua, "gehenna" aren antzekoa, izango zan...!

"Ta zure begiak gaiztora ba'zarama, atera zazu zañetik; obe dezu Jainko-errian begibakar sartu, bibegiz ipernura (gehennara) bota zaitzaten baño. An ez da iltzen aien arra, ta ez itzaltzen sua (Mk. 9, 46-49).

JERUSALEN'go arresitatik kanpora dago leku au.

Autobusean joan ezker, JERUSALEN'dik ordu-laurden batera dago BELEN. 20.000 biztanle izango ditu gaur.

Jesus'en garaiko BELEN ura, mendi-gaiñean kokatutako errixka bat besterik ez zan. Eta antxe dago, albo batean leengo BELEN zaarra izango zan lekutik oso gertu, ta, mendi-gaiñean au ere, Jesus jaio zan koba-zuloa.

Be-aldean ikusten zan an-goitik, artzaiak "albiste ona" artu zuten landa.

Nazaret'en bezelaxe, eliz aundi batek estaltzen du leku santu au ere. Ez du, beste elizak bezela, ate aundi ta zabalik sarrerako. Leio-antzeko batetik sartzen da bertara.

Gure adierazleak esan zigunez, zaldi-gaiñetan sartzen omen ziran turkoak elizara, ta ori galerazteko biurtu omen zuten atea, leio.

SAN JERONIMO bizi izan zan koba-zuloan eman genduan meza.

Emen idatzi zituan San Jeronimo'k IDAZ-DEUNA'ri buruz idatzi zituan liburuak. Ta Jesus jaio zan koba-zulo-alboan dago koba-zulo au ere.

Meza eman ondoren, eta biotzak bero-bero, jetxi giñan Jesus jaio zan koba-zulora.

"Egun aietan dei bat otsegin zuan Zesar Augusto'k mundu guziak izena eman zezan.

Lenengo izen-emate au, Siria'ko kargudun Zirino zala egin zan.  
Guziak izenak ematera zijoazen, bakoitza bere errian.

Jose ere, Nazaret'eko erritik. Galilea'tik, Belen deritzan Dabid'en erri-  
ra joan zan, Dabid'en etxeko ta erriko baitzan, aurdun zeukan emazte  
Mari'rekin izena ematera.

An zeudela, erditze-ordua etorri zitzaion, eta an erdi zun bere leen-  
semea; bidu zun aur-oialez, eta ikullu-aska batean ezarri zun; ez baitze  
gon lekurik arrotz-etxean (Lk. 2, 1-8).

Bertan gretar-ortodoxoak daukaten aldare-azpian, utzi genduan mu-  
xu bero-bero bat.

EMEN JAIO ZAN JESUS, MARIA BIRGINAGANDIK zion ber-  
tako idazkiak.

Koba-zulora sartzeko zai zeuden beste batzueri, utzi bear izan ge-  
nien lekua, ta ez ziguten otoitz pixkat egiteko astirik eman.

Orixe izan zan BELEN'en izan genduan penatxoa.

Koba-zulotik elizara igo giñanean, argazki bat atera nai izan zida-  
ten, eta an zegoan ortodoxo-apaiz batek besarkatu nindun, eta biok agertu  
giñan, besarkaturik, argazkian.

BELEN'dik HEBRON'era joan giñan. An bait-daude obiratuak,  
leen mezkita eta gaur ia-sinagoga biurtu duten leku artan, Abraham,  
Ixak, eta Jakob, eta iru auen emazteak.

Abraham'eri antxe il zitzaion bere emazte Sara. Ta au,, an, eortzeko,  
erosi zuan leku ura.

Genesis-liburuko 23'grrren atalburuan ematen zaigu erosketa onen  
berri.

Antxe, ere, ikusi genituan judutarrak otoitzean: burua estalirik, pa-  
retara begira, ta otoitz- liburua eskuetan. Gorputz eta animaz egiten zu-  
ten otoitz.

Gorputzak, ere, otoitz egin bear duala-ta, etengabeko mogimentu  
batean ibiltzen dute gorputza, otoitzean ari diran bitartean.

Andik atera giñanean, iru ganbelu zeuden enparantza-antzeko ba-  
tean. Eta aietako baten gaiñean atara zidaten argazki bat.

HEBRON au maats-lekua da; ta izen aundiko maatsa da, bertan  
biltzen dan maatsa.

"Bein Yaube'k au esan zion Moises'eri:  
bialdu itzazu gizon batzuek, zueri emango dizuedan lurra ikusi dezaten.  
Eta ala egin zuan Moises'ek.

Eta Itun Zaarrak dionez, ikusi zuten lur arren mardultasuna, Moi-  
ses'i nolabait adierazi naiean, maatslukuz betetako maats-aien bat ebaki,  
ta aga batean zintzilik ekarri zioten aietako bi gizoneen artean.

Israel'go Centro de Atracción y Turismo'k, ere, auxe artu du bere  
ezaubide bezela: ega batetik zintzilik bi gizonek daramaten maats-luku  
aundi bat.

Kilo bat maats erosi genduan guk ere.

Egarria ase nai, nola edo ala.

Bañan ezin jan izan genduan.

Saltzailleak, arabiarrek izaki, ta arabiarrek, itxuraz beintzat, ez dute  
garbitasunik maite!

JERUSALEN'era berriro itzultzerakoan, MAMBRE'n gelditu giñan.  
Emen egon zan artzai Abraham, ta emen artu zuan, semea izango zuan  
albistea ere.

"Eta bein, egunaren beroenean bere kaparreko atarian aserita zegoa-  
la, aren aurrean, zutik, iru gizon ikusi zituan.

Agurtu zituan, eta onela esan zien agurtu ondoren: Zugazpean, atse-  
den zaitezte. Ogi puska bat ekarriko dizutet, orrela zuzpertzuta gero, bi-  
dean jarrai dezazuten.

Bazkaldu zutenean, nun dago Sara zure emaztea, galdetu zioten.

Or kaparrean, erantzun zien Abraham'ek.

Eta aietako batek orduan onela esan zion:

datorren urtean, eta garai ontan, zugana itzuliko naiz, eta zure emazte Sa-  
ra'k seme egin-izango du ordurako.

Itz auek kaparreko ate-atzetik entzun-da, parre egin zuan bere baitan  
Sara'k. "Ni atso, nere nagusia agure, ta orrelako atseginiñ neretzat...".

Ba al'da Yaube'rentzat zaillik ezer...!

Orduan bildurto egin zan Sara, ta parre egin zuala ukatu ere, ukatu  
zuan.

Bañan Yaube'k "parre egin dezu, bai, "Erantzun zion.

Iru gizon aiek jeikita, Sodoma'runtz irten ziran, Abraham bide-lagun  
zutela.

Eta Yaube agertu zitzaion Abraham'eri bidean, eta Sodoma ta Go-  
morra kixkali nai zituala adierazi.

Eta orduan Abraham'k:

zintzoa ere gaiztoarekin ondatu bear al'dezu? Errian berrogei-ta-amar, berrogei-ta-bost, ogei-ta-amar, ogei, amar zintzo ba'leude, ondatuko al'zen duke erri guztia...? Ez al'zenioke amar oiengatik barkatuko...?

Eta Yaube'k:

amar izan ezkeru ere, ez nuke ondatuko Sodoma'rik. Abraham'ek geiago eskatzeko ausardirik ez zuan izan, ta Mambre'ra itzuli zan berriro (Gn. 18).

Bide-ertzean dagoan iturri batean gelditu giñan gero.

FELIPE'REN ITURRIA deitzen diote iturri oni.

Emen gertatu bait-zan Apostoluen Egiñetan esaten zaigun au:

"Jaunaren Aingeruak itz egin zion Felipe'ri esanaz: jeiki zaitez, eta zoaz egoalderuntz, Jerusalem'dik Gaza'ra jeixten dan mendi-bidera.

Eta altxa, ta an joan zan.

Eta Etiopia'ko errege Kandare'ren inguruko gizon iren bat, aren ondasun guztien arduraduna, arkitu zuan, Jainkoa gurtzera Jerusalem'era etorria. Eta atzera etxera zijoan, bere gurdian eserita, Isaias Igarlearen idaztia irakurtzen.

Eta Espirituak Felipe'ri: urreratu zaitez azker gurdi ortara.

Eta Felipe'k gurdira inguraturik: irakurtzen ari zeran ori, ulertzen ote dezu gero?

Eta ark: nola ulertuko det, bada, iñork azaltzen ez ba'dit.

Eta Felipe'k Jesus'en berri eman zion.

Eta bidean aurrera zijoaztela, ura zegoan toki batera iritxi ziran, eta gizon irenak diotsa: ona emen ura, zerk galerazten du ni bataiatzea?

Eta Felipe'k: biotz-biotzez siñisten ba-dezu, ezerk ez...!

Eta antxe eman zion bataioa. (A. E. 8, 26...).

Iturri ondoan ba'zeuden bertako batzuek.

Eta auen artean, an bertako jazkera eder eta ikusgarri batekin, neskatxa gazte ta maitagarri bat. Musulmana bera Argazki bat atera nai ziotela ikusi zuanean, asarratu egin zitzaigun benetan.

Ez bildurtzeko, ez geniola argazkirik aterako, esan bear izan genion. Argazkiak, antzu biurtuko ote zuan, bildur zan...!

Artzaiak, Jesus'en jaiotzaren-berri artu zuten landa artara etorri giñan gero.

Belen'dik irun-bat kilometrora dago landa au.

1955'grren urtean jasotako eliza bat dago bertan, eta artzaiak babesleku izan oi zuten koba-zulo bat.

Gertaera oni buruz, onela dio San Lukas'ek bere Ebangelioan.

"Inguru artan artzai batzuk ari ziran izarpean artaldeak zaitzen.

Eta Jaunaren Aingerua agertu zitzaien, eta Jainkoaren argitasunak argiz inguratu zitun, eta latz ikaratu ziran.

Ez ikaratu, esan zien Aingeruak, pozaldi aundi baten berri dakartzet erri guziarentzat. Gaur jaio zaizue Salbatzaillea, Kristo Jauna, Dabid'en errian Eta au dezute siñale: aur bat arkituko dezute, oialetan bildua, ta ganbela batean ezarria.

Bat-batean, Aingeruari zeruko gudari-talde bat bildu zitzaion onela Jainkoa goretsiz:

Ospe Jainkoari goietan, eta pake lurrean asmo oneko gizonai.

Aingeruak andik zerura aldegin zutenean, artzaiak au zioten alkarri: Goazen Belen'a ta ikusi dezagun Jaunak jakifiarazi digun gertakari au.

Korrika joan ziran, eta an arkitu zituten Mari, Jose, ta aurra askan etziña.

Ikusitakoan, zabaldu zuten aur onezaz esan zitzaiena.

Entzuten zuten guzick arritu egiten ziran artzaien esanaz (Lk. 2, 8-19).

Eta artzaiak igo ziran bezelaxe, igo giñan gu ere, berriro BELEN'era. Poz-pozik gañera. Ez ezer ikustera, Jesus gurtzera baizik.

Eta Jesus jaio zitzaigun koba-zuloan berriro sartu, ta bertan, belau-niko, otoitz labur bat egin genduan.

Orretzek bete nindun zerbait.

Orretzek arindu zidan zerbait, leengo nere penatxo ura.

JERUSALEN'en bazkaldu genduan egun guzti auetan bezela.

Eta arratsean sartu giñan, lenengo aldiz, JERUSALEN'en: Jesus'en garaiko JERUSALEN ZAAR artan arreziz inguraturik dagoan JERUSALEN artan.

JAJA'KO ATETIK sartu giñan.

Kale estu ta mallatuak JERUSALEN'go kaleak, eta denda-biarburik bertako espoloi biak.

Arabiarrak ziran, an ikusten ziran gizon eta emakumeetan gienak.

Kale estu aietatik, beeraka beti, bost minutu baño leenago Kalbario-mendian geunden.

Kalbario-mendian, ez...! An ez bait-dago mendirik...!

Muño-gain batean dago JERUSALEN, eta muño orren saiats batean dago KALBARIOA.

Eliz aundi-eder batek estaltzen du, gaur, Kalbario osoa: Jesus gurutzean il zan tokia, ta Jesus obiraturik egon zan tokia.

Zazpiren-bat siniskera-zkoak biltzen dira, egunero, eliz ontan. Kristau-izenekoak dira danak. Eta auetako bakoitzak bere elizatzkoa du bertan.

Neri ez zidan orrek naigaberik eman; poza baizik.

Pozgarria bait-da, aiek ere, guk bezela, Jesus sinistea, ta guk bezela, Jesus gurtzea. Ta nola gurtu ere!

JESUS GURUTZEAN IL ZAN TOKI BER-BERARA igo giñan lenengo. Ez zigun iñork ezer esan, bañan bat-batean belainikatu giñan danok, eta ixil-ixilik otoitz egin.

An sentitzen diran setipenak, ez dira esatekoak.

An bertan egon bear da, sentipen oiek sentitzeko...!

Gurutza egon zan toki berean musu eman, eta irten giñan andik danok, ixil-ixillik eta pil-pil biotza.

Gretar-ortodoxoak dira toki onen jabe. Ta an egon oi da beti, leku santu ura zaitzen, ortodoxo oietako bat.

Kapilla eder onen azpian, beste kapillatxo bat dago. Ta bertan iri-kirik dagoan zulo batetik, Kalbario-azpiko aitza ikusten da.

Emen egon omen zan eortzia Adan'en buru-ezurra.

Ez da au, noski, fedeko egi bat. Eta ipui bat besterik ez ba'da ere, zer-esan aundiko ipiua da.

Begira zer dion ipui onek:

Jesus gurutzean iltzean, gurutz-egurrean beera erori zan aren odola. Ta gurutzearen oiña, Adan'en buru-ezur gainean zegalako, Adan'en buru-ezur gainera ixuri zan Jesus'en odol ori.

Eta orra, nola bererosia izan zan, Adan'en, gizadi osoa.

Eta nork ez ditu ikusi, iñoiz, gurutz-irudi azpi batean buru-ezur bat, eta gurutzatutako beste bi ezur?

Goiko ipuitxoak esaten digu, garbi asko, zergatik ipintzen diran ezur auek gurutzaren azpian.

Beste kapillatxo batzuek, ere, ba'daude kalbarioko eliz onen barruan: Santa Elena'k Jesus'en Gurutza arkitu zuan tokia adierazi nai

duan kapillatxo: Jesus Maria Magdalena'ri agertu zitzaion tokia adierazi nai duan kapillatxo ta abar.

Kapilla auetako batean gordetzen da, Jesus zigorkatzeko lotu izan zuten koluna ura ere.

Bañan kapilla auetan maitagarriena, Jesus illik gorde zuan ILLO-BIA da. "Anastasis" esan oi diote gretar-ortodoxoak: Jesus berpiztu zan tokia.

Bi gelatxo bezela ditu illobi onek.

Lenengoan igurtziko zuten Jesus. eortzi baño leen. Eta ementxe agertuko zitzaien Aingerua ere, Maria Magdalen'ari ta arekin joan ziran emakumeeri.

"Larunbata ezkerro, Mari Madalen'ek, Mari Santiagorenak eta Salome'k gantzukiak erosi zituen, Ua aiekin igurtzitzeko.

Eta astearen leenean, goiz-goizetik, il-obira dijoaz eguzkia irtetean.

Onela ari ziran alkarrekin: nork irauliko digu il-obiko ataka-arria...?

Begia altxata, arria alde eragiña ikusi zuten, eta ez zan makala.

Sartu ziran il-obira, ta gazte bat ikusi zuten eserita eskubietan, soñeko zuriz jantzia, ta izutu egin ziran.

Bañan Ark, ez izutu, esan zien. Jesus Nazaretekoaren billa zatozte? Piztu da, ez ez dago emen. Ikus zer tokitan ipiñi zuten (Mk. 16, 1-7).

Buru-makur sartu bear da bigarren gelatxora. Ta antxe dago Jesus gorputz utzi zuten tokia.

"Gurutzatu izan zan tokian baratza zegon, ta baratzen il-obi berri bat. Artea ez zuten an iñor eortzi.

An satu zuten, bada, Jesus, pesta-bezpera zalako, ta il-obia bertan zegalako.

Launaka sartu giñan bertara, ta biotza dar-dar eman genion musu Jesus illotzik egon zan arlosari.

Leen esana, esan bear emen ere: ez da esateko, an sentitzen dana.

Kalbarioa utzi, ta judutarrak otoitz eta negar egiten duten ormara joan giñan.

Orma aundi bat da, ta arri landuz egiña.

Pelotaleku aundi bat dirudi.

Orma onen beste aldean zegoan Jauretzea: JERUSALEN'go TEN-

PLOA. Ta leengo Jauretшетik gelditzen dan orma bat da, orma-tzar au. Orregatik egiten dute emen, paretari begira oitiotz, judutarrak.

Ez dute Jauretשהa zegoan tokian sartu, ere, egin nai.

An sartu ezkerо "Sancta Sanctorum" zegoan tokia zapalduko ote duten bildur dira.

Ba'du, ba, bere zer-esana pareta onen aurrean otoitz-egite onek.

Antxe ari ziran otoitzean judutar batzuek, Gizonezkoak alde batean, eta emakumeak bestean.

Burua estalia zeukaten gizonezko guztiak. Mai batzuetan liburu batzuek zeuden: otoitz-liburuak. Liburu auekin otoitz egiten bait-dute, orma aurrean otoitz egiten duten judutarrak.

Otoitz-saioa bukatu ondoren, irrintzi antzeko bat egin, ta alkarri eskuak emanaz, korruan bukatzen dute beren otoitza.

An begira nengoala, judutarrak oi duten elizkizun-antzeko bat ikusi nuan. Gure sendotzaren edo konfirmazioren antzeko zerbait zan, gero jakin nuanez. Gazte ura ba'zala legea betetzeko gauza adierazi nai omen zuan elizkizun-antzeko arrek.

Jende-mordoxka zegoan elizkizun-antzeko oni begira. Ta elizkizun au bukatzean, txaloka ta irrintzika ekin zioten danak. Eta leengo gure baraiotan bezela karamelo asko bota zituzten "apurillo". Ta elizkizuna artu zuan gaztea, an joan zan orma aurrera, otoitz egitera, elizkizunean burutik-beera ipiñi zioten oial-zuri ta guzti.

Ez uste izan, ala ere, an ikusten diran gauzak parregarriak diranik. Begirasunez ikusten diran gauzak dira, ta judutarrak fede-biziz egiten dituzten gauzak. Guk gure elizkizunak egin oi ditugun bezelaxe.

Jauretשהa izan zan tokian izan giñan gero.

Antxe bai ez-zala arririk arriaren-gain gelditu. Enparantza bat dirudi.

Albo batean ikusten dira oraindik irun-bat koluna zutik. Ta auethek izango dira, noski, Jauretшетik gelditzen diran azterren bakarrak.

Eta naiz-ta Jauretשהa egon zan toki au, enparantza biurturik egon gaur, ala ere an zigarrorik ez erretzeko esan zion gutako bati, an bertako mutil-koxkor batek. Santua zan, noski, toki ura mutil-koxor arrentzat.

Jauretשהa izan zan lekuko bi muturretan, bi mezkita daude gaur.

Eta bi mezkita auen erdian, enparantza-erdian alegia, iturri askoko potzu bat. Eta ementxe garbitu oi dira bertakoak, mezkitera joan aurretik.

Orduan zijoan bere garbikuntza ori egitea gizon bat, baña iñor begira-egoterik ez zuala nai-ta, aurrera joan bear izan genduan.

Bi mezkita ikusi genituan, eta oin-utsik sartu bear izan genduan bietan. Ederra zan leenengoa: EL-AQSA'koa. Ederra ta ikusgarria bigarengoa: OMAR'koa. biak zeuden alfonbra-ederrez estaliak.

Jauretшетik gertu zegoan SANTA ANA're eliza. Emen bizi omen ziran Joakin eta Ana, Ama Birgiñaren gurasoak.

Au egia izatea, ementxe jaioko zan Ama Bigiña ere, ta emendik joango zan gero, Nazaret'era, bizi izatera.

Gure adierazleak esan zigunez, au esaten omen da San Joan'en leen-ebangelioan, proto-ebangelioan: Ama Birgiña Jauretшетik gertu, ta urtegi-ondoan zegoan etxe batean jaio zala.

Eta antxe ikusten da Santa Ana'ren eliza-ondoan urtegi au.

Eta ementxe sendatu zuan Jesus'ek dalako gaixo ura ere.

"Ba'da Jerusalem'en, Ardi-ate ondoan, hebreoz Bezata zaion urtegi bat, bost aterpe dituana.

Aterpe ontan gaxo asko zeuden etzanik: itsu, erren, perlesidun, ura noiz mugituko begira.

Jaunaren Aingerua tarteka ara jeixten baitzan, urari eragitera, eta ordun, ara aurrena sartzen zana, edozein gaitzetatik sendaturik gelditzen zan.

Ba-zegon an gizon bat, egei ta emezortzi urtetan gaxorik.

Jesus'ek, etzanik ikustean, eta ain luzaro egoera artan zegola ezaguturik, nai al-dezu sendatu, esan zion.

Jauna, erantzun zion gaxoak, gizonik ez det, ura mugitzean urtegiara sartuazi nazakenik, orregatik ni orduko, beste batek aurrea artzen dit.

Zuti zaite, esan zion Jesus'ek, artu zure zerraldoa ta zabilta.

Bereala sendatu zan, eta ba-zebillen zerraldoa bizkarrean.

Larunbata zan (Joan 5, 2-10).



### AGORRA 13. OSTIRALA.

Apaltokia, Jesus'ek bere ikasleekin egin zuan azken-apariaren to-  
kia, SION mendian dago, Jerusalem bertan.

Musulmanak berea dute toki au, ta ez dago bertan meza ematerik.

Apaltoki ondo-ondoan dago, ordea, "Dormitio" deritzan eliza, ta  
au omen da Ama Birgiña il zan tokia.

Ba'du siniste onek bere sustraia.

Jesus il-da gero, emen bildu ziran Jesus'en ikasleak, eta emen ar-  
tu, ere, egin zuten Espiritu Santua.

Emendik asi ziran Berri Ona zabaltzen, eta emen sortu zan lenen-  
go kristaudia ere.

Nekaldi ondoren Ama Birgiña emen bizi izatea, ez da, ba arritze-  
koa. Eta emen bizi izan ba'zan, emen ilko zan ere.

Dormitio deritzan eliz ontan eman genduan meza. Elizpean Ama  
Birgiñaren irudi eder-eder bat dago. Ama Birgiñaren loa, Ama Birgiña-  
ren eriotza adierazten digu irudi onak.

An dago gure Ama, luze-zuze etzanik, lo ba'lego bezela.

Apaltokia ez da Jesus'ek ibilli zuan apaltoki ura-bera, aren-gai-  
ñean jasotako beste apaltoki bat baizik.

Apaltokia bera ez ba'da ere, tokia bera da ordea.

Toki ontantxe egin zuan Jesus'ek bere ikasleekin bere azken apa-  
ria.

Maiean jarri zan bere ikasleekin, eta onela esan zien: Pazko au zue-  
kin jatea bizi-ropa izan det, Pasioa baño leen.

Toki ontantxe garbitu zizkien oiñak bere ikasleeri.

Jeiki zan maiteki, erantzi zuan soin-gaiñekoa, ta esku-oial batekin ge-

rria bildu zun. Gero balde batera ura bota ta ikasleai oiñak garbitzen asi  
zan.

Toki ontantxe sortu zuan Aldareko Sakramentu Santua, ta toki on-  
tantxe sortu zituan apaizak ere.

Aparitakoan Jesus'ek ogi bat artu zun, onetsi, zatitu, ta ikasleai eman  
zian esanaz: Artu ta jan; au Nere gorputza da. Eta ontzia arturik, eske-  
rrak egin eta emanaz, au esan zien: Edazute guztiok ontatik, au Nere odo-  
la baita, Testamentu Berrikoa; askoren alde ixuria, pekatuak barkatzeko  
Egizue au, Ni gogoratu.

Toki ontantxe eman zigun bere agindu berria.

Agindu berria ematen dizuet: maita zazute alkar, Nik maitatu zai-  
tuedan bezela. Ontan ezagutuko dute guziak, nere ikasleak zeratela alkar  
maite izatean.

Toki ontantxe agertu zitzaizen berpiztu-ondoren, bein baño geiago-  
tan, bere ikasleeri.

Arratsalde berean, astearen leenean, ikasleak bildurik zeudela ta ateak  
juduen bildurrez itxirik zeuzkatela, Jesus, etorrita erdian jarri zitzaizen, ta:  
"Pakea zuei", esan zien.

Toki ontantxe artu zuten bere ikasleak Espiritu Santua ere.

Pentekoste-egunean guztiak leku batean bilduta zeuden, eta bat-ba-  
tean, zerutik aize-boladarena bezelako burrundara sortu zan, eta ayek zeu-  
den etxe guztia bete zuan. Eta su-antzeko mingaia ikusi zituzten, bakoit-  
zaren gainean banatzen eta gelditzen zirala. Eta guztiak Espiritu Santuz  
bete ziran eta izkuntzetan itzegiten asi ziran, Espiritu Santuak eragiten  
zienez.

Eta zer ez gaiago toki ontan...!

Apaltoki-ondoan dago ere, Hitler'ek il-erazi zituan sei milloi-judu-  
tarrei, gaurko judutarrak jasotako oraigarria.

An ikusten dira loituak judutarren idazki santuak. An, erretako ju-  
dutarren autsekin, betetako ontziak. An, judutarrak iltzeko ibiltzen zuten  
edena, benenoa. An judutarren koipearekin egindako jabiak.

Eta guzti auen erdian, illobi beltz bat. Eta illobi onen gainean se-  
kulan itzaltzen ez dan sua.

Ba'da an, oroitarri bezela jasotako iturri bat ere.

Arri zuriz egindako malko batzuk ditu apaingarri, ta judutar-emakumeak, burutik-beera, ibilli oi duten oiala eta kandela lodi bat.

Hitler'ek il-erazi zituan judutar-umeen oroigarri da iturri au. Tanta-tantaka, malkoak ba'lira bezela, erortzen da an ura, ere.

Eta idazki au dago idatzirik iturri-pean: Oiu bat entzun da Rama'n; negarra ta ai-ene aundiak: Rakel semengatik negarrez, eta etzun pozik artu nai, ez baitauzka.

JERUSALEN'dik zortziren-bat kilometrora AIN-KARIN. Ala ere, Jerusalem'dik bertan dagoala, esan dezakegu, bide ontan jaso bait-dute judutarrak JERUSALEN BERRIA leengoaren antzerik-gabekoa.

AIN-KARIN ontan bizi ziran Zakarias apaiza ta bere emazte Isabel. Emendik joan oi zan Zakarias zaara, bere apaiz-lanak egitera, Jerusalem'go Jaurettxera. Ta Jerusalem'go Jauretxe ontan artu zuan bein "aita izango zala" albistea.

"Ez bildurtu Zakarias, zure otitza entzuna da, ta zure emazte Isabel'ek aur bat egingo dizu ta izena Joan emango diozu.

Eta Zakarias'ek Aingeruari:

Zertan ezagutuko det au? Ni zaarra bainaiz eta andrea urteetan aurreratua.

Eta orduan Aingeruak Zakarias'eri:

Mutu geldituko zera, ezin itz egiñez, auek gertatu arte, ez baitiezu siñestu nere itzei, beren garaian batetzekoai (Lk. 1).

Aingeru berak eman zion, Nazaret'en, Ama Birgiñari ere, auen daren berri, ta onera etorri, ta iru illabete igaro zituan emen Ama Birgiñak.

Emen kantatu zigun Magnificat ederra, ta emen jaio zan Joan Bataiatzallea ere.

Ez da erri aundia AIN-KARIN au ere, ta bi mendi-egaletan dauzka bere etxeak.

Bi elizaren jabe da.

Eliz auetako bat mendi-egal batean dago, ta Joan jaio zan etxe-gaiñean eraikia. Ikerkundeko eliza esan oi diote eliz oni.

Beste eliza, beste mendi egalean dago, ta Mendian dagoan Joan en Eliza esan oi diote.

Ikerkunde'ko eliza ikusi genduan lenengo. An gertatu bait-zan San Lukas'ek esaten digun au:

"Egun aietan Mari korrika txikin atera zan Judea-goierriko erri batera.

Zakarias'enean sartu zan, eta Isabel'i agur egin zion.

Mari'ren diosala entzutean, aurrak Isabel'i punpa egin zion sabelean, eta Isabel Gogo Donez bete zan Eeta oiu aundiz ots egin zun:

Doatsua zu emakemeetan, eta doatsu zure sabeleko semea. Nundik neri, nere Jaunaren Ama neregana etorri? Izan ere zure diosal-otsa nere berrietara orduko, aurrak saltoka asi zait sabelean pozez. Eta doatsu zu, Jaunak esan dizkizunak beteko dirala, siñistu dezulako.

Orduan Mari'k onela esan zun:

Aundizat dauka nere animak Jauna. Pozez pil-pil dago nere barruna, Jainkoa baita nere osasuna, ta abar. (Lk. 1, 9-48).

Auek danak gogoan, elizpera jetxi, ta elizpeko altareazpian utzi genduan, beti bezela, gure musua.

Ba'du AIN-KKARIN'ek, ere, mendi-egal bien erdian iturri bat. Ama Birgiñaren iturria esan oi diote iturri oni ere, ta ez da arritzekoa. An igaro zituan iru illabeteetan bein baño geiagotan joan bear izango zuan Ama Birgiñak, ur-billa, iturri ontara.

Mendian dagoan Joan'en beste elizak, ez du guretzat ainbesteko garrantzirik. Ala ere, siñiste baten jabe da. Ta Jaime'ren leen-ebangelioak (proto-ebangelioak) jasotzen digu siñiste au: Emen, toki ontan, gorde omen zuan Isabel'ek Joan, Herodes'ek bi urtetik-beerako, Belen inguruetao-umeak il-erazi zituanean.

Elizatik-kanpora dagoan orma batean, an ikusi al'izan genduan Magnificat munduko izkuntza askoetan idatzia. Euskerarik etzan an agertzen ordea...!

Ez nuke nora esango. Bañan AIN-KARIN'dik ostatu eder-antzeko batera joan giñala, bai. Ta ostatu ontako landan, Jesus'en garaiko, JERUSALEN'go maketa eder bat ikusi genduala, ore bai.

JERUSALEN nolakoa zan, eta nolakoak ziran bertako Jauretxea ta Jauregiak, antxe ikusten dira ondoen. Merezi zuan egin genion iustaldia... Gauza ederragorik...!

Egin genduan beste egonaldi bat ere, JERUSALEN'era itzuli aurretik.

Judutarrak LIBURUARI jaso dioten SANTUTEGIA ikusten egon giñan. Etxegintza ederra ta besteak ez-bezelakoa. An gordetzen bait-dute judutarrak, beste batzuen artean, Isaias Igarlearen idazki bat. Antziñakoa oso, ta orain urte batzuek arkitua.

Israel'era gaur joaten diran guztiak, ikusi oi dute Santutegi au.

Bazkal-ondoan, ordubi t'erdietan, ibiltari giñan berriro, ta leen Antonia Gaztelua (Torre Antonia) izan zan toki artan giñan laister.

Bi elizatxo ta lekaiame etxe bat daude gaur bertan.

Elizatxo auetako bat, Jesus zigortu zuten tokian dago, ta Pilatos'ek Jesus'en-aurkako epaia, eman zuan tokian bestea.

"Au libre uzten ba'dezu, etzera Zesar'en adiskide. Bere burua Errege egiten duna, Zesar'en etsaia da. Pilatos'ek, au aditzean, aterarazi zun Jesus kanpora, ta auzi-maiean eseri zan LITOSTROTOS deritzan tokian, ebreoz GABBATA.

Pazko bezpera zan, seirak inguru.

Ona emen zuen Errege, esan zien Pilatos'ek juduai. Aiek oiuka: eriotza, eriotza orri; gurutzera...!

Zuen Errege gurutzera...?, esan zien Pilatos'ek.

Ez degu, esan zioten, Zesar beste erregerik.

Ordun gurutzerako eman zien. (Joan 19, 12-16).

Lekaiame etxe-azpian, garbi-asko ikusten da, gaur ere, LITOSTROTOS zati aundi bat. Arlosa aundiz egiña dago. Ta arlosa auetxek izango ziran, Jesus'ek, bere nekaldiko gau artan, zapalduko zituan arlosak.

Eta antxe bertan dago ECCE HOMO'ko balkoia ere.

Balkoi ontan agertu bear izan zuan Jesus'ek arantzazko koroia buruan eta kapa gorria soin-gaiñean.

Eta balkoi ontatik egin zuan Pilatos'ek bere deadar ura: ONA EMEN ZUEN GIZON ORI...!

"Berriro Pilatos'ek aterata au esan zien: emen dakartzet atarira, auzirakorik arkitzen ez diodala jakin dezazuten.

Atera zan Jesus, arantzazko burestunarekin eta kapa gorri-gorriarekin.

OR DEZUTE GIZONA, esan ien Pilatos'ek.

(Joan. 19, 4-5).

Eta emendik irten zan Jesus, gurutza sorbaldan, kalbariora.

Eta emendik irten giñan gu ere, Jerusalem'go kaleetan zear, gure GURUTZ-BIDEA egitera.

Kalbarioko eliz-atarian bukatu genduan gure Gurutzbide au.

Begirune osoa gorde ziguten kaleetako gizon eta emakumeak.

Franzizkanoak ditugu LEKU SANTU guzti auen zaitzalle zintzo. Aueri esker, bizi-bizi gordetzen da, oraindik emen, Jesus'en oroipena. Zor zaie, ba, ikustaldi bat. Eta an joan giñan danok, egiten ari diran lan onegatik, eskerra ematera.

Artan ari giñala, bizar-zuri-luze zuan praille bat ikusi nuan baztar batean. Euskalduna izango zala esan zidan biotzak, eta arengana urbildu nintzan.

Euskalduna zan, bai. Otxandiano'ko semea. Larogei ta lau urte t'erdizituan, eta ogeita-amalau zemazkin Jerusalem'en.

Euskera egiñaz gozatu zedin pixkat, Mondarago'ko neska batzuek biali nizkion gero.

Ba'genduan beste ikustaldi bat egiteko ere: Jerusalem'go Patriarkarena. Baña gure artean ba'zirala oraindik judutarrak paret-aurreko otortzean ikusi ez zituztenak, eta arutz joan giñan mordoxka bat, Patriarkaren ikustaldiari uts eginda.

Seirak ezkerre illun zegoan Jerusalem.

Eta ostiralako illunarekin batera, asten da, judutarrentzat, zapatua, judutarren jai eguna.

Asko ta asko zeuden otortzean. Beltzez eta berdin jantziak geienak. Lebita-antzeko bat soñean, eta kapel aundi bat buruan.

An gelditu ziran artean, gu etxeratu giñanean ere.

#### AGORRA'K 14. LARUNBATA.

Au esan dezaegu gaur Jesus'en nekaldiari buruz:

Sion-mendian egin zuala Jesus'ek bere azken-aparia bere ikasleekin, eta apal-ondoan jetxi zala bere ikasle oiekin Jetsemani-baratzara.

(Jetsemani-baratz au, Zedron-errekaren beste aldetik dago, ta Jerusalem'go arresietatik kanpora bai, bañan arresi oietatik bertan.

Guk ikusi genduanean, ez zeraman ur-tanta bat bakarra ere, Zedron-erreka orrek).

Jetsemani'ko baratzan atxitu zuten Jesus, eta Sion-mendira eraman berriro. Mendi ontan bait-zeukan Anas apaizburuak bere jauregia.

Anas'en jauregi ontatik Antonia-Gaztelura jetxi zuten gero, ta Gaztelu ontako Litostrotos zeritzan tokitik irten zan Jesus Kalbariora.

Oliondo-mendi azpian dagoan Jetsemani-baratzako elizan eman genduan meza. Jesus'ek bere otoitz ura egin zuan leku bertan.

An dago, altare-aurrean, arantzazko koroï dirudin burnisarez inguraturik, aitz bat. Aitz onen gainean egin zuan Jesus'ek bere otoitza, ta ementxe izan zuan bere odol-tantako izardia ere.

"Atera ta joan zan oi-zunez Oliomendira, ikasleak atzetik.

Ara ziranean, egizute otoitz, esan zien Jesus'ek, tentaldian ez sartzeko.

Bera berriz, arrika bat bide aldendu zitzaïen, eta belauñiko, onela ari zan otoitzean:

Aita nai ba'dezu, kendu nigandik ontzi au, baña Nik naia ez-baña Zuk naia egin bedi.

Artan aingeru bat agertu zitzaion zerutik, kemena ematera. Ta ilzorrian jarrita, otoitz luzegoa egiten zun, ta odol-izardi tantak zerizkion lurreraño (Lk. 22, 39-45).

Ba'daude an, eliz-ondoan. Zortzi oliondo zaar-zaarrak.

Ez omen dira, ala ere, Jesus'en garaikoak.

Tito'k Jerusalem menderatu zuanean, Jerusalem-inguruko zuaitz guztiak moztu erazi omen zituan 15 kilometro barrenean. Eta an joango ziran Jetsemani-baratzako oliondoak ere...!

Ala ere, oraingo auek, leengo aietatik sortuak izango dira noski.

Jetsemaniko baratza au, Jesus'en lagun edo senideetako baterena izango zan dudarik-gabe. Ez zuan Jesus'ek bestela, berea bezela artuko toki au. Ta Ebangelioak esaten digunez, askotan jetxi oi zan Jesus, baratz ontara, otoitz egitera.

Ondo zekian au Judas'ek ere, ta baratz ontara etorri zan zuzen-zuzen Judas, Jesus'en billa.

Jetsemaniko elizatik "arrika bat bidera" koba-zulo bat dago. Ta koba-zulo ontan utziko zituan Jesus'ek bere ikasleak, Bera otoitz egitera aldendu zanean.

Eta koba-zuloko giroak lotaraziko zituan ikasleak.

Jesus'en garai artan ez zan kanposanturik errietan. Eta al'zutenak, beren baratzeetan egin oi zituzten beren etxekoentzat illobiak.

Kalbarioan bezela, ba'zan Jetsemani'ko baratzean, ere, illobi bat. Eta illobi ontan eortzi zuten, Sion mendian il zan, Ama Birgiña.

Eta ez da au aritzekoa.

Jetsemani'ko baratza, Jesus'en lagun edo senideetakoren betena izango zala, esan bait-degu leen. Eta onek Ama Birgiñarekin, Arimateako Jose'k Jesus'ekin egin zuana, egin zuan noski.

Berrogeitaka ar-mailla jetxi bear dira bertara iristeko Elizatxo bat dago bertan, ta elizatxo onen albo batean dago Ama Birgiñaren illobia.

Emen egon zan, alditxo batean ba'da-ere, Ama Birgiñaren gorputz illa, ta emendik jasoko zuten aingeruak zerura. Ortodoxoak dira gaur eliz eta illobiaren jabe. Ta guk ez dezakegu, an, meza-ematerik.

Kandalatxo piztu-bana eskuan sartu giñan illobira, ta bai pozik musu eman, ere, Ama Birgiñaren gorputzari eutzi zion arlosari.

JERUSALEN'dik bi kilometro t'erdira dago BETANIA. Jesus'ek ainbeste maite izan zuan errixka. Jesus'en atsedan tokia.

Arutzako bidean, JOSEFAT'etik igaro giñan.

Guk, euskaldunok, JOSEFAT aitatzen degun baoitzean, Josefateko zelaia esan oi degu. Ta JOSEFATEk, gaur beintzat, ez du zelai-izenik merezi. An ez da belar-izpirik ere ikusten. Eta azken-egunean, an bildu bear baldin ba degu danok, larri ibilli bearrean gera.

Ba'dira ura ańeko zelaiak gure Euskal-erri bertan.

Bañan dana-dala, an eortzi zituzten judutarrak beren ildakoak. Ez zuten, noski, JOSEFATEko zalaitik urruti egon nai.

Mendi-egal batean dago BETANIA ere.

Emen bizi izan ziran Jesus'en lagunik kutunenak: Lazaro, Marta ta Maria. Ta auetara etorri oi zan sarritan Jesus.

Askotan aipatzen digu Ebangelioak BETANIA.

"Jesus Betani'n zegola, Simon lapradunarenean maiean, emazteko bat etorri zan, nardo jatorrezko ukendu baliotsua ontzi batean zekarrela; ausi zun ontzitxo, ta burura ixuri zion (Mk. 14, 3).

BETANIA'tik biali zituan bi ikasle, ere, Jerusalem'era, Pazko-Aparia antolatatu zezaten.

"Zoazte errira, ta gizon bat topo egingo dezute, lur-suilla bizkarrean; segiozute, ta sartzen dan tokian esaiozute ango nagusiari, au dio Maixuak: nun da nere jan- gela, nere ikasleekin Pazkoa jan dezadan (Mk. 14, 13-15).

Bañan Lazaro'ren piztuerari zor dio, batez-ere, bere izen aundi BETANIA'k.

Jauna, maite dezuna gaxo dago.

Eta au entzunda ere, bi egunez gelditu zan zegoan tokian.

Bi egun auk igaro ziranean, goazen Judea'ra, esan zien bere ikasleeri, Lazaro lo dago, ta esnatzera noakio.

Marta, Jesus zetorrela jakitean, bidera atera zitzaion: BETFAGE'ra ustē danez, eta an izan zuten bien arteko alkarrizketa eder au:

—Jauna, emen izan ba'ziña, ez zan ilko nere anaia. Ba'dakit, ala ere, eskatzen diozuna emango dizula Jainkoak.

—Anaia piztuko zaizu.

—Ba'dakit piztueran, ezken-egunean piztuko dala.

—Ni naiz piztea ta bizia. Ni siñisten nauana, ilda ere piztuko da; ta bizi dana ta siñiste nauana, ez da ilko betiko. Siñisten dezu au?

—Bai, Jauna, Siñisten det Kristoa, Jainkoaren Seme zerala, mundu ontara etortzeko zana.

Au esanda, aizpa Mari'ri deitzera joan zan:

—Maixua or dago, ta dei egiten dizu.

Mari Jauna zegoan tokira iristean, auspez erori zitzaion:

—Jauna, emen izan ba'ziña etzitzaigun ilko.

—Nun jarri dezute?

—Jauna etirri ta ikus.

Eta Jesus illobira urbildu zan. Artzulo bat zan arrizko atakarekin.

—Lazaro atera zaite...!

Eta il zana atera zan, esku-oñak zatarrez lotua, aurpegia zapi batekin estalia (Joan, 11).

Eta an dago, gaur ere, BETANIA'ko gauzarik ikusgarriena bezela, Lazaro'ren illobi au.

Ez du bertarako jetxiera oso erreza, bañan an izan giñan ikus-miran barruan.

Musulmanak dira illobi onen jabe, ta urtean bitan bakarrik ematen dute bertan meza frantziskotarrak.

BETFAGE'ra igo giñan gero.

Oraindik-orain esan degun bezela, ementxe izan zuten Jesus'ek eta Marta'k alkarrizketa eder ura.

Eta emendik irten zan, asto batean zaldun, Jerusalem'era Jesus, Jerusalem osoak "goraka" artu zuan, erramuegunean.

Ba'da emen, ere, gertaera au gogoratzen digun elizatzko bat.

Autobusean giñalako, ibillaldi luzeagoa egin-bearra izan ba'genduan ere, BETFAGE'tik oso-gertu dago Oliondo-mendiaren gallurra. Ta gallur ontatik igo zitzaigun Jesus zerura.

"Au esanda, (Jesus'ek bere ikasleeri eman zizkien azken-aolkuak alegia) aien begien aurrean goraka igotzen asi zan, eta odei batek ezkutatu zuan aien begietatik.

Bera zurrontz zijoa artean, aiek Ari begira-begira zeudela, soñeko zuriz jantzitako bi gizon agertu zitzaizkien ondoan, eta ala esan zien: galileatar gizonak. Zertan audete or zerura begira? Zuengandik zerurako jaso izan zaitzuten Jesus ori, zerura joaten ikusi dezuten bezela etorri ere etorriko da.

Orduan Oliondo izeneko menditik, Jerusalem'era biurtu ziran ikasleak (A. E. 1, 9-13).

Ba'da, an, musulmaneen mendean, zortzi-alde dituan santutegi bat. Eta santutegi erdiko arri batean, oin-antzeko arrasto bat dago. Jesus'ek

utzi zuan bere oiñaren arrastoa dala, esan oi dute; bañan ez dago au, gaur egunean zergatik sifistu.

Oin-arrasko au zala-ta, estu-asko artu zuten bein, an, Loiola'ko gure Ignazio.

LUR SANTUA ikustatzen ari zan beste batzuekin taldean. Oliondo-mendian egon ondoren, Jerusalem'era jeixterakoan, burutapen bat sortu zitzaion: nora-begira igo ote zan Jesus zerura...? Jerusalem'era begira, edo Jerusalem'eri bizkarra emanda...?

Eta euskalduna zan aldetik, burugogorra ere bai, ta ixil ixilik talde-tik iges egin, eta an joan zan berriro, ori erabakitza, Oliondo-mendi gailurrera.

Igeska ari ote zan susmoa artu zuten noski, ta giltzapean sartu zuten alditxo baterako ba'da ere.

Oliondo-mendi gainean, ba'da karmeldar-lekaimeak duten lekaime-etxe bat ere. PATER NOSTER esan oi diote lekaimetxe oni; ta berrogei ta amabi izkuntzeetan idatzia dago AITA GUREA an-bertako klaus-troan. Euskeraz ere bai. Ta ona emen, nola idatzia dagoan ere:

Aita gurea, zeruetan zegoana, izan bedi onetsia zure izena, betor gugana zure erreguekuntzea, egin bedi zure naia, zelan zeruan, alan lurrean.

Egunean eguneango gure oguia gaur eman eiguzu, ta parkatu eiguruz gure zorrak gure zordunai guk parkatzen deutseguzan leguez. Ez ichi zirikaldian jausten, ezpabe gorde gaizuz gachetik. Arren.

Oliondo-mendi barrenean asi zan Jesus'en Nekaldia, ta Oliondo-mendi gallurretik igo zan Jesus Zerura.

Nik-neronek Oliondo-mendian bukatuko zala, uste nuan, gure Jerusalem-inguruko ibillaldi au ere, bañan artean astia ba'zala-ta, EMAUS'era joan gainan Oliondo-menditik.

EMAUS (gaur Qubeibek) JERUSALEN'dik amaika kilometrora dago.

Kleofas'en etxea zegoala, asten dan toki artan, eliz eder bat jasoa daukate gaur frazizkotarrak.

Lur-azpitik atera dituzten orduko arri asko ikusten dira bertan, eta erromatarrak Jerusalem'dik Emaus'era egin zuten arlosazko bidearen zati bat.

Arlosazko bide ontatik etorriko ziran, ba, Jerusalem'dik Emaus'era zetozen bi ikasle aiek, Jesus urbildu ta bide-lagun egin zitzaienean.

Jesus piztu zan egun bera zan.

—Zer izketa ari dezute bide ontan...?

—Zu al'zera Jerusalem'en arrotz bakarra, egunotan an gertatu diranak ez jakiteko, erantzun zion Kleofas'ek.

—Zer...?

—Jesus Nazaret'ekoarena. Igarlea, gizon altsua itzez eta egitez, Jainkoaren eta erri guziaren aurrean. Gure apaizburu ta agintariak eriotzerako epaia iritxi, ta Gurutzean josi zutela. Uste genun, uste, ark libratuko zula Israel, bañan gaur irugarren eguna da gauzok gertatu zirala. Ori bai, gure arteko batzuek izutu gaitute, oso goiz joan dira illobira, ta gorputza an etzegola ikusita. Aingeruak ageru omen zaizkie, Ua bizi dala esanaz. Eta gutar batzuk joan dira illobira, ta emakumeak esan bezala arkitu dute guzia, baña Bera ez dute ikusi.

—Zozoak eta noçgiak Profetan esana sinisteko! Ez al zan beerrezko Kristo'k ola pasatzea bere zeruan sartzeko...!

Eta Mois eta Igarle guziak aurrez-aurrez irauliz Liburu Santuetan Artaz azaltzen dana, azaldu zien. Iritxi iran Emaus'era eta Berak aurrera keifnu egin zun. Baña geldierazi egin zuten. Eta maiean jarrita, ogia artu, bedeinkatu, zatitu ta eman zien. Aien begiak ordun, argitu ziran eta nor zan ezagutu zuten (Lk. 24, 13...).

AGUR JESUS'EN AMA abestuz irten gainan JERUSALEN'dik HAIFA'ra berriro.

Bazkal-ondoa zan, eta arratsaldeko iru t'erdiak ziran.

Judutarren azken-gerrateko oroimen asko ikusi genduzan bidean, tanke ta abar. Baita Hitler'ek eraildako sei milloien izenean aldaturako sei milloi arbolaetako batzuk ere.

Sei milloiak ezin, ba, ikusi...!

Piñuak ziran, eta piñu auen artean zipres batzuk ere ikusten ziran. Zipres auek eraildako umeak adierazi nai dituzte.

JAFAn gelditu gainan leenengoz. JOPPE esan oi zaio uri oni Eban-gelioan.

Ama-seme batzue zeuden, an, gure zai. Bizkaitarra zan ama, judutar batekin ezkondua, ta an-bertan bizi zana geroztik.

Itxas-ertzean Simon larrugiñak bere etxea zuan tokian, daukate gaur frantziskotarrak bere lekaidetxea, ere.

Emen egon oi zan Pedro ostatus, Simon larrugiñaren etxean. Eta emen izan zuan, etxegañeko solairuan, bere zerutar ikusketa ura :

Pedro! Altxa zaitetz, eta il eta jan zazu. Ta Jainkoak garbitu duna, zuk ez loitzat artu (A. E. 10).

Eta ementxe artu zituan Kornelio eutariak, Zesarea'ra joan zedin, bialdu zizkion mandatariak.

Emendik joan zan, ba, Zesarea'ra, Kornelio ta onen etxeko ta lagunak bataiatzera, leen esana daukagun bezela.

JAJA ta TEL-AVIV bat dira gaur. Eta TEL-AVIV au degu, gaur, Israel'go uririk nagusiena. Milloi-erdi baño biztanle geiago izango ditu.

Uri ederra da. Ta ez dauka Jerusalem'ekin-eta, zer ikusirik. Munduko beste uriak bezelakoxea da, bai jazkeraz eta bai oituraz. Ala ere, larunbata zanez, jai zuten TEL-AVIV'ten.

Donosti'ko Avenida'n ba'geunde bezelaxe, egon giñan ango espoloi batean Coca-cola artzen.

Andik irten, eta HERTZILIIJA'tik-zear igaro giñan.

Uri berri-berria au ere. 1924'grren urtean sortua, ta ogeita-bi milla baño biztanle geiago izango ditu gaur.

KARMEN-MENDI'tik beera, autobuseko kortina guztiak jexierazi zizkigun txoferrak.

Eta kilometro batzuek orela egin ondoren, eskubi-aldeko kortinak jasotzeko agindu zigun gero.

Ikusgarria benetan gure begi-aurrean orduan agertu zana. HAIFA zan argiz ornitua. Eta diz-diz egiten zuten argiak kaiko ur-gaiñean.

Giroa ere ederra zegoan, eta an egon giñan luzaro edertasun arrei begira.

Gure etxean bezelaxe sartu giñan gure itxasontzian.

Gozoa billatu genduan aparria, ta gozoagoa oraindik bertako ardoa. Jerusalem'en ez bait-genduan ardorik ikusi ere.

Zine ondoren oieratu giñan.

## AGORRA'K 15. IGANDEA.

LUR SATU'an igaro genduan egunik beroena.

Ba'zan ura beroa.

Goizeko zazpi t'erdietan irten giñan HAIFA'tik, eta NAZARET igaro ondoren, laister giñan KANA'ko errian.

Galilea'ko erri bat degu KANA. Erdi kristau, erdi musulman. 7 kilometro daude NAZARET'etik bertara. Ta erri-azpian dago bertako iturri bakarra.

Erri ontantxe egin zuan Jesus'ek bere lenengo miraria. Ta bere ama Maria'k eskatu ziolako, egin ere.

Onela ematen digu Joan'ek mirari onen berri :

"Eztaiak ziran Galilea'ko Kana'n, eta Jesus'en Ama an zegon.

Deitu zuten eztaietara Jesus ere, bere ikasleekin. Ardorik gabe gelditu baitziran, eta, ez dute ardorik, esan zion Amak Jesus'i.

Zuri ta neri zer Andrea? erantzun zion Jesus'ek; etzait oraindik ordua iritxi.

Amak serbitzariari au esan zien: egizute esaten dizuen.

Ba-zeuden an sei arri-ontzi juduen garbiketarako, bakoitza bi edo iru neurrikoak.

Bete etzazute ontzi oiek urez, esan zien Jesus'ek. Bete zituten gorraño. Atera orain eta eraman mai-zaiari, esan zien. Aiek eramaki.

Mai-zaiak, ur ardo biurtua txurupatu zuneko, nundik zan jakin gabe (ba-zekiten, noski, ua atera zuten serbitzariak) senar berriari deituta esan zion: Beste guziak ardo ona atera oi dute leenbizi, ta jendea birbizten danean txarrena. Ta zuk ardo ona orain arte gorde dezu.

Au da Jesus'ek lenengoz Galilea'ko Kana'n egin zun miraria. An agertu zun bere ospea, ta ikasleak siñistu zuten nor zan (Joan 2, 1-12).

Jesus'ek, bete itzatzute ontzi oiek urez, esan zienean, etxean urik ez, eta erriko iturrira joan bearko zuten sebitzari aiek ur-billa.

Erri-azpian, gaur ere, dagoan iturri artako ura, izango zan, ba, Jesus'ek ardo biurtu zuan ura.

Eta ez genduan ur artatik edan...!

LUR SANTU'ko erririk geienak bezela, mendi-egal batean dago KANA ere. Ta eztaie auek izan ziran etxe-gañean, dago jasorik, gaur, bertako eliz bakarra.

Eta ba'da an, elizpean, ebangelioak aipatzen dizkigun ontzi aien antzeko bat.

Beste tokietan bezela saltzen dira KANA'n ere, bertako oroigarri: argazki ta abar.

Bañan ba'da an, beste tokietan saltzen ez duten oraigarri berezi bat: ardoa, KANAN'GO ARDOA.

Gutako batek zionez, ez da munduan ura baño ardo garestiagarrik. Eta ez zuan gezurrik esaten.

KANA'tik TIBERIADES'era etorri giñan.

TIBERIADES onek, uri bezela, ez dauka guretzat zer-esan aundirik. Bertako itxasoak bai, ordea.

21 kilometro ditu luze, ta 12 zabal, eta bertako urak, ur gozoak dira.

Ez da, ba, itxaso-itxaso; potzu aundi bat baizik.

Ala ere, ITUN BERRIAN itxaso aipatzen dan geienetan, potzu au esan nai da, itxaso-izen orrekin.

JENESARET'EKO POTZUA ere esan oi zaio, ta GALILEA'KO ITXASOA ere bai.

Jendea batetik-bestera ibiltzeko izan oi diran motordun txalupa oietako bat artu genduan, eta bertan joan giñan TIBERIADES'etik KAFARNAUN'era. Ez itxas-erdian geldialdi bat egin, eta an gertatutakoak gogora ekarri gabe, ordea.

Ezin esango ditugu emen danak. Askok ta asko bait-dira.

"Laugarren gaualdian, Jesus aiengana joan zan itxasoan oñez.

Bañan ikasleak Ua itxasoan oñez ikustean, ikaratu ta zioten: Irudituzkoa dek. Eta bildurrez oiuka asi ziran.

Baña Jesus'ek bereala itzegin zien: ezazute biotz.

Ni naiz; ez bildur izan (Mt. 14, 22-24).

Itzaldia bukatzean.

Boga itxaso barrura, esan zion Simon'i, ta bota itzazute sereak errantzara.

Maixu, erantzun zion Simon'ek, gau osoan lanean, eta ez degu arririk atxitu. Baña zure esanera botako ditut sareak.

Orrela eginda, arrai-pilla aundia bildu zuten, ia sareak eten zorian (Lk. 5, 1-7).

Itxaso ber-bertan naastu zan, olatuak ontzia estaltzeraño; baño Bera lo zegon.

Ondora zitzaizkion ikasleak, eta, Jauna, esanez, esnatu zuten; salba gertazazu; galduak gera...!

Jesus'ek esan zien: zeren bildur zerate, siñiste aulekoak?

Jeiki zan orduan, oiuegin zien aizeai ta itxasoari ta barealdi aundia etorri zan.

Gizonak arriturik, nor da au?, zioten: aizeak eta itxaso mendean dauzkan au...? (Mt. 8, 23-28).

Gerese'ko mendia ager zan gure eskubi-aldean, ta an Jesus'i deabrudun bi aiekin gertatua, ezin aaztu.

Uxatzen ba'gaituzu, zioten deabruak, bialdu gaitzazu txerritalde artara.

Zoazte, esan zien. Eta aiek, aterata, urdeetara joan ziran.

Bereala urdalde osoa aldapa-bera itxasora amildu zan, eta uretan il ziran (Mt. 8, 31-33).

KAFARNAUN'en jetxi giñan ontzitik.

Auxe izan zan, esate baterako, Jesus'en bizi-lekua.

Emen egin zitun mirarietako geienak.

Emen bere itzaldi garrantzitsuenak ere.

Emen asi zuan bere apostoladutza.

Ondo-asko adierazten dute au dana, Jesus'ek bein esan zituan itz auek:

"Eta zu, Kafarnaun, zeruraño altxa al zera? Lurperaño sartuko zaitue! Zurean egindako mirariak Sodoma'n egin izan ba'lira, gaur arte irau zezaken Bañan egia esan, azken-eguna ariñago izango zaio Sodoma'ri zuri baño (Mt. 11, 23-25).

Eta lurperaño eroria dago gaur KAFARNAUN. Lur-azpian agiri dira, leengo KAFARNAUN artako, ormazarrak. Eta ormazar auen artean, Pedro'k an izan zuan etxearen ormak ere bai.



Etxe ontan sendatu zuan Jesus'ek Pedro'ren amagiarreba.

"Jesus Pedro'ren etxera joan zanean, onen amagiarreba oiean ikusi zun berotasunekin; eskua artu zion eta alde egin zion berotasunak.

Jaiki zan, eta serbitzen asi (Mt. 8, 14-16).

etxe ontan perlesiduna ere.

"Etzean zegola jakin zuten.

Ate aurrean ere, lekurik ez uzteko aña jende bildi zitzaion eta mintzaldi bat egin zien.

Eta ara, perlesidun bat ekarri zioten, lau lagunek eramana.

Jendearengatik, Aren aurrera ezin urbildu, eta, zegon etxeko tellatua altxa, zulo bat egin, eta andik bera jetxi zuten oetxoan (Mk. 2, 1-5).

Eta etxe onen aurrez-aurre zegoan KAFARNAUN'go Sinagoea ere.

Eta KAFARNAUN'go Sinagoga ontan esan zizkigun Jesus'ek, EU-KARISTIA'ri buruz esan zituan bere lenengo itzak:

Ni naiz bizi-ogia... Ni naiz zerutik jetzitako ogi bizia. Ogi au jaten duna, betiko biziko da. Eta Nik emango dedan ogia, nere aragia da giza bizirik.

Egi egitan, Gizasemearen aragia jaten eta Aren odola edaten ez ba-dezute, ez dezute zuengan bizirik izango. Nere aragia jan eta nere odola edaten dunak, betiko bizia dauka, ta Nik piztuaziko det azken egunean.

Nere aragia egiz janari da, ta nere odola egiz edari da. Nere aragia jaten eta nere odola edaten duna, Nigan dago ta Ni argan (Joan 6, 48).

KAFARNAUN'dik gertu dago JORDAN ibaia; ta JORDAN ibai onek muga-erri egiten zuan KAFARNAUN. Zerga ordaindu-bearra izaten zuten, ba, KAFARNAUN'era, zerbait saldu edo eroatera, etortzen ziranak.

Eta zerga au kobratzen —zutenetako-bat, Mateo zan.

Jesus'ek Mateo zeritan gizon bat ikusi zun, dirubiltzean eseria, ta esan zion: segi neri" (Mt. 9, 9).

Jesus Kafarnaun'a sartzean, euntari bat ondora zitzaion erreguz: Jauna, morroia perlesiz oiean daukat izugarritzko oñazeakin.

Ni joango natzaio ta sendatuko det, esan zion Jesus'ek.

Ez, Jauna, erantzun zion euntariak, ez naiz ni nor, Zu nere etxepan sartu zaitezen; bañan esazu itezek bakarrik, eta morroia sendatuko zait. Nik ere, nerau menpeko izanik, gudamutillak daukat nere mende, ta oni

"oa" esaten diot eta ba-dijoa; besteari "ator" eta ba-dator, eta moroiari "egin zak au" ta egiten du (Mt. 8, 5...).

KAFARNAUN'en egin zituan beste mirari auk ere:

Lepradun bat datorkio belauniko otoika: nai ba-dezu, garbitu naza-kezu.

Jesus'ek, kupiturik, eskua luzatu, ikutu, ta "nai det Garbi zaite, erantzun zion.

Bertan, leprarik gabe, garbi gelditu zan.

Eta Jesus'ek bialdu zun zorrotz esanez: Begira iñori esan...! Baña zoaz Apaizagana erakustera, ta eskeñi iozu zure garbikuntza-sari Mois'ek agindua, aientzat aitorbide izan dedin. (Mk. 1. 40-45).

Ba-zegon ordun ango Sinagogan gizon bat aingeru loiak artua. oiuka: Zer degu Zurekin, Jesus Nazaretarra...? Gu galtzera etorri al zera...? Ba-dakit nor zeran: Jainkoaren Santua...!

Jesus'ek eskainka esan zion: Ixil adi, ta irten ortik.

Eta aingeru loa, iraultzizka ta oiuka atera zitzaion (Mk. 1, 23-27).

Berriro Sinagoga sartu zan, eta an ba-zegon gizon bat esku-igarra. Ernai ta adi zeuden, larunbatean sendatuko ote zun Bera salatzeke.

Eta esku-igarrari "zuti erdian" esan zion.

Eta aiei: Zillegi al da larunbatean on egitea? ala kalte...? bizia gordetzea, ala galtzea...?

Aiek ixilik zeuden.

Inguru-begira, asarre ta goibel zegon, aien biotz gogorkeriz, eta "luzatu esku ori" esaten dio gizonari.

Luzatu zun, eta eskua sendatu zitzaion (Mk. 3, 1-6).

Ba-datorkio Sinagoga Buruetako bat, izenez Jairo, ta ikusi orduko oñetan auspeztu zitzaion: Arren eta arren, alaba iltzear daukat; atoz, eskuak ezarri izkiozu, sendatu ta bizi dedin.

Eta amabi urte artan odoljario zegon emakume bat, medikutan asko ikusia, zitunak gastatua, obeasunik batere etzuna ta okerrago jarria, Jesus'en berri entzunda jendarte-atzetik ondora eldurik, soñekoa ikutu zion.

"Nork ikutu ditu nere jantziak...?, galdetu zuan, atzera-begira, Jesus'ek.

Eta ikasleak esan zioten: Ikusten dezu jendeak estekatzen zaitula, ta nork ikutu nau diozu...?

Ordun emakumea, auspez jarri zitzaion, egi osoa esateko.

Bañan Ark, alaba, esan zion, zure sinismenak sendatu zaitu, zoaz pakean, sendatua zaite zure gaitzetik.

Oraindik izketan ari zala, Sinagoga-buruaren etxetik datoz esaten: il zaizu alaba, zertarako nekarazten dezu Maisua...?

Baña Jesus'ek, ez bildurrik izan, diotsa Sinagoga-baruari, siñistu bakarrrik.

Iritxi ziran Sinagoga-buruaren etxera, ta ango ixkanbilla, negarra ta karraxia ikusi, ta sartzean au esaten die: Zertarako ixkanbilla ta negarra? Nexka ez da il, lo dago...!

Parra egin zioten.

Ark denak kanpora aterazi ta nexkaren aitamak artzen ditu, ta berekin zeramazkin, eta nexka zegoan tokira sartu zan.

Eta eskutik elduta: Zuti, nexka. Nik agintzen dizut, esaten dio.

Eta bertan zutitu zan nexka, ta ibiltzen asi zan: ba-zitun amabi urte (Mk. 5, 22...).

Bañan ez ziran mirariak bakarrik izan, Jesus'ek KAFARNAUN'en egindakoak. "Bere erri" bezela artu zuan KAFARNAUN'eta KAFARNAUN'en egin zituan bere itzaldi asko ere Or aipatu degu, leen, itzaldi auetako bat: EUKARISTIA'ri buruz egin zuana, alegia.

Eta KAFARNAUN'en egiñak dira, baitare, San Mateo'k bere ebanjelio'ko 5'grren atzalburuan ematen dizkigun itzaldiak.

Ondo mereziak zituan, ba, KAFARNAUN'ek Jesus'en itz aukerak:

Eta zu, Kararnaun, zerurraño altxa al zera? Lurperaño sartuko zaitue! Zurean egindako mirariak, Sodoma'n egin izan ba'lira, gaur arte irau zezaken.

Baña egiñ esan, azken-eguna ariñago izango zaio Sodoma'ri zuri baño.

KAFARNAUN'dik bertan, eta TIBERIADES ertze-ertzean ba'dago beste eliza bat, arlotea ta orma-illunekoa.

Ez du edertasunik batere. Bañan an gertatua gogoratu nai digu. Ta antxe egin zuan Jesus'ek Pedro eliz-buru.

Jesus ikasleai Tiberiades itxas-ondoan agertu zitzaizen...

Gosal-ondoan, Simon Pedro'ri Jesus'ek au esan zion Simon Joan'en semea, aukerak baño maiteago al nauzu? Bai, Jauna, erantzun zion: Zuk dakizu maite zaitudala.

Larra itzazu nere arkumeak, esan zion Jesus'ek.

Berriro geldegin zion: Simon Joan'ena, maite al nauzu?

Bai, jauna, erantzun zion: ba-dakizu maite zaitudala Larra itzazu nere ardiak, esan zion Jesus'ek.

Irugarrenez galdetu zion: Simon Joan'ena, maite nauzu...?

Pedro goilbel gelditu zan, iru aldiz "maite nauzu" galdegin ziolako.

Eta, Jauna, erantzun zion: Zuk dana dakizu, ba-dakizu maite zaitudala.

Larratu itzazu nere ardiak, esan zion Jesus'ek (Joan. 21, 15-18).

Gure Aita Santu, Paulo VI'grrenak, LUR SANTUA'n egon zanean, ez zuan toki ontara etorri gabe gelditu nai izan. Ba'zuan zergatik etorri...!

Eta TIBERIADES ERTZERA jetxi, ta bere eskuak busti zituan ango uretan.

Eta ez ote zion, an, Jesus'ek galdera au, ere, egin: Eta zuk, Paulo, aukerak baño maiteago al nauzu...?

Andik bertan dago Jesus'ek OGIAK UGARITU, ta MENDIKO Itzaldia egin zuan tokia.

Jesus mendira igo zan, et ikasleakin eseri.

Urbil zegoan Paskoa, juduen jaia.

Jesus'ek begiak altxata jendalde aundia ikusi zun Bere atzetik etorria. Pilipe'ri esan zion: nun erosi talde oni jaten emateko ogia. .?

Zer-atera esan zion au, baitzekin zer egitera zijoan.

Pilipe'ren erantzuna: berreun denario ere ez genuzke aski ogia erosteko, bakoitzak puxka bat artu dezan.

Ikasleetako batek, Pedro'ren anai Andres'ek au esan zion: ba-da emen mutiko bat, bost garagar-ogi ta bi arcti dituna; baño zer da ori orrenbesterentzat?

Eseriazki etzartzute, esan zien Jesus'ek.

Toki belartsuan zeuden an.

Eseri ziran, bada, bost milla bat edo.

Ordun Jesus'ek ogiak artu, eskerrak eman, eta eserita zeudenai banatu zizkien, nai aña.

Beste oinbeste egin zun arraiekin.

Ase ziranean, bildu itzazute, esan zien ikasleai, gelditzen diran puskek, ezer galdu ez dedin.

Amabi saski bildu zituten bost-garagar ogietatik gelditu ziranekin (Joan 6, 3-13).

Bai doatsu beren gogoz beartsu diranak, Zeru-erria berena baitute.

Bai doatsu negar egiten dutenak, poztuko baitera.

Bai doatsu biot-beraak, lurraren jobe izango baitira.

Bai doatsu zuzen danaren gose-egarri diranak, aseko baitira.

Bai doatsu errukitsuak, iritxiko baitute errukia.

Bai doatsu biotz-garbiak, ikusiko baitute Jainkoa.

Bai doatsu pakezaleak, Jainko-seme esango baitiete.

Bai doatsu zuzentasunagatik aurrean artuta darabiltzatenak, Zeru-erria berena baitute.

Doatsu zuek, neregatik biraoka ta atzetik segika zarabiltzatenean, eta

neregatik gezurretan edozer gaiztakeri zuen aurka esaten dutenean. Poztu ta alaitu zaitetze, sari aundia batezute (Mt 5, 3-13).

Ba'dira bi gertaera auek gogoratzen dizkiguten bi eliza ere.

Ogi-ugaritzea gogoratzen digun eliza, ederra da, ta ederrak eta aspaldikoak dira bertan ikusten diran mosaikoak.

Aldare-barrukoak lau ogi agertzen dizkigu otarra batean eta otarraren bi alboetan arrai bana.

Beste eliza, Mendiko Itzaldia gogoratu nai digun eliza, gaur-eguneko da, oso berria, ta goitxo egiña. Ez Jesus'ek bere Mendiko Itzaldia egin zuan tokian.

TIBERIADES urira itzuli giñan bazkoltzeko.

MAGDALA'tik gertu igaro giñan. Emengoa zan Mari Magdalena. MAGDALA, ordea, betirako geldu zan. An ez dago gaur erririk.

Sarrera ordaindu, ta CLUB antzeko batean bazkaldu genduan. Igari-leku ederra zan, naiz-eta ur-azpiko lurra arriz batea egon.

Asko ari ziran igarian gu arutz igaro giñanean, eta gutako asko sartu ziran aien artean.

Eta larri ikusi zuan bere burua donostiar neska batek.

TABOR'era igotzea gelditzen zitzaigun artean, eta erako bidea artu genduan bazkal-ondoan.

Ebangelioak TABOR mendi oni "mendi goi bakartsu" esaten dio. Ta izen orren jabe da TABOR mendia.

Goi dago, oso goi, ta orregatik da ikusgarria andik ikusten dana.

Ondo aukeratutako tokia zan, ba, TABOR mendi au.

Eliza ederra da bertako eliza. Ta eliz eder ontan eman genduan, LUR SANTUA'n emango genduan azkenengo meza.

Eta ebangeliokoan, nola ez, au irakurri genduan:

Jesus'ek Pedro, Santiago ta Joan artu ta aparte eraman zitun mendi goi bakartsu batera, ta aien aurrean itxuraldatu egin zan. Aren jantziak argitsu ta oso zuri biurtu ziran; lurtean iñungo zuri-jotzaillek zuritu ez lezeken moduan.

Eta Mois eta Elias agertu ziran Jesus'ekin izketan.

Pedro'k ordun, artetik sartuta: Rabi, esan zion Jesus'i, on zaigu emen

gelditzea; iru txabola egingo ditugu; bata zuretzat, bestea Mois'entzat eta bestea Elias'entzat.

Etzekien zer ari zan; izaturik baitzeuden. Ordun odei bat bildu zan itzal egiten ziela, ta odei artetik minto bat entzun zan: Au det nere Semea, kuttuna, entzun iozute.

Bereala ingurura begira, Jesus besterik etzuten ikusten beren artean.

Menditik jeixtean, ikusi zutena iñori ez adierazteko agindu zien, Gizonaren Semea illen artetik piztu arte (Mk. 9, 2-10).

Ontzirakoan, eta gure ezker aldeko mendi egal batean, NAIN: ama alargun baten seme bakarra Jesus'ek berpiztu zuan erria.

Erri onek ez omen du garai artatik-onera aldaketa aundirik eg'n. Leenleen bezelakoxea omen dago gaur ere ia.

Apal-ondoan irten giñan HAIFA'tik itxasora.

AGUR LUR SANTU...!

### III

#### ETXERA BIDEAN.....

AGORRA'K 16. ASTELENA.

Itxasoa, ta itxasoa besterik ez...!

Eta onelaxe izango zan asteartean eta asteazkenean ere.

Ondo etorri zitzaizkigun itxaso-egun auk.

Nekatuak geunden, eta atsedena nai genduan.

Eta atseden-toki ederra izan zitzaigun ontzia.

Aruzkoan bezelakoxea izan zan, onuzkoan ere, gure ontziko bizitza. Berdin-berdiña.

Igari egin eta eguzkia artu.

Asteazken-gauean, ontzian igaroko genduan azken-gauean abesti ta abar jai eder bat izan genduan, eta gure AGUR JAUNAK, abesti ederak, azkendu zuan jai.

Ostegun arratsaldean asi giñan BARCELONA-aldeko lurrak ikusten. Eta arratsaldeko bost t'erdietan sartu giñan bertako kaira.

Kaitik Trenera.

Eta gau osoa trnean igaro ondoren, Agorra'ren 20'ean, ostirala, el du giñan berriro EUSKAL-ERRI'ra...!

1968

### IV.

#### NEKALDIA

# Nekaldia

SAN MATEO-REN LIBURUTIK

AUEK DIRA ZERBAIT ESATEN DUTEN ANTZEZLARIAK :

EPAILLEAK ... .. I-E. (erdikoa)  
II-E. (albo batekoa)  
III-E. (beste albokoa)

MATEO.

PEDRO.

JUAN.

SANTIAGO

JUDAS.

SANEDRIN-EKOAK ... .. Kaifas  
S-I.  
S-II.  
S-III.  
S-IV.  
S-V.  
S-VI.

JESUS.

PILATO.

MORROIAK ... .. I-M.  
II-M.  
III-M.  
IV-M.  
V-M.  
VI-M.

XALOME.

EUNTARIA

Beste morroi, emakumeak eta abar, ez dute itzik egiten...!

- 0ARRAK.
1. Gaurkoak bear dute Epailleen jantziak, eta leengoak beste guztienak.
  2. Antzezlariak askotxo izan ez ditezen, batena baño lan-geiago egin dezake antzezlari bakoitzak.
  3. Argiekin, ere, emen esaten diran baño, jolas-geiago egin leizke.
  4. Antzerkian eskatzen diran soinuak, zergatik ez toka-disko baten bidez jo...?

IRUDITEGIA ... Zapi beltz edo morez estaliak agertuko dira iruditegiko ormak.  
Iru iriki izango dituzte zapi aukerak: ikusleen eskui-aldetik bata, ikusleen ezker-aldetik bestea, ta iruditegi-atzean irugarrena.  
Oltza baten gañean, mai luze-antzeko bat, iru aulki txikiekin, iruditegi-atzean.  
Mai onek ere, zapi beltz edo morez estalia egon bear du beeraño.  
Oltzatik-kanpora, ta ikusleen eskui-aldetan beste aulkitxo bat, iruditegi-atzean: Mateo-rentzat au...!

O VOS OMNES edo orrelako beste Aste Santuko abestiren bat entzungo da iruditegia irikitzean...

Mai-atzean agertuko dira, zutik, iru Epailleak, eta bere aulki-aurrean Mateo.

Abestia bukatzean eseriko dira danak, eta iru mailukada mai-gañean jo ondoren, onela asiko da mai-erdiko Epaillea.

I-E. —(Ikusleeri). Jaun-andreak: ez gera gaur emen, antzerki bat ikustera, bildu...!

XX-garren gizaldiko giza-emakumeak gera gu, ta XX-garren gizaldiko giza-emakumeak aztertu nai izaten ditugu gauza guziak: gure erligioari-buruzkoak batez ere. Nola gertatu ziran jakin...!

Eta danok dakigu, Jesukristo Gure Jaunaren Nekaldia dala, gure fede-osoaren oiñarririk sendoena...!

Auxe da, bada, gaur aztertu nai degun gauza: Jesukristo Gure Jaunaren Nekaldi-ortako gora-berak, gertatu izan bezelaxe, ikusi nai ginduzke gaur...!

Lau izan dira, Jesukristo Gure Jaunaren Nekaldiaren-berri eman izan diguten, idazleak: Mateo, Markos, Lukas eta Joan...

Lau-auetako bakitzak ba-ditu, besteak ematen ez dituzten, xeetasun batzuek, eta lau auek osatua, izango litzake berez, Jesukristo Gure Jaunaren Nekaldi osoa... Baiñan lauk batera aztertu eziñean, Mateorena aukeratu degu gaurkoz... Onek esaten dizkigunak, azalduko ditugu bada, ta onek esaten dizkigun bezelaxe...!

Bera izan bait-zan gaiñera, Jesuristo Gure Jaunaren Nekaldia lenengo idatzi zuan, idazlea...!

Eta emantxen degu bera...!

Egin dezaiogun bada, galdera bat edo beste, Nekaldiakin asi-aurretik...!

(Mateo-ri). Nor zaitugu zu, Mateo...?

MATEO. —(Zutik). Alfeo-ren semea naiz zi, Kafarnaun-en zergari egona...!

Andik igaro zan batean, dei egin zidan Jesus-ek: "atoz nerekin".

Eta bere amabietako-bat izan nintzan geroztik.

I-E. —Eta egia al-da zure Ebangelioan esaten diguzuun guztia...?

MATEO. —Bai...! Egia da...! Nik ez det nere Ebangelioan, nik ikusia edo entzuna baizik, esaten... Eta nik bezelaxe entzun eta ikusi izan zituzten gauza oiek beste askok ere. Eta, bear izan ezker, aietxek izango lirake, nik esaten dedan egiaren lekuko...

I-E. —Ederki, Mateo...! Baiñan eldu dezaiogun gure gaurko gaiari...!

Zuk zure Ebangelioa diozunez, Jesus bere ikasleekin Getsemani zeritzan baratza batera joan zan Ostegun Santuko afari ondoren... Zertara, ordea...?

MATEO. —Otoitz egitera...! Gau askotan egin oi zuan ori Jesus-ek. Eta ba-zituan ortarako bere leku aukeratuak ere...! Jerusalem-era etortzen giñan bakoitzean, Getsemani-ra jeisten zan

otoitz egitera. Getsemani-ko baratza au bere lagun batena bait-zan...!

Judas berak, ere, ondo zekian Jesus-en oitura, au, ta bazekian nun billatuko zuan...

I-E. —Eta zer gertatu zan baratza artan...?

MATEO. —Ez dizutet nik ori esango...! Nik ez-bezela dakite ori Pedro, Joan eta Santiago-k, eta oietxek dira, an gertatua, esango dizutenak...

Eseri egingo da Mateo.

Pedro, Joan eta Santiago agertuko dira ikusleen ezker-alde, eta alkarren-ondoan zutik-geldituko dira irurak.

II-E. —Ostegun-Santu gauean Getsemani-ko baratzan gertatua, jakin nai genduke, An al-zitaten zuek?

PEDRO. —An giñan, bai...!

II-E. —Eta zer gertatu zan an...?

SANTIAGO. —Baratzara sartzean, onela esan zien Jesus-ek beste ikasleeri: "Eseri zaitetze zuek emen, ni ara otoitzera noan birartean... Gu-irurok jarraitu egin genion, eta naigabetzen eta larritzen asi zala, ikusi geneduan... Eta onela esan zigun, guri ere, orduan: "Naigabez iltzeko zorian nago; geldi zaitetze emen, eta erne egon nerekin batera..." Eta aurreaxeago joan, eta, auspez erorita, otoitz egiten asi zan...

II-E. —Eta gogoan al-dezute aren otoitza...?

JOAN. —Zerbait, bai...! "Ene Aita, zion, bijoa, al-belitz, kaliz au nigandik. Baiñan ez nik nai dedan bezela, Zuk nai dezun bezela baizik... Lo-gure giñan, eta onela esan zion orduan oni (Pedro-ri): "Beraz, ezin erne-egon izan zerate nerekia ordu batean...? Zaudete erne, eta otoitz egizute, tenta-aldian erori etzaitzeten, gogo bizkor bait-da, baiñan gorputza makal".

III-E. —Eta zergatik zuri ori, Pedro?

PEDRO. —Afal-tokitik irten giñanean, onela esan zigun Jesus-ek:

"zuek guztiok gau ontan orpo egingo didazute, idatzirik baitdago: joko det artzaia, ta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira. Baña piztutakoan, zuen aurretik joango naiz Galilea-ra".

Nik orduan, arro onek, onela arantzun nion: "guziak orpo egiten ba-dizute ere, nik ez dizut egingo"... Eta Jesus-ek: "egiz esan, gaur bertan ollarrak jo baño leen, iru aldiz ukatuko nauzu"... Ni, ordea, nere-artan nengoan, eta onela erantzun nion berriro: "Zurekin il bear ba-nu ere, ez zaitut ukatuko"...!

Ondo ezagutzen nindun Jesus-ek...! Geroa ikusi nuan garbi-asko, gogo bizkorra ba-nuan ere, makala nuala nere aragia...!

Orra zergatik esan zidan neri ori...!

SANTIAGO.—Ba-genduan, bada, zergatik erne egon...! Baiñan gure begiak logale ziran, eta lo-artu genduan berriro... Etorri, ta onela esan zigun orduan: "onezkero egin dezakezute lo, eta atsedean artu... Orra, eldu da ordua, eta Gizonaren Semea orintxe saldua izango da pekatarien eskuetara...! Jeiki zaitetze eta goazemazute...! *Urbil* da ni salduko nauana"...!  
Eta itz auek esan zizkigun orduko, agertu zan Judas...!

Eta ikusleen eskui-aldetik agertuko da Judas  
Atzeratu egingo dira Pedro, Joan eta Santiago, ta paretaren-kontra geldituko dira zutik.

I-E. —Zu al-zaitugu, Jesus saldu zuan, Judas...?

JUDAS. —Ni naiz, bai...!

I-E. —Amabietako-bat al-zifian zu, ere...?

JUDAS. —Bai...!

I-E. —Eta zergatik saldu zenduan...? Ba al-zenduan, egin zenduana egiteko, arrazoi berezirik...? Ez al-zifian, Jesus-ekin ondo etortzen.

JUDAS. —Nik ez nuan Jesus-ekin, ezer-txarrrik izan...! Ondo artu izan nindun beti, ta ni-neroni egin nindun taldeko diru-zaiña ere...-

Ez neukan, ba, kejatzerik...!

Nere aundi-zalekeriak galdu ninduan...! Izan ere, nik Jesus, Ixrael-go salbatzallea, ikusten nuan: erromatarren morrontzapetik aterako ginduzen, errege bat bezela... Eta bere erreinu ortan lenengoa izan nai nuan nik...!

Nere aurretik ikusten nituan, ordea, iru auek, (Pedro, Joan eta Santiago), eta orretzek mindu zidan biotza. Oien-ganako gorrotoak itxutu nindun, eta ez nuan geroztik dirua baizik maite izan... Ba-nuan Sanedrin-en lagun bat, eta arekintxe egin nuan nere tratua...!

II-E. —Eta Pazko-eguna aukeratu zenduan ortarako...?

JUDAS. —Ez...! Ez genduan ortarako egun izendaturik...! Egokitasun baten zai geunden... Baiñan afaltzean, Jesus-ek nere asmoak ba-zakizkiala, ikusi nuanean, afaltokitik irten, eta Sanedrin-era joan nintzan zuzen-zuzen... eta, gau artan izan bear buala, esan nien...!

Ba-nekian, nun billatuko nuan...!

III-E. —Eta ez al-zenduan bildurrik izan...?

JUDAS. —Jesus-en bildurrik ez...! Auen bildur nintzan... Baiñan asko ziran, nerekin etorri ziran, lagunak...!

I-E. —Eta ezaupide au eman al-zenien: "nik musu-ematen diodana, uraxe da?"

JUDAS. —Bai...!

I-E. —Eta ez al-zazu, lotsagarria iruditzen, ezaupide ori...?

JUDAS. —Orain, bai... Baiñan orduan ez...! Illuna zan gaua, ta seguro jokatu nai nuan...! Orregatik "Agur, Maisu", esan nion musua ematerakoan...! Eta danok dakizute, zer erantzun zidan Berak...



Baiñan lotu, ta ba-zeramatela, ikusi nuanean, ortuan-  
txe asi nintzan, ni ere, nere pakatuaren aundia ikusten...!

Nik ez nuan Jesus gorrotatzen...! Auek gorrotatzen ni-  
tuan nik, eta auri min-aundi bat ematearren, saldu nuan  
Jesus...!

II-E. —Eta laister damutu ziñan...!

JUDAS. —Errugabe bat saldu nuala, ikusi nuan bezein laister...! Eta  
Sanedrin-era joan, eta aurpegira bota nizkien, artu nituan  
txanponak...!

III-E. —Eta zure burua urgatu zenduan gero...!

JUDAS. —Eta zer-beterik egin nezakean...? Nere pekatuak ez bait-  
zuan barkamenik merezi...!

Eta Apaiz Nagusiaren marroietako bat agertuko da  
ikusleen ezker-aldetik.

I-M —Barkatu, jaunak...! Baiñan areto au ustu-bearrean izango  
zerate; batzarra bait-dute Sanedrinekoak...!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko dira danak:  
Epailleak aurrena, Mateo gero, Pedro, Joan eta Santiago  
Mateoren atzetik, eta Judas danen atzetik.

Maia txukundu naiean-edo, oltza gañera igoko da  
Morroia, ta andik-jeisterakoan, berekin eramango du Ma-  
teoren aulkia. Ikusleen ezker-aldera joango da gero, ta  
antxe egongo da Sanedrin-ekoak sartu arte. Ta auek sar-  
tzean, irtengo da bera.

Kaifas buru dutela, sartuko dira, ikusleen ezker-al-  
detik, Sanedrin-ekoak.

Bederatzi izango dira danak.

Maira joango dira Kaifas eta beste bi, ta zutik gel-  
dituko dira bertan.

Ikusleen ezker-aldean geldituko dira zutik beste iru,  
(I, II, III), eta ikusleen eskui-aldean besteak, (IV, V, VI).

KAIFAS. —(Iru maillukada mai-gañean jo, ta eseriko da Kaifas bere bi  
lagunekin)... Ba-dakizute, zerk bildu gaituan...! Orain iru  
urte asi zan, dalako Jesus ori, lege berri bat erakusten erriz-  
erri...! Zorotzat artu genduan guk... Ez, ordea, erriak...!

Asiera-asieratik, igarle bat ikusi zuan erriak Jesus orren-  
gan, eta igarle bati bezela jarraitu izan dio geroztik...!

Mirari asko egin ditu, esaten dutenez: gaixo asko sen-  
datu...!

Deabrukeriak dira oiek guretzat, baiñan ez, erriaren-  
tzat... Eta erriak ez digu gaur, leen gordetzen zigun begi-  
runik, gordetzen...! Jesus ori gañera, ez da, bein-ere, gure  
aldeko agertu...! Azkarra da, izatez, eta parregarri utzi izan  
gaitu, bein baiño geiagotan, erri osoaren aurrean...!

Auek-danak gutxi ba-lira bezela, or daukagu orain Laza-  
ro, illen-artetik piztua... Laguna genduan, eta danok ikusi  
genduan illa... An izan gañan asko, eortzi zutenean ere...!  
Ta ezin ukatuko degu, bizirik ikusten degula gaur...!

Bere deabrukerietako bat izango, da, nai ba-dezute...!  
Baiñan erriak ez du orrela ikusten. Eta igandean egin zion  
ongi-etorriak, txunditurik utzi gaitu gu-danok...!

Gaur, ordea, gure eskuetan degu Jesus ori...! Ta au da  
arrigarriena: bere ikasleetako-batek ipiñi du gure esku-  
tan...!

Ba-dakizute nere iritzia: gizon orrek bizirik irauten duan  
arte, erortzen joango dala gure aginpidea, ta iñorgabe  
izango gerala laister...!

Bizia zor du, ba...! Baiñan guk, gure legetan, ezin deza-  
kegu iñor il...! Itxurak gorde-bearrean gera...!

Epaitu egingo degu, ba... ta kondenatu ere, bai...! Bai-  
ñan Pilatori eman-eraziko diogu eriotz-epaia...!

Ondo al-deritzaizute...?

DANAK. —Bai...!

KAIFAS —Epaitu dezagun, ba...!

Iru maillukada joko ditu mai-gañean, eta I-Marroia  
agertuko da ikusleen ezker-aldetik.

(Morroia-ri) Ekarri dezatela ori.

Eta bi morroien-erdian ekarriko dute Jesus. Ez bulzakata ordea, itzal osoarekin baizik.

Lerden agertuko da Jesus bera ere ta ikusleeri bizkarra emanaz, Kaifas-en aurrez-aurre geldituko da, bi morroien erdian eta iruditegiko ao-ertzean.

KAIFAS. —Danok dakizute gizon onen berri...! Auxe dezute Jesus Nazaretetarra...!

Erriz-erri ibilli da erakusten iru urte auetan, eta, guri salatu digutenez, bere erakutsi oiek ez datoz gure lege santuekin bat. Eta ezin dezakegu ori ontzat-eman, erriaren zuzen dari geran aldetik... Baiñan erabaki bat artu-aurretik, jakin egin bear degu esaten diran oiek, egiak diran ala ez...!

Ortarako izan zerate deituak...! Eta ba al-dezute zuek zer-esanik gizon onen aurka...?

S-V. —Publikano ta pekatarien lagun agertu izan da beti...!

S-III. —Nik-neronek ikusi nuan, orren oiñak laztantzen, Maria Madalen, errian dan emakumerik pakatariena...!

Simon fariseoaren etxean zan... Igarlea ba-litz, jakin bear zuan, nolakoa zan emakume ura...!

Eta ez da ori dana...! Nor da au, iñoren pekatuak bar-katzeko...!

S-I. —Danok dakizute, Moises-ek, legean, zer esaten digun: bere ezkontza austen duan emaztea, arrikatua izan bear duala...

Ezkontza-austen arrapetu genduan, bein, emakume bat... Arrikatu egin nai genduan guk, Moises-en lage ori betetzearren... Baiñan au agertu zan an, eta, gu lotsagarri utzi ondoren, iñungo kastigurik-gabe bialdu zuan emakume ura... "Zoaz, esan zion, eta ez egin aurrera pekatuik".

Moises-bera baiño aundiagoa ote degu, ba, au...!

S-VI. —Ez onek, eta ez bere ikasleak, ez dute Larunbata gordetzen...!

Larunbataetan egiten ditu onek sendakuntzarik geinak...! Eta larunbata batean ikusi izan ditugu bere ikasleak ere, galburuak biltzen eta aletzen...!

Eta ori ez zala legeak agintzen zuana, esan genionean, onela erantzun zigun arro: larunbata gizonarentzat egfña zala, ta ez gizona larunbataarentzat. Eta larunbataren jabea ba-zala Gizonaren Semea...!

Eta bera ote degu, ba, larunbataren jabea dan Gizonaren Seme ori.

S-II. —Danok dakigu, eskriba ta fariseotarrak dirala, legea ondoena betetzen dutenak...! Eta ala ere, gizon oiextentzat izan ditu onek, beti, bere itzik iraingarrienak...! Azal-utsak, deitu izan ditu, itsuak eta itsuen gidari, lapurrak eta illobi-zuri, sugakumeak eta abar...!

Eta erri osoaren aurrean gainera...!

S-II. —Eta nik-neronek entzun izan nion bein: berak apurtu egin zezakeala gure Eliz-Nagusia, ta iru egun barruan eraiki berriro...!

Auek-danak, pauso bat aurrera emango dute itz egi-terakoan, eta leengo lekuetara biurtuko dira gero...

KAIFAS. —(Jesus-eri). Eta zuk zer diozu...? Egiak al-dira, auek zure aurka esan dituzten, auek...?

Jesus-ek ez du ezer erantzungo.

KAIFAS. —(Jesus-eri). Ez al-dezu erantzutekorik ezer...?

Ixilik geldituko da Jesus.

Zutitu egingo da orduan Kaifas, eta baita aren bi lagunak ere. Eta onela esango dio, Apaiz-Nagusi bezela...

KAIFAS. —Jaungoiko Biziazen izenean ari naizu orain...! Ezin deza-kezu, ba, ixilikan egon...! Eta auxe dezu, Jaungoiko-bizi orren izenean, egiten dizudan galdera: Zu al-zera Mesias, Jaungoikoaren Semea...?

JESUS. —Bai...! Ni naiz...! Eta oraindik geiago diozut: aurki ikusiko dezute Gizonaren Semea, Agintarien eskui-aldeetik eseririk, eta zeruko odei-gañean etortzen...!

KAIFAS. —Biraoa esan du...! Jaungoikoa-ren Semea egin du bere burua...! Bai al-degu, oraintxe, iñoren testigantza-bearrik...? Entzun dezute biraoa...! Zer derizkiozute...?

DANAK. —Biziz zor duala...!

KAIFAS. —Bizia zor du, bai...! Ken ori emendik...!

Eta ikusleen eskui-aldetik eramango dute Jesus bi morroiak, baiñan ez bultzaka-ta.  
Eseri egingo dira, gero, Kaifas eta bere bi lagunak.

KAIFAS. —Artua degu gure erabakia... Bizia zor du, ta bizia eskatuko zaio. Pilato-rengana eramango degu, eguna zabaltzen dan bezein laister... Erriak ez du ezer jakin bear...!

Gure lagunak eta gure marroiak eramango ditugu arutz, eta auek indartuko dituzte gure eskabideak... Ez de-dilla, ba, gure morroi-artean ardorik faltatu gaur...!

Baiñan ez dezute gauza onekin aaztu bear: Pilato erro-matarra da, sasi-jainko zalea beraz...! Orregatik, guretzat pekaturik aundienak diranak, ez dira arentzat ezertxo-ere... Ezin esango diogu ba, bere burua Jaungoikoaren Semea egin-dualako, kondenatu degunik Jesus...!

Beste arrazoi batzuek billatu bear-ditugu Pilato-ren-tzat...! Auek, edo auen-antzeko beste batzuek: errege egiten duala Jesus-ek bere burua, ta erreñu berri bat sor-tu nai duala Ixraelen, eta abar...

Onelako arrazoiak izango dira, Pilato ikaratuko dute-nak... Ez bait-du agintari batek, bere aginpidea galtzerik, nai izaten... Eta orrelakoxea degu Pilato ere...!

Gure eskuetan ipiñi digu Jaungoikoa-k Jesus...! Ez de-zagun, ba, egokitasun au galdu...!

Gizon bat il-eraztea obe degu, erri osoa galtzea bai-ño...! Ez aaztu au, anaiok...!

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira danak: Kaifas eta bere bi lagunak aurretik, eta besteak auen atzetik.

Lau morroi agertuko dira, gero, ikusleen eskui-al-detik, eta iruditegi-erdian eseriko dira lur-rean.  
Izketan datoz...

II-M. —Ba-dik zerbait-arrigarria gizon orrek...! Egin dizkiogunak, egin, eta ez dik aorik, ere, idiki...! Masellekoka ibilli dia-gu, txistuz estali zioagu aurpegi osoa, ta ez dik tutik, ere, esan...! Santua dek, edo tontua...!

III-M. —Santu-itxura gutxi izango dik orrek gure nagusientzat...! Ez ziaten bestela gure eskuetan utziko...!

Eta auek jardunean ari diran bitartean, Pedro ta Joan agertuko dira ikusleen ezker-aldetik

Zerbait esango dio-belarrira Joan-ek Pedro-ri, ta besterik-gabe izkutatuko da Joan ikusleen eskui-aldetik.  
Morroiengana urbiduko da Pedro poliki-poliki, auek zer dioten, entzun naiean edo.

IV-M. —Gogoan al-dezute Getsemani-ko baratzean esan diguna: (abotsa aldatuaz) "ezpatakin eta makillakin, lapur bat arra-patzera bezelaxe, etorri zerate nere billa... Egunero esertzen nintzan ni Eliz-Nagusian, eta antxen jardutzen nuan erakus-ten, ta ez ninduzuten atxitu".

II-M. —Egia diok, bai...! (Pedro-ri). Zu, adiskide; ba-da zuretzako aiña leku ere... Ez al-dezu gurekin eseri nai...?

PEDRO. —Lagun baten zai, egon bear dedan ezker...

Eta morroi-artean eseriko da Pedro ere.

V-M. —Eta gogoan al-dezute, ezpata bat atera duan ikasleari, esan dion au: (abotsa aldatuaz onek ere) "uztazu ezpata bere le-kuan; ezpata darabilkiana, ezpataz ilko da...! Ez al-dezu uste, nik nere Aitari eskatu dezaiokedala, eta baita Berak ne-re esku ipiñiko ere, amabi aingeru-talde ta geiago...? Ortara, ordea, nola bete, ola bear duala dion Idazti Santua...".

Ikaraz beterik utziko dute itz auek Pedro.

II-M. —(Irriparrez) ez zian gutxi espero...! Ikasleak ere, bakarrik utzi, ta iges egin zioite danak-eta...! Nik, beintzat, burruka geiago espero nian...! Ez nian uste, ain-errez atxitu bear genduanik...! Baiñan nun ote zebillek gaur gure neska ori...? Xalome...! (deadar egiñaz).

Ikusleen ezker-aldetik agertuko da Xalome.

XALOME. —Zer nai dezu, gizon...?

II-M. —Nik, neretzat, ezer ez...! Baiñan gure lagun au elurra bezein zuri gelditu zaigu, ta ardo pixka-bat nai nuke onentzat.

Ez al-da, ba, gaurko, gure nagusiak agindu diguten ardo ori...?

XALOME. —Bai, gizona, bai...!

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da Xalome.

III-M. —Dana dala, erruki diat Jesus ori...! Gaizki ibilli bear dik oraingo ontan...! Aitzekoak izango ditut orren-aurkako salakuntzak. Ez nitek Pilato-ren narruan egon nai...!

II-M. —Zergatik ez...?

Eta Xalome sartuko da pitxar bat ardo, ta baso batekin.

XALOME. —Tori...! Ondo irabazia omen dezute gaur eta...!

II-M. —Eskarrikasko, eder ori...!

Eta morroia basoa betetzen ari dan bitartean, ez dio Xalome-k begirik kenduko Pedro-ri.

(Pedro-ri). Tori, adiskide...! Ardo-trago batek ez dizu kalterik egingo-ta...!

Eta Pedro-k basoa eskuan artzen duanean...

XALOME. —(Pedro-ri) Zu, ere, Jesus galileatar orrekin ibiltzen ziñan...!

PEDRO. —Ez dakit, zer diozun ere...!

Eta estu ta larri edango du Pedro-k ardoa. Xalome-k, ordea, ez dio begirik kenduko.

Beste marroiak ez diote gauza oni inportzantzirik emango, ta onela jardungo dute basoka-bana edaten dute bitartean.

II-M. —Tori...! Edan zak ik ere...! Danok zekiagu ardo-zalea aizela-ta.

III-M. —Eta nor ez, gure artean...! Ez aut oraindik ura edaten ikusi...!

IV-M. —Izan ere, emegia dek ura gurutzat...! Ez dik, arduak duan, xpiriturik...!

V-M. —Garestia izatea, beste pekaturik ez dik ardoak...! Ura bezein merkea ba-litz...!

II-M. —Txikia utziko genian guk Noe-bera ere...! Baiñan emengoak egin dik...! Eta Xalome-k pitxarka berri bat ekartzten ez digula, geiagoko-gogoakin gelditu-bearrean gaituk...! Xalome, eder ori...; ez al-diguzu beste pitxarka bat ekarriko...?

XALOME. —Zaudete ixilik, moskor-galduak...! Ez al-dezute ikusten, Jesus Nazaretetarrakin ibiltzen zala au ere...?

DANAK. —Eee...?

PEDRO. —Ez zaiozute kasorik egin...! Leen, ere, esan dizutet: ez dedala nik olako gizonik esagutzen...!

II-M. —Galilearra zera beintzat...! ala dio zure izkerak... Eta ez alziran galilearrak Jesus-orren ikasleak...?

PEDRO. —Ala izango ziran, bear ba-da...! Baiñan leen, ere, esan dizutet: ez dedala nik delako-Jesus ori ezagutzen...! Zer-geiago nai dezute; zin egin dezadala...? Zin dagit, ba...!

Eta VI-Morroia agertuko, bat-batean, ikusleen ezker-aldetik.

VI-M. —Ea, mutillak...! Ordua dek...!

II-M. —Bai, mutil, bai...! Or gaituk oraintxe...! (Pitxarra ta basoa Xalome-ri emanaz) Tori, Xalome... Eta ez zazu geiago estutu gure lagun au...!

XALOME. —Nai dezutena esango dezute zuek, baiñan nerean gelditzen naiz ni...!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko dira morroiak, eta ikusleen ezker-aldetik Xalome.

Auek izkutatutakoan, abots sendo au entzungo da iruditegi-atzetik: "*Padro, Padro...! Ollarrak jo baño leenago, zuk iru aldiz ukatuko nauzu...*"! Eta luze-luze etzango da Pedro, garratz-negarrez.

Laister agertuko da Joan ikusleen eskui-aldetik, eta Pedro-rengana urbilduko da.

JOAN. —Jeiki zaitte, Pedro...! Gogoia bizkorra da, baiña makala aragia...! Magdalako Maria-ri ta bere ezkontza ausi zuan emazteari barkatu izan zien Jaunak, barkatuko dizu, zuri ere, zure pekatu au...! Goazen, orain, gure anaietara...!

Eta bizkarretik elduta, eramango du Pedro ikusleen ezker-aldetik.

Iru Epailleak eta Mateo agertuko dira ikusleen eskui-aldetik, eta leengo tokietan eseriko dira.

Zutik egon bearko du, ordea, Mateo-k.

I-E. —Noren txanda da orain...?

MATEO. —Pilato-rena, jauna...!

I-E. —Sar dedilla, ba...!

Eta ikusleen eskui-aldetik sartuko da Pilato.

I-E. —Zu al-zaigu Ponzio Pilato...?

PILATO. —Bai...!

I-E. —Jesu gurutzera bialdu zuan ura...?

PILATO. —Bai, ta ez...!

II-E. —Nola diteke ori...?

PILATO. —Nik eman nuan, bai, Jesus gurutzeratzeko azken epaia, baiñan ez nere gogoz, beartuta baizik...!

II-E. —Auaiz Nagusi, ta Sanedrin osoak...?

III-E. —Zuk ez zenduan, ordea, Jesus-engan errurik arkitu...?

PILATO. —Ez...!

III-E. —Eta zigorkatu-erazi zenduan...!

PILATO. —Bai...!

III-E. —Zergatik, ordea...?

PILATO. —Eriotzara bialdu nai ez nualako...! Leendik nekian aien, Jesus-enganako, ezin-ikusia... Eta bigunduko ote nituan, zigorkatu-erazi nuan...! Baiñan aien biotzetan ez zegoan ezinikusia bakarrik...!

III-E. —Zer zegoan, ba...?

PILATO. —Gorrotoa...! Ta gorrotoak ez du errukirik ezagutzen...! Nork esan bear zidan neri, Barrabas maiteagoa izango zutela, Jesus-bera baiño...?

I-E. —Eta Barrabas askatu zenduan...?

PILATO. —Bai...! Jesus askatu naiean, askatu nuan Barrabas...! Eta orduantxe ikusi nuan galdua nere burua...!

I-E. —Zergatik, Pilato...?

PILATO. —Ondo nekian nik, aiek ez zirala gu-erromatarron lagun: edozer egingo zutela, gure uztarria austearren...! Baiñan egun artan, guri baiño gorroto aundiagoa zioten Jesus-i, ta Jesus galtzearren, gure lagun agertu ziran: "orrek erege egin du bere burua ta guk ez degu Zesar beste-erregerik, nai..." Gezurra...!

I-E. —Eta gezur ortan erori ziñan zu...?

PILATO. —Bai...! Erroma-ra salatuko ote ninduten, bildur izan nintzan...! Sare bat ipiñi zidaten, eta sare artan erori nintzan...!

II-E. —Aula izan ziñan, Pilato...!

PILATO. —Bai...! Ba-dakit...!

III-E. —Urak ez du odol-mantxarrik garbitzen...!

PILATO. —Ba-dakit...!

I-E. —Ez ote dituzu, oraindik odolez, zure esku oiek...?

PILATO. —Odolez ditut bai...! Odolez...!

Eta eskuak garbituaz bezela, irtengo da, bizkor. ikusleen ezker-aldetik.

Mateo. —(Epailleai). Eta aien-esku utzi zuan, gurutzean josi zeza-ten...!

Agintarien gudariak Pretoretegira eraman zuten orduan Jesus. Eta talde osoak erdian-artu, ta erantzi egin zuten. Estalki gorri bat jantzi zioten gero. Eta arantzaz egindako koroï bat ipiñi zioten buruan, eta kañabera-makilla bat eskuan... Eta bere-aurrean belaunikaturik, ixeka egiten zioten, onela esanaz: "Agur Judutarren Errege...! Eta txistua botatzen zioten aurpegira; eta buruan jotzen zuten kañabera-makillakin...!

Eta ixekak bukatu zituztenean, estalki gorria kendu, ta bere soñekoak jantzi zizkieten berriro. Eta gurutzean josterera eraman zuten...

Bidean, sorotik zetorren, Simon zeritzan Zirenetar-gizon bat topatu zuten, eta gurutzea eramatera beartu zuten...

Albo batera baztartuko da Mateo, ta zutitu egingo dira Epailleak ere.

Erromatar-gudarien Euntaria egertuko da ikusleen ezkeraldetik, bide-erakuslea ba-litz bezela.

Onen atzetik agertuko da Simon Zirenetarra, gurutzea sorbaldan.

Simon-en atzetik, Jesus arantzazko koroï ta guzti. Lau erromatar-gudari gero.

Emakume batzuek auen ondoren, eta Sanedrin-ekoak danen atzetik.

Bifiaka joango dira auek danak, eta ez dute iñungo kiñu-txarrik egingo.

Iruditegi-erdira irixten danean, au esango du Euntariak: *Au, Jesus Judutarren Erregea da.* Eta poliki-poliki izkutatuko dira danak ikusleen eskui-aldetik.

Epailleak, ere, auen-atzetik joango dira, baiñan ez, beren aulkiak mai-azpian sartu gabe.

Mateo bakarrik galdituko da iruditegian.

MATEO. —(Ikusleeri) Eta Golgota deritzan lekura iritxi ziranean, "Buru-ezurtegi" esan nai du, beazunez naastutako ardoa eman zioten edateko; eta berak, txastatu bai, baiñan ez zuan edan nai izan...! Eta gurutzean josi zuten...!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko da Mateo.

Iruditegiko argiak aldatzen asiko dira poliki-poliki, iruditegi esoa gorri-gorri gelditu arte.

Ohduan agertuko da iruditegi-atzetik Jesus, gurutza eskuetan duada, ta Epailleen mai-atzean geldituko da zutik.

Ikusleen eskui-aldetik agertuko dira, gero, Euntaria ta beste bi gudari, ta ikusleen ezker-aldetik beste biak, eta Epailleen mai-aurrean geldituko dira bostak, gurutza zaitzen bezela.

Emakume batzuek agertuko dira gero, bi aldeetatik berdin, eta gurutzari-begira belaunikatuko dira auek iruditegi-erdian.

Auek-danak onela gertatu ondoren, ixil-unetxo bat izango da.

Sanedrin-eko bat agertuko da gero ikusleen eskui-aldetik, eta au esan ondoren, izkutatu egingo da berriro.

S-II. —(Gurutzari begira) "Eliz-Nagusia puskatu, eta iru egunean berriz eraikitzen zenduan orrek, salba ezazu orain zure burua; Jaungoikoaren Semea bazera, jetxi zaitetz gurutzetik...!

Eta Sanedrin-eko beste bat agertuko da, gero, ikusleen ezker-aldetik. Eta au ere, izkuratu egingo da berriro, itzegin ondoren.

S-III. —(Gurutzari begira onek ere) Bestak bai, salbatu orrek... eta bere burua ezin salbatu...! Ixrael-go erregea da...! Jetxi dedilla orain gurutzetik, eta sinistuko diogu...! Jaungoiko-

koa-gan izan du uste: Jaungoikoa-k atera dezala orain orren maite badu: "Jaungoikoa-ren Semea naiz", esaten bait-zuan...".

Eta ixil-unetxo baten ondoren, onela esango du Jesus-ek.

JESUS. —Eli, Eli: lamá sabaktáni...!

S-II. —(Agertu ta berriro izkutatuaz) Elias-i deitzen dio onek.

S-III —(Agertu ta berriro izkutatuaz) Utziozu; ea Elias etortzen zaion salbatzera...!

Eta ixil-unetxo baten ondoren berriro Jesus-ek

JESUS. —Nere Jaungoiko, Jaungoiko nerea, zergatik utzi nazu...!

Eta Mateo-ren abotsa entzungo da illunpe artan.  
banaka-banaka, iruditegian illun osoa sortu arte.

Eta Mateo-ren abotsa entzungo da ikunpe artan.

MATEO. —Eta Eliz-Nagusiko zapia bi erdi egin zan, eta lur-ikara izan zan... Arriak, ere, erdibitu egin ziran, eta illobiak idiki...  
Ta ildako santuen gorputz asko piztu egin ziran.

Eta Jesus zaitzen zegon Gudari-Euntaria eta aren mutillak, lurikara ta gertatu zana ikusi zutenean, bildur-ikaratu ziran, eta onela zioten...

EUNTARIA.—Au benetan Jaungoikoa-ren Semea zan...!

Eta uts-utsik galdituko da iruditegia.

Haendel-en Alleluia-k ausiko du illuntasun au:  
Argiak pizten asiki dira, banaka-banaka, ta dantzan ekingo diote, alde bietatik berdín agertuko diran, emakume-dantzariak.

Ballet-antzekoa bear du izan dantza onek, eta Haendel-en Alleluia-kin bat etorriko dana.

Dantzan ari diran bitartean itxiko da iruditegia. Baiñan ez da orregatik ereserik ixilduko...!

1971 — Maiatza-ren 1-an

V.  
IPUIAK

## EZ DA PUTZA, GERO, JAUNA...

1969-garren urtean, Bizkaia-n izan zan KIRIKIÑO ipui-sariketan, ohorezko aipamena izan zuan ipuia onek...

Txakurra ta katua...! Orixe ciran On Krixpin eta Txanton.

Ez zaidazute, ordea, nor zan txakurra ta nor katua, galdetu...! Bat-tak zaunka egiten ba-zuan, atzamarka egiten zuan besteak. Eta gaur atza-marka egiten zuanak, zaunka egiten zuan biar.

Mendi-errixa bateko apaiza zan On Krixpin, eta bertako alkatea Txanton.

Arrigarria izan zan Txanton-en alkate aukeratzea... Ez ziran ordu-koak, gaurko egunak...! Eta erriak aukeratzen zuan orduan alkatea, ta autarki-bidez aukeratu ere. Nork autarki geiago, ura izan oi zan erri arta-ko alkate.

Jakin ba-zuan, jakin zuan On Kxispin-ek, Txanton-ek izan nai zuala errixka artako alkate, ta odol-gabe utzi zuan berri onek. Txanton bait-zuan bere artaldeko ardi "beltz" bakarra: elizan ikusten ez zuan gizon bakarra... Eta Txanton ez zan alkate izango...! Ez ura an-bertako apaiz zan artean beintzat...! Ark jakingo zuan, zer egin ortarako...!

Kristorenak, bai, kristorenak esan zizkien igande artako itzaldian... Txanton-i autarkia eman, eta ez zezatela, gero, elizakoak artuta iltzerik pentsatu...\* Ez...\* Txakurrak il oi ziran bezela, il bearko zutela, ta txakurrak lurperatzen ziran bezela, baztar batean lurperatuak izan...!

Eta apaizaren itza, itz santua zan orduan. Danak bete oi zuten itza...

Eta orra Txanton alkate...!

On Krixpin-ek ez zekian, ez zer esan, eta ez zer egin. Pozik artuko zuan lasta-zuzia, ta errixka osoko etxeak, bana-banaka, erre...!



Ez zan gutxiagorako...!

Nori... ta berari egingo ote zioten, ba, basarritar kaiku aiek iseka ori...?

Ez ziran, ez, bereak-eta-bost entzun-gabe geldituko...! Ez orixe...!

Sakristauak esan zionarekin, ordea, utsean gelditu ziran On Krispin-en su-gar auek...!

—Txanton-ek ez omen du autarki bat besteri izan, eta ura...

—Burua austerik nai ez ba-dek, ez zaik jarraitu...!, deadar egin zion On Krixpin-ek.

—NORK, ETA IK AUKERATU DEK, BERAZ, TXANTON ALKATE...?, erantzun zion Gurutzetik Jesus-ek.

On Krixpin-ek ez zion begirik, ere, jaso...

Basarritar gazte ura agertu zanean, eliz-atarian zebillan artean On Krixpin.

—On Krixpin, esan zion gazteak, gure etxe-inguruan txakurra aieneko erbia ikusi det oraintxe.

—Nun, ordea...?

—Gaztiñadi-zaarreko bide-gurutzean...

—Esan al-diok iñori...?

—Ez, Jauna, ez...!

—Ez akiok, ba, iñori esan...!

Eta mendi-bideak lokaztuak zeudela artean, eta perradun oñetakoak jaztera joan zan On Krixpin etxera... Pozaren-pozez, esku-artera txistua bota, ta eskuak igurtzi besterik ez zuan egiten gizajoak.

Begiratu bat egin nai izan zion, etxetik irten baño leen, Jesus Gurutziltzatuari... Irripar egin zion onek... Irripar gaizto...?

Mutil-koxkor bat zeukan etxe-atean zai.

—Joan dedilla esan dit amamak...

—Orain ezetz esan akiok...!

—Gaxorik dago...

—Ez dek gaur ilko...!

—Il-aurretik aitorketa on bat egin nai lukeala, ordea...

—Il-aurretik...? Larogei urte beteak zituk, eta ez al-dik orain-arte-

raño aitorketa "on" ori egiteko astirik izan? Ez...! Ez niñoak... Eta joan dedilla inpernura bitartean iltzen ba-dek...

—KRIXPIN, KRIXPIN...!

Eta ez zan, dei-egiten ziona, mutil kozkorra...!

—Bai, Jauna, bai..., izan zan On Krixpin-en erantzun bakarra.

Eta eskopetea sukaldeko mai-gañean utzi, ta amama zaarraren etxera abiatu zan On Krixpin.

Ez zijoan oso gozoa...! Eta bidean gertatu zitzaionak ez zuan geiago gozatu...! Nor ikusiko...?, ta Txanton ikusi zuan eskopetea sorbaldan eta eiz-txakurra lagun...

—Gaztiñadi-zaarrean erbi bat omen zebillak, Krixpin...

—Ba-zekiat...!

—Eta nork esan dik, ba, iri...?

—Iri esan dikan aul orrek berak...! Ez al-dek nere aurrera berriro agertuko...! Nori..., ta iri esan...!

—Erriko alkatea nauk, ni, Kixpin...!

—I alkate ba-aiz, Aita Santua nauk ni...!

—Aita Santuak ez dituk erbi-eiztari izaten, gizon-eiztari baizik...!

—Basurde artera joan bearko diat ortaz ire billa. Basurdea baño zerriagoa aiz, izan ere, ta...!

Eta besterik-gabe aldendu ziran biak... Asarre bizian On Krixpin..., eta algaraz Txanton.

Amamakikoak egin zituanean, tipula baño tristeago agertu zan On Krixpin elizako Gurutz aurrean. Ez zan itz-egiteko gauza ere... Ain zegoan naigabetua...! Jesus berak ausi bear izan zuan ixiltasun ura...

—ZERGATIK EZ AIZ, ORAIN, EIZERA JOATEN...?

—Ordu onean esaten didazu zuk, ere...! Ez al-dezu Txanton ikusi...?

—TXANTON EZ DEK EIZTARIA.

—Erbia nun dagoan jakin ezker, ez dauka zergatik izan ere. Ta txakur on bat lagun duala, gutxiago...

—NIK EZ DIAT, BA, TIRORIK ENTZUN...!

—Eee...?

—EZ, KRISPIN, EZ...! ETA EZ DIAT GEZURRIK ESATEN...  
AZKAR IBILTZEN BA-AITZ, IREA IZANGO DEK ERBIA...

—Bai...?

—BAI...! ANTZEN ZEGOK GAZTAÑADI-ZAARREKO BI-  
DE-GURUTZEAN IRE ZAI... EZ ADI, BA, LO EGON, EMEN.

Naigabeak alde batera utzi, ta, ollarra baño arroago, irten zan On  
Krixpin mendiruntz... Eta oraingo aren poza, ez zan erbiak ematen  
zion poza, Txanton-i sartu bear zion ziriak ematen ziona baizik...

Ez zan, nai bezein laister, gaztañadi-zaarrera eldu...!

Antxen zegoan erbia zai...!

PUM-PUM...!

Eta ankaz-gora erori zan erbia.

Tiroen-otsera agertu zan Txanton. Ez zuan On Krixpin ikusterik  
uste...!

—I al-intzan, madarikatu ori...!

—Bai, Txanton. Ni-neu...! Aita Santu guztiak ez dituk gizon-eiz-  
tari bakarrik. Ba-ditut, aien artean, erbi-eiztariak ere...

—Eta nola arraio billatu dek txakurrikan gabe...?

—Txakurrikan gabe...? Ba-diat nik nere txakurra, ta irea baño  
obeagoa gañera...!

—Nun, ordea...?

—Ez diat esango, Txanton. Neretzat bakarrik nai diat, nik, nere  
txakurra...!

—Gaitz egingo al-dik erbiak...!

—Iri egin dikan aña, ez zidak, beintzat, egingo...!

Eta On Krixpin izan zan, oraingoan, algaraz gelditu zana...!

Erbi ta guzti agertu zan On Krixpin elizan.

Erakutsi egin nai zion erbia, Jesus Gurutziltzatuari arakutsi...!

—POZIK ATOR, KRIXPIN...! BAÑAN NI EZ NAUK PO-  
ZIK...! TXAKURRA DEITU EZ DIAK BA...?

—Txakurra..., txakurra ez...! Erbi-txakurra baizik...! Eta eizteri  
batentzat erbi-txakur on bat ez da putza, gero, Jauna...!

## URDE ORI...!

### LEENGO IPUIAREN ALDERANTZIA

Ba-zan, uraxe, On Krixpin-en ezbearra...!

Atsegin zitzaion, igande oroko goizean-goiz, "dilin-dalan" kanpaia  
jotzea. Ta ez bere eliztarrak esnatzearren bakarrik...! Kanpai-soiñu ura  
otoitz bat zan On Krixpin-entzat, eta indarrak aitu-arte jotzen zuan kan-  
paia On Krixpin-ek igandero.

Txanton-ek eta, maldizio bakar au esaten zuten, On Krixpin "dilin-  
dalan" asten zan bakoitzean: ez ote dik kanpai orrek, bere mingain ori,  
bein-betirako galduko...?

Iru kanpai zituan kanpantorre ark. Bañan irutatik-bi mututurik zeu-  
den aspalditik. Ez zuten iraulketarik egiten, eta beren mingaiñak, ere,  
gogorturik zeuden, ezin geiago, bere artan.

Ez zeukan, ba, On Krixpin-ek, bere kanpai-otoitz ori egiteko, kanpai  
bat besterik. Eta orra, Txanton-en eta maldizio ura, zerura iritxi...! On  
Krixpin-en kanpai-bakarraren mingaiñak egaka egin zuan igande goiz-  
batean...

Min izan zuan On Krixpin-ek. Min aundia...! Ta Txanton-i mese-  
de ori eskatu-bearrak ematen zion miñik aundiena...! Ez zion, ba, mese-  
de ori eskatuko, besterik ezean baizik...!

Bereala zabaldu zan, Txanton-en-eta artean, On Krixpin-en ezbearra.

—Nik konpondu bear baldin ba-zioat, egon zeikek trankil ..! Ez  
ziguk lorik galeraziko emendik-aurrera...

Sakristauak ekarri zion Txanton-en-eta pozaren berria.

—Bai e...? Ez die, ba, poz ori izango...!

Berak konponduko zuan kanpaia...! Eta bai lanari eldu ere...!

—ALPERRIK ABIL, KRIXPIN... ORI EZ DEK IK EGITEKO LANA...! TXANTON-EN LANA DEK ORI, TA ARK EGIN NAI EZ BA-DIK, EZ DIK BESTE IÑORK EGINGO...!

—Ez dit, ba, Txanton-ek egingo...!

—IRETZAT KALTE...!

—Gero ikusiko degu ori...!

Larunbata-arratsaldean arpegi alaiakin agertu zan On Krixpin elizan.

—TA...?

—Lan ori egiteko gauza izan naizen ala ez, biar-goizean esango didazu...

—BIAR-GOIZEAN ESANGO DIAT, BAI...!

Sekula baño goizago jeiki zan On Krixpin igande-goiz artan... Kanpantorrera igo, ta an egon zan luzaro, ume bat bezela, orduaren zai... Amaika begirasun gozo egin zizkion kanpai-mingaiñari. Bai maiteki igurtzi ere...!

Zer esango ote zuten Txanton-ek eta...? Eta zer Jesus-ek...? Go-goan zituana oraindik onek esan zizkion itzak: Txanton-en lana dek ori Ta Txanton-ek egin nai ez ba-di, ez dik beste iñork egingo...!

Ez e...?

Bañan ordua etorri, ta lenengo eman-erazi zion jira-biran, an joan zitzaion, berriro egaka, bere kanpai mingaiña...!

Elizara jetxi zanean, ez zuan Gurutzari begiratzeko, ausardirik izan. Txankur izuaren antzera sartu an sakristin.

—KANPAIA JOTZEKO ORDUA DEK, KRIXPIN...!

—Ba-dakit, bai, Txanton-en alde zaudela...

—NI EZ NATXIOK TXANTON-EN ALDE...! BAKOITZARI BERE EMAN BEAR ZAIOK, ORDEA, TA, LANKETA OIETAKO, I BAÑO GEIAGO DEK TXANTON...!

—Ba-dakit nik, ere, ori...! Bañan Txanton-ek ez du kanpai ori konponduko...!

—ZERGATIK EZ...?

—Aatik...!

Eta auzoko errietako batean, kanpai ura konponduko zion, beste ermentariren bat billatuko ote zuan, irten zan erritik, egun-sentia baño leen, On Krixpin. Ez zuan nekerik sentitzen...! Bañan erantzun berdina eman zioten, ikustatu zituana, ermentari guztiak.

—Txanton dezu ortarako trebeena...! Uraxe ekarri oi degu guk, ere, emengo kanpaien bat austen zaigunean. Obe dezu, ba, Txanton-engana jo...!

—Txanton-engana...? Txanton-engana...?

Eta Txanton-engana jo bear izan zuan azkenean. Ez gogoz... beste erremediorik ez zualako baizik...!

—Ez nian, ez, iregana etorri nai...!

—Zergatik ez dek ik-erorrek berriro konpontzen...? Asmatu egingo dek, bear ba-da, bigarrengoan...

—Egingo al diak...?

—Elizara joan nai duten oiek, ez die kanpai-bearrik. Despertadore txiki bana naikoa die oiek ortarako...! Eta alde-ederrean egingo diagu lo besteak...!

—Konponduko al-diak...?

—Ez al-dik ire erbi-txakurrak ortarako abilidadarik...?

—Utzi akiok pakean nere erbi-txakurrari...! Egingo al-diak, bai ala ez...?

—Ordañetan izaten dituk olkiak, Krixpin. Eta ordañetan asarreak eta algarak ere...

Eta ez baiezkorik, eta ez ezezkorik, irten bear izan zuan On Krixpin-ek Txanton-en sutegitik...

Txanton-en algarak...!

Bere asarre ura norbaitekin ase-bear, eta Gurutzera jo zuan On Krixpin-ek.

—Eta orain zer...?

—ZER ESAN NAI DIAK ORREKIN, KRIXPIN...?

—Ezer ez...! Txanton-ek ez duala kanpairik konpondu nai.

—EZ NAUK BATERE ARRITZEN, KRIXPIN...! OR ARI ZERATE, BETI, BLOK TXAKURRA TA KATUA BEZELA, TA ARK ZAUNKA EGITEA GAUR, EZ DEK BATERE ARRITZEKO...! TXANTON, ALA ERE, EZ DEK IK USTE DEKAN BEZEIN GAIZTO...!

—Ez zuk uste dezun beezin ona ere...!

—ETA ZERGATIK AUKERATU UAN ALKATE...?

—Gaur aña jakin ba-nu, ez nuan, ez, aukeratuko...!

—EZ ADI ESTUTU, KRIXPIN. DANA KONPONDUKO DEK ETA...

—Dana konponduko da bai...! Bañan konpondu bitartean, kanpai-gabe egon bearko degu zuk eta nik...!

Neurrigabea izan zan Txanton-en, egun aietako, gozamena. Arentzat ez zan, ezer-ederragorik, On Krixpin asarre ikustea baño. Ta asarre ikusi zuan tamaño batean...!

Gau batean sutegira jetxi, giltza-zaar mordo bat artu, ta kanpantorrera joan zan ixil-ixilik... Ondo miatu zituan ango baztarrak, baña, berak nai zuan mingain ura, ez zegoan an...!

—Nun sartu ote dik...? Etxean gordeko zian, arraio orrek...!

Eta egin nai zuan ura, egin gabe, jetxi bear izan zuan kanpantoretik.

—I, KRIXPIN, NUN IZKUTATU DEK KANPAI-MINGAIN ORI...?

—Zer, ba...?

—EZER EZ...! ORIXE JAIN NAI NIAN...!

—Nere etxeko ate-atzean...!

—EZ ADI ORREGATIK ASARRATU...!

—Asarratu ez. Bañan neri adarra jo-naiean zabilizatela danok, esango nuke!

Eta au esatearekin-batera, argitu egin zitzaion On Krixoin-i arpegia

—ZER DEK ORAIN, KRISPIN...?

—Ezer ez, Jauna...! Bañan orain jakingo du, ni nor naizen, Txanton orrek... Adarra, bai... adarra...!

Eta besterik-gabe irten zan elizatik.

Bere asmo berri ura aurrera eramateko, egun bat besterik ez zeukan On Krixpin'ek; larunbata...!

Eguna argitu baño leen, irten zan etxetik, bañan ez Txanton-ek ikusi-gabe, ordea.

—Au dek nerean...

Eta sutegira jetxi, giltza zaarrak eta lanerako tresnak artu, ta On Krixpin-en etxera joan zan, inork ikusiko ote zuan bildurrez.

Sarrerao ate-atzean arkitu zuan kanpai-mingaiña.

Kanpantorrera igo, ta an igaro zuan goiz osoa...!

Irripar goxo ta gaizto batekin jetxi zan Txanton kanpantoretik. On Krixpin-ek izan bear zuan uste-gabeko ark, sortzen zion irripar goxo ta gaizto ura...!

Illuna zan On Krixpin etxeratu zanean.

Jesus-ek erritan egingo ote zion bildurrez edo, ez zan elizan sartu ere. Afaltzeko astirik artu gabe, eliz-gaiñeko tellatura igo zan, ta kanpantorregaiñeko tellatura andik. Antxen igaro zuan gau osoa...!

Bizarra kendu, ta elizan sartu zanean, ba-zuan, Jesus-ek zerbait esango ote zion, bildurra...

—NUN IBILLI AIZ, ATZO, KRIXPIN...?

—Kanpora joan-bearra izan zuan, Jauna...!

—EZ INTZAN "GABON" ESATERA, ERE, ETORRI...

—Oso nekatua etorri nintzan, Jauna...

—EZ DEK, BA, LO ASKORIK EGIN...!

—Ez du, beti, batek, nai-aña lo egiten...!

—EZ AIZ, BA, ZERBAIT IZKUTATU-NAIEAN IBILLIKO...?

—Barkatu, Jauna... Bañan orain ez det, emen jerraitzeko, astirik...

Ona-ta-ara, urduri zebillan On Krixpin sakristin. Pozik eta kezkatu zegoan. Txanton-ek-eta izango zuten izuak, ematen zion poza, ta erriak izango zuan izuak, kezka... Bañan egiña, egiña zegoan, eta ez zeukan atzera egiterik...!

Ordua eldu zanean, pixtu zuan argia-pixteko giltza oietako bat, et bildurgarritzko "FI-I-I, FI-I-I" zakar bat zabaldu zan erri osoan. Eta ada-

rrari lotu zizkion bi "altabozak" zakarragoa egin zuten, oraindik, adarra-  
ren soñu ura...!

Pozik asko askatuko zituan Jesus berak, ere, bere eskuak, eta bela-  
rrietako zuloak itxi...!

Ez zan errian inor oean gelditu... Zaar eta mantetako-umeak aña,  
danak jeiki ziran... On Krixpin-i zerbait gertatzen ote zitzaion, bildur  
ziran danak. Eta ez zuan Txanton-ek bildurrik txikiena...!

Bein-ere ez bezela bete zan eliza...!

An zegoan Txanton, ere, bere alkate-aulkian...

Irriparrez, eta Txanton-i begira-begira, asi zuan On Krixpin-ek bere  
itzaldia. "Izu aundi bat eman dizuetela, ba-dakit... Bañan ez da nere  
errua...! Kanpaia konpondu zezakeanak, ez du konpondu nai izan, eta  
orretzek beartu nau, adar bildurgarri ori, kanpantorrean ipintzea..."

Jeiki zan Txanton, ori entzutean, eta beste bi lagun artu, ta irten  
zan elizatik.

Gero ta gustoago ari zan izketan On Krispin... Alaitasunez bete-  
tzen bait-zion biotza, Txanton-i sartu zion ziriak...!

Bañan orra-nun, eta gutxiena uste zuanean, "dilin-dalan, dilin-da-  
lan" asten diran kanpantorreko iru kanpaiak...

Itzik-gabe gelditu zan bat-batean, On Krixpin ta nora begiratu ez  
zekiaka, gelditu ere...!

Gurutzera jaso zituan, azkenean, bere begiak.

—BAI, KIXPIN, BAI... TXANTON EZ DEK, IK USTE BE-  
ZEIN, GAIZTOA... BAT EZ, IRURAK KONPONDU DIZKIT...!

Meza bukatu zanean, an zegoan berriro, irriparrez, Txanton bere  
alkate-aulkian.

—Urde ori...!, esan, eta lotsaz-beterik izkutatu zan On Krixpin  
sakristin...

1970-garren urteko  
Urtarrilla-n.

## ON KRIXPIN...

Ez ziran konforme Kuki-erru-ko gazteak...!

Apaiz gazte bat izan zuten leen, eta orain etorri zitzaion au, zaa-  
rragoa zan eta zakarragoa gañera: leengo apaiz aietako bat...!

Eta batzar bat egin zuten, eta ez zan, an azaldu ez zan, iritzirik...!

Batzuek ziotenez, boikot bat egin bear zitzaion elizari: ez zuan  
inork igandeetako mezaetara joan bear, On Krispin ango apaiza zan ar-  
tean...

Beste batzuek ziotenez, Gotzai Jaunari idatzi bear zitzaion, eta go-  
gor idatzi ere...! "Gaurko-egunean erriak izendatu bear bait-ditu bere  
apaizak eta ez gotzaiak". Eta On Krixpin ez zuten erak izendatu...!

Au izan zan, ordea, azken-orduak danak ontzat-eman zuten iritzia:  
tranpa bat ipiñiko zioten On Krispin-i, ta tranpa ortan eroriko zan du-  
darikgabe.

On Krixpin-eta bezelako abadeak ez zuten "sexualidadea" aitatze-  
rik, ere, nai izaten. Narraskerietan sartzea zan ori aientzako...! Sexua-  
lidadeari-buruz konferentzi bat nai zutela, esango zioten, ba. Bañan ez  
konferentzi epel oietako bat. Gordin-gordiña baizik eta adabaki gabe-  
koa...! Ta asarratu ta murruska bialtzen ba-zituan, ba-zutela orduan go-  
tzaiari salatzeko arrazoi bat...!

Kox-kox atea jo zutenean, bere otoitzak bukatzen ari zan On Krix-  
pin... Amasei, amazpi urteko gazte bi agertu ziran atean. Neskaxa  
zan bata, eta mutilla bestea...

—Zuek esango didazute, esan zien On Krixpin-ek.

—Zure aurreko apaizak konferentzi batzuek ematen zizkigun, eta  
eskabide berdiña egin nai dizugu zuri ere...! Eta ba-dakizu,

gaur dan egunean konferentzi oietan ibiltzen diran gaiak, zeintzuk diran: sexualidade-gaiak...! Eta oietzek dira guk, gordin gordin, jakin nai ditugunak...! Emango al-diguzu, ba gai orri buruz konferentzi bat...?

—Ez dizutet, ba, emango...! Bai orixe, ta oso pozik gañera... Ta konferentzi ori bizi-bizia ta gordin-gordina izan dedin, auxe da zuek egin bear dezutena; idatzi izkidazu zuk mutillak jakin nai dituzten gauzak, eta egidazu zuk beste-ainbeste neskatxekin. Edozer-gauza galdetzeko lotsa gutxiago izango dezute orrela, ta lotu egingo naute ni... Konforme al-zerate...?

Eta ezerkin conforme ez ziran gazte aiek, oso conforme gelditu ziran On Krixpin-en erabaki onekin.

Ostegun-goizean, meza bukatu zuanean, onela esan zion gurutzetik Jesus-ek:

—GAUR EZ AIZ EIZERA JOANGO...?

—Zergatik ez ba, Jauna...?

—EZ AL-DAKIK KONFERENTZI BAT EMAN BEAR DEKALA...

—Bai...!

—ETA EZ AL-DEK, KONFERENTZI ORTARAKO, GERTATU BEARRIK...? ARA, KRISPIN. GALDERA ASKO BILDU ZITUE GAZTE OIEK, ETA EZ NOLANAIKOAK...! LOTSAGARRI UTZI NAI AUTE... OBE DEK, BA, GAURKOZ, EIZA UTZI, TA GAI OIERI BURUZ ZERBAIT IRAKURTZEN BA-DEK...! DANEN BEAR IZANGO AIZ, KRIXPIN...

—Ez zaite ikaratu, Jauna... Ondo dakit nik, gazte oieri nola itz egin...! Barkatu, ba, Jauna, aspaldi ez det erbirik jan-da...

Aretako ark ez zuan sekula ainbeste jende ikusi...! An zeuden kuku-erri-ko neska-mutil guztiak...!

On Krixpin agertu zanean, mai-gaínean zeuzkan gazte aiek egiten zizkioten galderak. Eta ba-zan antxe galdera ugari...!

—Ogeitik-gora dira, egin nai dizkidazuten, galderak, eta pozten

nau zuen jakin-nai onek... Nik,ere, nere aldetik, ordea, bi galdera egin nai dizkizutet. Oso errezak. Eta danen-artearen erantzuteko modukoak. Ez zaitezte, ba, larritu. Eta auetzek dira nere bi galderak: zeintzuk dira Jaungoikoaren Legeko aginduak, eta zeintzuk Eliza Ama Donearen aginduak...?

Ikustekoa zan gazte aien estuasuna...

Ozta-ozta asmatu zituzten, danen-artearen, Jaungoikoaren Legeko amar aginduetatik, bost. Eta Eliza Amaren bost aginduetatik, ez zuten bat-bakarra, ere, asmatu... Eta onela amaitu zuan, orduan, bere sexualidade-buruzko itzaldia On Krixpin-ek:

—Etxe eder batean, tellatuak, ere, ederra izan bear du. Bañan tellatu ori jarriko ba-da, oiñarriak eta etxe-paretak jaso bear dira aurretik. Ez dago, tellatu bat ipintzeko, beste biderik... Zuek, ordea, ikusi dedanez, ez dezute, ez oiñarririk eta ez etxe-paretarik, eta tellatutik asi nai dezute etxea... Barkatu, gazteak... bañan ni ez naiz, ori egiteko, gauza...! Egunen-batean oiñarriak ipiñi, ta etxe-paretak jasotzen ba-dituzute, emen izango nauzute zuekin berriro... Eta tellatu eder bat ipiñiko diogu, orduan, zuek jasitako etxe orri...! Agur, ba, gazteak...!

Eta mai-gaínean ipiñi zizkioten galderak artu, ta besterik-gabe irten zan On Krixpin...!

Ao-zabalik gelditu ziran Kuku-erri-ko neska-mutillak...!

Onela esan zion Jesus-ek biaramon-goizean:

—ETA ATZO...?

—Oso ederki, Jauna... Bañan esango nizuke zerbeit...

—ESAIDAK, BA...!

—Oso irakasle txarra zerala...! Gaurko umeak edozer ikasten dute, bañan, zuk erakutsitako dotriña ori, ezin dute ikasi... Izan ere, mandamentuak ipintzen asi, ta amar ipiñiko zenituan, ba...!

EL DIARIO VASCO  
1971-VIII-11

## ON KRIXPIN...

### IKASTOLAK

Ba-zan, zer-esana, Kuku-errian...!

Ez ote zuan On Krixpin-ek burua galdu...?

Bi ikastola...?

—AIZAK, KRIXPIN, esan zion goiz-batean Jesus-ek... EGIA AL-DEK, ERRIAN ESATEN DAN, ORI...? BI IKASTOLA JARRI BEAR DITUKALA, ALEGIA...?

—Bai...! Egia da, Jauna...!

—ZERTARAKO, ORDEA...? BAT EZ AL-DEK, BA, NAIKOA...?

—Ez, Jauna, ez...! Gaur bizi geran egunetarako, bat ez da naikoa...!

Eta bi areto eder gertatzen ari zan On Krixpin. Eliz-ondoko aretoa bata, ta bere etxe-azpikoa bestea.

Egun artan, bere gelako ate-atzeko-kakuan zintzilik utzi zuan, beti jantzi oi zuan sotana beltza... Ezin esango degu mutil gazte bat ematen zuanik, bañan gizon bezela ez zegoan, ez, ain itxura gabea...!

—NORA OA, ITXURA ORTAN, KRIXPIN...?

—Andereñoekin billera bat egitea...!

—ETA TRABA EGITEN AL-DIK, ORTARAKO, SOTANAK...

—Bai, Jauna, bai... zuk onela uste ez-arren...

Eta paparra askatu, ta onela itz egin zien On Krixpin-ek andereñoeri:

—Ez natorkizute apaiz bezela, gizon bezela baizik. Eta orregatik utzi da utzi ere, sotanea etxean... Ba-dezute nere asmoaren berri... Bi ikastola jarri nai ditut Kuku-erri-n... Ikastola oietako batean, dotriña, ere, erakutsiko da... Bestean, ordea, ez da dotriñarik erakutsiko... Zuek aukeratu, bada, nungo andereñoak izan nai dezuten: dotriña erakutsiko dan ikastolakoak, ala dotriñarik erakutsiko ez dan ikastolakoak...!

Eta nola ez...! Bietako andereñoak izan zituan On Krixpin-ek...

—POZIK ATOR...

—Bai, Jauna, bai...!

—ONDO ERANTZUN AL-DIE ANDEREÑOAK...?

—Nik nai bezelaxe, Jauna...

—ORTAZ...!

—Oraindik ez, Jauna...! Beste billera bat egin bear det oraindik...!

Eta elian bildu zituan On Krixpin-ek, ikastolara beren umeak bialdu ni zituzten gurasoak... Eta onela itz egin zien:

—Bai...! Bi ikastola izango ditugu Kuku-erri-n... Bi oietako batean, ez da, ez, Jaungoikorik aitatuko, ta ez elizako gauzarik ere. Bestean bai, ordea... Eta naasketarik izan ez dezazuten, ikastola bateko atean idazki au ipiñiko det: "emen ez da otoitzik-eta erakutsiko", ta beste au, bestean: otoitzak-eta, ere, erakutsiko dira emen"... Gurasoak zeraten aldetik, zuen eskuetan dezute, bada, zuen umeak ikastola batera ala bestera bialdu...!

Astelen-artako eguardian, erreza zuan irriparra On Krixpin-ek.

—TA...?

—Arrazoi zenduan, Jauna... Kuku-errirako askotxo ziran bi ikastola... Batekin konformatu dira bertako guraso danak...!

—ZER ESATEN ARI DITUK, BA...?

—Gauza askotxo umeen gurasoak ez diranak... Gurasoak, ordea... Ez da arrokeria, Jauna, bañan..., On Krixpin batzuek bear dituzu zuk, gaur, Euskal-errian...!

EL DIARIO VASCO  
1972-VI-28

## COLON - EK BESOA JETXI ARTEAN

Gerra-aurrean ez zegoan, gaurko konturik, Azkoiti-n. Bizkargi ta Intxausti ziran bertako lantegi bakarrak, eta lantegi auetan jasotzen zan lan-sariakin, ez zegoan zartagia asko dantzatzerik. Abarketan egin bear izaten zuten, ba, danak bein amar-bat urte bete ezkeru. Zoru-josten gizonetzkoak, eta "erreforzakatean" emakumeak...!

Oietako bat genduan Patxi Esnal ere. Bere aulkian igaro oi zuan egun guztia. Eta gutxi zitzaion ari, bere alkandoran, botoien-bat falta-tzea, edo-ta bere prakaetan zuloren-bat izatea...!

Konsejuean pelotan jokutzen zuanean, abarketak ez urratzearren, anka-utsik jokatu oi zuan beti. ta ala ere, bere abarketa muturrak agirian uzten zioten, geienetan, bere ankako beatz aundia...

Eta etorri zitzaion Patxi-ri ere, soldadu joateko garaia, ta Barzelona-ra bialdu zuten. Eta an asi ziran Patxi-rentzat egun gorriak...! Beti billatzen zioten arrestatutzeko aitzakiren-bat: botoien bat falta zitzaio-la, gerriko ugala ez zeukala garbi, oiñetakoeri brilloa falta zitzaie-la, ta abar...

—Señor Esnal, queda Ud. arrestado...!, izan oi zan beti, Patxi-k azkenean entzun bear izaten zuan itza.

Egun artan, ordea, ez dakigu zein-arkakosuak elduko zion sargentoari. Besteetan ez-bezelako arrestoa eman zion Patxi-ri.

—Señor Esnal, queda Ud. arrestado hasta que Colón baje el brazo...!

Ondo daizute, ba-dala Barzelona-ko kai-ertzean, beso bat luze-luze jasorik daukan, Colon-en irudi bat. Onek jetxi bear zuan, ba, bere beso ori, Patxi-k kuarteletik irtengo ba-zuan.

Igaro zituan Patxi-k bi edo iru egun, zintzo-zintzo, kuartelean, eta azpeltu egin zan azkenerako...!

Eta orra nun ikusten duan egun batean, Barzelona-ko kaleetan, arrestatu zuan sargento berak...

—Ez al-zeunden zu arretatua...?

—Bai, Jauna.

—Eta noiz-arteko arrestoa eman nizun, bada...?

—Colon-ek bere besoa jeixten ez zuan arterañoioa...!

—Ta...?

—Egia esango diot, ba...! Beti ari nintzan nere leguneri, Colon orrek besoa jetxi zuan ala ez, galdetzen, eta iñork ez zidan gauza-garbirik esaten... Eta onela esan diot gaur nere buruari: oa i-erori, Patxi, ta ikusi zak Colon orrek besoa jetxi duan ala ez... Eta an izan naiz. Eta kuartelera ninjoan orain, gizon orrek ez bait-du bere besorik jetxi nai...!

Sargentoak ez zion euskeraz egingo, ta Patxi-k, ere, ez zion erdera ederrean erantzungo... Bañan ez zuan kuartelera itzuli-bearrik izan Patxi-ren ertera orrek ondo merezi bait-zuan arresto baten barkamena



**VI.**  
**IPUI - ANTZERKITXOAK**

# Ni ez nezkazar...!

ERRI-IPIU BATETIK ATERATAKO  
ANTZERKITXOA

ANTZELARIAK :

POXPOLIN  
PRAKAX  
APAIZA  
PRAILLEA

Leio bat duan gelatxo bat degu iruditegia.

Gelatxoa antolatzen edo, ari da Poxpolin. Bitarte onetan norbaitek koanpotik bertso auek abestuko ditu...

Neska-zarrak  
Joaten dira  
Urkiolara  
Urkiolara  
Urkiolara...  
Santuari eskatzera  
senar on bana  
senar on bana  
senar on bana...

POXPOLIN.—Etxe onen aurretik igarotzen diran danak, neskazarreri ziri-ka joatea, aundia da gero, Jaun-andreak... Ta egia esan, emen inguruan neskazarik ez det nik ezagutzen...! Mutilzarrak ordea... Etxekoneko Kaiku berak ere ogeita sei urteak or nunbait ibilliko ditu... andragairik ezin arkitu du ordea... Leen, sasoi batean nere atzetik ibilli oi zan, bañan zaputz egin zidan... Ark, gaixoak, nik senargairik ez nuala arkituku uste, bañan usteak, erdia ustel esan oi da ta egia... Nik bai senargaia arkitu, berak andragairik ordea, ezin inolaz billatu... Kaiku'k baño ogei urte geiago izan arren, Poxpolin'ek oraindik arpegi polita izaki...

Ixpillua artu ta bere arpegiari begira.

Ara, ez da arrokeria, baño gero eta politagoa iruditu oi zait nere burua... Au sudur eta ezpañaren ederra... Matrallak ximurtzen asiak ; lastima ! Illea ere zuri xamarra... Ori da ordea gutxiena... "Oxigenada" ur pixka batekin gorritu ta ; kito!... Laister nuke, bai atzetik berriz ere Kaiku... Bañan ez...! Obe sagarra eskuan sagastian baño... Eskuan det Prakax, sagastian berriz Kaiku... An konpon dedilla...

PRAKAX. — (Barrutik) Poxpolin.

POXPOLIN.—Ene, bera izan bear du... Auek taupadak biotzak. Aurrera.

PRAK. —Egun on, Jaungoikoa'k

POX. —Bita zuri ere... Nun ibilli zera?

PRAK. —Goizean, igandea dala-ta, mezatxo bat entzuten or eleizan... Gero berriz, lagunekin kontu-kontari...

POX. —Tabernan.

- PRAK. —Bai ala da. Zer nai dezu ba. Onelakoxeak gera gizonak...
- POX. —Bai, bai... Andrea baño ere maiteagoa dute gizonak ardoa...
- PRAK. —Ez ba nik jakin... ez naiz oraindik ezkondu-ta... (jendeari). Ez da ezkonduko ere...
- POX. —Egia. Oraindik senar-emaztegai besterik ez gera-ta. (Jendeari) Obe det arlo au utzi... Kaiku'k ere ardoa zala ta ez-zala, iges egin zidan eta... (Prakax'eri) Ez al'didazu besterik esaten...?
- PRAK. —(Jendeari) Au eper usai goxoa... Eperrak ote dauzka onek etxean? Ez detela ezkontzeko asmorik eta, beste senargai-  
ren bat billa dezala, esatera etorri natzaio, bañan obe det Jaungoikoa'gatik ixilik egon.
- POX. —Bañan ezertxo ere ez...?
- PRAK. —Zer esango dizut ba nik...
- POX. —Ez al'diazu zure biotzeko maitasuna azaldu bear. Maite egarriz nago ni...
- PRAK. —(Jendeari) Ez det nik, egia esan, egarririk... gosea, ordea... Eperrak gañera...! Noiz jan ote ditut azkenengoz...
- POX. —Ez al'nazu maite...? Ai! orduan bai betirako neskazar izan bearko dedala... Maite nazula esan egin zaidazu... Ez zera iñoiz ain otz egon...
- PRAK. —Ara, Poxpolin, zure biotza...
- POX. —Beste batzuek artu nai izan ez ba'dute ere, zuk artuko diazu... ez da ala...?
- PRAK. —(Berek'ko) Ondo ziok... Besteak nai-eza ta ondarrak biltzen ibilli bear ote aiz ba beti, Prakax...? Gaur ez ba...! Eper billa saiatu ari gaur gogor... (Poxpolin eri) Zure biotz ori plater batean ba'nu...
- POX. —(Larri) Zer...?

- PRAK. —Jan egingo nuke...
- POX. —Urkiola'ko Antonio'ri eskerrak... Nereganako maitasuna galdu ote zenduan bildur izan naiz... bañan ez... Au maitasunaren aundia...
- PRAK. —A, ez, Poxpolin... Au gosearen galanta...
- POX. —E?
- PRAK. —Au gosearen aundia...!
- POX. —Ez diazu beraz maitasun-ipuirik esaten.
- PRAK. —Goserik dagoan txakurrari, ez zaiozu miazteko eskurik jarri, kosk egingo dizu ta...
- POX. —Ta nik etxean jakirik ez. ;Au lanbidea...!
- PRAK. —(Berekiko) Auzokoa ote dik ba onek eper usai au...?
- POX. —(Berekiko) Gastai-puxka bat ba'nu... Ogia ta gaztaia eka-  
rri ta ;kito! Gaztai zati bat ez eukitzea arritzekoa da gero. Ezingo diot ogia bakarrik eman. Onen niganako maitasuna ez da bizi-bizia, ikusten danez, eta eper biak eman bear-  
ko dizkiot, gero, ezkondukoan, gogor artuko ba'det ere...  
Izan ere onek ere iges egiten ba'dit, orduan, ai, orduan, bai, betirako neskazar...! Ekarri dizkiodan ba eper biak...
- Iruditegitik kanpora irtengo da Poxpolin...
- PRAK. —Zer buru-auste ibilli ote ditu orrek. Eper billa joan ote zait... Eperrak ekartzen ba'dizkit nai ainbat maite ipui esango dizkiot bai...

Ez uste izan ala ere, jaun-andreak, orrekin uztartuko naizenik... Orixe bear genduke...! A zer jaiak errian... Izparingietan ere or ibilliko ziran gure izen abizenak..." ...'ko erretore jauna ren neskamea, berrogei ta sei urteko neskazarra, bera baño agure zaarragoakin ezkondu da leengo egun batean" ipiñiko luteke alik eta sendoan. Obe de-  
gu ba orrek neskazar eta nik mutilzar gelditzea... Asmo orretan jaiio nintzan ni ta asmo orretan jarraitzen det nik.

Zergaitik nere asmo au adierazten ez diotan...? Ez al diot ba adierazten...! Egunero emen igarotzen naiz beintzat "neskazarrak joaten dira Urkiola'ra" abesten, bañan alpe-  
rrik... Erri guztian zabaldu da gure ezkontzaren berri. As-  
mo txoro oiek alde batera uzteko esatera etorri natzaio...  
bañan eper usai goxo au artuta nork esan... Eperrak orain  
lortzen ba'ditut, gero arratsaldean, etxe aurrean daukaten  
aulkian exerita, nola edo ala adieraziko diot, bai... Emen da  
bera...

(Eperrak eta eperrak jateko bear diran trezna guztiakin  
agertuko da Poxpolin)

- POX. —Tori, jan itzatzu... ia bein asetzen zeran.
- PRAK. —Neretzako al'dituzu...?
- POX. —Norentzat ba...
- PRAK. —Eskerrik asko...
- POX. —(Jendeari) Eper goxo auek kankallu oneri eman bear. Ez  
nizkion ez emango beste senargai bat billatzeko ustea ba'  
nu... Neskazar gelditu baño, edozer ordea...! Ta egia  
esan, ez ditut nik inoiz eperrak ain goxoak jarri... Ekarri  
aurretik miaztu bai ditut sukaldéan eta... eman damu naiz  
orain.
- PRAK. —Ez det inoiz ain eper-goxorik jan. Eskua izan zuk, eskua...
- POX. —Eskerrik asko! (Jendeari) Izter bat ere ez dit eskeintzen lu-  
kur alakoak. Ez dit, ezkondukoan, orrelakorik egingo...  
Beatzak miaztu bearko ditu sarri. (Prakas'eri) Asetzen ari al'  
zera?
- PRAK. —Bai. Laister naiz nai ainbait maite-ipui esateko.
- POX. —Ezkontza eguna aukeratu bearrean gera gaur.
- PRAK. —Laister egingo degu ori...
- POX. —Il onen buruan al'izan ezkerero...!

- PRAK. —Il onen buruan? Ez nuan nik ain azkar üste... Eperrak  
ere gaitz egin bear diate... Obe det bai nik eperrak jan  
eta ez, orrelako gauzeekin burua naastu.
- POX. —Datorren igandean beraz leenengo deia.
- PRAK. —Azkartxo ez ote da...
- POX. —Gure ezkontza il onen buruan izatekotan ez beintzat...
- PRAK. —Nik beste asmo bat nuan, Poxpolin.
- POX. —(Jendeari) Luzatu egin nai duala orain ere. Luzatu ta luza-  
tu ba'dakit neskazar gelditu bear naizela azkenean.
- PRAK. —Nik beste asmo bat nuan... Erretore jaun baten neska-  
meak ez dira nola nai ezkontzen. Ez giñake gu, edozer  
basarritar ezkontzen dan bezela ezkondu bear. Zu zuriz  
jantzita joan bear zenduke, ni, berriz, onelako "gaban"  
aundi batekin.
- POX. —Egia diozu. (Jendeari) Ala ere orain maitasun pixkan bat  
azaltzen duanean, gaitz erdi...
- PRAK. —Oiek ordea, ez dira egun erdi batean egiten diran gau-  
zak...! (Jendeari) Buru azkarra naizenik eskerrak  
(Poxpolin-eri) Obe degu ba pixka bat luzatu...
- POX. —Ez naiz ni luza-lagun bañan.
- PRAK. —Ni gutxiago, Poxpolin. (Jendeari) Gaur arratsalderaño lu-  
zatu nai det nik maitasun au... (Poxpolin'eri) Gañera...
- POX. —Zer?
- PRAK. —Erretore jauna ere zaar-xaamarra dagoala alegia ta.
- POX. —Obe degula apaiz-gazte-polit bat egun ortarako aukeratu  
esan naiko dezu... Ez da ala?
- PRAK. —Ez!
- POX. —Gotzai arterañoako guztiak moituko ditut nik, ala nai izan  
ezkerero...

- PRAK. —Ez nuke ori esan nai...
- POX. —Zer esan nai dezu ba...?
- PRAK. —Erretore jauna ere zaar-xaamarra dala, alegia. Ez ditu guk baño urte askoz geiago baña...
- POX. —Zuk baño...ez nik baño...
- PRAK. —Berdin da...
- POX. —Bai zuretzat...
- PRAK. —Dana dala... Zaar-xaamarra, alegia, ta obe dugula ura il-arteraño itxo egitea.
- POX. —Zertarako ordea?
- PRAK. —Zertarako izango da ba...? Illobarik ez dauka ta, ildakoan diru guztiak zuri utziko dizkizulako...
- POX. —Ta guk nai bezin laister iltzen ez ba'da...?
- PRAK. — (Jendeari) Neri berdin...
- POX. —Ez ez. Obe degu Erretore jauna'ren diru-zai ez egon.
- PRAK. —Nai dezun bezela...
- POX. —Noiz ba orduan...?

Amaikak entzungo dira.

Jesus!! Amaikak!! Laister degu emen Erretore jauna ta guk ezer erabaki ez oraindik...

- PRAK. —Egia... Beste baterako utzi bearko degu, Poxpolin.
- POX. —Gu beti berdin.
- PRAK. —Ta Erretore jauna'k emen arrapatzen ba'gaitu?
- POX. —Ez zaizkio ez orrelako gauzerik bere etxean atsegin...
- PRAK. —Obe det ba nik alde egitea.
- POX. —Eta noiz ezkondu bear degu ba...?

- PRAK. —Ara Poxpolin. Gaur arratsaldean etxean ba'zaude nola edo ala adieraziko dizut...
- POX. —Etxean egongo naiz ba...
- PRAK. —Agur ba...
- POX. —Eraman zaizkidazu bide batez ontzi auek sukaldera...
- PRAK. —(Jendeari) Ez dago gaizki... senargaitan morroi artzen ba' nau, ezkonduakoan zer egingo ez ote dit... (Ontziekin sukaldera dijoala) Obe dek bai, Prakax, mutiltzar gelditu, neskar zar batekin ezkontzea baño.

Iruditegitik irtengo da Prakax.

- POX. —Zorigaiztokoak gera, egiaz, neskazarrak... Bein izango etxean eperrak eta orrei eman bear bertan... Ta zer egin... bizitz osorako neskazar gelditu nai ez ba'degu...? Ezkondu ta gaiztoak gerala emakumeak...? Nola ez...! Bizitza zer dan ez dakite gaurko gizasemeak... Prakax berak ere ez al'du onela bizi izateko asmorik izango...! Ez diot orduan, goserik dagoala ta eperrik emango, ez...!! Eperrak...! Egia! Ta zer esan bear diot nik orain nere nagusiari? Ai, eman ez ba nizkio...! Ez zidan ordea maireipuirik esango! Au neskazarren zorigaitza...! Ta zer esan bear diot nik orain nere nagusiari...? Neskazarren zaindari, Urkiola'ko Santu maitea, lagun zatokit arren... "Aita gurea zeruetan zaudena. Santifikatua izan bedi zure izena..." E...? Katuak jan dizkitela? Ez degu, ordea, ka turik etxean...! "Betor gugana zure erreñua". Eskale bateri eman dizkiotela...? Eskaleen lagun da izan ere bera... Bañan kanpotar bat maikide degularik, ia zergaitik eman dizkiodan galdetzen ba dit, zer erantzun bear diot nik...! Ai milla bider eman ez ba'ninzkion...! Eroa izango ez naiz ba ni...! Arrautzak etxean euki-ta, eperrak emango nizkion ba. Au burua, au! "Eman egiguzu gaur gure eguneroko ogia. Ez, det ogirik bear... Eperrak nai nituzke. Eperrak edo estutasun ontatik ateratzeko gogai bat bestela...

Gogai eder bat arren... A, bai... Nere, nagusia, bazkaltze-koan, janari zai ba'dago, kutxilloak zorrozten asi oi da...

(Kutxilloak zorrozteko kiñua egingo du Poxpolin'ek)

Janari zai dagola esan nai dit kutxillo zorrozte orrekin...

Bazkaltzera datorren praille orreri, nagusia kutxilloak zorrozten asten danean, belarrri biak gorde nai ba ditu, arren iges egiteko esan eta ;kito!... Au gogai ederra... Emen datoz... Eta praillearekin bakarrik itz egiterik ez ba'daukat...? Au larria...!

APAIZA. —(Atea iriki ta.) Ona emen jan-gela... Eseri zaitte... Egin bear txiki bat det, bañan emen naiz laister...

Kanpora irtengo da Apaiza. Maia gertatzen asiko da Poxpolin...

PRAILLEA. —Ez daukat iñungo estutasunik... (Poxpolin'eri.) Egun on Jaungoikoa'k.

POX. —Baita berorri ere...

PRI. — (Eseri ondoren jendearekin jardungo ba'lu bezela.) Nungoa naizen jakin naiko dezute zuek ere, jaun-andreak...! Sortzez ez naiz emendik urrutikoa... Aspaldi onetan Arrantzazu'n bizi naiz, ordea ta gaur, nungoa naizen galdetzen dian edozeiñeri, Arantzazu'koa naizela erantzuten diot... Zueri ere Arantzazu'koa naizela esan bear ba... (Poxpolin'eri begira). Bañan zer du emakume onek? Negarrez dagola, dirudi... Ezbearren bat ote du ba...? (Jeiki ta). Zer gertatzen zaizu emakume...?

POX. —Ezertxo ere ez... Ez zait neri ezer gertatzen...!

PRAI. —Nori negar egiten diozu ba?

POX. —Zure bildur naiz, aita...

PRAI. —Nere bildur...?

POX. —Bai, aita bai... Nere nagusiak oitura txar bat dauka ta...

PRAI. —Guztiok izaten degu zer edo zer ...Gizon eta emakume apaiz eta prailleak, danok gizonak izaki... ta gizona... iñoiz ere ez gutziz zuzena...

POX. —Ala da baño... nere nagusi onek beste oitura txar bat dauka, aita... Bedorrek ba'leki...

PRAI. —Jakin dezagun ba... Ze oitura da ba oitura txar ori?

POX. —Ai, aita... Lotsatu ere egiten naiz esaten bañan... Ara, ba... nere nagusia kutxilloak zorrostean asten ba'da (Egin bezaio kiñua) iges egin beza arren...

PRAI. —Iges...? Zer dala ta...?

POX. —Bi belarriak gorde nai ba'ditu beintzat, iges egin bedi Jaungoikoarren...

PRAI. —Belarriak moztuko al'dizki ba...?

POX. —Bai, aita, bai...

PRAI. —Ez zaude zu ondo emakume... Bi belarriak kenduko dizkit ba... ja, ja, ja... Ta egia izan da ere, zertarako...?

POX. —Ez dakit nik zertarakorik. Bañan sinistu nai ba'du sinistu beza... Bere amari kendu zizkionak, bedorri ere kenduko al'dizkio...

PRAI. —E...? Bere amari...?

POX. —Bai, bere ama-amari... Onelaxe etorri zan bein bazkaltzera ta belarririk gabe joan zan gajua etxera.

PRAI. —Kontu-artzeko gauza da beraz...?

POX. —Bedorrek jakingo du orain zer egin... esateko lotsa izan det, bai... bañan esateko gauza dala, iruditzen zaidalako, esan diot, aita ta barkatu...

PRAI. —Ez dego zer barkaturik... Orrelako gauzak esan egin bear izten dira beti... Kutxilloak zorrozten asten danean, esan dezu. Ez da ala...?

- POX. —Bai, aita...
- PRAI. Bitartean ez dago bildurrik beraz...—
- POX. —Bitartean ez... Baña kutxilloak zorrozten asten danean iges egin gero...
- PRAI. —Nere kontu, bai...
- POX. —Agur, ba...
- PRAI. —Eskerrik asko, emakume.
- POX. —(Jendeari) Zer edo zer burutu zaidanean, ez naiz asarre.. Orain ez det bildurrik...

Iruditegitik irtengo da Poxpolin.

- PRAI. —Gizon ontzat nuan nik erri ontako erretore jauna. Bañan ez da nik uste nuan bezein ona... Apaiz batek oitura ori izan bear zuanik ere...! Egia esan bear ba'det, ezin sinistu det... Ondo ote dago gero emakume ori...? Ondo ba'dago ala ez, obe det ala ere erne ibilli... Ta nun ote da apaiz jauna? Zertan ori ote da...? Iges egingo ote det...? Eta bide erdian topo egiten ba'degu...? Kutxilloak zorrozten asten ez dan artean, ez da bildurrik. Asi bezein laister iges egingo dior bai... Belarriak nik emen utzi...? Ez orixe...! Ez bat eta ez bi...! Emen da bera... Ez al'dit ezer igarriko...

Iruditegian agertuko da Apaiza.

- APAIZA. —Ta...?
- PRAI. —Ementzen bedorren zai...
- APAIZA. —Uste gabe luzatu egin naiz, bai...
- PRAI. —(Jendeari) Ai, geixego luzatu ba'litz. Ez nintzan orain emen izango...
- APAIZA. —Eseri ta bazkaltzen asi gaitean... Ez al'du oraindik zoparik ekarri...?

Esku bakoitzean kutxillo bat artuko du. Zutik jarriko da bat-batean Praillea.

Baña, zer dezu, aita...

- PRAI. —(Pixka-bat lasaitu ta). Ez da ezer, jauna... Noizean bein onelako min batzuek izaten ditut sabelean, da... (Jendeari). Au bildurra, jaun-andreak... Ez dit gaurko bazkari inek onik egin bear...

Zopakín agertuko da Poxpolin.

- APAIZA. —Ia, azkar-azkar ibiltzen zeran, Poxpolin. Jaun onek presa emen du ta.
- POX. —Bai, jauna. Nere kontu... (Jendeari). Nere eperren zai baldin ba-dago...

Iruditegitik irtengo da Pozpolin.

- APAIZA. Asi gaitean ba... (Aita'ren egingo dute biak) On egin daigula.
- PRAI. —(Jendeari) "Aitaren" eta guzti ez dit gaur neri bazkari onek on oundirik egingo...

Jaten ari dirala.

- APAIZA. —Eta Arantzazu aldean zer barri...?
- PRAI. —An oso ederiki, jauna. (jendeari) Emen gaizki ordea.
- APAIZA. —Aspaldi onetan ez naiz an izan. Ez joateko gogorik ez daukadalako. Lanak, ordea...
- PRAI. —Bai, bai... Onelako erri batean lan aundiak izango dira noski... (Jendeari) Arnasa artzeko betarik izango es ba'iu, obe... Bestela an det noizbait Arantzazun.

Ogi-koxkor bat ebakitzeko, kutxilloa artuko du Apaizak. Bildur-bildurrez jeikiko da berriz ere Praillea.

- APAIZA. —Baña, aita...
- PRAI. —Ez, ez'da ezer... (Jendeari) Orain arteraño sartu dedan zopa aotik irten ez zaidanean...



- APAIZA. —Min zorrotzak izango dira min oiek. Ez da ala...?
- PRAI. —Bai, oso zorretzak, jauna. (Jendeari) Ala ere onen kutxilloak nere miñak bezelakoak ba'lira, ez nuke, ez, bildur aundirik izango...
- APAIZA. —Eta zergatik diran edo, ez al'dakizu, aita...?
- PRAI. —(Berekiko) Jakin ez...! Ondotxo ala ere... Zuk dezun genio ori ez ba'zenu... (Apaiza'ri) Ez ba, jauna. Sendagille askokin ibilli naiz, baño alperrik... Ez didate sekula gauza garbirik esan... (Jendeari) Noiz bukatuko ote da bazkari au...?
- APAIZA. —Bañan nun ote da gure neskame ori... Zertan ari ote da orain ere... Ori emakumea...!
- Bi kutxilloak artu ta kutxilloak zorrotzen esiko da Apaiza. Jeiki ta iges egingo du bat-batean Prailleak. Zer esan ez dakiala geldituko da Apaiza.
- Bañan zer du orrek...? Burua galdu ote du... Jesus, milla bider...!
- Jeiki ta kanpo aldera joaten asiko da Apaiza. Ateatean Poxpolin'ekin topo egingo du. Negarrez etorriko da Poxpolin. Ontzi uts bat dakar esku-artean.
- Ara berriz...! Zer dezu emakume...?
- POX. —Prailleak, jauna...
- APAIZA. —Prailleak, zer...? Jo egin al'zaitu...?
- POX. —Ez, jauna, ez nau jo...
- APAIZA. —Zer egin dizu ba...?
- POX. —Eperrak arrapatu...!
- APAIZA. —Eperrak arrapatu...?
- POX. —Bai, jauna... Onera nekartzen... ta ontzitik arrapatu ditzkit! (Leiora begiratu ta). Ara an nun dijoan bi eperrekin...
- APAIZA. —(Leiora joan da...) Biak ez ba'dira ere, bat utzi zaidazu beintzat...!

- PRAI. —(Kanpotik). Ez bat eta ez bi...!
- APAIZA. —Aditu ere, ez du aditu nai. Eskuak belarrietan jarri-ta ez bat eta ez bi, dio lotsababeak...
- POX. —Lotsagabea alakoa...! Nork esan ori praillea danik...? (Apaiza'ri). Beste zerbait gertatzerik nai al'du bedorrek...?
- APAIZA. —Ez, Poxpolin... Joan ziran nere gaurko goseak... Agur bat...

Iruditegitik irtengo da Apaiza.

- POX. —Agur bai... (Bakarrik) Malko ta abar ez naiz ain gaizki gelditu... A zer algarak egin bear dituan Prakax'ek, kontu guzti auek esaten dizkiodanean... Ja... Ja... Ja... Nork ez du ba parre egingo...? Praille gizajoa...! A zer estutasunak igaro dituan... Ona nago ni neskazar gelditzeko...!
- Bañan, jaun-andreak, zuek ez dakizute praille gizajoari zer gertatu zitzaion Arantzazu-bidean... Entun ba arretaz... Goserik il bearrean iritxi zan noiz-bait basarri batera... Sukaldera sartu zanean, ez zan an jatekorik agiri... Ume-gorri bi zeuden sukaldean... Alako batean eta tximinitik zintzilika, urdai-zati ximel bat ikusi zuan... Zerbait zan ura ere... Prejitu ta jatean asi zanean, asi ziran eme biak negarrez... Zer dezute umeak, galdetu zien prailleak... Zer degun?, erantzun zioten umeak. Guk esango diogu bai aitari... Zer esan bear diozute ba...? Amandreak sudurrean duan erlekistena igurtzitzeko zeukan urdai-zatia, bedorrek jan duala... Bai... e...? Ta jaiki, zartagia ostikoz jota Arantzazu'ra arte, ez omen zan inun gelditu gure praillea... A... eta Prakax... Ez al'da orain erantzutekotan gelditu...? Noiz ezkonduko ote gera...? Il onen buruan bai... Baiez esaten dit biotzak...
- PRAKAX. —(Kanpotik) Pexpolintxu adi zan nere erantzuna,  
nere erantzuna,  
nere erantzuna...

POX. — Igandean nai ezker  
Prakax maitea,  
Prakax maitea  
lenengo deia...

PRAKAX. — (Kanpotik) Mutil zarra gelditzeko  
asmoetan ni,  
asmoetan ni,  
asmoetan ni...  
Neskazarra gelditzera  
obe den ba ik,  
obe den ba ik,  
obe den ba ik...!

POX. —Ai ez...! Ez Prakax... nik ez det neskazar gelditu nai...  
Ni ez neskazar...!

Korde-gabe eroriko da.  
Zapia laister...

1936 - VII - 21

## TRABENAN...

ERRI-IPUI BATETIK ATERATAKO ANTZERKITXOA

ANTZEZ-LAGUNAK:

MIGEL ANTON  
KATALIN  
PRAKAX  
IJITO-EMAKUME BAT  
KAIKU  
TALO  
TRIPUSTEL  
BASARRITAR BAT

## I

*Migel Anton eta Katalin*

- MIGEL ANTON. — (Trabena txukundu ondoren) Bapo zio! Orain pintto-pintto jarri ta... perira... Kattalin! Kattalin!
- KATTALIN. — (Barrutik) Zer?
- MIGEL ANTON. — Atoz oneraño.
- KATTALIN. — (Sartzearekin batera) Au gizona, au! Ez dit arnasarik artzen ere utziko! Zer nai dezu?
- MIGEL ANTON. — Ona trabena txukunduta... Banoa ni orain...
- KATTALIN. — Nora, ordea?
- MIGEL ANTON. — Nora? Billapranka'ko perira! Gaur asteazkena danik ez al dakizu ba?
- KATTALIN. — Jesus, Maria ta Jose! Ba-dezu zuk, izan ere, egunero zerbait! Asleenetan, ez dakit nun peria dala-ta, an izan bear dezu zuk nai ta nai ez. Astearteetan zer esanik ez dago, Beasain'en peria dala-ta, an zera zu muturrez aurrera. Asteazketan Billapranka'n dala-ta, kito! Osteegunetan ba-dezute, beti aari edo idi aposturen bat. Ostiraletan ere, etxetik alde egiteko etzaizu, iñoiz, aitzekirik palta izaten. Ta larunbateetan, Tolosa'ko peria iñungoa baiño obea dala-ta, nola ez zera, ba, joango zu...
- MIGEL ANTON. — Eta igandetan?

- KATTALIN. —Igandeetan ere, naiago izaten dezu zuk, mostradorean egon baiño, zu bezelako alproja batzuekin, orko mai orretan, jokuan egotea! Jesus, Maria ta Jose! Au gizona, au! Ta gero, urtearen azkenean, negarra ugari, irabazirik izan ez degulata...
- MIGEL ANTON. —Mostradorean zaudenean kontu geiago izango ba'zendu, irabaziak ere izango giñuzke.
- KATTALIN. —Ori ere bai? Galduen errua nerea beraz? Zergaitik ez zera zeorri egoten, alproja —gezurti— galanta!
- MIGEL ANTON. —Bueno, bueno! Utzi ditzagun berriketa auek alde batera ta guazen bakoitza gure lanera, Gaurkoatik beintzat, mostradoreko gora-berak, zuk ibilli bearko dituzu.
- KATTALIN. —Gaurkoatik diozu? Biar, ere, izango dezu zuk zerbait.
- MIGEL ANTON. —Biakoak biar! Gaurko zure eginbearra, zer dan, ba-dakizu. Baxoerdi añeko guztiak ondo kobratu gero. Ta biar ordaintzekotan zerbait eskatzen ba'dizute, biar emango diezula, erantzun. Eta banoa ni perirako prestatzera. Ba'dek oraintxe ordua ta... (Bijoa)

## II

### *Katalin*

Eta zer iruditzen zautute zueri jokaera au! Egia da, bai, zenbait eta alproja aundiagoa izan bat, orduan eta exigentzi aundiagoak izaten dituala. Ai, berriz ezkondu bearra izango ba'nu! Ez

nuke, ez, ori bezelako alprojarik aukeratuko. Ez orixe! Eta alproja izatea da gutxiena... Orrezaz gaiñera, irabazi bearrean, galdu egiten dala-ta, nik noski, errua. Ta dana, sarri-xamar, batzuen batzuk ordaintzeke iges egiten didatelako. Ta ori dala-ta, ni ote naiz, ba, errudun? Ni bezelakoak ba'lira danak, ez litzake orrelakorik gertatuko, ez! Dana dala, batzuen batzuk nere kontura bizi izan ba'dira gaur arteraiño, gaurtik aurrera ez da iñortxo, ere, nere kontura bizi izango... "Agur" arteraiño guztiak ordaindu bearko dizkidate, gaurtik aurrera. Bai, orixe!

## III

### *Katalin eta Prakax*

- PRAKAX. —Arratsalde on, Kattalin. Xu al'xaitugu, gaur ere, dendari?
- KATTALIN. —Ee?
- PRAKAX. — (Dantzari)
- Iru damatxo  
donostiarrak,  
Errenderian  
dendari...*
- KATTALIN. —Berriketa gutxi. Zer nai dezu?
- PRAKAX. —Axarre al xaude, Kattalin? Xer naiko det, ba, nik, Kattalin? Orain baxoerdi bat ardo ta gerroxego bexte baxoerdi bat xagardo...
- Donostia'ko  
Gaztelupe'ko  
xagarduaren  
goxoa...*

*bertan edaten  
ari nintxala,  
auxi xitxaidan  
baxoa.  
Eta krixkitin, kraxkitin...*

- KATTALIN. —Bueno, bueno! Ba al dezu dirurik?  
PRAKAX. —Larrosa krabelin...  
KATTALIN. —Ba al dezu dirurik, bai edo ez?  
PRAKAX. —*Auxi xitxaidan  
baxoa.*  
KATTALIN. —Zoaz emendik. Zure berriketa auekin ez det ezer egiten-eta.  
PRAKAX. —Ex exandakoak edangabe beintzat!  
KATTALIN. —Ta dirurik bai al dezu?  
PRAKAX. —Dirua? Nai exta nik dirua, Kattalin. (Poltzikotik dirua atera ta Kattalin'eri erakutsiaz).

*onela ba'giña beti,  
onela ba'giña beti  
onela ba'giña beti,  
ondo giñake, Kattalin.*

Ea, baxo-erdi bat ardo Kattalin...

- KATTALIN. —Tori.  
PRAKAX. —(Txakur aundi bat mostradore gañera bota ta dan-tzari).

*A, a, a,  
ardo goxo naparra*

.....  
.....

Nere abextiak gustaxen al xaixkizu, Kattalin?

- KATTALIN. —Oso!

#### IV

*Kattalin, Prakax eta ijito-emakumea*

- IJITO-EM. —Bi arrealean pattarra. (Ta errealeko bat utziko du mostradore gañean. Kattalin'ek zer dan ikusi gabe, kajoian sartuko du errealekoa).  
KATTALIN. —Tori! (Ta peseta bat eman ba'lio bezela, bost txakur aundi bueltako dizkio Kattalin'ek).  
IJITO-EM. —Barkatu, baiñan deskuidatu egin zera, emakumea. Bi pesetako eman dizut.  
KATTALIN. —A, barkatu. Ez naiz fijatu ere egin eta. Tori, ba, peseta bat eta kito.  
IJITO-EM. —Agur, etxekoandra.  
KATTALIN. —Agur eta ondo ibilli.

#### V

*Kattalin eta Prakax*

- PRAKAX. —Baiñan, Kattalin...  
KATTALIN. —Zer dezu, Prakax?  
PRAK. —Baiñan, xer egin dexu?  
KATTALIN. —Zer egingo nuan, ba?  
PRAK. —Xer egin dexun? Emakume orrek ex dixu bi pesetakorik eman, Kattalin.  
KATTALIN. —Ee?  
PRAKAX. —Ex, emakumea, ex! Errelekoa eman dixu. Begi-ra xaxu kajoira.

KATTALIN.

—(Kajoirā begiratu ondoren) Egia...! Jesus, Maria ta Jose...! Ori emakume lotsagabea! (Ta ijito-emakumearen atzetik abiatuko da). Ba-zuan, bai, ijito-arpegia. Ai, nik arrapatzen da'det... Ez ru tximarik orrazten lan aundirik izango... Zer uste ote du orrek? Lapurretan zillegi dagoala edo? Bai, nai ba'du... baiñan ez gure etxean... (Eta mar-mar onekin irtengo du iruditegitik).

VI

*Prakax*

PRAKAX.

—Au xuertia! Noix ikusi ote dek ik, Prakax, ire burua trabena baten jabe... Aufa! Orain nai aiña baxo-eradi edan eta iñori ordaindu bearrik ex!

*Onela ba'giña beti,  
onela ba'giña beti,  
onela ba'giña beti,  
ondo giñake, Kattalin...*

Baiñan, xer ote diat nik obe... Baxo-erdiak edaten axi edo botellaren bat bete, ta ura bexapean dedala, baxtarren batera igex egin... Bai, botellaren bat betetxea, obe ixango diat, bai. Ona emen botella ederra. Orain xagi-ardora joan eta a, bai...

*Matxaren orpotik dator  
mama goxua,  
mama goxua...  
Edango neukela,  
beterik baxoa.  
Klink!  
beterik baxoa.*

(Migel Anton agertuko da atean. Prakax'ek ez du, ordea, ikusiko). Eta ez bat bakarrik Ogeiren bat bai gitxienez. Au xuertia! Migel Anton perira joan xaigu ta Kattalin ijito-emakumearen atzetik...

VII

*Prakax eta Migel Anton*

MIGEL ANTON.

—Zer diok, Prakax.

PRAKAX.

—(Botellea eskuan duala). Xu al-xiñan, Migel Anton...? Xea... Bai... Ardoa... Xea... Bai... Bai...

MIGEL ANTON.

—Nun dek, Kattalin?

PRAKAX.

—Kattalin? A, bai! Xea, ijito-emakumea bat etorri xaio box xakur aundi pattar exke, ta errealeko batekin ordaindu dixkio pattarrak.

MIGEL ANTON.

—Ee...?

PRAKAX.

—Bai, Migel Anton, bai... Xea, gaiñera, xea... xaxpi erreal buelta dixkio, gaiñera, Kattalin'ek...

MIGEL ANTON.

—Ez dek egia izango!

PRAKAX.

—Bai, egia da, neronek ikusi det-eta.

MIGEL ANTON.

—(Asarre bizian). Nun dek, Kattalin? Nik kenduko zioat gaur bizia, petral orrei. Noruntz joan dituk? esaidak azkar. I ilko aut bestela...

PRAKAX.

—Ni ex, Migel Anton! Ni ex!

MIGEL ANTON.

—Noruntz joan dituk, ba? Esaidak azkar...

PRAKAX.

—Oruntx, oruntx... (Eta korrika abiatuko da Migel Anton).

## VIII

*Prakax*

PRAKAX.

—Aaaa... Au laxaitaxuna... Oraingo onetan il ex naixenean, ex naix xekula ere ilko. Nundik xortu ote da Migel Anton? Pillapranka'ko perian ixango xala uxten nuan nik, baiñan ex, emen xan, xobra ere. Xer egin bear det nik orain? Bein ixango trabena baten jabe ta bertan edan-gabe joan bear ote naix? Ta botella au eramango ba'n u? Igarriko ote lioke Migel Anton'ek? Eta Kattalin'ek? Eta botellarekin arrapatxen ba'naute? Orduan, bai, nereak egin xuala! Ex! Banoa ni emendik... Bai, urrengoan edan bear ko ditut ardo ta xagardoak. Ex naiz xorionerako jaioa... Negarra det begietan. (Itun-itun). Agur, ardo goxo naparra! Agur, Gaxtelupe'ko xegardua! Agur, nere bizitxeko maitale biak! Agur! agur! agur! (Bijoa. Ta iñortxo ere gabe geldituko da trabena une batzuetan. Gero, Kattalin...).

## IX

*Kattalin*

KATTALIN.

—(Mar-marretan sartuko da). Emakume petrala, lotsagabe alakoa, lapurra! Nun ote aiz onuzkerro... Ez aiz, ez, onera agertuko. Ez den bestela tximak orrazten lan aundirik izango. Likitxa! Errealekoa eman eta bi pesetako eman didala esan... Eta Prakax? Nun ote da beste alproja ori? Ez dedilla nere begi aurrera etorri... Ez du ardorik edaten lan aundirik izango-ta. Emen

gertatu dana, Migel Anton'eri esateko, nork, esan dio orrei. Ori dala ta ez dala, entzun dirut nik, nereak eta bost. Bertan il ez nauenean, nere Migel Anton asto orrek. Eta Prakax lukainka orregatik dana. (Mostradore gaiñean, Prakax'ek utzi duan botellea ikusita). Ene, Jesus! Nor ibilli ote da botella onekin? Au ote da, ba, Prakax betetzen ari zana. Arrapatu egin nai ote zuan, ba? Ez da emen berriro agertuko, ez! Txotxolo petrala! Besterenak esan, bai, bereak gordeko ba'ditu ere... Ta Migel Anton. A zer gizona ori ere! Prakax lapurretan ikusi ta ez zion bekaiñeko bat emango... Ta arek arrapatu duan arduaren errua ere, nik izango det noski! Aspertu naiz ni trabena onekin. Eta ba noa ni sukalde aldera...

## X

*Kaiku, Talo ta Tripustel*

KAIKU.

—(Trabenara begiratu ondoren). Etzegok iñor, mutillak. Zenbait diru daukazute?

TALO.

—Erreal bat nik.

KAIKU.

Beste erreal bat nik.

TRIPUSTEL.

—Eta nik beste bat, iru erreal.

TALO.

—Botella bat sagardo edateko aiña ba diagu beintzat.

TRIPUSTEL.

—Eta erreala sobratu gaiñera...

KAIKU.

—Ekatzute zuen dirua ta iru erreal auekin, sagardoaz gaiñera, merienda eder bat emango dizuet nik.

- TALO. —A zer meriendea!
- TRIPUSTEL. —Ez dek, ez, ederra izango. Erreal batekin...
- KAIKU. —Bueno...Nere kontura utzi zazute zuek ori ta kito!! (Txaloak joaz) Eup...!

XI

*Kaiku, Talo, Tripustel eta Kattalin*

- KATTALIN. —(Larri). Ene! Orain ere utzi det, ba, nik, iñor-txo gabe mostradorea! Ez naiz eskarmentatzen erreza.
- KAIKU. —Sagardorik ba al dezute?
- KATTALIN. —Bi errealeetan botellea.
- KAIKU. —Ekarri zazu, ba, botella oietako bat.
- KATTALIN. —(Botella billa dijoanean) Eskatu, bai, azkar eskatzen dute danak ordaintzekoan izaten dituzte, ordea, larriak Zer jende modu ote degu au. (Botellea emanaz). Torizute.
- KAIKU. —Bi erreal esan al dituzu?
- KATTALIN. —Bai, ala esan det.
- KAIKU. —Tori, ba, iru erreal. Erreal bat propiña.
- KATTALIN. —Eskerrik asko! Ez dira onera zuek bezelako asko etortzen. Onelaoak bear luteke gizon guztiak. Milla esker, gazte. (Jendeari). Noiz-bait ere etorri bear zuan jende ondraduak etxe onetara. Auen bildur ezin izango naiz. Gelditu ditezela, ba. emengo nagusi ta banoa ni, berriro ere, sukalde aldera... (Bijoa).

XII

*Kaiku, Talo ta Tripustel*

- TALO. —Eta meriendea, Kaiku?
- KAIKU. —Ordainduta utzi zioat.
- TRIPUSTEL. —Ordainduta? Noiz, ordea?
- KAIKU. —Oraintxe. Etzioat, ba, erreal bat geiago eman?
- TALO. —Propiña moduan, ordea.
- KAIKU. —Etziok ajolik. Propiña moduan edo nola-nai dala ere, nik meriendea ordaidu zioat eta kitto!
- TALO. —Ai. Kaiku! A zer nolako kaiku aizen!
- TRIPUSTEL. —Gure meriendeak egin dik, Kaiku.
- KAIKU. —Zuek bai uste. Gaur aifeko meriendarik ez diagu guk sekula egingo. Ta gutxiago ordainduta-korik ere ez! Ikusiko dezute.
- TALO. —Bai, ikusiko diagu, bai.
- KAIKU. —Eta orain, ekin kantari.
- (Errikoi-abestiren bat abestuko dute irurak. Sagardo-botellea edango dute bitarrean. Abestia bukatu bezein laister, txaloka ekingo dio Kaiku'k).
- TALO. —Baiñan, zer egin bear dek, Kaiku?
- KAIKU. —Zer egingo diat, ba, meriendea eskatu.
- TRIPUSTEL. —Ta ordaintzeko dirua?
- KAIKU. —Ago ixillik, motel. Leen ere ez al diat, ba, ordaindu.



XIII

*Kaiku, Talo, Tripustel eta Kattalin*

- KATTALIN. —Zer nai zenduten?
- KAIKU. —Gaur bezelako egun gutxi izan oi dirala-ta, merienda on bat egin nai genduke.
- KATTALIN. —Egun ona dezute, beraz, gaurko egun au. Nerezat ez da, ba, oso ona izan, orain arteraiño beintzat.
- KAIKU. —Guretzat apartekoa da, ba, emakume. Gu geran bezein lagunak, ez dira beste iru izango munduan. Eta gaurko egun au, gure bizitzako egunik pozkarriena da irurontzat. Entzun, etxekoandre. Gaur dira ogeta bi urte ni mundura etori nintzala.
- KATTALIN. —Zorionak, ba.
- KAIKU. —Eskerrik asko! Beste oneri, berriz, (Talo'gaitik) loterie erori zaio gaur.
- KATTALIN. —Eta asko tokatu al zaio?
- KAIKU. —Millaka peseta, etxekoandre.
- KATTALIN. —Poozten naiz.
- TALO. —Eskerrik asko.
- KAIKU. —Eta biar ezkontzen zaigu beste ori berriz. Ez dabil, ba, arro mutilla. Eun duro bota bear dituala gurekin eta.
- KATTALIN. —Ara bestea! Jesus Maria ta Jose! A zer irukoa!

- KAIKU. —Orain meriendatu egin nai genduke ta...
- KATTALIN. —Nola ez, ba, nola ez! Eta merienda on xamarrara naiko dezute gaiñera.
- KAIKU. —Bai, noski. Onelako egun gutxi izan oi dira-ta.
- KATTALIN. —Ez diozu gezurra. Ta zer artu nai dezute.
- KAIKU. —Ori zuk esan bearko dezu, etxekoandre.
- KATTALIN. —Arrautza pare bana urdai zati batzuekin edo.
- KAIKU. —Ez dago gaizki. Ardo ona, ere, izango dezute noski.
- KATTALIN. —Bai, primerakoa.
- KAIKU. —Bueno, ba. Ea lenbaitlen ekartzen dizkiguzun, etxekoandre.
- KATTALIN. —Bai, bai. Bereala naiz emen, berriro. (Jendeari). Leen galdutako errelakoak, auekin atera bear ditut. (Bijoa).

XIV

*Kaiku, Talo ta Tripustel*

- TALO. —Baiñan zertzuk esan ditut, Kaiku?
- TRIPUSTEL. —Ta nola ordaindu bear dek orain eskatu dekan merienda au?
- KAIKU. —Leen ere esan diat. Ordainduta zegok meriendea. Ta oraingo jardun au, propiñea.
- TRIPUSTEL. —Gaur ez gaituk etxeratuko.
- KAIKU. —Zergatik ez, ba?
- TRIPUSTEL. —Emendik kartzelara joan bearko diagulako.

- KAIKU. —Kartzelara... Bildurtia aiz, benetan, Tripustel. Ik egin zak nik esango didana ta ortik aurrera-koa, nere kontu.
- TALO. —Ta zer egin bear diagu, ba, guk?
- KAIKU. —Zuek ezer ez. Orain beintzat, meriendea ekartzen duanean, apetitu onarekin jan eta gero, kontua ekartzen duanean, batek beste bien kontua ordaindu nai duan papera egin. Gogor, ordea...
- TALO. —Besterik ez?
- KAIKU. —Besterik ez...!
- TRIPUSTEL. —Eta...?
- KAIKU. —Ik agindutakoa egin zak, eta kitto!

XV

*Kaiku, Talo, Tripustel eta Kattalin*

(Etorri ta plater, baso, ogi, ardo ta abar ipiñiko ditu mai gaiñean).

- KATTALIN. —Oraintxe ekarriko dizutet meriendea. (Maia txukuntzen ari dan bitartean). Ipiñi dizkizuten erautz auek, oso arrautza preskoak ziran eta ba'dakizute.
- KAIKU. —Bai, bai, bai...
- KATTALIN. —Urdaia ere, emen inguruetan dezuten urdairik ederrena dezute. Ardoa berriz... Naparro'tik zuentzarako "apropos" ekarria, ta auek guztiak, ba'dakizute... nai-ez ta ere... kontua igo egiten dute.
- KAIKU. —Zuk ez zazu kontuaren ardurarik izan. Gauza onak ipiñi itzatzu ta kitto. Amar peseta geiago

dala kontua? Ta gari zer! Nai-ezta dabilkigu gaur dirua patrikan. Ez zaitte, ba, kontuarekin esutu, emakumea. Eskatzen dezun guztia, ordainduko dizugu. Ta orrezaz gaiñera, propiña on bat.

KATTALIN.

—Eskerrik asko. (Jendeari). Au bai dala suertea! Nere bizian lapurtu dizkidaten peseta guztiak, iruko onetatik atera bear ditut gaur. Ba noa, gazte aueri meriendea ekartzea. (Bijoa).

XVI

*Kaiku, Talo ta Tripustel*

- TRIPUSTEL. Aizak, Kaiku. Gu aberatsak geralakoan zegok emakume ori. Ez al'dek ala...
- TALO. —Laister ezakutuko gaituk, ba.
- KAIKU. —Bai nai ba'dik. Ajola gutxi neri, ordea.

XVII

*Kaiku, Talo, Tripustel eta Kattalin*

- KATTALIN. —(Meriendakin datorrela). Au merienda goxoa! Usaiarekin bakarrik jan leike ogi zati aundi bat. Ez nik gertatu dedalako, baiñan Donosti'ko edozein baztarretan, emen aiña lau ordaindu bear-ko zenduteke merienda au. Izan ere. Donosti orretan, jana baiño askoz geiago ordaindu bear izaten da luoja, ta...
- KAIKU. —Egia diozu. Bein batean, orduan ere irurok gain, xarrada bana jan genduan ango trabena ba-

tean. Ez genduan litro bat ardo edango, ta ez dakizula zenbait kendu ziguten?

KATTALIN. —Zenbait ba? Bosten bana peseta?

KAIKU. —Bai zera! Amabost bana peseta, alabatxu!

KATTALIN. —Ene Jesus, Maria ta Jose! Ori lapurreta izango da noski. Eta ordaindu egingo zenioten?

KAIKU. —Zergaitik ez, ba! Baita ogeta-amar eskatu ba'ziguten ere. Gu ez gera orrelako okasiotan diruari begira egoten.

KATTALIN. —Patrika beroa izango dezute-ta. Bestela beintzat...

KAIKU. —Ez degu, ez oso otza izaten. Ala ere, gaur aiñeko beroa ez degu sekula izan.

KATTALIN. Obe, obe...

### XVIII

*Kaiku, Talo, Tripustel, Kattalin eta Basarritarra*

BASARRITARRA. —Arratsalde on. (Iru gazteeri). On egin deizutela. Ea, etxekoandre, baxoerdi bat nai nuke nik.

(Mostradore gaiñean txakur aundi bat utziko du).

KATTALIN. —Or naiz. Peritik...?

BASARRITARRA. —Bai, an izan gera, ba...

KATTALIN. —Tori baxo-erdia. Ta zer modutako peria izan da, ba... Jende asko izan al da?

BASARRITARRA. —Ganadu ona baiño jendea geiago.

KATTALIN. —Ain ganadu txarra al dabil, ba?

BASARRITARRA. —Ez, ez, ez... Ganadu onak, ere, ikusten dira. Bazan gaur ere, aukera ona, bai.

KATTALIN. —Ala ere, ganadu ona baiño jende geiago izan da-la, esan dezunean...

BASARRITARRA. —Zerbait esan bear, ba.

KATTALIN. —Bai, bai. Ala da.

BASARRITARRA. —Bueno. Agur!

KATTALIN. —Agur, ba. (Kattalin ere sukalde aldera joango da)

### XIX

*Kaiku, Talo ta Tripustel*

KAIKU. —Ederra ez ba'ziok, mutillak!

TALO. —Bai, meriendea ez zegok txarra, baiñan ..

KAIKU. —Zer "baiñan"...

TRIPUSTEL. —Ordaintzean izango zituagula lanak.

KAIKU. —Zaudete ixilik. Nik leen esandakoa egiteko prest al zaudete?

TRIPUSTEL. —Zer, leen esandakoa...

KAIKU. —Aaztu al zaik. Nik kontua eskatzen dedanean, badakizute zer egin, e?

TALO. —Bai, motel, bai. Bakoitzak beste bien meriendea ordaindu nai duan papera egin. Ez alde onela, Kaiku?

KAIKU. —Baiñan gogor. Asarratu arteraño, e? Ta gero-koak nere kontu.

TALO. —Bai, Emengoak egin zituagu, beintzat.

KAIKU. —Ondo ziok. Kontua eskatzera nijoak orain, eta badakizute.

TRIPUSTEL. —Au bildurra!

KAIKU. —(Bi txalo jo ta). Etxekoandre...

XX

*Kaiku, Talo, Tripustel eta Kattalin*

KATTALIN. —(Barrutik). Bai, banoa. Zer nai zenduten?

KAIKU. —Ea zer zor degun, ba...

KATTALIN. —Ara, ba. Leen, ere, esan dizutet eta, arrautzak preskoenak, urdaia ederrena, ta ardoa, ere, zuentzako apropos Naparro'tik ekarria ta kontua, noski...

KAIKU. —Ez orren bildurrik izan, emakumea.

KATTALIN. —Bederatzirena peseta, geiegi iruditzen ez bazaizute...

KAIKU. —Ez ez. Irurona esan bear didazu.

KATTALIN. —Ogeta zazpi peseta izango dira irurona.

KAIKU. —Bueno, mutillak, gaurko au nik ordaindu bear diat, beintzat.

TALO. —Ez dek orrelakorik egingo. Neri loterie tokatu ta, ik ordainduko ote dek, ba. Ka... motel!

TRIPUSTEL. —Ez ik eta ez ik. Nik ordainduko diat. Ez al neok, ba biar ezkondu bear...

KAIKU. —Biok ixillik. Gaur nere urtebetetzea dek eta neri tokatzen zaidak.

TALO. —Ire urtebetetzea dala-ta, zer? Ez al zaidak neri loterie tokatu?

TRIPUSTEL. —Eta zein ezkontzen dek emen biar? Biartik aurrera ez negok ezkongai izango ta ezingo diat beste orrelako arratsalde bat zuekin igaro.

KAIKU. —Nai dezutena, esango dezute zuek, baiñan nik ordaindu bear diat gaurko merienda au.

TALO. —Ez dek, ba, ordainduko.

TRIPUSTEL. Ez ik ere. Gaurko merienda onek nere kontura izan bear dik-eta.

KAIKU. Ixillik!

TALO. Ez negok egongo.

KATTALIN. Jesus, Maria ta Jose! Ez zaitezte beintzat asarratu. Norberak berea ordaindu dezala, ta kitto.

TRIPUSTEL. Orixe bai ezetz, etxekoandre.

KAIKU. Bueno, ba. Onela jarraitzen ba'diagu asarratu egingo gaituk eta onena... zea izango diagu... Jarri dedilla emakume au begiak estalita, ta gu emen bere inguruan geldituko gaituk Eta emakume onek lendabizi eltzen dionari, arek ordaindu ditzala merienda ta proiñak. Konporme al zaudete?

TALO. Ez oso konporme, baiñan...

TRIPUSTEL. Ez asarratzearren, ori ere egingo diagu, ba

KAIKU. Eta zu, etxekoandre?

KATTALIN. Ni, bai. Zergaitik ez naiz, ba, egongo?

KAIKU. Tira, ba. Ekarri zaiguzu trapu bat begi oiek estaltzeko.

KATTALIN. Tori, auxe bera.

KAIKU. Ea, ba. (Begiak estaltzen dizkio).

Orain gu, emen inguruan jarriko gera ta guk "kuku" esaten degunean, gure billa asiko zera.

KATTALIN. Ondo dago.

(Kaiku'k kiñu bat egingo die Talo ta Tripustel'eri ta irurak iges egingo dute ixil-ixilik. Kaiku'k kanpoko atetik burua agertu ta "ku" esango du).

XXI

*Kattalin eta Migel Anton*

KATTALIN. Zein arrapatuko ote det, ba?  
Nun izkutatu zerate! Batetik bestera iges egiterik ez du, gero, balio...

(Kattalin onela ari dala, Migel Anton agertuko da atean. Kattalin'eri begira egongo da pixka batean. Barrura sartuko da gero, ta Kattalin'ek Migel Anton'eri elduko dio).

Ara, ba, zuk ordaindu bearko dituzu, ba, ogeta zazpi pesetak.

MIGEL ANTON. Ogeta zazpi peseta orain berriz. Ara, Kattalin, zoaz lenbaitlen emendik sukaldera ta ez zaitez, geiago, mostradore onetan agertu.

KATTALIN. (Begietako trapua kenduaz). Ee? Baiñan zu al zera? Nun dira iru gazte oiek? Ez! Ba'noa aien atzetik.

MIGEL ANTON. Zoaz sukaldera ta ez zaite zoko ortatik, geiago, atera.

KATTALIN. Jesus. Maria ta Jose! Au mundua! Onera etortzen diran gizon eta emakumeak, danak berdinak... Danak lapurrak. (Bijoa).

XXII

*Migel Anton*

MIGEL ANTON. Iñoiz ikasi bear nuan eta gaur ikasi det. Bakoitzak bere lanak izan oi ditu munduan, eta nerc emezte onek bere lanetan ez du iñoren inbidirik. Baiñan nere lanak eta bereak, ezin ondo egin gajoak. Nerea da, ba, errua.

ZAPIA

1973-XI-18

# Ogi ta ardo Eduardo

## ANTZEZLARIAK:

|                      |                  |
|----------------------|------------------|
| AITA ANTON ... ..    | Frantziskotarra. |
| AITA KOSME ... ..    | "                |
| AITA NAGUSIA ... ..  | "                |
| FRAY TALAN ... ..    | "                |
| FRAY JUAN ... ..     | "                |
| FRAY TIMOTEO ... ..  | "                |
| FRAY JUSTO ... ..    | "                |
| FRAY ANTONIO ... ..  | "                |
| FRAY MAURICIO ... .. | "                |
| FRAY TITO ... ..     | "                |
| FRAY MARIANO ... ..  | "                |
| FRAY MATEO ... ..    | "                |
| FRAY BARTOLO ... ..  | "                |
| FRAY PASKUAL ... ..  | "                |
| EDUARDO ... ..       | Mutil-koxkorra.  |

- OARRAK:
1. Aita Anton eta Aita Kosme, gaur-eguneko prailleak dira. Antziñakoak beste guztiak. Antziñakoak bezela arloteagoak ere bai, jazkera ta abar.
  2. Ikusleak konturatu ditezen noiz-noizko kontuak diran, Aita Anton eta Aita Kosme iruditegian agertzen diran bakoitzean argiak bizitzea ez legoke gaizki, ta besteak ari diran bitartean argi-gorri antzeko bat ondo legoke ere.

## LENENGO ZATIRAKO IRUDITEGIA

Iruditegiko atzeko-atea, eleizaren sarrerako atea da.

Ur-bedeikatu-ontzia bear du ate onek.

Ikusten eskubi-aldetik sukalderako sarrera ta ikusleen ezer-aldetik baratzarako atea.

Ezker-alde onetan bear du ganbarako eskillarak ere...

Lau edo post aulki ere bear dira...

Baztar batean egongo dira aulki auek asiera-asieratik...

AITA ANTON

—Orain, eunka-urte egiña da gure etxe zaar au. Erdi-erorita zegoan etxe zaar bat omen zan leen emen. Iñortxo ere bizi ez zan etxe bat. Erri-agintarietatik bear zuten baimena iritxi ta iru praille izan omen ziran, erdi-erorita zegoan etxe ortatik praille-etxe... au egin zuten prailleak... Iruren izenak gordetzen dizkigu kondairak... aita Kristobal, gero aita-nagusia izan zana: Fray Paskual, gero atezaiña izan zana ta Fray Bartolo, sukaldeko jirak egiten zitua-na... Asieratik iru ba'ziran ere, laister iritxi ziran amabira... ta amabi izaten dira geroztik etxe onetan bizi izaten diran prailleak. Etxea ere, aiek utzi ziguten bezelaxe daukagu, ikusten ari zeran bezela...

AITA KOSME.

—Ta ori zergaitik, aita Anton...?

AITA ANTON.

—Gauza arrigarri bat gertatu zalako etxe onetan lenengo denbora aietan. Edestiak gorde digun gauza arrigarri bat. Gure aita San Frantxisko'ren denboratan bakarrik gertatu oi ziran bezelako gertatra arrigarri bat... Ez al'dezu ezer entzun izan, aita Kosme...?

AITA KOSME.

—Ez det ezer entzun izan...! Bañan poz-pozik entzungo nuke, aita Anton...

AITA ANTON.

—Luze-xamarra da... bañan bazter auek ikusten ari geran artean, gogoz esango dizut aita Kosme...

Goiz batean, iñork uste ez zuan garai batean, kanpaiaren-ardura zuan fray Talan'ek, aita-nagusia'ren aginduz, batzar-nagusi batera bildu zituan praille guztiak...

Iruditegitik kanpora ertengo dira aita Anton eta aita Kosme...

Fray Talan agertuko da gero... Eskuko-kanpaitxo bat joaz, igaroko du iruditegia bate-tik-bestera... Kanpaitxoa lurrean utzi ta prailleeren batzarrerako, baztarrean egongo diran aulki batzuek antolatzen egingo dio gero...

Amaika praille ta aita-nagusia...

Eserleku berezi bat ipiñi bear dio aita-nagusiari...

Fray Talanek iruditegia antolatzen duan bezain laister agertuko dira prailleak... Leenego bat-bakarra agertuko da: fray Juan...

FRAY JUAN. —(Fray Talan'eri). Zer gertatzen da, fray Talan?

FRAY TALAN. —Nik ez dakit... Batzar-nagusira deitzeko agindu dit aita-nagusia'k eta...

FRAY JUAN. —Batzar nagusi bat ordu onetan...! Arrigarria da...

Bere tokira joango da fray Juan...

Beste lau praille sartuko dira fray Juan sartu dan tokitik... Bata bestearen atzetik sartuko dira ta fray Juan'en ondoan jarriko dira laurak...

FRAY TIMOTEO. —Zer degu, fray Juan...?

FRAY JUAN. —Batzar-nagusia...!

FRAY JUSTO. —Batzar-nagusia ordu-onetan...? Zer gertatzen da ba...?

FRAY JUAN. —Nik ez dakit zer gertatzen dan...

F. ANTONIO. —Fray Talan'ek ez ote daki...?

FRAY JUAN. —Ezetz dio...

F. MAURICIO. —Arrigarria da ba...!

Ontan, eta beste aldetik beste iru praille agertuko dira...

FRAY TITO. —Zer da...?

F. MAURICIO. —Guk ez dakigu...

F. MARIANO. —Okerren-bat ez da ba izango...?

F. ANTONIO. —Ez, guk dakigunik beintzat...

Fray Bartolo sartuko da orain...

Aurreko mantala askatuaz dator.

Kolkoan gordeko du mantala... Fray Talan'en ondoan jarriko da...

FRAY MATEO. Arrigarria da...!

F. BARTOLO. —Fray Talan! Nola leike, ordu-onetan, batzar-nagusia egin!

FRAY TALAN. —Aita-nagusia'k agindu du...

F. BARTOLO. —Aita-nagusia'k... Eta nork ipiñi bear du bazkaria...? Aingeruak edo...? Aza-gordina'k jan bear-ko ditugu gaur. Ez det oraindik surik pistu... Ordu-onetan, sukalde aldean zer lan izaten dan, ez daki gure aita Kristobal'ek. Ez luke bestela batzar-nagusirik ordu-onetan ipiñiko... Dana-dala, bera degu gure Aita-nagusia ta bere agindua ondo agindua izango da noski... Askoz geiago jan-gabe igarotzen degu garizumea ere...

Fray Paskual'ekin etorriko da Aita-nagusia.

Fray Bartolo'ren ondoan jarriko da fray Paskual eta bere eserleku berezian Aitanagusia.

AITA NAGUSIA. —Ordu-onetan batzar-nagusi bat egitea, arrigarria irudiko zaizute noski... ta ala da izan ere... Bañan nai-ta-nai-ez bereala erabaki bear degun auzi bat daukagu esku-artean. Gure ate-zai zintzo dan fray Paskual'ek, berak esango dizute, nik-neronek baño obe, zer gertatu zaion gaur-goizean. Itz egin ba zuk, fray Paskual...

F. PASKUAL. —Ona, ba, emen, nere anaiak, gaur-goizean gertatu zaidana... Fray Talan'ek kanpaia-jo aurretik jeiki naiz. Ez dakit ondo ala gaizki egin dedan, Aita-na-



gusi. Ta eleiz-aldera nentorrela, ume-negar batzuek entzun ditut ate-ondoan. Zer ote ziran negar aiek jakin-naiean, atea iriki ta ume-jaio-berri bat arkitu det ate —atean—. An bertan uzten ba'nuan, otzak ilko zuala-ta, nere gelara jaso det. Aingeruekin ametsetan, an dago gaixoa nere oean. Au izan da dana...

F. BARTOLO. —Ume ori ikustera joango al'naiz bereala, Aita...?

AITA NAGUSIA. —Ez, fray Bartolo...! Umea ikusteko naiko asti izango dezu gero ere. Orain beste zerbait erabaki bear degu... Ortarako bildu zaituztet batzar - nagusi onetan. Ume ori gure artean gelditzea ez zait oso egoki iruditzen... Ez ote genduke bere ama arkituko...?

F. BARTOLO. —Bere ama...! Zertarako...?

AITA NAGUSIA. —Zertarako izango da, ba, fray Bartolo...! Berea du umea ta... berari eman bearke diogu...

FRAY JUAN. —Bere ama-arkitze ori alperriko lana iristen diot nik Aita-nagusi. Leen ere gure etxeko atarian laga izan baldin ba'du, beretzako nai ez dualako izango da noski. Bere eskuetan berriro ipintzen ba'degu, beste baztarren batean legako du. Ta ori... eriotzaren atzaparretan umea uztea bezelaxe izango litzake neretzat.

AITA NAGUSIA. —Ondo diozu, fray Juan. Eriotzaren atzaparretan ezin utziko degu Jaungoikoa'k eman digun ume au... Bañan amaren eskuetan ez ba'da, zergaitik erriko agintarien eskuetan laga ez...!

F. MAURICIO. —Ta erriko agintariak jaso naiko ote dute berea ez duten ume bat...?

AITA NAGUSIA. —Zergaitik ez, fray Mauricio...?

F. MAURICIO. —Umea jasotzea ez dalako naiko. Ume ori azi egin bear dute. Iñude bat bear dute ortarako. Ta iñudeak ez dira gaur ain errez eta ain merke arkitzen. Ta gure erriko agintariak ez dira ain aberatsak...

AITA NAGUSIA. —Gu ere ez gera aiek baño obe arkitzen, fray Mauricio. Guk ere iñuderen bat bearke degu. Ta iñude bat praille-etxe batean...

F. BARTOLO. —Ez, Aita...! Guk ez genduke iñude bearrik izango...

AITA NAGUSIA. —Eta nork aziko luke ba ume ori...?

F. BARTOLO. —Nik, aita...! Ume bat azi edo antxume bat azi, berdin-xamar iristen diot nik... Ta antxumeak asko azi izan ditut. Eder askoak azi ere... Ta esne-paltarik ez degu beintzat aspaldi onetan.

AITA NAGUSIA. —Ez al'da zuretzat lan geiegi izango, fray Bartolo...?

F. BARTOLO. —Ez, aita...! Sukalde aldean ez da lanarik izaten geienetan... Oraindik ez naiz gaurko bazkariakin asi ta ikusiko du nolako bazkari ederta gertatuko detan eguardirako...

AITA NAGUSIA. —Ondo da, fray Bartolo... Ume ori gure etxean dan artean, zu izango zaitugu beraz bere iñude... Bañan ba'da, erabaki barreko beste gauza bat ere... Ume ori bataiatuta dagoan ala ez, ez dakigu. Bada ez bada ere bataiatu bearrean ote gera...?

FRAY TITO. —Nik baietz uste...! Gauza auetan segurotik jokatu bear dala uste det nik...! Ta gai onetan segueroena umea bataiatzea dala iristen diot nik...

AITA NAGUSIA. —Ortan nago ni ere fray Tito... Gaur arratsaldean bataiatuko degu beraz...

FRAY TIMOTEO. —Eta zer izen ipiñi bear diogu, aita...?

FRAY JUSTO. —Aita nagusia'k ez ba du oraindik izenik aukeratu, fray Paskual'ek ekarri digun ume bat dan ezkeru, ume orren izena aukeratzea, fray Paskual'eren gain utziko nuke nik.

AITA NAGUSIA. —Esan dezun ori ez dago gaizki esana, fray Justo... Zer izen ipiñiko zenioke ba zuk, fray Paskual...?

F. PASKUAL. —Neri berdin zait izen bat edo beste ipiñi .. Guztion gogokoa ba'litz, gaurko santuaren izena ipiñiko nioke nik...

F. ANTONIO. —Eduardo...?

F. PASKUAL. —Bai...

F. MARIANO. —Ez dago gaizki...

FRAY MATEO. —Izen polita da...

AITA NAGUSIA. —Eduardo izango da beraz... Goazen orain Eleizara ta argi egin daigula Goiko-jauna'k...

Jeiki ta eleizatariaren "Aita'ren" egiñaz, eleiz-barrura sartuko dira, Talan ez, beste guztiak. Danen-atzetik Aita-nagusia. Ererleuak leen zeuden lekuetan ipiñi ta Aita-nagusia'ren ondoren joango da eleizara fray Talan ere.

Aita Anton eta Aita Kosme agertuko dira leen iskutatu diran baztarretik.

AITA ANTON. —Ontan amaitu zan egun artako batzar-nagusia...

AITA KOSME. —Ta Eduardo'rekin zer egin zuten...?

AITA ANTON. —Zer egingo zuten ba...! Ume ura etxean eukitze-ko-naia garbi asko azaldu zuten prailleak baztar-nagusi artan. Aita Kristobal'ek iriki nai zuan ateari, laister esartzen zioten prailleak maratillaren bat... Ta gure Eduardo praille-etxean azi zan...

AITA KOSME. —Ez zan asarre izango fray Bartolo?

AITA ANTON. —Ez noski...! Bera izan bai zan Eduardo'ren aita. Praille artean, ordea, ez zuan Eduardo'k bere kideko lagunerik izan... Eta bere kideko lagunerik izan ez zualako, etxean edo kanpoan billatzen zituan mamorro guztiak, lagun izaten zituan. Aiekin izaten zituan bere jolasak...! Amaika onelako mamorro ekartzen zituan onera piper-pote batzuetan preso... Jolas-oiekin ume aren biotza gaiztotuko ote zan bildurrez, beti izaten zan mamorro aierri askatasuna ematen zion praileren bat.

Bein, ordea, senar-emazte batzuek agertu ziran etxe onen inguruan. Ta emendik bertara dagoan txabola batean igaro zituzten iru egun. Ba'zuten senar-emazie aiek, Eduardo'ren kideko mutil-koxkor bat. Manuel zuan bere izena mutil-koxkor onek. Alkar ezagutu zuten bi mutil-koxkorak eta baita lagunak egin ere laister. Eta nolako lagunak egitu ziran...! Eduardok bakarrik zegoan guztietan, Manuel izaten zuan bere gogan... eta Manuel berarekin izango ba'lu bezela, Manuel'ekin jardun oi zuan beti...

Iruditegiko beste baztarrean ixkutatuko dira Aita Anton eta Aita Kosme... Bi edo iru piper-pote eskuetan dituala agertuko da Eduardo mutil-koskorra...

EDUARDO. —Igel bat daukat emen... Baratzako putzu-eetxean, eguzkitan lo zegoala... ¡rra!... arrapatu det... Sugandilla bat beste onetan. Zuk ez dezu jakingo, Manuel... bañan sugandilla bateri isatsa mozten ba'diozu, ez da orregatik sugandilla ura iltzen... Eta jira-biraka ibiltzen da buztana, bizirik ba'lego bezelaxe... Biar moztuko diogu isatza sugandilla oneri ere ta ikusiko dezu zuk ere, Manuel, moztatuko buztan ori jira-biraka nola ibilliko dan... Eta irugarren pote onetan...

FRAY TALAN. —Ai, Eduardo... ¡Orain ere piper-ote zaar oiekin...

EDUARDO. —Ta zer, fray Talan...

FRAY TALAN. —Ta zer...?

EDUARDO. —Jolasean ari naiz!

FRAY TALAN. —Jolasean...? Zuk ekarri dituzun pote-guztiak emen laga izan ba'nitu, ez zuan gaur emen kristau batek pausorik emango.

EDUARDO. — (Muturtuta) Ondo dago, fray Talan! Nere pote auek kentzen dituana zu zera beraz... Ondo dago...!

FRAY TALAN. —Zer, Eduardo! Ez dezu nerekin asarratu bear. Ia, Eduardo... Erakutsi zaizkidazu zeere gaurko mamorro oiek...

EDUARDO. —Ez al'dizkidazu kanduko?  
Igel bat daukat pote onetan. Sugandilla bat beste onetan ta irugarren onetan...

F. BARTOLO. — (Mantal eta guzti) Jesus, Maria ta Jose! Nun zabitx gaur, Eduardo...! Zure billa zoratu naiz ia,... Ez al'dezu gaur meriendatzeko gogorik? Ederra egongo da onuzkero zure baso-esnea... Elhiak edan ez ba'dute ezer ez. Zoaz azkar. An dezu ogi zati eder bat ere.  
Poteak baztar batean laga ta sukalde aldera dijo Eduardo.

FRAY TALAN. —Ez dezu mutil makala azi, fray Bartolo. Mamarroak arrapatzeko trebetasun berezia du orrek. Zator bat ekarri digu gaur bere irugarren pote orretan.

F. BARTOLO. —Bai, fray Talan. Azkarra da mutilla. Azkarra ta ona. Mutil ori ain sendo azi bear nuanik ez zuan iñork uste. Zuk ere ez, fray Talan...

A. NAGUSIA. — (Eleizatik etorriko da).— Zertan ari zerate?

FRAY TALAN. —Gure mutil-koxkor orren kontuak esaten.

A. NAGUSIA. —Nun da bera...? Gaur ez det ikusi.

F. BARTOLO. —Meriendatzera bialdu det oraintxe, Aita!

A. NAGUSIA. —Eta zer moduz portatzen zaizu ba, fray Bartolo?

F. BARTOLO. —Ezin obe, Aita. Esandakoak iñork baño obe betetzen ditu. A zer praille-metza izan bear dun gerora...

A. NAGUSIA. —Ala uste zuk...!

F. BARTOLO. —Bai, Aita!

A. NAGUSIA. —Ondo dago, Agur fral Talan...

FRAY TALAN. —Agur, aita.  
(Sukalde-aldean ixkututzen da Aita-nagusia).

FRAY TALAN. —Emen laga bearko dizkiot, gaurkoatik pote auek. Nik kentzen dizkiotela esan diot leen eta asarratu zait ia mutilla.

F. BARTOLO. —Bai ba. Mamorro oiek dira izan ere gure mutillaren jolas-lagunak eta.

FRAY TALAN. —Ondo da fray Bartolo... Nere eginkizunetara noa... Laister izango degu otoitzarako ordua ere ta.

F. BARTOLO. —Bai, fray Talan. Aparia gertalu bear det nik ere  
(Baratz-aldera joaten da fray Talan Sukalde-aldera fray Bartolo, Ate-atean Eduardo'rekin topo egiten du).

EDUARDO. —(Ganbarara begira) —Fray Bartolo. An goian zer dago?

F. BARTOLO. —Ez dezu orutz joan bear, Eduardo. Ez du Aita-nagusia'k zu orutzara joaterik nai.

EDUARDO. —Bañan zer dago or goian fray Bartolo?

F. BARTOLO. —Olakoxe arratoiak... Konejuak bezelakoxeak... Aietako batek eltzen ba'dizu...

EDUARDO. —Ez dit ez elduko! Arratoiak nola arrapatzen diran ondo dakit bai nik...

F. BARTOLO. —Ez dio inportik, Eduardo. Zu orutz joaterik ez du nai Aita-nagusia'k eta... Gizon aundi bat dago or gañera. Bizar beltza duan gizona.

EDUARDO. —Ta zer egiten du ba or, gizon orrek.

F. BARTOLO. —Zer egingo du ba ba?

EDUARDO. —Ta ni joango da'nintz zer egingo lekit.

F. BARTOLO. —Berarekin eraman...?

EDUARDO. —Berarekin eraman! Nora?

F. BARTOLO. —Naiko galdera egin dizkidazu, Eduardo. Aita-nagusia'k ez du nai ta ¡kito! Aparia gartatu bear det nik. Agur, Eduardo...

(Sukalde aldera dijoa fray Bartolo).

EDUARDO. —Agur, fray Bartolo...

(Iruditegiko eserleku batean jartzen da).

Fray Bartolo'k esan dizkidanak aitu al dituzu, Manuel? Konejuak añeko arratoiak omen daude or goian. Pozik ikusiko nituzke nik. Arratoi oietako bat arrapatzea ederra izango litzake ba. Prailleak eleizan dauden bitartean joango al'gera, Manuel? Ez gaitu iñork ikusiko...!

Bizar-beltza duan gizon bat dagaola...? Ta zer egingo liguke guri gizon orrek. Zu bidur ba'zera, gelditu zaiz zu emen. Ni bakarrik joango naiz. Arratoi oiek nolakoak diran jakin nai det nik... Gizon ori ezagutu egin nai det nik...

(Kanpaitxoa-joaz sartuko da fray Talan. Iruditegian jo-aldi bat egin ondoren eleizara joango da.

Bata-besteren ondotik agertuko dira bi alderdietatik, fray Bartolo ez, beste praille guztiak eta eleizara joango dira auek ere).

—(Ots-ateratzeko bildurrez eskillaretan gora, poliki-poliki dijoan artean).

EDUARDO.

—Egon zaiz zu emen, Manuel. Ez bullarik atera. Ni nun nagoen galdetzen ba'dizu fray Bartolo'k, zuk ez dakizula erantzun. Ez dezu nere bildur izan bear. (Eskillera burutik). Emen bizi dan gizon onek ez dit neri ezer egingo... Kontu zuk, Manuel, eta ez otsik atera...

(Ganbarara sartuko da Eduardo. Beti-bezela, presaka ta mantala eziñ gorderik agertuko da Fray Bartolo. "Aita'ren" egin eta eleizara sartuko da. Baita laister Eduardo'ren billa eleizatik atera ere).

F. BARTOLO.

—Nun sartu dala esango zendeque ume ori? Elizan bear luke ta eleizan ez da agiri. Xagu-xar batenbateren atzetik ez ote da joan... Mamorro artean izan bear luke orrek izan ere beti. Orain artean ikuririk egin ez ba'diot ere gaur artu bearko du nere leenengo kaskarrekoa. Ez diot gaur barkatuko...

(Eduardo'ren billa baratz-aldera ertetzen da fray Bartolo).

—(Poliki, bai bañan oso itun etorriko da Eduardo goitik-bera. Manuel-ekin jardungo du eskallera-oñean).

EDUARDO.

Ai, Manuel! Fray Bartolo'k esan bezelako arratoirik ez dago or-goian bañan bizar-beltz-dun gizon aundi ori bai, ori or-goian dago. Ogi puska bat ba' da ere, eraman bear diot. Praileren aparria gertu izango du fray Bartolo'k eta praileren bateren tokitik artuko det ogi-zati bat. Goserik ilko zaigu bestela gizon aundi ori. Ba'noa, Manuel.

(Sukalde-aldean ixkututzen da Eduardo poliki-poliki. Baratz-aldetik agertuko da fray Bartolo).

F. BARTOLO.

—Baratz-aldean ez da agiri. Nun ote dabil bera? (Bat-batean). Ez zan ba or gora ioko? Ortxe dagola are egingo nuke! Ez al'da egia izango! Or ogotea, kaskarreko bat ez... amar, ogei, eun kaskarreko emango diziot. (Eskillaretan gora dijoala). Lotsagabe alakoa! Ganbarara ez etortzeko esan eta ganbarara etorri bear, nai ta nai-ez Ez aiz gaiagotan etorriko Eduardo! (Ganbara-barrura begiratuaz). Ez, ez dago ere. (Eskillarak jeisten asi dala). Nora joan ote zait ba...? Okerreren bat ez zitzaion beintzat gertatuko! Ba'noa eleizara. Ez ark, eta nik, ez degu bestela errezatuko ta. Afaltzera agertuko al'da beintzat.

(“Aita'ren” egin eta eleizara joango da Fray Bartolo).

EDUARDO.

—(Ogi-zati bat eskuan duala). —Laister naiz emen, Manuel.

(Gora igo ta laister jeisten da berriro).

Ezkua luzatu ta ogia eman diotenean, eskerak eman dizkit berak. Goazen gu ere Eleizara Manuel.

(Eleizara joaten da Eduardo).

AITA ANTON.

—Egun artatik beste mutil bat izan zan Eduardo. Ez zuan jolaserako gogorik izaten. Baratzeko mamorroak ez zioten egun artatik bildurririk izan. Fray Talan'ek ere ez zuan emen piper-pote geiago ikusi. Leen Manuel bezela, or-goiko gizona izan zuan bere buruan egun artatik Eduardo'k. Naigabez beteta bizi zan mutilla. Mutillaren naigabe onek naigabez bete zituan praille guztiak ere. Bildurto zan Aita-nagusia ere. Deitu zioan fray Bartolo'ri bañan alperrik. ¡Bere naigabearen sustraia ez zuan azaldu nai izan Eduardo'k. Fary Bartolo gaxoa!

AITA KOSME.

—Zenbait negar ez ote zuan egin gaixoak...

AITA ANTON.

—Ba'zeukan zergaitik negar egin bai. Gauero-gauero ogi zati bat faltatzen zitzaion afari-orduan. Mutillak artuko zuala ta, ez zuan ezertxo ere esan nai. Bañan ez zan lasai bizi. Gau osoak esnarik igaro oi zituan. Egun batean geiago ezin da, Aita-nagusia'ri danaren berri eman bear izan zion. Mutilla zaindu ta ogi-zati arekin zer egiten zuan jakiteko agindu zion Aita-nagusia'k. Aita nagusia'ren agindu au betetzearren izkutatu zan bein jan-gelan. Laister azaldu zan Eduardo. Artu zuan bestetan bezela ogi-zati bat eta ganbara-bidean ekin zion. Baita ere, fray Bartolo'k mutillaren atzetik. Ez zuan onek ikusi zuana, ikusi bear zuanik, uste. ¡Arri-arri egin da gelditu zan.

Bañan berdin ba'zaizu, aita Kosme, ganbaran amaituko det nere edestia, an amaitu zan Eduardo'ren edestia ere ta.

AITA KOSME.

—Bai, aita Anton. Berdin zait. Goazen.

AITA ANTON.

—Goazen ba, aita Kosme.

(Esillaretan-gora ekiten diotenean, Zapia eroriko da poliki-poliki...).

BIGARREN ZATIRAKO IRUDITEGIA

Ganbara zaar bat.

Atzeko atea ganbararen sarrerako atea da. Ba'ditu ezker-eskubitara beste bi ate.

Ikuslen eskubi-aldetik eta ikusleeri aurrez aurre Jesus-gurutz-iltzatuaren irudi bat.

Gurutzetik jeitxi ta egin bear dituala ez aaztu.

Mai eta eserleku zaar bat ere bear dira.

AITA ANTON. —Fray Bartolo'k emen ikusi zuana ez zan siñistekoa... Ez zion Aita-nagusia'k ere bereala siñistu... Irudipen bat izango zuala... Ez zuala ondo ikusiko... Gauza oiek ez dirala orrela gertatzen eta abar, esan zion aita-nagusia'k bañan alperrik...! Berean zegoan fray Bartolo... Batzar-nagusi bat egin bear izan zuten praille guztiak... Eta auxe izan zan batzar nagusi artan artu zuten erabakia: urruno egunean fray Talan'ek otoitzerako deitzen zuanean, eleizara joan bearrean, onera etorriko zirala praille guztiak... Ta emengo baztarretan izkutatu ta emen egongo zirala Eduardo'ren zai...

AITA KOSME. —Eta ala egin al'zuten...?

AITA ANTON. —Ala egin zuten bai...

AITA KOSME. —Ta...?

AITA ANTON. —Praille aiek ikusi zutena ikusi ta, fray Bartolo'k esana ez zan ezer...

Fray Talan'ek joko duan kanpaitxoaren soñua entzungo da.

Entzuten al'dezu Aita Kosme...? Fray Talan ari da kanpaitxoa jo ta jo... Izkutatu gaitezen gu ere... Gure izkututik ikusiko degu guk ere ganbara onetan, egun artan gertatu zan gertaera miragarria...

Alboetako ate baterik ertengo dira Aita Anton eta Aita Kosme...

Bestetan azkena izaten ba'da ere, oraingo onetan leenengo agertuko da fray Bartolo... Jesus —gurutz— iltzatuaren irudi-aurrean belauitatu da.

F. BAROLO.

—Ez nazu zoro baten gisa utzi bear Jesus... Eduardo'k ekartzen dizun ogia artu ta jatean dezunik ez dute siñistu nai nere anai auek... Nere irudipen bat izango zala esan zidan. Aita-nagusia'k ere.

Orregatik, Jesus, aiek etortzen diranean zuk ez ba'dezu bestetan egiten dezuna gaur egiten, zer pensatuko ote dute zure fray Bartolo gizajo onegatik... Egin gero, Jesus. Ez nazu zoro baten-gisa utzi bear...

Jaiki ta alboko ate baten ertzean geldituko da... Orain agertuko dira beste prailleak ere... Erdiak alboko ate baten ertzean geldiko dira, beste erdiak beste alboko atearen ertzean. Danen atzetik etorriko da Aita-nagusia.

A. NAGUSIA.

—Egia ba'da fray Bartolo'k esan ziguna, leku santu batean gaude... Itzal aundia zor diogu beraz leku oneri... Bildur naiz, ordea, ez ote zan dana gure fray Bartolo onaren irudipen bat...! Ba'dator Eduardo... Ez gaitezen ba gure itzkutuetatik moitu...

Beste prailleak dauden leku aietako batera joaten da Aita-nagusia ere... Eduardo sartzen da... Ogi-zati bat dakar eskuan, ardo-botella bat kolkoan. Basotxo bat ere ekarriko ba'lu obe... Mai-gañean utziko ditun ogi ta ardoa. Gero Jesus —gurutz— iltzatuarengana joan eta "umeki" onela itz egingo dio...

EDUARDO. —Ez dizut gaur ogia bakarrik ekarri ... Ardo botella bat zeukan fray Bartolo'k sukalde aldean eta ura ere ekarri egin dizut ... Zergatik ez zera gaur ogia jan eta ardoa edan bitartean ortik jeisten...

JESUS. —Ori nai al'zenduke Eduardo?

EDUARDO. —Bai orixe nai nuke... Ortara kontu geiago esango ditugu ta...

JESUS. —Ondo dago Eduardo... Jeitxiko naiz ba...

Gurutzetik jetxi ta mai-ondoan dagon eserlekuan exeriko da. Jesus... Ez da onegatik Eduardo arrituko... Begiak erten bearrean egongo dira beste prailleak... Ukalondoak maigañean, Jesus'en ondoan gelditu da Eduardo.

JESUS. Gauz-asko ekarri dizkiazu gaur... Izen berri bat ipiñi bearko dizut... Gaurtik aurrera "ogi ta ardo, Eduardo" izango dezu neretzat zure izena... Atsegin al'zaizu ogi ta ardo" izen au, Eduardo...?

EDUARDO. —Bai... (Arantzazko koroari ondo begiratu ondoren). Ta arantzazko koroia onek ez al'dizu miñik ematen...? Arpegi ta burua odolduak dauzkazu... Nork ipiñi zizun arantzazko koroia ori...?

JESUS. —"Ogi ta ardo Eduardo, ez al'nazu ezagutzen...? Ez al'dakitzu nor naizen ni...?"

EDUARDO. —Bai. Jesus zera zu...! (Arantzazko koroari begira). Koroia ori kenduko al'dizut Jesus...?

JESUS. —Bai, nai ba dezu, Eduardo... Bañan arantzaren batekin zulatu ez zaitezten kontu izan gero...

EDUARDO. —Ez naiz zulatuko, Jesus... (Kendu ta maigañean uzten du arantzazko koroia). Arantza aundiak dauzka gero... Nork ipiñi zizun koroia au...?

JESUS. —"Ogi ta ardo Eduardo", naiko al'zenduke nere bitzitzen berri jakin...?

EDUARDO. —Bai.

JESUS. —Ara ba Eduardo... Jaungoikoa naiz eta Zeruan nintzan ni... Gizon egin nai izan nuan gero ta Eguarri egun batean Belen'go estalpe batean jaio nintzan gau-erdian. Ogeta amar urte artean Nazaret'en bizi izan nintzan... Mirari asko egin nituan gero... Gai-xo asko sendatu ere bai, Bañan ba'ziran orduan ere gizon gaizto batzuek... Ta gizon gaizto auek preso egin ninduten bein... Zigorkada ikaragarri asko eman ere bai... Aiek ipiñi zidaten arantzazko koroia au... Gero gurutz ortan josi ninduten... An zegoan gurutz-pean negarrez nere ama, ere...

EDUARDO. —Zure ama... Izan al'dezu ba zuk amarik...?

JESUS. —Ez nuan ba izango... Zergatik galdetzen diazu ori, Eduardo.

EDUARDO. —Manuel'ek bakarrik zuala bere ama usten nuan nik...

JESUS. —Ez, Eduardo... Guztiok izaten degu gure ama...

EDUARDO. —Nik ere bai...?

JESUS. —Zuk ere bai Eduardo...!

EDUARDO. —Ta nun dago ba nere ama...?

JESUS. —An goian, izarrak baño gogorago... Ez al'dezu bein ere zure ama ori ikusi...?

EDUARDO. —Ez nik...

JESUS. —Ta ikusi nai al'zenduke... Eduardo?

EDUARDO. —Bai pozik, Jesus...

JESUS. —Ara ba "Ogi ta ardo Eduardo". Nerekin ain ona izan zeralako nik erakutsiko dizut zure ama, zuk ala nai ba'dezu. Ortarako ordea...

EDUARDO. —Zer...?  
 JESUS. —Lo egin bear dezu...  
 EDUARDO. —Ez daukat logurerik ordea...  
 JESUS. —Atoz nere altzora... Nere altzoan bear ba'da egingo dezu lo ta...

Belaun gañean artuko du Jesus'ek Eduardo.

JESUS. —Ta orain egin zure amarekin amets... Bai Eduardo, Zerua'n bizi da zure ama... Antxe arkituko dezue aingeruen artean. Zure zai dago... Zuri laztan bat eman naiean... Zoatz, ba, beregana "Ogi ta ardo zeran Eduardo".

Jeiki ta mai? gañean utziko du luze Jesus'ek Eduardo... Irripar goxo bat izango du Eduardo'k...

Arantzazko koroia buruan berriro ipiñi ta gurutzera igoko da Jesus...

Bere izkuetatik irtengo dira poliki prailleak eta Jesus —guruntz— iltzatuaren aurrean belaunikatuko dira praille guztiak...

Fray Bartolo bakarrik belaunikatuko da Eduardo illik dagoan maiaren aurrean... Negar ixilla dago Fray Bartolo'k... Praille guztiak belaunikatu ondoren laister agertuko dira Aita Anton eta Aita Kosme...

AITA ANTON. —Begira aita Kosme... Onela bukatu zan "Ogi ta ardo Eduardo"ren edesti miragarria...

ZAPIA

1955 - Epaila'ren 30'an.

## On-egitean dago zoriona

MATAGARRI-IPUI BATETIK SORTUTAKO  
 ANTREKITXOA

ANTZEZ-LAGUNAK:

ENEKO ... .. errege-umea  
 PERU ... .. Amaia-ren etxeko morroia  
 SORGIÑA  
 IRENE ... .. Amaia-ren etxeko mirabea  
 AMAIA ... .. errege-umea  
 MAITAGARRIA  
 ZUAITZA  
 LOREA  
 GARIA  
 SENDAGILLEA

OARRAK: Maitagarri-ipuietan agertu oi diran bezelako jantziak bear dira. Iruditegiak ere antzerkiak esaten duan bezelakoa izan bear du.

(Iruditegia irikitzen danean, ENEKO agertuko da iruditegi-erdian).



ENEKO.

—Jaun-andreak. Aro bi dira, kideko diran aroak: aurtzaroa ta zartzaroa... Zarrak ume biurtu oi dirala, entzun oi degu sarritan beintzat, eta. Orregaitik, ba gure antzerkitxo au, irudimenak jositako antzerkitxo au, umeentzako eta zarrentzako egindako antzerkitxoa degu... Ez gazteentzako egindako antzarkitxoa Beste gai batzuk maite bait dituzte gazteak. Ala ere, gaurkoz beintzat, barkatuko diguten ustean, ekin dezaiozun gure lanari...

(Gau! Ilarjiak argi egiten duan gau bat. Ikusleen eskubi-aldetik agertzen diran eskallera-malletara urreratu, ta txistua joko du ENEREO' k. Laister agertuko da, eskallerabera, PERU, jauregiko morria apaña).

Ta?

PERU.

—Berdin, Jauna.

ENEKO.

—Goibel?

PERU.

—Goibel, Jauna...

ENEKO.

—Ta zer dio sendagille jaunak?

PERU.

—Amaia'k ez duala gaitzik...

ENEKO.

—Gaitzik ez, eta zerk ematen dio, ba, ituntasun ori.

PERU.

—Orixe da sendagille jaunak asmatu nai lukeana, ta asmatu ezin duana...

ENEKO.

—Amaia... Amaia... Ez ote det nik berriro ikusiko...!

PERU.

—Ikusi, bai, jauna. Etxe-barruak ez diola mesederik egiten, eta etxetik-kanpora erten bear duala, agindu dio sendagilleak. Emen izango da, biar, beraz...

- ENEKO. —Bakarrik?
- PERU. —Bakarrik edo lagunen batekin. Ez dute bakarrik utzi naiko. Bakartasunak ez bait dio mesederik egiten.
- ENEKO. —Ondo dago, Peru, Ikusi, ikusita ere poz izango du nere biotz minberatu onek... Tori, Peru... ta erne, berriro ere, zure belarri ori, nere txixtuarentzat. Gabon, Peru.
- PERU. —Gabon, Jauna.  
(Eta ixil-ixillik izkutatuko da, berriro, eskallera-gora, PERU, morroia).
- ENEKO. —Nere zorigabea au! Nolakoa ote da, gaur, Amaia' ren arpegia, izar argiena baño argiagoa zan arpegi eder ura! Ez dute dizdirik egingo aren begiak... Illa egongo da, noski, aren españetako gorritasuna... Irriparre-goxorik ez da agertuko aren aotan... Amaia! Nik egitekoa ba'litz, edozer egingo nuke nik, zure barru ori alaitzearren...  
(SORGIÑA agertuko da, ikusle-eneskubi-aldetik eta zuaitz baten aurrean geldituko da tente).
- SORGIÑA. —Zuk egin leikezuna da, ba, Eneko...  
(Ezpata aterako du ENEKO'k).
- ENEKO. —Nor da emen, zeletan?
- SORGIÑA. —Iñor ez, zeletan. Gorde ezazu ezpata ori. Nik esan bear dizudana egiteko, ez dezu ezpatarik bear...
- ENEKO. —Nor zaitut, ba?
- SORGIÑA. —Nor naizen...? Ez dezu jakin bearrik. Zuri laguntzera etorri naiz.
- ENEKO. —Neri laguntzera?
- SORGIÑA. —Ez al'zenduke, ba, Amaia'ren barrua alaitu nai?
- ENEKO. —Ez nuke munduan besterik nai...

- SORGIÑA. —Nik dakit Amaia'ren barru ori alaitzeko bide bakarra.
- ENEKO. —Bai?
- SORGIÑA. —Bai.
- ENEKO. —Ta nor da bide ori?
- SORGIÑA. —Ibillaldi luze bat egin bear ko dezu ortarako.
- ENEKO. —Ez dio ajolik. Nora joan bear det...
- SORGIÑA. —Ñañarri mendira... Belar batzuek arkituko dituzu Ñañarri mendiko gurutz-pean. Egosi itzatzu belar oiek, eta belar oiekin egindako urak, orrek alaituko du, berriro, Amaia'ren barru-illuna... Zoatz, ba. Goizeko intzetan bildu bear dituzu belar oiek eta ...
- ENEKO. —Ñañarri mendira?
- SORGIÑA. —Ez al'dakizu arutzako biderik?
- ENEKO. —Ez, ez dakit, ba...
- SORGIÑA. —Zoatz, orko nere txabola ondora... Artu ezazu bertan dagoan bide-txurra ta ez dezu bide-galtzerik izango...
- ENEKO. —Eskarrik asko! Ba'noa laisterka. Ez det denborarik galdu nai ta...  
(Ta laisterka ertengo da ENEKO ikusleen ezker-alde-tik. ENEKO iruditegitik irtetzen dan bezein laister dundada bat (tiro bat) etzungo da).
- SORGIÑA. —Ja, ja, ja. Nerea zera Eneko... Nere morroi betirako. Ez zaitu gaurtik, iñork ezagutuko... Agure zaar baten itxura izango dezu gaurtik-aurrera. Agure zarpil. Ille zuri ta bizar zuria... Eskale antzeko agurea... Zenbat egur-karreto egin bear ote dituzu, Eneko. Ja, ja, ja. Zaldun izaki ta nere morroi izan bear gaurtik aurrera. Ja, ja, ja...

(Ta laisterka irlengo da ENEKO ikusleen ezker-alde-  
tik... PERU azalduko da Jauregiko eskalleratan-bera).

PERU. —Zer ziran algara oiek! Eta ez da iñor ageri! Eneko  
ote zan ba...? Eneko? Ez! Ez zan Eneko izango.  
Lentxuago eman dizkiodan berriekin, ez zitzaion al-  
gara egiteko gogorik geldituko... Ta nor ote zan, ba,  
Eneko ez izatera?

(IRENE agertuo da eskallera-buruan).

IRENE. —Zer ziran algara oiek, Peru?

PERU. —Nik ez dakit, Irene. Emen ez da iñor agiri...

IRENE. —Ez genduan, ba, amets egingo?

PERU. —Amets egin?

IRENE. —Emakume batek egindako algarak iruditu zaizkit ne-  
ri, algara oiek...

PERU. —Ez da, ba, emen emakumerik agiri, Irene. Goazen  
etxera Eguna ere laister degu ta...

(Eta PERU ta IRENE, eskallera-buruan izkututzen di-  
ranean, argi gorriak piztuko dira iruditegian. Zaar-ixu-  
ran agertuko da ENEKO, aizkora txiki bat getrian eta  
lokarri bat eskuan. Egurretara dijoa ENEKO. Eta iruditegi  
atzean izkutatuko da ikusleen eskubi-aldeetik. Jauregiko  
eskallera-buruan agertuko da AMAIA. IRENE datorkio  
atzetik lagun bezela. Errege-kumea degu AMAIA. Errege-  
kume bateri dagokion jazkera ekarriko du ba... Irudite-  
gierdiko zuaizaren aurrean dagoan eserleu batean eseri-  
ko de AMAIA. Ta AMAIA'ren alboan, IRENE).

IRENE. —Ipuiren bat irakurriko al'diot, Amaia?

AMAIA. —Ez, Irene! Ez det ipuietarako gogorik.

IRENE. —Sendagille jaunaren agindua betetzen ez ba'degu, or-  
dea, ez da, iñoiz ere, sendatuko.

AMAIA. —Nik ez det gaitzik, Irene... Barrua daukat nik illuna.  
Zoriontasun pixka bat nai nuke nik neretzat eta ez  
det zoriontasunik billatzen munduan. Illuna zait nere  
munduko biziera au...

IRENE. —Ez al'da, ba, aberats bizi?

AMAIA. —Aberastasunak, ordea, ez didate zoriontasunik ema-  
ten!

IRENE. —Ez al'dauka, ba, nai-guztia bere eskuetan?

AMAIA. —Nai guztia, ez, Irene! Poz-apur bat nai nuke nik ne-  
regan eta pozik ez det arkitzen neregan. Gogaketa  
illunez beterik daukat biotza, ta gogaketa illun oietan  
murgilduta bizi naiz... Zoatz, Irene. Denborea gal-  
tzea besterik ez dezu emen egingo ta... Izango dezu  
zer egiña etxean. Bakarrik naiago det nik. Zoatz,  
Irene...

(AMAIA'ren agindura joango da IRENE ta Jauregi-  
ko eskalleratan izkutatuko da. Gogaketa illunetan gel-  
dituko da Amaia. AMAIA'ren atzean AMAIA'k ikusiko ez  
duan eran agertuko dt SORGIÑA, ikusleen ezker-aldeko  
bazarrean...).

SORGIÑA. —Munduan ez dago zoriontasunik, Amaia. Alperrikoak  
izango dituzu Sendagille Jauna'ren aginduak. Zu ez  
zera zoriontsu izateko jaioa. Gazte batek azaldu izan  
zizun, iñoiz, maitasun apur bat. Maitasun orrek argi-  
tuko zizun, bear ba'da, zure biotz ori. Bañan aaztu zan  
zutaz Eneko... Beste batek entzungo ditu, bear ba'da  
gaur, aren maite-itzak. Zuretzako ez dago zoriontasu-  
nik, Amaia. Illun bizi zera ta illun ilko zera. Bai,  
Amaia. Illuna da zure etorkizuna...

(Eta agertu izan dan tokitik, izkutatuko da SOR-  
GIÑA...)

AMAIA. —Egia da, bai! Argi gabeko bizitza izango da nere bi-  
zitza. Maitasunik gabeko bizitza. Aaztu zan nitaz  
Eneko ere. Galdu ziran betirako neretzat aren maita-

sunezko itz gozoak. Eriotza bezin ituna izango da nere bizitza. Zoriontasunik ikusi gabe il bearko det. Zoriontasunik ez bait dago mundu onetan...

(Eta leen SORGIÑA bezela, agertuko da orain MAITAGARRIA ikusleen eskubi aldetik...)

MAITAGARRIA. —Ez, Amaia... Ez da egiazkoa zure gogaketa ori. Zoriontasun beterik ez ba'da ere, zoriontasun apur bat beti izan oi da munduan. Eta edozeinek izan lezake zoriontasun apur ori. Ez da askotan guretik urruti izaten. Billatu egin bear izaten da, ordea. Ta zu, ez zera zoriontasun orren billa saiatzen, Amaia. Zergaitik ez diozu izadiari galdetzen...?

(Eta agertu dan tokitik, izkutatuo da MAITAGARRIA ikusleen eskubi aldetik).

AMAIA. —Izadiari galdetu? Izadiari galdetu?

(Eta polii-poliki jeiki, ta poliki-poliki joango da iruditegi-atzeko errekarario. Makurtu, ta ur-pixka bat artuko du eskuan).

AMAIA. —Ona ur garbia duan errekatxoa. Gau ta egun kantari dijoan errekatxoa, Izadian ezerk zoriontasunik izatekotan, onetxek izan bear du, noski. Galdetu dezaio dan, ba. Esan zaidazu, errekatxo, ba al'dezu, zugar, zoriontasunik?

(Tente ez, balaun gañean jeikiko de ERREKATXOA)

ERREKATXOA. —Ez, Amaia, ez. Nere sor lekuan bizi bear ba'nu beti, orduan izango nintzake zoriontsu, noski. Orduan gordeko bai nituzke garbiak, nere urak. Bañan nere izatea zer dan, ondo dakizu zuk. Zoko batetik bestera, amilka, ibilli bearrean arkitzen naiz eta uri barrean sartzen naizenean, neretzako izaten dira uri artako zinkikeri guztiak. Eta an galtzen det nere garbitasuna. Ta zertarako aitatu nere azkena? Itxasoak irentsi-ta, iltzen naiz beti. Ez naiz, ba, zoriontsua, Amaia. Iza-

dian zoriontasunik ba'dago, sustrai sendoko zuaitz oietan izango da, noski. Galdetu zaiozu, ba, ementxen daukazun zuaitz lerden oneri...

(Eta bertan etzango da ERREKATXOA).

AMAIA.

—Zuaitz oneri? Zuaitz onek gordetzen ote du, ba, nik neretzako nai nuken zoriontasun ori?

(ZUAITZ ondora urbilduko da AMAIA).

Esan zaidazu zuaitz eder. Izadiak beregan gordetzen duan, eta errekatxoak beregan ez daukan zoriontasun ori, zuregan al'dezu zuk?

ZUAITZA.

—Ez zazu neregan zoriontasunik billatu, Amaia... Urte asko ditut eta lerden nago oraindik Egia da... Bañan Jaungoikoa'k bakarrik dakizki, nik igaro oi ditudan estutasunak. Oraindik urte asko ez dirala, zuaitzlagun asko nituan nik emen, nere inguruan. Bakarrik bizi naiz orain ia. Gizonaren aizkora ankerrak bota zituan nere lagunetako asko. Tximixtak erre zituan beste asko. Aizkora bat ikusten dedan bezein azkar, edo zerua goibeltzen asten dan bezein laister, dardar egiten didate sustraiak. Eta onenbeste bildur artean ezin, ba, zoriontsu bizi izan... Zoriontasunik arkitu nai ba'dezu, Amaia, ez zazu zuaitz-arteon billatu. Lore apain arteon arkituko dezu bear ba'da...

AMAIA.

—Lore arteon? Loreak ote dira, ba, Izadi'ko izaki zoriontsuak? Ba'ote da Izadia'n zoriontasunik? Lore-arteon izatekotan, lore onek izan bear du, noski. Ederra ta aundia bait da... Esaidazu, Lore, zoriontsua al'da zure bizitza?

LOREA.

—Ez, Amaia... Ez naiz Erreka ta Zuaiza baño zoriontsuagoa. Bestela usteko dute, bear ba'da, gizonak... Goiz-intzetan nere orriak zabaltzen ditudanean, ez det ximurrik agertzen arpegian. Ederra agertzen naiz eta usai ederra zabaltzen det inguruan. Auetxek dira

ordea nere pekatuak. Edozein emakume txoratzen da nerekin eta ni bere etxera eraman arteko pakerik ez du ark izaten. Bere etxera. Zertarako, ordea? Nere arpegian zimurrik txikiena agertzen dan bezein laister, zimaurretgi botatzen nau, batere errukirik gabe. Ta zimaurretgi batean il bear dedala jakitea, ez al' da naikoa zoriontasunik gabe bizi izateko? Ez naiz, ba, ni zoriontsua, Amaia... Ta gari-sail onetan zoriontasunik billatzen ez ba'zenu, ez dakit nik, nun billatu dezakezun, Amaia...

AMAIA. —Garian ez beintzat!

GARIA. —Zergaitik ez, ba, Amaia?

AMAIA. —Izadi'ko gauza guztietan, errukarriena, zu ikusten zaitudalako.

GARIA. —Ala uste al'zenu?

AMAIA. —Ala uste det, bai. Laister orituko dira zure galburuak eta itaitariak etorri ta laister ebakiko zaitue ondo-ondotik. Ale guztiak aske uzten ez dituzun artean, jo ta jo ibillio zaituzte gero. Errota-arriak ez dizute pakerik emango, auts biurtzen ez zaituen artean. Su-bizian erreko zaitue okiñak. Eta gazte ta zaar, beartsu ta aberatsen jaki biurtuko zera azkenean. Zorigaitzasko eramateko jaioa zera Garia. Zorigaitzasko...!

GARIA. —Eta ala ere zoriontsua naizela esango ba'nizu, Amaia...?

AMAIA. —Ez nizuke sinistuko...!

GARIA. —Zoriontsua naiz, ba, Amaia. Ta zuk esan dituzun gauza oiegatixek naiz zoriontsu. Egiak dira zuk esan dituzun gauza guzti oiek. Gazte ta zaar, beartsu ta aberatsen jaki biurtzen naiz, bai. Ta auxe da, izan ere, nere zoriontasunik aundiena. Ai, Amaia. Onelako zerbait egingo ba'zenu zuk ere, ez ziñake bizi zeran bezain illun, biziko. Lagun urkoari on egitean, or-

tantxe dago mundu onetako zoriontasunik aundiena. Onetxek egiten nau ni zoriontsu. Onela ez egiteak, egiten zaitu, zu, zorigabeko. Bai, Amaia...

(Besterik gabe ixilduko da GARIA. Oldozkor eseriko da, zuaiz-aurreko aulkian, AMAIA.)

AMAIA.

—Egia ote'da, ba... Ortan ote dago zoriontasuna? Lagun-urkoari on egiten ote dago, ba? Onela dio Garia'k. Eta arrigarria da! Garia'ren bizitza joko nuan nik, bizitzarik mingarriena bezela. Ta ala ere, zoriontsu dala aitortu dit, Garia'k, berak...

(Iruditegi atzetik agertuko da ENERO. Egur-sorta bat dakar bizkar-gañean. AMAIA dagoan tokira iristen danean, estroputz egin, eta muturrez aurrera eroriko da ENEKO.)

Ene!

(Jeiki ta ENEKO'rengana urreratuko da AMAIA. ENEKO'ren ondoan belaunikatu, ta ENEKO'ri lagundunaien ekingo dio AMAIA'k.)

.. Nor da au. Ez det nik ezagutzen. Zauritua dago. Arnasarik ere ez dauka. Il egin ote da gizajoa. Nun ote dabil Sendagille Jauna.

(Jeiki, ta Jauregi'ko eskalletara joango da, estu, AMAIA...)

Sendagille Jauna. Sendagille Jauna...

SENDAGILLEA. — (Barrutik). Zer zenu, Amaia.

AMAIA. —Gizon zaar batek min artu du, Jauna... Betor lenbaitleen. Il ote dan bildur naiz...

(ENEKO'rengana biurtuko da, estu ta larri, AMAIA, AMAIA'ren ondoren etorriko da SENDAGILLE jauna ere.)

Bizi al'da, Jauna?

SENDAGILLEA. —Bizi da, bai, Amaia. Oraindik bizi da, bañan ez luzaroko. Zaarra da, ta ez dira nolanaikoak artu dituan golpeak. Baña nor da bera?

AMAIA. —Ez det ezagutzen, Jauna. Bañan ez nuke iltzerik nai.

SENDAGILLEA. —Alegiñak egingo ditut, Amaia. Zauri batzuek dauzka emen eta zauri auek sendatzeko bear ditudan gauza bila nijoa etxeraño. Zaindu ezazu zuk, bitartean, Amaia...!

(Bitarte onetan aurreko itz oiek esaten ari dala daren-gaindik daraman soñeko-zaarra askatuko dio SENDAGILLEA'k ENERO'ri. Eneko jeikitzen danean, asierako jakerakin agertu bear du. Laurrean galditu bear du ba, ENEKO'ren soñeko zaarrak. SENDAGILLEA *Jauregi*'ra joaten danean, errukizko-muxu bat emango dio AMAIA'k ENEKO'ri eskuan. Maxu onek eraginda bezela, belaun baten gañean jeikiko da ENEKO ta esku biak luzatuko dizkio, tente jarriko dan AMAIA'ri. Esku bietatik elduko dio AMAIA'k).

ENEKO. —Amaia!

AMAIA. —Eneko!

ENEKO. —Zuri zor dizut mesede au, Amaia.

AMAIA. —Eta zuri zor dizut nik, nere zoriontasun au, Eneko. Orain bai dala zorionsua nere biotza. Goazen, Eneko.

(Eta eskutik elduta, eskuak goi-antzean, joango dira Jauregi'runtz AMAIA ta ENEKO. Iruditegi-atzean agertuko da MAITAGARRIA. AMAIA'ren eta ENEKO'ren atzetik etorriko da iruditegiko ao-arteraño. AMAIA ta ENEKO, Jauregi'ko eskalleratan izkutatzen diranean, onela itz egingo die MAITAGARRIA'k ikusleeri).

MAITAGARRIA. —Lagun-urkoari on-egitean, Jaun-andreak, ortan dago, bai, gizonaren zoriontasuna. Orixe egin zuan bere bizitza guztian Jesukristo gure Jaunak ere: ON EGIN. Eta on egiñaz igaro zituan ark bere bizitzako egunak...

(Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da MAITAGARRIA).

ZAPIA POLIKI-POLIKI

1958" garren urteko Epailla'ren 27'an

## Gabon - Gaua

ANTZEZLARIAK:

LAU AINGERUTXO

ISRRAEL.

YUDA.

RAKEL.

AINGERUA.

SATAN.

MIKEL GOIANGERUA.

SAN JOSE.

EUSKALDUN ETA JUDUTAR TALDEAK.

Gaua da... Gau izartsua...!

Belen-go zelai bat degu iruditegi.

Zapia jaso bezein-laister lau aingerutxo agertzen dira iruditegian. Bi, ikusleen eskui-aldetik eta ezker-aldetik beste bi.

Iruditegiko ao-bertan, eta ikusleeri begira, gelditzen dira lau aingerutxoak. Begiak bilduak dauzkate Apalpalik daude lauak, Garrantzi aundiko une bat baita...!

Jesus-en Jaiokundeko izarra pizten danean pixkanbat bat zearkatu, ta eskubiko eskuekin izar berria erakusten dute.

Goxoki abesten asten dira gero ..

AINGERUTXOAK. —Belen-en sortu zaigu Jainkoa,  
arratseko gau-erdian.  
Otzez dardaraz dago gaixoa  
lasto pixkaren gañean.  
Bero ahalez bero dezagun  
apa emanaz muxuan...

Eta doñu-bera aopean dutela, iruditegio  
atze-aldean izkutatzen dira lauak. Esbubi-alde-  
tik bi, ta ezker-aldetik beste biak.

Aingerutxoa izkutatu-ta laister, Isrrael ar-  
tzaia agertzen da iruditegian.

Ba-ditu urte batzuek artzai onek. Juduta-  
rra da ta judutar agertzen zaigu jazkeran ere,  
Ikusleen eskubi-aldetik agertzen da. Lorik ezin  
egin duala-ta, dator.

ISRRAEL.

—Bañan zer da gaurko gau au...! Zer gertatzen da,  
gaur, emen. Gau-illuna zan oraindik-orain. Ardiren  
bat galduko ote zitzaidan bildurrez, estu ta larri  
ibilli naiz nere artaldea artegiratzen... Illunak  
iges egin eta argiz daude baztar guztiak. Izar barri  
bat sortu zaigu zeru-goiean. Eguzkia bezein dizdi-  
ratsua dan izarra...! Izar arrigarria...! Orain-ar-  
te bein-ere azaldu izan ez dan izarra.

Zer dala-ta katiatu ote du gaur, zeru-goian,  
Goiko-Jaun aundiak izar berri ori...?

Ixil-unetxo bat egin ondoren.

Eta nun dira, oraindik-orain, abeslari ari ziran  
umeak? Ez dira ageri! Nun izkutatu ote dira,  
ba...? Amets egin ote det, ba, nik...? Ez det  
ametsik egin. Ez nau loak artu gau osoan...

Etixerik-etxe, ostatu billa, bart ikusi nituan senar-emazte aiek, galdu-erazi didate loa.

Sasoiko gizona zan bera. Bizarra beltza ta begiak urdin zituan gizona. Dabid erregearen jatorrikoa...!

Neskatxa gaztea zan oraindik aren emaztea Umilla ta apala. Emakume zoragarria. Inñori begiratzan ausartzen ez zan emakumea. Aurdun zan gafierra, gajoa...!

Nun sartu ote dira senar-emazte maitagarri aiek...? Nere txabola ez zan aientzaki diña...

Ikusleen ezker-aldetik, Yuda ta Rakel, senar emazteak agertzen dira orain iruditegian. Judutarrak ditugu auek ere. Isrrael-en kidekoak eta artzaiak Isrrael bezela.

- YUDA. —Pakea bekik, Isrrael laguna.
- ISRRRAEL. —Baita ik ere, Yuda...! (Rakel-i). Jaungoikoa-k onetsi zaitzala Rakel andrea.
- RAKEL. —Jaungoikoa-ren onespina dedilla zurekin ere, Isrrael.
- YUDA. —Zer dek au, Isrrael...? Gauaren erdian eguzkia, izar-irudian dizdiratsu...! Ume abestiak mendi ta ibarretan. Begiak ezin bildu. Lorik ezin artu...! Zer dek gaurko gau au, Isrrael...?
- ISRRRAEL. —Zer dek gaurko gau au, Yuda...?
- RAKEL. —Arrigarria zerbait. Inñoiz ikusi izan ez dan bezelako gaua. Sorginkeririk ez ba-litz, Mesias jaio dala, esango nuke nik...
- ISRRRAEL. —Mesias jaio dala...?
- RAKEL. —Bai, Isrrael...! Entzun, lagun... Oraindik-orain, larunbat-egun batean, Jerusalem-go sinagogan nintzan. Daniel igarlea zuan itzaldi-gai, Gamaliel apaizak. "Gertu gaitean, deadar zegin bere itzal-

dian apaizak, Laister izan bear du-ta gure artean Mesias-ek. Ortzian izarra jaiotzen dan bezela, jakoko da munduan ere, judutarren itxaropena..."

Isrrael...! Jaio da ortzian izarberri bat...! Nun jaio ote da, ba, Mesias gurea...?

Aingeru bat agertzen da bat-batean iruditegian. Ez da aingeru au, asieran agertu diran lau aingerutxo aietao bat. Aiek baño larriagoa da aingeru au.

#### AINGERUA.

—Belen-en...! Orra-or aren izarra...! Entzun judutarrak! Belen-go estalpe batean arkituko dezute Mesias, aurtxo jaio-berria...! Sasoiko gizona bere aita-ordezkoa. Bizarra beltza ta begi urdiñak dituan gizona. Dabid erregearen jatorrikoa bera...!

Neska gaztea orindik aren ama. Umilla ta apala. Emakume zoragarria. Inñori begiratzan ausartzen ez dan emakumea.

Zoazte, ba, Belen-era ta gurtu zazute aurtxo jaio-berria. Bera dezute, zuen artera, zerutik etorri zaizuten Mesias miragarria, Goiko-jaun aundiaren Seme bakarra. Entzun, ba, judutarrak...! Ez izan boitz-gogorrak...! Zuentzako bait-da aurtxo jaio-berriaren lenengo deia... Aintza zeru-goian Jaungoikoa-ri, ta pakea lurrean borondate oneko gizoneri...

Ikusleen ezker-aldetik izkututzen da Aingerua iruditegiko ao-aldean. Berri-ona zabaltzen ari da. Beste artzai batzueri berri-ona zabaltzera dijoa, ba.

Arri-arri egongo dira Isrrael, Yuda ta Rakel, Aingerua izkutu-arte guztian.

Isrrael-ek ausiko du gero artzai auen ixilaldia.

#### ISRRRAEL.

—(Poz-pozik) Eurak dituk, Yuda. Nik bart-arratsean, ostatu-eske, ikusi nizkian senar-emazteak. Bai, Rakel. Aingeruak esan dizkigunak dira, bart-arratsaldeko, nere senar-emazteak. Bizar beltza ta begi ur-



diñekoa bata, umilla ta apala bestea. Aurdun ze-  
goan gañera emazte gaztea.

Ai, Yuda...! Nik ori jakin izan ba-nu, nere  
txabolan jaioko uan, bai, Mesias gurea.

YUDA. —Ea, Israel...! Alperrikoa dek ire oraingo jarduna. Jaioa dek gure Mesias. Belen-go estalpe batean jaioa. Joan gaitezen, ba, lenbaitlen, Rakel.. Gurtu dezagun lenbaitlen, jaio dan, gure Mesias ori...

ISRRAEL. —Goazen, ba, lenbaitlen, Rakel!

RAKEL. —Esku-utsik joango ote gera, ba...? Ez, Israel. Gure artaldeko ardirik onenaren billa noa ni...! Lais-ter izango naiz berriro emen...!

ISRRAEL. —Ez, Rakel...! Ez dezu joan-bearrik! Nik ekarriko ditut nere artaldetik ardi bi. Zuen-izenean eskeintzeko bat, eta nere izenean bestea. Zuena baño gertuago bait-dago nere artaldea.

Ikusleen eskubi-alde-  
tik izkutatu da Israel.

RAKEL. —Esan dizut nik leen ere, Yuda. Sorginkeririk munduan ez ba-da beintzat, Mesias jaioa izango genduala. Au gaua! Ori izar ederra...! Aundia da benetan, Yuda, judutarren Jainkoa...!

YUDA. —Aundia da bai, Rakel, gure Goiko-Jauna!

RAKEL. —Eta aundia gure gaurko zoriona ere!

YUDA. —Bai, Rakel! Abraan, Isak eta Jacob-ek izan ez zuten bezelako zoriona. Gure Igarleak, ere, ez zuten ikusi gaurko gau onen zoramena. Zorionekoak gera, ba, gu, Rakel...!

Esku-banatan ardi bat, agertuko da Israel iruditegian.

ISRRAEL. —Auetxek dituk, Yuda, nere artaldeko ardirik ederrinak. Artu ezak ba, bat ik, eta goazemak lenbaitlen Belen-era. Goazen, Rakel. Belen-en sortu baitzaigu Mesias gure laguna. Gurtu dezagun, ba. Be-

ra bait-da Jaungoikoa-k judutarrei ematen digun salbatzallea.

Ardia bizkarrean artu-ta, ikusleen eskubi-alde-  
tik izkutatu dira. Iruditegi-atzean, Israel. Yuda ta Rael.

Iru auk izkutatu bezein laister, Aingerua azalduko da berriro iruditegian.

Iruditegi-erdian geldituko da Aingerua. ta bertatik erakutsiko die, bere ondoren datozen judutarrei Belenerako bidea.

Judutar-mordoxka dator: bi gizon bi emakume, neska-koxkor eta mutil-koxkor bat. Ez datoz esku-utsik.

Ikusleen ezker-alde-  
tik izkutatu dira judutar auk iruditegi-atzean.

Berri-ona zabaltzera dijoa berriro, ere Aingerua.

Eta judutar-mordoxka, iruditegi-atzean ikutatzen dan bezein laister, iruditegiko aoran izkutatu da Aingerua ere, ikusleen eskubi-alde-  
tik.

Iñor ikusiko ote duan bildurrez, azaltzen da iruditegian Satan. Ikusleen ezker-alde-  
tik egingo du onek bere agerpena.

Aingerua-k eraman duan bideari, ondo begiratu ondoren, gezurrezko irripar bat ezpañetan ekingo dio izketan Santa-ek.

SATAN.

—Alperrik dabil...! Ustelduak dituzte judutarrak beren biotzak. Jesus jaioa da, bai. bañan bai Judas ere...! Ta Judas-en biotzean, nik erain dedan aziak, emango du, bai, egunen batean bere arnaria. Golgota mendi...! Nere mendi maitea! Mendi ortan, eta lapur biren erdian, gurutziltzatuko dute egun batean, gaur gurtzen duten aurtxo jaio-berria. Ez naute, ba, judutarrak bildurtzen. Ez...! Erri bakar bateri diot bildur. Aitz-artean bizi dan erri bati: Euskal-erria-ri...! Ez al-da erri ori Belengo estalpera etorriko...! Euskal-erria kristau egiten ba-da, kristau iraungo dute beti euskaldunak...!

Bañan ez...! Ez dira euskaldunak, emen agertuko...! Nik geleraziko diet... Ba-det ainbeste almen...! Emen dek berriro ere Aingerua. Judutar-mordoxka zekarrek orain, ere, bere ondoren. Alperrik zebillek ordea. Ba-zekiat nik, ere, zer egin.

Izkutau nadin emen, ori igaro artean...

Ikusleen ezker-aldean izkutatuko da Satan.

Ikusleen eskubi-aldean agertuko da Aingerua. Judutar-mordoxka dakar, orain ere, bere atzeta Iruditegi-erditik erakutsiko die judutar aueri ere, Belen-erako bidea.

Ikusleen eskubi-aldean izkutatuko dira judutar auk iruditegi-atzean.

Judutar auen ondoren, Aingerua, ere, izkutatu egingo da.

Satan degu berriro iruditegian.

SATAN.

— (Bere buruari izketan). Joan dituk judutarrak, Satan! Orain dek, ba, ire almen ori azaltzeko ordua. Zertan ago, Satan...! Egon adi lo, ta laister ikusiko dituk, emen, euskaldunak.

Zer dagik...? Oa lenbaitlen Euskal-erri-ra. Bete itzak elurrez mendi ta ibarrak. Izkutatu itzak, elurpean, Euskal-erri-ko mendi-bideak. Laister dituk bestela Belen-aldean euskaldunak...! Ea, motell. Oa lenbaitlen Euskal erri-ra...!

Iruditegi-atzean agertuko da, bat-batean. Mikel Goiaingerua. Euskal-erri-ko eliz-irudietan agertzen dan jantzi berdiñakin, agertuko da emen ere, Mikel Deuna: gona motz, kapel berezia buruan eta azta-makilla edo ezpata eskuan.

Lurrari josita bezela, geldituko da Satan. Mikel Goiaingeruaren abotsa entzuten duan bezein laister...

MIKEL G.

—Berandu abil, Satan...! Nere erri eman zidak Jaungoikoak Euskal-erri... Aralar mendia aukera-

tu diat nere bizileku... Nereak dituk, ba, euskaldunak.

Gogoan al-dek, Satan, zeruko egun ura...! Biok burrukan egin genikan egun ura...? Nere mendeko izan intzan egun artan. Nere oinpean egon bear izan uan, eta egon bearko dek...! Ator onuntz...!

Mikel Goiaingeruak agintzen dion guztia, egingo du Satan-ek.

Etzan adi lurrean...;

Satan-en gorputz-gaiñean ipintzen ditu Mikel Deuna-k bere oiña ta bere aztamakillaren muturra.

Onelaxe bear dek ik beti, Satan...!

Mikel Deunak-k euskalduneri egiten dien deia da dei au.

Entzun euskaldunak, Mikel Goiaingeruak egiten dizuten, dei au...! Belen-en jaio zaizute Jaungoikoa, Jaso, ba, zerura zuen begiak eta, izarra gidari, atozte lenbaitlen Belen-aldera. Maite zaituzte Jaungoikoa-k. Zuen zai dezute Belen'go aurtxo jaio berria.

Ez bildurtu euskaldunak...! Etxerakoan, ni izango nauzute zuen bide-lagun. Euskaldunen Zaindari egin bait-nau Jaungoikoa-k, eta Aralar-mendian bizi nai det beti, zuen artean.

Satan-i.

Santan...! Entzun dek nere deadarra... Lais-ter dituk emen euskaldunak... Oa, ba, emendik, ez daukak, emen, zer-egiñik-eta. Kristau-egiñik biur-tuko dituk euskaldunak Euskal-erri-ra. Gaurik zo-ragarriena izango dek euskaldunentzat, gaurtik-aurrera, gaurko gau au...! Ireak egindik, ba... Oa lenbaitlen, Satan.

Burua makur, ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko da Satan iruditegi-aoan.

Ikusleen eskubi-aldeetik azalduko dira euskaldunak, iruditegi-aoan. Gizon eta emakume, gazte ta zaar, danetakoak datoz. Euskaldun-jazkera jatorrez jantziak datoz danak, Ez datoz, auek ere, esku-utsik.

Mikel Goiaingeruaren eskubi-aldean geldituko dira erdiak. Eta Mikel Goiaingeruaren ezker-aldean beste erdiak.

Lau mutil-koxkor egongo dira lenengo dauden euskaldunen artean.

Goitik-beraño bide zabal bat izan bear du iruditegi-erdian.

Euskaldun guztiak, beren tokietan jartzen diranean, guztien-buru jarriko da Mikel Goiaingerua, ikusleen eskubi-aldean.

MIKEL G.

—Kendu zuen txapelak eta balaunikatu zaitezte euskaldun maiteok. Oraintxen azalduko da zuen aurrean, aurtxo egin zaigun, Jaungoikoa-ren Semea...!

Euskaldunak belaunikatzen diranean, irikiko da poliki-poliki iruditegi-atzeko zapia, "Naximentu" bat azalduko da orduan iruditegi-atzean.

Erdi-erdian Belen-go estalpea azalduko da. Estalpeertzean zutik. San Jose. Estalpe-alboan, su egiten, asierako lau aingerutxoak. Or emen, sakabanatuta, "naximentuetan", oi-danez, Israel, Yuda. Rakel eta beste judutar guztiak, Irukote baten aurrean, zutik Aingerua. "Naximentu" bateko irudiak dira, ba, guzti auek, Ez dute ba zergatik mogitu...

MIKEL G.

— (San Jose-ri). Ona-emen, Jose, belauniko Euskal-erri asoa, Mari-gandik sortu zaigun aurtxo-Jaungoikoa, gurtzera etorriak dituzu, Gaurko gau au, beti izango da ospatua Euskal-erria-n. Jesus Aurtxoa-ren lagunak izango dituzu beti euskaldunak, Aralar mendia bezein trinko, izango da euskaldunen sinismena, Ez da, Euskal-erria-n, gurutz-gabe-ko mendirik izango...!

SAN JOSE.

—Entzun, Mikel...! Ezin-da ederragoak izan dira zure itzak. Euskal-erria emen, belaunikaturik ikustea, pozgarria da guretzat. Kristau izango dira, bai, euskaldunak, zu euskaldunen Zaindari zeran artea. Eta zure zaindaritzak, Aralar mendiak iraungo duan artean, iraungo du.

Zorionekoa ba zu, Mikel.

Eta entzun zuek, ere, euskaldunok...! Gau onen eroigarri, ba-det nik zuentzako opari bat, Belen-go estalpe zaar onen oroigarri bat. Gabon gau au oroi-eraziko dizuten opari bat. Emen ikusten dezuten "naximentu" onen antzeko "naximentu" bat.

Atozte, ba, zuek, lau mutiko oiek...

Lau mutikoak jeiki ta San Jose-rengana joango dira.

Tori nere oparia.

Gabon-gauean gure mutikoak etxerik-etxe erabilli oi-duten bezelako "Naximentu" bat ematen die San Jose-k.

"Naximentu" onek, iruditegian agiri dan naximentuaren antzekoa, izan bear du, al-izatera beintzat. Argi ta guzti ba-lego, obe. Onela obeki oartuko dira ikusleak, naximentu biak antzeko ikusi-ta.

Eta naximentu au lagun, ospatu zazute zuek ere, urtero Euskal-erria-n, GABON GAUA. Agur, ba, euskaldunek...!

Eta beste irudiak bezein geldi, geldituko da San Jose ere.

Lau mutikoak, naximentua eskuetan, lenengo euskaldunetara irixten diran bezein laister, itxiko da berrero, poliki-poliki, asieran itxirik zegoan zapia.

Iruditegiko aoraño etorriko dira lau mutikoak, beren naximentua eskuetan dutela.

Naximentuaren atzetik etorriko da Mikel  
Goiaingerua ere.

Ikusleeri-begira gelditu bear dute euskal-  
dun guztiak ere. Naximentua nor-beraren on-  
dotik igarotzen danean, biurtu egingo da ba-  
koitza ortarako.

MIKEL G.

—GABON GAUA degu gaurko gau au, euskaldu-  
nok, Jesus Belenen jaio dan gaua, Zabaldu deza-  
gun ba, etxerik etxe, jaiotz onen berria. Gaur egin  
zaigula gizon gure Jaungoikoa, Euskal-erri guz-  
tiak jakin bear du.

Aintza zeru-goian Jangoikoa-ri ta pakea lu-  
rrean borondate oneko gizoneri, abesten ari dira  
aingerutxoak Belen-en. Abestu dezagun berdin  
euskaldunok emen, Euskalerrian-n ere... Ekin. ba,  
euskaldunok...!

EUSKALDUNAK. (Abestuaz)

"Mesias sarritan  
agindu zana,  
aingeru artean  
dator gugana.  
Gloria zeruan,  
pakea emen,  
kantari aingeruak  
dabiltz Belen-en.

ZAPIA POLIKI-POLIKI

1945.

## VIII. ORIGARRI

OROIGARRI...!

Oroitzen al-zera D. Manuel...?

1935-garren urtea zan. Apaizgaitegiko irakasle zifian zu Gazteix-en, eta zure kardaberaztarrak gu.

Apaizgaitegiko mixio-akademi batek sariketa bat eratu zuan. Eta besteak beste, mixio-lauki bat, (un cuadro misional), zan gaietako bat. Eta norberaren eskuan zegoan, lantxo au euskeran ala erderaz egin.

Gu kardaberaztarrok, euskera-zale burukatuak gifian orduan, zuri esker. Eta euskeraz egiten genituan, zillegi zitzaizigun, lantxo guztiak.

Ez ziran asko, gure euskerazko-lantxo auek onartzen zituzten, irakasleak Bi izendatuko nituzke nik gure filosofi-ikastaroan: On jose Migel Barandiaran eta On Juan Talamas. Eta ezin galduko genduan mixio-akademi orrek ematen zigun zoria.

Eta nork esan...? Olerkari sentitu nintzan, eta itz-neurtuetan egin nuan nere lantxoa.

E ngiz bein-ere ausartia izan, eta ez nintzan orduan ere. Ta gaur Gipuzkoako kardaberaztarren lendakaria dan, nere lengusu Anastasio Arrinda-ri bialdu nion nere lana. Ta onek, neri ezer esan-gabe, sartu zuan sariketan.

Eta egun batez, nik ez dakit zein egun izango zan, sariketa ortan irabazle izan ziranen izenak, eman zituten apaizgaitegiko areto nagusian. Eta an eman zuten, irabazle-artean, nere izena ere. Egia esan, ni-neroni gelditu nintzan arri tuen...!

Bañan ez ziran ortan gauzak amaitu...!

Antzeztu egin bear zala nere lantxo ura, esan zidaten andik-laister.

Aundia izan zan orduko nere estuasuna: aundia nere lotsa. Ta, zuk ere nere-alde egingo zenduan usteetan, zure gelara joan nintzan estu ta larri...! Ez alpe-rrik...! Zuk ere "baietz", esan zidazun.

Eta urte artan bertan, Abenduaren I-gean, Xabier-ko Franzisko-ri egin zitzaion jaialdi batean, antzeztua izan zan nere lantxo ura.

Gerrateak moztuko zituan, gerò, gure amets guztiak. Uraxe izango zan ba gure Bazkunaren azken-ekintza.

Orregatik izan zait ain maite, beti lantxo au. Ta orregatik gorde izan det beti, ain maiteki, ere.

Ondo dakit nik-neronek, nere lantxo onen ez duala ifungo-baliorik literatura-aldetik. Bañan ba-dira literaturak onartzen ez dituan beste balio batzuek. ere.

Eta ena, zergatik agertu nai izan dedan eman: Zure omenez D. Manuel Antzeztu zuten nere legun aien omenez. Eta auxe izan zilako, nik euskeraz egin nuan, nere lenengo lantxo.

## Ni ez, ba, Kristarra...!

|                    |  |
|--------------------|--|
| ASTI-ZAARRA ... .. | Ramon Narbaiza.  |
| BERRIOTXOA ... ..  | Andoni Baztarretxea.   |
| MIXIOLARIA ... ..  | Jose Luis Ansorena.  |
| BIDAZTIAK ... ..   | Joxe Mari Zamora.<br>Alejandro Mendizabal.                                       |
| MORROIAK ... ..    | Serafin Esnaola.<br>Marcelo Gangoiti.<br>Antonio Oyarzabal.<br>Jose Gandiaga.    |
| UMEAK ... ..       | Dotriñakoak.   |
| ERRIA ... ..       | Antonio Arteta.<br>Jose Sotero Agirre.<br>Ricardo Sarriortuzar.<br>Juan Arocena. |

IRUDITEGIA: Zelaitxo bat.  
Azti-txabola zelai-erdian.  
Errirako bidea baso-zear.

I

*Aztia*

Tanbor-otsa lenengo.  
Txabolatik irten, eta asarre bizian ekingo  
dio...

AZTIA-K

Alperrikoak otoitz luzeak  
barau larriak, tanbor soñuak...

Alperrikoak...!

Ene erriak.

utzi bait-ditu jainkoak...!

Alperrikoak, bai, zoritxarrez...!

Sarritan ditut jainkoak negarrez...!

Negar jainkoak,

otoitz aztiak...

Erria bete zaigu kistarrez...!

Jainko nereak, zuen kemena,  
noizko dezute...?

Mixiolari...? Orra nun dagon.

Bildur zerate...?

Nik...? Nik, ai, ez...! Ez det indarririk...!

Jainko maiteok...! Mixiolari...

ezin, aaa, ezin

gaur il nik bakarrik...!

Txabolan izkutatzen da aztia.

II

*Mixiolari ta umeak*

MIXIOLARIA-K

Erreka-ondoan lorea  
mardulik jaio oi da beti...!

Mixio-loreak nola ez...?  
odola izanik edari...?

Azkenengoz,  
oraintxe ogei urteak,  
enetxoak,  
Balendin Berriotxoak  
odolez ase zituan...

Azti-zaarak...

UME BATEK

Azti-zaar onek, aita...?

MIXIOLARIA-K

Bai maiteok.  
Azti zaar onetxek  
gaurko egunez il zuan.

Gaur emen bertan, laztanok,  
kristau-ikasbide ederra  
ikas dagigun gartsuki  
Jainkoak nai duan era.

Aitaren ta Semearen  
ta Ispiritu Santuaren  
izenean. Amen.

Tanbor-ots bizia azti-txabolan.

UME BATEK

Nik ez det egon nai emen...!

MIXIOLARIA-K

Ez dezute ikasi nai  
Jesus-en otoiz jatorra:  
Aita, barkatu gure zorra,  
guk ere gure zordunai  
barkatzen diogunez...

Txabol-barrutik amorruez...

AZTIA-K

Beti berdin gau ta egunez...!

Zergatik, jainkoak,  
Deabru Gorria-k  
ez ditu txautu bear  
mixiolariak...!

MIXIOLARIA-K

Zergatik au, Yosu maite,  
jaun erruki-bera,  
ez dezu ekarri bear  
zure artaldera  
arditxo galdu gaixoa...

AZTIA-K

Il zazute, ene jainkoak...!

Nik...? Nik ezin il...!

Zuek il eta odola  
gogoz edango nik...!

UME BATEAK

Goazen, aita, bildur naiz...

MIXIOLARIA-K

Noren bildur, maite...?

Goazen bai, txikiok,  
etxera zaitezte...

Bijoaz.

### III

#### *Aztia ta Bidazti bat*

AZTIA-K

Mixiolari, gezur kontari,  
gogo-lapurrak, lapur alenak...!  
Zuek ondatu nere kemenak...!

Orain urteak ez nintzan bizi,  
orain bezela, negarrez beti  
bakardadean...!

Bide betean  
etortzen zitzaizkidan lagunak...!

Aiek egunak...!

Aiek urteak

jainko nereak...!

Nor zan orduan nere berdiñik...?

Morroi nituan orduan danak...!

Erriko jaunik aberatsenak  
ba-ziran atadian igaiten...



BIDAZTI BATEAK

Azti jakintsu,  
agur dagizut,

AZTIA-K

zidaten neri makur esaten...!

Ogei urtetik onuntz orea,  
nere gaxoa,  
gorde zitzaidan, ondo gordea  
nere izarra...!

Berriotxoa...!

a...! gaiztitzarra,  
zuk itzali dezu nere izarra...!

Ez zait aztutzen...!

Zelaitxo ontan, txabol-ondoan  
txistua jo-ta, nere alboan  
azkarki nitun, erri agindun  
lau gizon sendo.

Batek sartzean...

Txistua jo ta ager bitez lau gizonak.

#### IV

##### *Aztia ta Morroiak*

Datorrena irudi bat besterik ez dala, argiekin-edo adierazi.

MORROI BATEK

Agingu Azti. Zure mendean  
gauzkatzu beti...!  
Agindu Azti...!

AZTIA-K

gudari antzo,  
burua arro...!

Zoazte, ta azkar,  
buru-belarri,  
ekar zazute  
mixiolari...

MARROI BATEK

Ementxe bertan  
bazkal-ondoan  
illotzik nai det  
ikus alboan...

Azti jakintsu,  
zure esanak  
laister dituzu  
egiñik danak...!

Bijoaz morroiak.

#### V

##### *Aztia ta morroi bat*

AZTIA-K

Laister ziraden gorde basoan.  
Aizt-otsik etzan, etzan oin-otsik  
emen aldean.

Etxe aurrean  
paketsu dana, pake-pakean.

Txoriak alai zugaitz-buruan,  
sugeak, orde, belar artean  
txistuka pozik,

egarrik-illik  
leoi zantarra baso-bidean.

Ni ere ala, odol-egarriz  
etxe-atean.

Noizbait ordea, katez loturik  
ortxe dakarte mixiolari...!

Morroi batek.

MORROI BATEK

Kartzel-barnean  
otoitz lanean  
arkitu degu, Azti gurea...

Erria ere gure atzetik  
ementxe dezu laister jarraiki...

AZTIA-K

Ekar zazute. Zelai onetan  
egingo degu, erriz batera,  
festa gurea, danok alaiki...!  
Bijoa morroia.

VI

*Aztia, Berriotxoa, Morroiak eta Erria*

Sartzean bizi-bizi...

BERRIOTXOA-K

Gizon ospetsu jakin-zaleak  
Bizkaia-k beti izan ditu;  
donerik orde, deundegietan  
bizkaitarrik ez arkitu...  
Bizkai maitea...! Jaiot-erria...!  
Ene guraso, lagunak...!  
Done bat nai-ta bera martiri  
emango laister Goi-Jaunak.  
Gurutzari.

Yosu nigatik  
gututz orren besoetatik  
zaude zintzilik.

Ai. Nor legoken beste batean  
zugatik illik...!

ERRIA-K

Illa dedilla mixiolari...!  
Moztu lepoa bizkaitarrari...!

BERRIOTXOA-K

Argi-gabeko illun itxuan,  
itxu zebillan erria.  
Yosu etorri, ezagutu ez,  
Aitaren Argi bizia.

Abesti bat ao-itxiz. Aingeruak ikusiko ba-  
litu bezela.

Bañan zer da au...?  
Ene txikiok  
zenbat zerate...?

Bat... Amar... Ogei  
Eun... Berreun... Milla...

Nere zai ote...?  
Laister naz ortxe...!

AZTIA-K

Laister illotzik etzango aute...!  
Or gaiztotzarra  
ikusiko dek nere sugarra...!

Nun da ezpata...? Zertan zaudete...?

Ezpata dantzatuaz agertuko da morroia.

BARRIOTXOA-K

Agur Bizkaia, Bizkai nerea,  
ene guraso, lagunak...  
Tunkindar onak, agur biotzez,  
agur semetxo kutunak...!

Ezpatakin lepoan jo, ta illotzik utziko du  
marroiak Berriotxoa.

AZTIA-K

etzuan beste itzik esan.  
Bertan zetzan...!

Ixil-aldia.  
Gorputza basora baztartzeko agindua  
emango du Aztia-k. Erria ere gorputzaren atze-  
tik joango da.  
Bukatu da irudia. Argi-bidez edo adierazi.

VII

*Aztia, Bidaztia ta Mixiolaria*

AZTIA-K

Jainkoen lorak, gorri-odolez  
laister ziran asetu...!  
Gorputza barriz, nere aginduz  
basora zuten baztartu...  
Erria gorputz-atzetik  
basoan izkutatu...!

Lurrean datza ogei urtean...

Ixil-alditxoa.

Ogei urtetik onuntz, ordea,  
nere goxoa...!

gorde zitzaidan, ondo gordea  
nere izarra...!

Berriotxoa...!

a...! gaiztotzarra...!

Ik itzali dek nere izarra...!

Goroztik,

ondo aztu itukan,

atadi ontan,

bidaztien itzal-agurrak...!

Geroztik

ez dek entzuten

otoitza baizik

emen...!

BIDAZTIAK

Agur Balendin done...!

Agur Zerura arte...!

AZTIA-K

Goiz-illuntzetan

emen dek beti,

otoitz-lanetan

mixiolari...

aaa...!

Etxera nadin

ene begiz

ikus ez dezan

deabru ori...!

Bijoa txabolara.

MIXIOLARIA-K

Gogo-egarriz Yosu

ardi galdua nai...

Nik pozikan emango

Egon Yosu lasai...

Barrutik.

AZTIA-K

Ardi galdua

Aztia ba-da...

Alperrik...!

Ni ez kistarra...!

MIXIOLARIA-K

Gogo-egarriz, Yosu,

ardi galdua nai...

Nik pozikan emango...

Egon, Yosu, lasai...

Mixiolaria otoitz egiten asten danean abesti bat entzungo da xe-xe. Abestiz batera ZAPIA poliki-poliki...

1935.

## KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan,  
Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean  
b) Kristau-pentsakera barruan (ezi  
zabala) lan egiteko.

*Bazkideak* (gizon ala emakume) milla pta.  
ordainduko dute sarrerako ta beste mi-  
lla urtero. Diru oiekin ateratzen da  
KARDABERAZ BILDUMA, bazki-  
deentzako ezean.

*Arpidedunak* (bazkide nai ez dutenak) li-  
buruak artzera beartzen dituzte beuren  
buruak.

Bazkide nai arpidedun egiteko nora jo?  
Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Donostian: Pedro Berrondo, c/ S. Martín,  
57, etrlo.

Bilbon: José Antonio Retolaza, "Kili-Kili"  
c/ Orueta, 1-3.º dcha. (Bilbao-9).

Gazteizen: José Zunzunegui, Seminario  
Diocesano.

Amorebietan: S. Onaindia, Larrea.

Tolosan: Juan José Garmendia, Técnicas  
de Difusión, c/ S. Francisco, 1.



Lazkautarra degu Albisu ta Ayerdi'tar Anastasio. 1915'garrengo Epaila'ren 27'an jaio zan, eta 1927'garrengo urtean joan zan Saturrararen'go apaizgaitegira.

Gazteiz'en egin zituan bere filosofi-ikastaroak, eta ordukoa du euskeraz idazteko bere zaletasuna ere. Ta Kardaberaz-Bazkun barruan, beste bazkun berezi bat sortu zuten zenbait lagunak. Eta autxek ziran Gazteiz'ko apaizgaitegian KARDABERAZ aldizkaria argitaratzen zutenak ere.

Garai ontakoa (1935), du bere lenengo saria ere. Apaizgaitegian izan zan txapelketa batean, itz-neurtuz egindako NI EZ KRISTARRA antzerkitxoagatik eman zioten sari au.

Gerrateak ausi zizkion, ordea, beste askori bezela, idaz-lan oietarako bideak. Ala ere, ez zion idazteari erabat utzi, ta, argitaratzerik izan ez arren ordukoak ditu bere antzerkietako batzuek.

Ba dira auen artean betirako galduak ere ta argirik ikusiko ez duten beste lan batzuek ere. Auxe izan bait-zan garai artako euskal-idazleen zorigaitza...!

Geroko batean asi ziran lenengo euskal-aldizkariak, Zeruko Argia, Egan, Karmel, eta baita euskal-idazle arteko txapelketak ere. Eta nola ez! Aldizkari ta txapelketa oietara bialdu zituan bere lantxoetako batzuek. Eta 1954'garren urtean bigarren saria eman zioten Zarautz'en. Lenengoa Arantzazu'n 1956'garren urtean. Eta oorezko aipamena, 1967'garren urtean Gerediaga'k eratu zuan KIRIKIÑO sariketan.

"Sustraitz" zan orduan erabiltzen zuan izen-ordeko.

Eta auxe dio Auñamendi'k argitaratu duan LITERATURA izeneko irugarren alean: El teatro (de la postguerra) se sigue publicando por lo general en revistas como las comedias de Sustraitz, (On egitean... "Egan"), Zubikarai (45 años) (Jaunaren bidetan... "Egan"), Mithun (Izar buztan luzea. "G. H.").

KARDABERAZ-BAZKUNAK ez ditu zokoan utzi nai izan idazle-jator auen idazkiak. Ez dute bear bada, gaurkotasun aundirik izango, bañan garai beltz bateko aitormen diranik, ezin ukatu.

Au dezu ba, irakurle, Albisu ta Ayerdi'tar Anastasio'ren lenengo alea. Ta J. l., laister azalduko da, antzerkiak osatuko duten, bere bigarren alea ere.

